



bederatzi
gau
luze

Benjamin
Aurrekoetxea
Olabarri

 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

BENJAMIN AURREKOETXEA OLABARRI

bederatzi gau luze

Esker mila Olatzi,
badiaren babesean,
portu aldeko zazpi balkoiak gogoratuz.

Oslo osteguneko goiza, udaberriko lehenengo eguna izateko, ezohikoa zen; sargoria; hezetasun handiak eta airerik bako beroak sorrarazitako sentsazioa. Egunak etorriak ziren bata bestearen atzetik berdintsu, eta sasoirako hain eguraldi gogaikarriak ematen zuen neurritz gaindiko zamaz kargatzen zuela hiritarren lepoa, astun bihurtuz bertakoen egunerokoa.

Minnedammen auzunetik hegoaldera begira ikusten zen dorretxearen aurrealdeko aldapan, Kildehoddet, iturburu deituriko aldean, hiri osoan gelditzen zen baserritar bakarra erdi kantuan zebilen kodainaren erritmo alaian belar moztu berde latz bihurtuarekin azpelak egiten. Itxuraz ezelango ardura barik zebilela ematen zuen, inguruan gertatzen zenaz ohartu gabe bezala- edo. Alboan, astoa, apareju eta guzti, estrata gaineko sasi kimuak jaten. Antzinako erretratu zuri beltza ematen zuen, malenkoniak urratua, nolabait denborak aurrera egitea gurako ez balu bezala.

Haakonsson inspektoreak bigarren aldiz aldatu zuen begirada gorpuari so egiteko. Gero, bereziki beste ezeri erreparatu gabe, berriro behatu zuen ingurua.

Lubakitik ezkerretara, teilatua lau haizetara zuen harrizko baserri itzela ikusten zen, “hemen nago geureari eusten sendo eta harro” aditzera ematen zuela. Aurrean, intxaurrondo beteriko oilo-lurrean, etxandreak arto aleak bota ahala, hainbat oilasko eta oilanda, dozena bat inguru, bata bestea eragotziz zebiltzan, hain janari estimatua harrapatu guran lurrera mokoka.

Hain ikuskizun harmoniatsua aldamenean utzita, Haakonsson auzitegiko mediku andreari zuzendu zitzaion:

- Alfchild, noizko izango duzu txostena? –esaldia irmoki botako zion, inolako adiskidantza kutsu barik, nolabait bestearekin tratua izatera behartuta egongo balitz legez. Nabaritzen zitzaion ez zuela gogo handirik hitz egiteko, barrutik ufada krudelez beteriko ideiak bueltaka izango balitu bezala, besteak beste aurrean hilik zegoen pertsonak bizitzan pairatutako gora behera astunak irudikatuz. “Zer bekatu egin ote du ba honek honela amaitzeko”, –edo eta–, “eragin bortitzeko erabakiak hartu behar izan ditu ba koitadu honek, zerraldo amaitzeko”; hainbat adarreko ideia horietan zegoen hausnartzen, tente, supituan, gezi baten erara, Alfchilden erantzun hitzak zuzenean eta bizi-bizi etorri zitzaizkionean esnatzera. Gogo txarrez hartuko zituen.

- Nik zer dakit ba, nozko! Atzoko behako dozu, ezta? Beti bardin! Nozko! Lehenengo auzitegiko neskatoarena dekot, eta gero, Folke iturginarena. Nozko! Nik zer dakit ba, nozko! Dagoenean egongo da eta kito! Ganera epailea oporretan da antza, haren errazturik be ez da hemendik-eta! Nozko eroango

daurie hau gorputegira? Beti kontu bardinakaz. Beti presino bera jasan behar, eta beti soldata berbera. A! eta lana bikoitza; hori bai, beharra bikoiztu jaku eta dana neure lepo ganera.

- Epaileak agintzen duenean. Eta ez zaitetz hasi betiko matrakarekin, gu ere egoera berdinean gaude-eta. Zer, itxiko dugu bulegoa eta asmo maltzurren lagunak lasai ibil daitezela? - Haakonssonen erantzuna harria bezain gogorra eta urik gabeko erreka bezain idorra izango zen.

- Epaileak agintzen dauanean, horixe ba! Eta txostena eskatzen deustazu? Txostena edo txapelaren txortena!, - Haakonssonek esanari kasurik egin gabe, mespretxuz erabat kutsaturik atera zitzaion ahotik.

Alfhild andreak, nynorsk norvegiera berrian ikasketak eginak bazituen ere, beste askori gertatzen zitzaion heinean, amak irakatsitakoa zuen gustuko hitz egitea; ipar mendebaldeko aldaera. Eta horrela hitz egiten zuen jende ororekin, nahiz eta sarri etxekoa eta ikasia nahasten zituen, eta, horrek, jakina, txarto ulertzeak zekarzkion, baina hori berari berdin zitzaion, arazoa bestearena zela uste baitzuen. Berdin egiten zuen inspektoreak, baina hark gaztetako lagunekin soilik.

- Baina ez duzu ikusten beste edozerk baino premia handiagoa duela? Esango didazu ba gutxienez zer ordutan-edo hil duten? - Ostera ere, zerbait jakin beharrean, Haakonssonek Alfhilden esanei entzungor eginez ekingo zion.

- Ze ordutan hil dan!, ze ordutan hil dan!, ezin itxaron bihar arte gutxienez! - forentseak erantzun zion, bere mihiaren punta guduan galdutako bizitza latzaren adierazle bailitzan. Sendagileak ostera ere baserrirantz begira zegoen gorpuaren aurpegia behatuko zuen, eta, belaun bata lurtean ipinita, erdi makurturik, gorpuari burua kokots aldetik helduta beste alderantz mugitu zion arean kostata. Adi geratuko zen begira buruak egiten zuen mugimendua ikusteko, eta segundo gutxi batzuen buruan, ondorengoa gaineratuko zuen:

- Hamalau bat ordu esango neunke. Ze ordu da oin?

- Hamarrak. Goizekoak, e! -Haakonssonek erantzuna adarra jotzeko doinu kutsuarekin bota zion, "goizekoak, e!" esaterakoan, ahotsa nabarmen igoz, nolabait bestea eztenkatu guran, bere senetik ateratzeko- edo, eta, aldi berean, segur aski, bera nor zen argi geratu zekion ere bai. Hala ere, nabarmen igartzen zitzaien aspaldi hasita zuten euren arteko joko bat besterik ez zela.

Inspektoreak esaldia botaz bezain laster, auzitegiko medikuak bat-batean bihotz aldea eztenkatzeko besteko begirada agertu zion, eta jarraian gaineratu zuen:

- Atzo gaueko hamarrak aldean hilko eben, baina xehetasunak behako dozuzanez itxaron behako dozu; bihar arte gitxienez. Badakizu nora etorri bihar! Dana dala, aurreratuko deusut hemen ez dabela hil, baina horregaz konturatuta zagoz, ezta?

- Bai, jabetu naiz.

- Ganera agoa zapiagaz lotuta euki dau, denpora baten behintzat, baina hori bere ikusten dozu, ezta?

- Bai, agerikoa da.

- Andrazkoa ze arrazatakoa dan bere, gitxi gora- behera badakizu; afrikarra! Bistakoa da, ezta? Dana dala, hori bere ikertu beharko da, ze ez da Afrika iparraldekoa ez hegoalde ingurukoa; ez dot sekula hain aurpegi gozo eta berezirik ikusi. Halandaze, itxaron behako dozu.

Inspektorea eta auzitegiko medikua txakurra eta katua bezala zebiltzan aspalditik. Polizia-etxean denek esaten zuten sexu kontua izan zutenetik zetorrela. Antza, haserrea gauen batean batak besteari kalabazak ematetik ei zetorren. Horixe zen susmoa behinik behin, ezen inork ere ez zekien ziurtasunez zein izan zitekeen batak bestea ezin ikuste horren arrazoi garbia, ez batak ez besteak ez zuen tutik esaten horretaz-eta. Ordura arte behintzat, lagun onak bezala zebiltzan. Gainera, ikaskideak izan ziren eskola urteetan, eta ezagutzen zituztenek ziotenez, sekula ez zen tirabirarik sortu euren artean. Baina egun hartatik-edo, nekez jasaten zuen batak bestea; ezinezkoa zitzaien bata bestearen ondoan egote hutsa ere, nahiz eta sarritan eurek ere joko bezala erabiltzen zuten.

Haakonsson makurtu zen gorpuari ostera ere ermamiak begiratzeko, eta zegoen lekutik apur bat aldenduz taldeko bati zuzendu zitzaion, berarekin maiz batera eta bestera ibiltzen zenari, Gulbrandsen detektibeari:

- Ermamiak erretzearekin nortasuna kendu nahi izan diote, eta horrek zailduko du gure lana. Dagny, oraindik ez dira etorri zientifikokoak? Non demontre sartu dira ba?

- Dagoeneko hemen egon beharko lukete. Ez ziren galduko ba bidean?

- Deitu, eta galdetu ea nondik diren. Poltsikoetan izan du zeozer?

- Ezer ere ez.

- Beraz, argibideren bat nor den jakiteko?

- Ezta antzik ere!

- Arakatu berriro goitik behera ea zerbait aurkitzen diozuen. Joan gero baserritarrarengana eta egin galdeketa, bera izan da-eta deitu duena. Zertarako eramango dugu bulegoraino hemen bertan erantzuterik badu. Badakizu zer egin. Bulegora noa. Han egongo naiz. - Zaila zen jakitea euren artean zergatik ez zuten polizia-etxe hitza erabiltzen; horren ordeztu bulegoa esaten zuten, nolabait anonimatu izateko beharragatik-edo izango zen? Bazitekeen horrela izatea.

Dagny Gulbrandsen detektibea ile horaila motots eran orrazten zuen emakume gihartsu bizkorra zen, kontuak airean datozela harrapatzen dituzten horietakoa. Argia zen zereginetan eta Haakonsson inspektorearentzat ezinbestekoa ikerketak aurrera zentzuz eramateko. Sarri esaten zion berak izan beharko lukeela inspektore ardura, sobera prestatuta baitzegoen horretarako.

Haakonsson, Ebbe izena zuena, urteetan berrogeiak arestian utzitako gizona, gizona zen erabat. Lodia, hitz batean esateko. Umetatik zen potoloa eta ordutik aurrera horren kontrako ezizena jarri zioten, nolabait argaldu zedin lagundu guran-edo, edo seguruago izango zen adarra jotzeagatik. Gupidarikgabeak ziren adin gazteak izan ziren horren errudun; bere lagunak-edo. Handik aurrera mundu guztiak deituko zion Tynn. Askok, gainera, bere benetako izena zein zen ere ez zekienez, haren izen naturaltzat zuen eta horrela deitzen zion. Tynn. Berari bost axola zitzaion batera edo bestera deitu; ez zuen horrelako kontuetan denbora galtzen; huskeriak iruditzen zitzaizkion.

Gizonak zituen neurriak ikusita, eta gainera, sama bako pertsona zenez, lehenengo begiratuan, basurde itxura hartzen zitzaion, batik bat oinez zebilenean, ezen burua aurrera botata ibiltzen zen, eta horrek zuen baino oraindik animalia itxura handiagoa ematen zion. Hala ere, ez zen hori haren bereizgarri nabarmenena. Berak zuen inteligentzia ahaltsuak desberdintzen zuen gainerako biztanleen artean. Horrek egiten zuen handi. Horrek bideratzen zuen, eta ez besteak, ezagutzen zuen oroengan berarekiko neurriko mirespena izatera. Gainera, bihotz oneko pertsona izanda, arraroa polizia batengan bestalde, are gehiago areagotzen zuen berarekin hitz egiteko eta kontuak kontatzeko desira. Enpatia kontua izan zitekeen.

Argia zen gizona. Aski izaten zuen norbait edo zerbait segundo batez so egitea, sortutako erretratua garunean betiko gordetzeko, eta berehala beste edonorengana edo edozertara aldatzen zuen begirada. Orduan igartzen zitzaion barrutik ideiak azkar zebilzkiola, eta sen berezia ere bazuela gertatzen zena aurretiaz bat-batean harrapatzeko.

Lanaren gorabeheretan bere iritziak nekez agertzekoa izaten zen, eta itaunak ziren gehienbat haren ahotik ateratzen zirenak, bai lagunekin bai jende oroekin solasean aritzen zenean; zainetan zeraman lanbidean beharrezkoa zuena; galdeketa.

Autora sartzera zihoala inspektoreak xasisaren goialdea buruarekin joko zuen. Kontu handiz ibilita ere, auto barrura esertzera joaten zen bakoitzean gauza bera gertatzen zitzaion. –Berriro ere! - eskuarekin hazka egiten zuen heinean boz gora atera zitzaion. Automobila martxan ipini zuenerako, bidegurutzetik gorantz zientifikokoak bertaratu ziren poliki-poliki. Auto biak parera heldu zirenean gidariek elkar agurtu zuten; buruari leunki gora egindako agurra izan zen. Mugimendu txiki bat baino ez zen izango, behartuta bezala; keinuan inolako adiskidantzarik bakoa; elkarri “kontuz gurekin” esatekoa-edo.

Ematen zuen bulegoan bertakoen arteko harremanak latz samar zeudela. Bazitekeen bulego guztietako kontua izatea; estresa, indarkeria, handinahikeria, armen gorabeherak dakarten botere pertsonala, edozein herritarren gainetik zeudela pentsatzea. Funtsean, hala ematen zuen bederen, jainkotxoak zirelako usteak zekartzan harremanak oso zailak izaten ziren kudeatzea. Edo izan zitekeen, baita, euren arteko borroka, espazio agintea, botere oreka ere. Jakina da, norbera norbere taldean tinko eta geldi.

Laster batean, hildakoaren inguruak erregina zaindu beharra izaten duen erlategia ematen zuen, bakoitzak berean ziharduela. “Oraintxe desagertuko dira aztarna guztiak”, Ebbe Haakonssonek aurrera zihoala pentsamendura ekarri zuen.

Alfhild mediku forentseak eskuetatik latexezko eskularruak kendu zituen lurrera ernegaturik botatzeko, eta handik autoa utzi zuen lekurantz haserre bizian, barrutik ufako krudelez beterik bezala alde egin zuen. Albotik, apur bat aldentuta zegoen Gulbrandsen detektibeak errieta egin zion:

- Aizan! Ingurua zaindu behar dun gero! Zer, baserritarrak zakarrontzira bota ditzan?

Auzitegiko medikuak begiratu ere ez zion egingo, eta txakurrak hezurrari ekiten dionean, beste bat hurbiltzean hortzak erakutsiz batera ahotik botatzen duen doinu onomatopeikoaren antzerakoa agindu zion erantzun legez.

Lehenengo orubean egin berri ziren etxebizitza-blokeetara heldu zenean, Haakonsson inspektoreak Huldreveien kalean barrena gidatu zuen autoa. Gidatu ere, gaizki dabilen makina zahar bat bezala gidatzen zuen, eta Skogryggveien kaletik Faunveienara egiteko jarraituko zuen. 168tik bulegora heltzeko Risallénetik Ring3a hartu zuenean, sekulako auto-ilara zegoela ikusi zuen. Autotik irten eta, batak bestea atzetik kolpatzeagatik sortutako iskanbilara heltzeko, ehunen bat metro egin behar izan zituen oinez. Talka egindakoen parean matraka itzela zegoen, eta gidarietako bata lurrean zegoen besteak eman zizkion ukabildengatik; begi bata nabarmen ubeltzen ari zitzaion. Anbulantzia, zirena hotsa zeriola, alderantzizko norabidetik zitzu bizian hurbiltzen ikusten zen. Ez zegoen oraindik udaltzainen arrastorik.

- Ea, zer dago hemen? - arnasestuka, eskuak gora eramanda, komisarioak galdetu zuen.

- Honek - gorantz begiratzuz eta gidarietako bata adieraziz - berotu duela hemengo hau! - borrokan ibilitakoak banantzen ahalegindu zenetako batek lurrean zegoena sorosten zebilela erantzun zion.

- Ea, hi, hik berotu duk?

- Bai.

Une hartantxe lurrean zegoen jipoitua biziki altxatu zen, eta bestearen kontra bortizki egiten zuela, oldartzaileak orkatilan gordeta zuen pistola atera eta tiro egin zion, eztandaekin batera bertan pilatutako jendea beldurturik automobilen artean ezkutatzera bultzatuz. Lurrean egondakoa oraingoan zerraldo geratu zen etzanda betiko. Bat-batean gertatu zen. Agerraldi penagarriaren ondorioz, gorpuaren paparretik sortutako odol jarioak asfaltoan orban gorrixka luzarorako itsatsita uzteko gogoa ekarri zuen, nahiz eta aldi berean etorriko zen autoen joan-etorri azkarraren ondorioz bistara inolako aztarnarik utzi gabe betiko ahantzia geratuko zen.

Egoera menpean izateko hitzak jaurtitzen hasi zen memento berean, komisarioak poltsikotik espraia atera zuen, tiro egin berri zuenari aerosolaren likido mingarria aurpegira botatzeko. Agindutako seinalea ohar bezala har zezan izan zen, susmatzen zitzaizkion intentzioetan aurrera jarrai ez zezan edo.

- Baina, zer demontre! Burdina lurrera eta eskuak gora! botatako hitzetan inolako zalantza izpirik agertzen ez zuela, Haakonssonek ernegatuta manatu zion.

Tiro egin zuen gidaria ez zen kikildu. Nortasun handia izaten dutenek bezala hitz egin zuenean nabarmen igarri zitzaion bere burua bazuela zerbaitzat: "Lasai, lasai!" - zioen, mugimendu leunarekin pistola lurrean uzten zuela, era horretan nolabaiteko mendekotasuna agertu nahian edo. Gero, berriro ere astiro-astiro, eskua jakaren barneko ezker poltsikoan sartu zuen bertatik diru zorroa ateratzeko, eta eskuak gora eramanez militar agiria erakutsi zion, bere harrotasun itzela erakusleiho batean jartzekoa izango balitz bezala.

- Papaokeria gutxiago, gero!

- Zer?

- Emazkidak agiriok!

Eskumuturretan eskuburdinak jarri ondoren inspektorearen automobilerantz zuzendu ziren biak, bata aurretik eta bestea atzetik, jakina izanik Haakonsson inspektorea bigarren joan zela marmarka, odola berotuta.

- Batekin gutxi eta birekin lar - zioen, boz gora- . Honelakorik, eta neure aurrean gainera! Bide osoan ez dizut hitz bat ere entzuterik nahi, entzun? - hiltzaileari agindu zion, atzealdean eserarazten zuela, autora sartzerakoan xasisaren kontra jo ez zezan eskua babes gisa haren buruan jarri gabe. Autoa martxan ipini zuen. Ez zuen denbora galtzerik nahi izan. Horretarako sirena martxan jarri bazuen ere, batzuetan bazterbidera, besteetan eskuin bidetik ezkerrera eginez mugimendu nekagarrietan ibili behar zuen zeuden lekutik irtetea lortzeko. Mollergata kalera heldu zirenean nekatuta eta leher eginda zegoen.

Beti joaten zen tabernara joan nahi zuen etenaldia egitera. Bulego aurreko plaza inguruan autoa utzi ostean, zain zituen bere menpeko bik hartu zuten atzealdekoaren ardura.

- Eraman alproja hau ziegara!, - azkenean gaintik zama astuna kentzen denean sentitzen den lasaitasuna gorputz osoan igarriz agindu zion.

- Bai, jauna, oraintxe bertan gainera!

Tarte labur batez jendartean sartu behar izan zuen kafea edatera joateko; horren premia zuen, biena, kafearena eta jende artean galtzearena.

Kalean zeuden zuhaixkak udaberriko jantzi berria egiten zebiltzan, espaloari bere baitako nortasun bereizgarria hedatzeko.

Haakonsson inspektorea ez zen konturatu, horrelako kontu guztiak dekorazioari zegozkion gauzak zirela uste baitzuen. Berdin zitzaion arbolak loretan egotea, alkandorak lepo aldean sitsa izanaren oroitzapenak izatea zein baserriko zutabeak pipiak janda egotea. Baserritik gauza bat bakarrik hartzen zuen aintzat: oiloen arrautzak. Goizeko sei eta erdiak aldera, mendi aldean zuen baserriko bere oiloen arrautza pare bat oliba oliotan frijituta jatea zoramenera iristen den gozamina egiten zitzaion. Arbolak, loreak, baserriak, zutabeak, pipiak, alkandorak, sitsak eta bestelakoak, berarentzat apaingarri legez erabiltzen diren koadroen antzerakoak ziren, bederen bere lanerako beharrezko ez baziren. Beharrezkoa bazuen bai, orduan bai, orduan kontuan izaten zituen; orduan bakarrik, gehienetan obsesiboki gainera.

Jendetza artetik mutikoa amari eskutik helduta nabarmentzen zen kalean gora zihozela. Noizean behin karrikako erakusleihoak begiratzen zituen, besteetan bidetik batera eta bestera azkar zebiltzan automobilak, eta gainerakoetan, inori erreparatu barik, bere kontuetan bueltaka zebilen. Halako batean, erakusleiho anitz deigarriaren aurretik igarotzean amari esan zion:

- Ama, begira!

Amak, semearen hitzei behar besteko kasua eginez, erantzun zion:

- Bai, laztana, bihar sartuko gara, orain berandu gabiltza eta.

- Ziur, ama?

- Bihar ikusiko dugu hori, maitea.

Mutikoak eskutik indarrez tira egin zion, gelditzeko eskaria argi ulerraraziz, nolabait amak emandako erantzunak ez baitzion jakin-mina asetzeko beste balio izan.

- Goazen ba, laztana, presaka gabiltza- eta! Ezin gara gelditu! Bihar etorriko gara goizago, eta hor barruan dauden gauza guztiak ikusiko ditugu! Den-denak! Nekatu arte egongo gara!

- Bai, ama, denak?

- Bai, laztana, den-denak ikusiko ditugu! - amak semetxoa konbentzitzeko ahaleginean erantzungo zion.

Haakonssonek Mariboes gate karrika zeharkatu zuen Aker jatetxean sartzeko. Hamabiak inguru izango ziren, zeren oraindik barruan ez zegoen jende askorik. Gazteak, zuen maingutasunagatik elbarria zenak, egin zion arreta.

–Betikoa? - galdetu zion.

- Bai, Aksel, betikoa –ahopean bota zion esaldia, indarrrik gabe geldituta egongo balitz bezala-edo.

Ebakia, azukrerik gabe, kolpean edango zuen, Cowboyek whiskia nola, berak hala. Gero, nolabait bizitasuna arean berreskuratuta, beste ezeri kasurik egin gabe, eta aurrean zuen egunkariko orria zuri ikusiko balu legez, bat-batean, begietara leunki begiratuta eta txaramel aurpegia ipinita, zerbitzariari betiko galdera egin zion:

- Hi, Aksel, aspaldian txabilan egin duk, ala?

- Zer danik bere ez! –zerbitzariak antzinatik zekien kontua, eta beti jarraitzen zion jokoa. Nolabait eroso egiten zitzairen beste ezer interesgarriagorik esateko izaten ez zutenean kontu horri ekitea- . Eta hik?

- Zertxobait bai. Bart ibili nauk zertxobaitetan!

- Hi bai hi! Bizkor habil hi!

- Mihiari bueltak eman. Hi, neuri ere gustatzen zaidak mihiari bueltak ematea. Zer pentsatzen duk, ba!
- burua berriro egunkariko hitzetara jaitsi zuen, eta jarraian botako zuen:

- Badakik, berriketan!

- Beltzarekin ibili haiz, ala?

- Hi, Daia itzelezko emakumea duk gero! Ea! tira! beste ebaki bat hona.

Behingoan, berriro sena etorri izan balitzaio bezala, egunkariaren orriak arin pasatzen hasi zen, nolabait adimen fotografikoaren erako begiradarekin. Ematen zuen berri deigarriren baten bila zebilela, eta, ustekabean, beste behin ere, hamaikagarrenez, bere baitako hausnarketan sartu zen.

Parisen ordu pare bateko geldialdia egin ondoren, Nora Williams arrats umel eta hotzean heldu zen Ullensakerrera, hiriburutik berrogei bat kilometrora dagoen Oslo-Lufthavn aireportura.

Jesarlekuko leihatilatik, oraindik bazkal osteko lehen orduetan, giroa iluna ikusten zen. Hainbesteko argitasun gabezia sumatzeak ingurua berezi ikusarazten zion, deseroso, arrotza sentitzeraino. Gazteak horretara ohituta egon beharko luke, ezen haren herrialdean ia lau urtaroak txapelez jantzita ibiltzeak grisa pintatzen baitu oro. Hala ere, hangoa ez zen Noraren hirian izaten den antzekoa; ez zen kolorearen tonuaren kontua, gogorragoa edo leunagoa, arinagoa edo astunagoa, ingurunea eguzkia jeltzen balego legez sumatzekoa baizik, indarge geratzerainokoa. Nolanahi ere, egunak etorri eta joan ahala, normaltasuna bereganatuko zuelako esperoan zegoen, neguko arratsean gure baserriko ganbara iluna zirudien udaberriko lehenengo asteko igandean.

Jesarlekutik zutitzeko ahaleginean, nekez egin zezakeen aurrera; zelan edo halan arrazoimenak huts egin izan balio legez zegoen. Zutik, hegazkineko erdiko pasabidean, ez aurrera ez atzera, gibeletik zetozkion andrazko adinduaren hitzek esnatu zuten erdi lotan bezala zeukan garuna, astun, maleta hartzeko igaro beharreko atea oraindik urrutiegi egongo zen tabernaren batekoa zela irudikatzen zuela, garagardoa fresko.

- Hey, don't you have any intention of moving? – adorea berreskuratzeko bezala etorri zitzaizkion ingeles ikasi berriaren hitzak eta, aldi berean “Sorry” hizkera berberean barkamenak eskatu ondoren, beherantz begiratzen zuela, aurrean zituen beste pasaiariei jarraikiz, instintiboki egin zuen sabai garaiko areto handira. Edozein aireportutan aurkitu daitekeen horietakoa zen, besteengandik desberdintzen ez zena, nolabait inolako pertsonalitaterik gabe frankiziaren batek egina bezalakoa.

Bueltaka zebilkion mandatu hartu berria; haraino joatearen zergatia. Xehetasunen bat bazuen ere, datu kopuru dezente ez izateak sortzen dituen zalantzak batetik bestera zebilzkion, eta horrek, jakina, itsasertza non zegoen ikustea denboran luze galarazi zion, berak espero zezakeen baino harago. Ez zekien kontuari nondik heldu beharko zion. Hasiara gisa, soilik zuen eraildako emakumea jatorriz eta etorkiz nongoa izan zen, eta Osloko egunkarietan agertutako artikulutxoren batekoa, ez besterik. “Halabeharrez horixe izaten da gure lanbideak izaten duen erronka”, pentsatukzuen. Horixe bera zen, zirudienez, neskaren patua. Hala ere, argi zeukan patuaren aurrean ez zuela amore emango. Arbasoengandik ondo ikasia zuen. Odolean zeraman. Aita eta amaren aurrean, gogoratzen zuen zin egina zuela behin, bere etorria berak soraraziko zuela.

Bidea hasteko izan zenean, erredakzioan bi gauza soilik eman zizkioten. Bata, hiriburuko hotel batean lehenengo gaua igarotzeko erreserba, eta, bestea, mugikorrean zeukana, bertako emakume baten erretratuan idatzitako haren izena eta telefono zenbakia. Hark lagunduko omen zion bertako atea zabaltzen, hangoen tratuan nolabait esateko.

Uhal garraiatzailea bueltaka hasi zen, etenik gabe mailetak bistara ekartzen zituela. Berea noiz agertuko aldika begiratu ahala, beste behin mugikorra zabaldu zuen erretratua begiratzeko. Adimenean betiko gordetzea nahiko zuen, finean, hangoa ikustean zalantzarik gabe bera zela jakiteko beste.

Argazkiko andrazkoa, hogeita sei urte inguruko ile horailduna, bera baino are gazteagoa zen, edo ez; argazki batetik adina asmatzea zaila egin zitzaion, baina hor nonbait. Aurpegiera begiratuta gorputzez argala izango zela ematen zuen, eta bizkorra. Begiradan nabarmentzen zitzaion burubide oneko emakumea izango zela; sen berezia duten horietakoa. Horrek poztu zuen, nolabait hori baitzen pertsonengan bilatzen zuena. "Bestea, gorpuzkera baino ez da izaten; itxura; urte gutxi irauten duen itxura aldakorra", - gomutara etorri zitzaion inolako ahaleginik egin gabe.

Norak ez zekien norvegierarik. Lau hizkuntza zekizkien: geurea, gaztelania, ingelesa eta frantsesa. Pentsatzen ari zen horrek zailtasunak ekarriko zizkiola, baina, egia esan, neskarena hasierako lotsa baino ez zen izango, ezen, beste era batera etorriko zitzaizkion kontuak, gerora ingelesez oso ondo moldatuko zen eta.

Maleta hartu ondoren aireportu barneko espazio zabalera atera zen, eta, kanpo alderantz taxi bat hartzera zihoala, sakelako telefonoa dardarka hasi zitzaion. Betaurrekoak jartzeko beta barik erantzun zuen, pantailan agertzen zitzaionari kasu egin gabe, edo, akaso bazitekeen, munduan barreneko abentura berriari eskuak zabal-zabalik agertu nahi izatea; horixe izango zen seguruenik, bizipen berriak bizitzeko grina; halabeharrez beste kultura batean murgiltzeko irritsak sortzen zion jarrera.

- Bai? - erantzunean, euskal hitza, senezko erreakzio bezala atera zitzaion, premiazko kontua izango balitz legez, beste nazio batean izango zuen aurreneko esperientzia lehen baino lehen hastearren.

- Nora? - bere izena norvegiar kutsua zuen doinu bitxian aditu zuen. Kuriosoa egin zitzaion bestearen ahotik sortutako musika berezia, nolabait erakargarria, telefonoaren bestaldekoa ezagutzeko grina ematen ziona. "Nola zitekeen pertsona batek hizkera arrotzari eman diezaiokeen doinuak hainbeste erakartzea?", artean bere izena soilik entzunda pentsatuko zuen. "Ziur hizkerak arrimu oso femeninoa duela", -gomuta gozoa etorri zitzaion.

- Yes! - bihotzeko taupadak biziki bizkortu zitzaizkiola antzemanen erantzun zuen; taup- taup- taup, aditzen zituen kolpeak.

- Nora Williams?

- Yes, that's me.

- I am Bihon, Bihon Dahl.

- Hello! How are you, Bihon?, - galdetu zion, agurra egiterakoan esamolde klasikoa erabiliz. Esan zezakeen bestelakorik, "Kaixo, Bihon" edo "Aupa, Bihon" edo horrelakoren bat, baina ez, klasikoa erabili nahi izan zuen. Zaila da jakitea Norak zergatik nahi izan zuen agurra era horretan hastea, jakinez molde horrek urruntasuna ematen duela, ezezagutua, ezezagunen arteko errespetu trataera. Besteak, aldiz, hurbiltasuna, lagun artean erabiltzekoa, gaztetasuna.

- Have you arrived, Nora?

- Yes. Ullensakerren nago, Oslo-Lufthavn aireportuan, - erantzun zion, nolabait harekin egoteko irrikak odolaren hozberoa gorantz bultzatzen ziola. Hala ere, itxura zaindu nahi zuen. Ez zituen bere sentimenduak agerian uztea nahi izango. Hotz agertu nahi zuen, desiraren objektu ilunean jausteko arriskua urrun eramanda.

- Ni ere bai, baina ez zaitut ikusten!

- Maleta hartu berri dut eta taxia hartzera nindoan.

- Ez, ez, egon! Motoz etorri naiz zure bila, maleta handiegia ez badakarzu behintzat. Egon, ia ikusten zaitudan. Zelan zatoz jantzita?

- Bakero grisak, kamiseta arrosa eta kirol-jertse urdinxka iluna, zuriz arapahoe andrazkoaren aurpegia duena.

- A, bai, bai, zu izango zara. Egon geldi. Neu hurbilduko natzaizu.

Denborak ez zuen tarterik izan; bat-batean gertatuko balitz legez heldu zen. Agurra gibeletik heltzen zitzaion heinean, eskua sorbaldan nabaritu zuen. Bueltatu zen azkar.

- Aupa, Nora - Bihonen ahotsa lehen aldiz aditu zuen zuzenean. Kortesia modura musu pare bat izan zen. Zer nahi gisaz, ohizko esaldiak era arruntean etorri ziren- . Zelan hegaldia? - galdetu zion distira berezia zuten begi argiekin. Gure haitzen kolorekoak zituen, apartak; konfiantza eta segurtasuna ematen duten horietakoak; han ere badira gureak bezalakoak. Andrazkoa Norak irudikatu bezalakoak zen; garaiera antzerakoa, begi kolpe batean bizkortasuna antzematen zitzaiona, zentzuduna eta azkarra. Nortasuna janzkeran ere nabarmentzen zitzaion, ezen kolore eta gustu onarekin ipinitako

arropa xumeak biltzen baitzuten haren koipe bako argaltasuna. Ingurukoei begiratzuz, jendetza oro har, besteengandik ez zen gailentzen, ez eta nabarmentzen ere. Horrek egiten zuen berezi; apaltasunak.

- Zer plan duzu, Nora?, - itaundu zion hutsuneari tarterik eman gabe. Bihonek esaldiak azkar albaintzen zituen, Norari apenas denbora emanaz elkarrizketa jarraitzeko.

- Ez dakit ba. Gaurko gaua igarotzeko hotelean erreserba daukat, eta bihartik aurrera zerbait bilatu beharko dut; akaso zerbait merkeagoa.

- Nahi baduzu, etorri nire etxera - ematen zuen Bihon ez zela denbora galtzen ibiltzen diren horietakoa. Itxuraz behintzat ez zen izango nekatu arte berriketan ibiltzen denetakoa. Berehala jotzen zuen harira.

- Baduzu lekurik, ala?

- Bai, gela bat daukat libre.

- Eta zure bikotekideak zer esango du?

- Ezer ere ez, duela hilabete eskas eten dugu. Ordutik hona bakarrik bizi naiz. Moldatuko gara, egon lasai.

- Eta trukean zer eman beharko dizut? Munduaren oreka galdu ez dadin, zenbat aterako zait?

- Egun batzuetarako bakarrik zatoz, ezta? Ba, ezer ere ez. Etxea neurea da. Eta beste era batera izanda ere, berdin. Ezer ere ez.

- Ez da plan txarra. Horrela hobeto ibiliko naiz, kobratu ere, ez dugu lar kobratzen eta.

- Zenbat egunerako zatoz?

- Egia esan, oraindik ez dakit. Astebeterekin nahiko izan beharko nuke. Maletatxo honetan dakardan arropak horretarako emango dit, ez gehiagorako. Dena den horri buruz hitz egingo dugu lasaiago.

- Jarraian nahi duzu etxera joatea? Handik baliogabetu dezakezu erreserba.

- Ondo iruditzen zait, baina lehenengo kafetegira kafea behar dut eta. Indarrik gabe bezala nago.

- Oso ondo, nik ere nahi dut kafea edatea. Goazen!

- Non dago hemengo kafetegia?

- Ez dakit, sekula ez naiz bertan egon. Goazen, ez da zaila izango aurkitzea.

- Aizu, Bihon!

- Zer?

- Iñakik zure telefono zenbakia eman zidanean, ez nion ezer galdetu, baina jakin daiteke nondik ezagutzen duzun, edo?

- Bai, nola ez.

- Nondik?

- Erasmus masterra egin nuen Donostian.

- Zer diozu!

- Bai, han ibili nintzen lau hilabetez.

- Oroitzapen gozoak.

- Oso ondo ibili nintzen. Oso gustura handik.

- Pozten naiz.

- Eta zuk, Nora, zein ikasketa egin duzu?

- Kazetaritza.

- Non?

- Bilbon.

- Kostatu zitzaizun lana aurkitzea?

- Senperrenak eta bi.

- Txarto daude kontuak han?

- Bai, oso txarto. Hemen zelan?

- Orokorrean eta beste lurralde batzuen aldean, nahiko ondo esango nuke. Dena den, ekarri diguten honek holokausto kanibala ematen du. Bazter guztiak utzi dizkigu hondatuta.

- Kapitala langileen kontrako gerran, ezta?

- Bai, eta langileok honako honetan behintzat galdu egin dugu. Elkartasunarekin soilik eutsiko diogu, bestela gorriak eta bi ikusiko ditugu, denok e! Lehentxeago edo geroxeago denok, e!

- Barkatu, Bihon, komunera joan behar dut.

- Bai, gero ni joango naiz.

- Ok.

Nora bueltatu zenean, Bihon whatsappen gora eta behera zebilen mezuak irakurtzen. Bihonek komunerako bidea hartu zuenean Norak gauza bera egin zuen. Hegaldi onaren ostean jada Oslon zegoela esanez amari bidali zion mezua, eta baita kafetegian zegoela Bihonekin ere. Buelatu zen norvegiarra.

- Eta Iñaki Donostian ezagutu zenuen?

- Bai, baina ez unibertsitatean.

- Nola, jakin daiteke?

- Ba, unibertsitateko lagun batzuen laguna zen, eta ostiral bateko jai kontua izan zen.

- Jai kontuak?

- Bai, alde zaharrear, ostiral baten gauzez, garagardoak eta, badakizu, pozik.

- Donostiako alde zaharra paregabea, ezta?

- E!, eta Bilbokoa zer?

- Ni hangoa naiz, zer esatea nahi duzu ba, "gorenera eramateko zerbait ez bada!"

- Ni ere ibilia naiz han.

- Bilbon?

- Bai. Asteburu pare batean edo izango nintzen.

- Iñakirekin?

- Bai, berak gonbidatu ninduen eta han ere oso ondo.

- Non ez ote zara egon zu?

- Izango dugu denbora horri guztiari birpasa egiteko.

- Niri ere gustatzen zaizkit horrelako birpasak.

- Bagoaz? –Bihonek, irribarrea ahoan zuela.

- Goazen!

- Ibili zara inoiz motoz?

- Ez, nire lehen esperientzia izango da.

- Hartu eta ipini kaskoa, igotzen zarenean estutu belauak nire izterren kontra, eta heldu eskuekin nire gerria bizkarrera itsasteko. Kontu izan buruarekin, erreza izaten da-eta kasko biek elkar jotzea. Kolpetxo horiek ez dira gozoak izaten.

- Eta maleta?

- Oraintxe lotuko dugu atzean.

Handik aurrera, Bihonen etxerako bidea, Norari turismoa egitea bezala iruditu zitzaion. Eraikin edo inguru bitxiren baten aurretik igarotzean, hangoak azalpen laburrak eman zizkion, eta heldu berri zenarentzat bizipena gozamen fresko bihurtzen hasi zen.

Konturatu orduko, alde zaharreko Bihonen bizileku ondora heldu ziren. Bat-batean, inor jabetu baino lehen, gaua hotzaren eskutik etorri zen; hotzago oraindik, esaterik bada. Motoa utzitako lekutik apenas ehun metrora zegoen etxea. Karrikako atea berde ilunez margotutako antzinako ate zahar bat zen, egurrezkoa, lehenago egiten zituzten horietakoa, sendoa, gogorra, bizitza bi irauten dutenetakoa. Ezkilara estu batek elkartzen zituen bi ateak, behekoa eta goikoa. Apenas argirik ematen zuten bonbillak zeuden eskailera-buruetan, nolabait eskua barandari emateko gonbita egitera bezala, eta, horrek, gora zein behera joaterakoan, kontuz ibiltzea eskatzen zuen, estropezu egin eta muturrak bertan ez uzteko. Bizilekura sartu zirenean, sarrera eta egongela egiten zuen espazioan, besteak beste sofa bat zegoen, eta bertan utzi zituzten motxila, maleta eta beste enparauak, zuzenean sukaldera joateko.

- Mizkea zara jatorduetan? –Bihonek buruan zeukan afaria prestatzeko ezinbesteko galdera bota zion.

- Akaso zapore gogorregiekin soilik, ezpabere ez.

- Entsalada sardinazarrekin, fruitu lehorrak, eta hirugihar zatitxoak zartaginean erretzen baditugu eta gaineratik botatzen badizkiogu? - Bihonek etxandarearen paperean eroso sartuta badaezpada ere galdetu zion. Norarekin egiten zuen lehen otordua zen, eta, berari gertatu zitzaiolako zekien, besteak beste, horiexetara izaten dela zailena moldatzea.

- Oso ondo. Aizu, Bihon, gazta zati bat ekarri dut gure Haritz Zaharraren Lurraldetik. Nahi duzu probatu?

- Oraintxe bertan gainera! Aizu, Nora, Iñakik deitu zidanean ez zidan ezertxo ere esan, etorriko zinela soilik. Isileko kontuekin zabilzate ala jakin daitekeena da?

- Beno, badakizu lanbide honetan ezer argitaratu arte nolabaiteko diskrezioa izan behar dela. Lehia itzela dago gure artean, eta egiten zabilzana edozeinek zapuztu diezazuke. Horrela gabilza beti. Baina zuri kontatuko dizut, ezen hemengoa izanda, baliteke zure laguntza estimagarria izatea. Gauza gutxi dakit oraingoz. Emakume bat hilik agertu dela gerrate nagusiko geratzen den lubaki arrastoetako baten ondoan, hemen, Oslon; horixe bakarrik. Badakit hildakoa afrikar emakumea dela, eta beste ezer gutxi.

- A, bai, gogoratzen dut.

- Badakizu lubaki hori non dagoen?

- Bai, zelan ez dut jakingo ba!

- Urruti dago?

- Beno, motoz joateko, ez dakit ba, hogei minutu- edo.

- Astirik hara joateko?

- Nola ez! Motoz ez bada, autoz joango gara!

- Oso ondo, estimatzen dizut. Dokumentatzeko nahi nuke erretraturen bat edo beste ateratzea.

- Izango dugu denbora.

- Bai.

- Lehengora joanda, zu hona bidaltzeak badauka zerikusirik zu ere afrikarra izatearekin? Gazta hau primerakoa da gero!

- Bai oso gozo dago.

- Honelakoak egiten dituzue han, e!

- Eta hobeak!

- Lau hilabete eman nituen Donostian, eta ez nuen gazta probatu, a zer hutsa egin nuen! Zer esateko zinen, Nora?

- A, bai. Ba, ni ez naizela afrikarra!, Abrisketa dut bigarren abizena. Ni ez naiz Afrikan jaioa, Euskal Herrian baino.

- Bilbon?

- Ez, Erandion.

- Baina hemendik begiratuta!

- Beno, hemendik begiratuta dena Bilbao dela ematen du, ezta?

- Bai ba!

- Bilbo da guretzat.

- Bai, banekien.

- Denaren ardura hartuta zaude, gero!

- Ez pentsa!

- Hala iruditzen zait.

- Aizu, Nora!

- Zer?

- Afrikarra izateko, Williams abizena nola datorkizue?

- Historiara jo behar.

- Ea.

- Laburtu beharko dut.

- Ea ba.

- Hara, gure lurraldera, 1850. urte ingurutik, misiolariak eta europar esploratzaileak sartzen hasiko ziren, baina mende horren amaiera arte ez zuten menpean hartzea lortuko. Alemanak izan ziren indar armatuaren bidez bereganatu zutenak, eta gerora belgikarrak. Horregatik han mundu guztiak daki frantsesa. Gauzak hala, erraza da ulertzea abizena zelan datorkigun.

- Gaur egungo mundua horrela gabiltza egiten.

- Antzinatik dator hori.

- Bai ba, barbaroak hemendik, erromatarak Europa osoan, XI, XII eta XIII. mendeetan gurutzadak Jerusalem, gerora anglosaxoiak, frantsesak eta espainolak Ameriketatik, batetik bestera mundu guztia ondo armatuta zebilen.

- Eta dena interes berdinarekin.

- Dirua.

- Bai ba!

- Zuen aita nahi izan zuelako joan zen Euskal Herrira?

- Bai, zera! Gure aitak Afrikatik, Burunditik alde egin behar izan zuen, beste askok bezala jakina, bestela orduantxe bertan hil egingo zuten. Berak dioenaren arabera, euren bila joan zirenean, ozta-ozta atera ahal izan zuen bizirik. Gure aitaren familia tutsia da, herrialdean gutxiengoa dena, nahiz eta berrehun urtetik gora izan ziren gobernuan, alemanekin lehenengo, eta gero belgikarrak egon zirenean. Hala ere, hori urruti geratzen da. Gure aitak-eta, alde egin behar izan zuten sasoiak, gehiengoa ziren hutu-ak tutsi guztiak hiltzen hasi ziren. Genozidio bortitza izan zen, basatia. Horregatik, hainbat eta hainbatek alde egin behar izan zuen. Gorabehera askoren ondoren, Euskal Herrira heldu eta, denbora gutxiren buruan, gure amarekin ezkondu zen. Handik urtebetera-edo jaioko nintzen ni, duela hogeita bost urte.

- Hara! Adin berekoak gara eta!

- Zuk ere hogeita bost?

- Bai ba!

- Noizkoa zara?

- Abuztuaren hogeita zortzikoa. Eta zu?

- Apirilaren hogeita bederatzikoa.

- Laster!

- Bai.

- Lehengora joanda.

- Zer?

- Tutsien ondorengoa zara, beraz?

- A! Bai, aitaren aldetik tribu buru bateko senidea, amaren aldetik, aldiz, euskalduna.
- Badakizu euskaraz?
- Bai, nola ez! Han bizi garen berrogei urte baino gutxiago daukagun guztiok dakigu, etorkinak aparte. Beno, den-denek ez, baina gehiengo osoak eskolatan euskara ikasi dugu. Hitz egitea beste kontu bat da, baina jakin, esan dizudana.
- Guk ez dugu hemen zuok izan duzuen arazoa.
- Izan duguna diozu? Daukaguna esango nuke!
- Beno, betikoa, nagusiak txikia jatea nahi.
- Horixe da betiko gerra kulturala. Eta badaude batzuk oraindik esaten dutenak, ez zaiela gustatzen behartuta euskara ikasi beharra. Noski, horrela besteok gaude behartuta ez dakienarekin komunikatzea nahi badugu, kontxo! Derrigortasuna besteok, bakan horiek ez, horiek bai direla faxista kulturalak.
- Beste kontu batera joanda, zeren berotzen ari zarela ikusten baitut!
- Ez naiz berotuko, ba! Kontu berbera aitaren herrialdean, eta kontu berbera amarenean, gure herrialdean, kontxo!
- Aizu, Nora, kontua aldatuz...
- Zer?
- Eta, hildakoarekin baduzu nolabaiteko odoleko ahaidetasunik?
- Itsu nago. Ez dakit ezer, ez baitakit nor den ere, ez eta Afrikako zein herrialdetakoa den ere. Nola egongo da senidetasunik ba! Ezinezkoa litzateke. Badakizu Afrika zein handia den?
- Baduzu nondik ibili.
- Bai.
- Badakizu nondik hasi?
- Egunkarietatik eta Internetetik. Hortik aurrera kasuaren ardura duen inspektorearekin egon nahiko nuke. Zaila izango da, baina. Ikusi behar.
- Horretan, beharbada, lagun zaitzaket. Beharbada bakarrik diot.
- Zelan, ba?

- Oraintsu arte nire bikotekidea izan dena epaile baten alaba da. Beharbada hortik ere saiatu zaitezke.
- Egingo zenuke hori nigatik?
- Zelan ez, ba! ondo amaitu dugu. Lagun onak gara. Noizbehinka geratzen gara, naiz eta gure arteko maitasunak alde egin duen. Beno, lagun onak, ez dakit, ondo ezagutu dudanetik distantzia ipintzen nabil.
- Zein gozo dagoen ogi hau.
- Eguerdian egin dut.
- Hemen, etxean?
- Bai. Flabröd deitzen da, norvegiar ogi laua.
- Primeran dago. Ez dauka legamiarik, ezta?
- Ez, horregatik ez da harrotzen, laua da.
- Aizu, Nora, bihar oso egun gogorra daukat, eta ez naiz berandu arte etxera helduko. Eguerdiko ordu biak arte unibertsitatean eskolak ditut, gero amaren etxean bazkalduko dut eta arratsaldeko bostetan lurra jotzen ikasten nabil.
- Lurra? Zer da lurra?
- Lurra, tronpa itxurako hemengo antigoaleko musika jotzeko tresna bat. Ez dauka zulorik hatzetarako.
- Gure adarra bezalakoa?
- Itxuraz; hala ere, lurra metalezkoa da. Gero, sei eta erdietan bi ilobei eskola eman behar diet, eta gurasoen etxean afalduta etorriko naiz.
- Ondo.
- Beraz, gauean helduko naiz, bederatziak aldera-edo, afalduta. Zure kontura dena. Begiratu hozkailuan eta jaki-tokian zer dagoen eta hartu behar duzun guztia, lasaitasun osoz gainera.
- Ondo. Mila esker. Unibertsitatera zoazela esan duzu? Eskolak ematen dituzu? Irakaslea zara, ala?
- Bai, aurtengoa bigarren urtea.
- Zer ematen duzu?

- Giza antropologia, lehenengo urtekoekin.

- Eta?

- Oso ondo; gainera, aurten, iazkoaren aldean, orduetegi hobea daukat. Oso gustura nabil.

- Zurea zer da: bokazionala ala estomakala?

- Oraindik bokazioa, biziki gustatzen zait irakaskuntza. Aurrerago ikusi behar, beharbada bigarrena bihur daiteke. Irakaskuntzan erretzea oso erraza izaten da, batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Hala ere oraindik urruti ikusten dut. Dena den, argibide gisa esango dizut, hemen urruti eta hurbil hitzen arteko distantzia, batzuetan bederen, ez dela hainbestekoa izaten. Kontuak zelan datozen ikustea izaten da aintzat hartu beharrekoa. Bestea ustean soilik geratzen da, eta usteak, badakizu, beti izaten ohi du osoaren erdia ustel.

- Gurean ere horrela esaten da.

Lehen mokaduekin, sardinazarrak lehor eta gazi, Noraren aho gaztera lehen aldiko bidea egiteko saiakeran zirela ezeroso, isilunea egin zen. Ez zen izan isiltasun gogaikarria, sarritan, berbetan luze egon ondorengo etena baizik.

Zazpi balkoiak portu aldera zeuden itsasoari begira, abentura grinaz blai, Zilar bideari txanda eskatuz bezala, berrogeita hamar metrotan egokituta. Sarrerak egongela zabaltzen zuen mendebaldean bi gela ipintzeko, eta ekialdera, pasabide laburraren aurrean, sukaldea, eta alboan komuna. Denbora gehien ematen den aldean, ezkerretara zegoen mahai txikitxo baten gainean, eta eskuinean, balkoietara ematen zuen aldean zegoen idazmahaiian, bi txarro handitan ipinitako zenbait belar sorta lehorrei esker, usain oso atseginaren jarioa harrotzen zen airera, besteen artetik jasmina gailentzen zela. Kanpotik, ingurua blaituz, aldian-aldian kresalak zeta mihise puskatuaren igurtzia zekarren, olatu sakonen gainean hamaika bizipen nahigabek zaildutako jende gogorraren lurraldea zela ohartaraziz. Behean, bertako eta kanpotar jende anitzen oinezkoen ibilian, pakistandarra nabarmentzen zen, bere dendatxoaren aurrean geldi, besoak gurutzatuta; bezeroren bat noiz agertuko zain egoten zen. Beste gauza askoren artean, munduko bandera desberdinak zituen salgai, pitean-pitean eskuarekin goitik behera laztantzen zituenak, bakoitzari bere lekua egokituz bezala. Ondoan unisex arropa denda. Gero, tabernak zetozen, eta bi liburu-denda, bata bestearen aurrez aurre. Aurrerago, jaki saltoki bat, eta, haren aitzinean, erakusleiho kurioa zuen zuloan, bizitza nekez aurrera ateratzen zuen okina. Irin eta ogi usaina zerion lokalaren alboan Internet lekutxoaren atea oraindik zabalik zegoen, non hegoamerikar batzuk eurenekin harremanetan jartzeko barruan lekua libre noiz geratuko itxaroten zeuden atarian bilduta.

Gauaren leihotik kanpora, laino zarratua dena estaltzeko asmoarekin zetorren, azala kizkurtzerainoko hotza lagun. Barruan, lagun egin berri biren arteko solasak animotsu jarraitzen zuen, elkar ezagutzeko lasaitasunezko konfiantzan. Oraindik urruti sumatzen zen ezkutuko sekretuak ekarriko zuen oihartzuna, baina etorri, etorriko zen halabeharrez; begiratu batean hori ikusten zen bederen.

hiru

Bulegoan beti bezala egiten zuen denborak aurrera; patxadaz. Ez zen ikusten ezertarako presarik zegoenik; dena delakoa derrigor bost minutu beranduago egitea eurenganatuta izango balute bezala zebiltzan, nolabait.

Bertaratu bezain laster, Haakonsson salaketa gelara sartu zen, eta bertakoei galdetu zien:

- Bada inor desagertu den salaketarik?

Ezetz erantzun zioten.

- Ekarri atzo arratsaldetik hona jasotako salaketa guztien txostena. Edozein huskeria izanda ere, sartu txostenean. Dena behar dut.

- Oraintxe, Ebbe, berehala prestatuko dugu eta eramango dizugu.

- Ez itxaron hamar minutu gero!

- Ezetz ba!

- Bon.

Jarraian bost ate aurrerago zegoen bere langelara egin zuen. Pasabidean, "oraindik goizegi da" pentsatuz joan zen, eta hausnartuz bezala etorri zitzaizkion ondorengo baieztapenak: "Laster igarriko du haren falta norbaitek. Itxura oneko emakumea, hazpegi iharrekoa, neurrira egindako metro eta hirurogeita hamahiruko gorputza, arropa garestiz jantzia. Laster deituko du norbaitek, eta hortik hasiko gara".

Besaulkian jesarrita, ordenagailua pizteko etengailua sakatu zuenean, telefonoa zarataka jarri zen, lankide aspergarrienak une ezegokian egiten duen antzera. Erantzuteko ez zuen presarik hartuko. Besaulkian egokitze ipurdia batera eta bestera mugituz egingo zuen ondo zegoela iruditu zitzaion arte, eta, eskuak mahai gainera astun botaz, entzungor eginez jarraitu zuen hirugarren aldiz txirrina entzutean hartzeko, horren aurretik sekula ez baitzuen erantzuten; Zenaren kontuak izan ziren; patxada, lasaitasuna, estresaren kontrako jarrera.

- Bai!

- Ebbe! Dagny naiz.

- Bota.

- Arropetan ez diogu ezer aurkitu; dena dela, soinekoen markak apuntatu ditut, bada ezpada ere. Baserritarrarekin ere egon naiz.

- Eta?

- Ba, gizonak dio atzo iluntzean auto handia eta ilun antzerakoa ikusi zuela. Ez markarik, ez matrikularik, ez ezer. Ez zela ezer argi ikusten; nahiko ilun zegoela dio. Autoak ez zuela denbora askorik egin bertan, bueltatu eta alde egin zuela.

- Ondo dago. Etorri bulegora.

- Heltzear nago. Beste gauza bat.

- Zer?

- Baserria bikoitza dela, eta atze aldean gazte batzuk daramaten landa-turismo etxea dagoela. Iluntzean egoten omen dira denak. Zazpiak aldera edo bueltatuko naiz berriro.

- Ondo. Etorri zatoz, ezta?

- Bai, heltzear nago.

- Bon.

Berriro ere telefonoa joka entzun zen. Haakonssoni asperdura aurpegia antzematen zitzaion, deia ez zela garrantzitsua jakingo balu bezala-edo, eta, umore txarrez, "Nor demontre ote da orain?" ozen esan ostean, hirugarren hotsarekin erantzun zuen.

- Bai!

- Ebbe!

- Bai.

- Dei bat sartu da, automobil bat erreta aurkitu dutela salatuz.

- Non?

- Harrobian.

- Noiz jaso duzue deia?

- Oraintxe bertan.

- Ekarri xehetasun guztiekin eskatu dizuedan txostenarekin batera.

- Oraintxe eramango dizugu.

- Ez itxaron bost minutu gero!

- Ezetz ba! Nik neuk eramango dizkizut eta oraintxe bertan gainera.

- Ziur?

- Aizu! Batzuetan zein astuna zaren gero!

- Bon.

Norbaitek Haakonssonen langelako atea hiru aldiz joko zuen, eta jarraian heldulekuari eragingo zion zabaltzeko asmoz. "Aurrera inspektoreak autoritatea agertuz ozen botako zuen, zetorrenaren aurpegia soslaiez ikusten zuela. Poltsikotik militar hiltzailearen nortasun agiriak atera zituen, bata nortasunarena eta bestea armada-gorputzekoa, eta mahaiaren albo batean utziko zituen. Dagny Gulbrandsenek ate erdi irekiaren tartetik zain geratuta begiratzen zion. Noiz behinka soilik egiten zuen hori, uste baitzuen errespetua agertzeko izaten zela, nahiz eta gehienetan barrura atea jo ondoren sartzen zen.

- Dagny, sartu eta eseri. Zer egiten duzu hor itxaroten?

- Baimenaren zain.

- Baimenaren zain? Zer lelokeria da hori!

- Beno.

- Berririk?

- Telefonoz esan dizudana bakarrik. Baserritarrak dio auto handi eta iluna ikusi duela, ez besterik.

- Monobolumena edo basokoa?

- Ez du jakin zehazten. Nahiko ilun zegoela dio.

- Auto bat erreta aurkitu duten deia jaso da. Oraintxe jakingo ditugu xehetasunak. Aizu, Dagny, gauza bat dabilkit bueltaka oraindik ezin dudana argitu, horretarako goizegi bada ere.

- Zer da, Ebbe?

- Emakumearen gorpua zergatik utzi dute hain urrun? Badu zerikusirik lubakiaren ondoan uzteak? Lubakiak berak diot. Hiri osoan geratzen den lehen gerrate handiko lubaki bakarra da, ezta?

- Bai, geratzen den lubaki bakarra da.

- Horregatik, zergatik han? Hain urrun?

- Edo, ez hain urrun, batek daki. Ikertzekoa da, zalantzarik gabe. Baliteke, hiltzaileak, edo pluralean, mezuren bat-edo agindu nahi izatea. Baina nori? Guri?

- Hortik jarraitzen badugu, ez geundeke erailketa arrunt baten aurrean, nolabait beste agertoki baten aurrean izango ginateke, ezta?

- Bai, izan liteke.

- Beraz, honako hau kontu handiz hartu beharrekoa litzateke, badaezpada ere, ezta?

- Bat nator zurekin.

- Horrela ba, adi, eta hitzik ere ez inori.

- Ados.

Hogei minutu behar izan zituzten harrobira heltzeko. Behin han, automobila ezer gutxi ikertzeko moduan aurkitu zuten. Kiskalita zegoen. Lehen begi-kolpean barruan ez zuten ezer ikusi, baina hori, normalean, bat-bateko begiradak ematen duen azaleko itxura baino ez da izaten.

- Sakon arakatu ostean, zer dagoen ikusi beharko da. - Ebbe Haakonssonek zalantza aurpegia jarrita baieztatu zuen- . Dagny, badu matrikularik aurrean?

- Ez aurrean ez atzean!

- Atzekoa falta zaiola neuk ere ikusten dut. Zabaldu aurreko kapota eta begiratu ea identifikazio plaka ere eraman duten.

- Ez, ez dute eraman, hemen dauka.

- Ba, hartu gure autotik bihurkina eta kendu plaka; gero deitu teknikariei ea eurek zeozer gehiago aurkitzen duten.

Hala ere, Haakonssonek auto kiskaliaren barrualdera sartu zuen burua, eta bolaluma erabiliz, zati erreak mugitzen hasiko zen, astiro, presarik hartu gabe, mugimendu bakoitza kontuz, leun eginez. Hautsa, plastiko urtuak, tela erreak, burdina zatitxoak, hainbat tela zati ikaztu mugitu behar izan zuen metalezko zertxobait aurkitzeko; belztuta zegoen. Paperezko mukizapi baten laguntzarekin hartu zuen eskuetan. Zertxobait garbitu zuenean, beroaren beroaz itxura arean galdutako urre gorritzko eguzki-lore txiki bat

zela ikusteko beste zegoen. Jakako kanpo aldeko eskuin poltsikotik plastikozko poltsa atera zuen, eta eguzki-loretxo bat sartu.

- Dagny, honako hau esku artean daukagun kasuarekin albainduko zenuke?

- Orokorrean begiratuta, bai.

- Zer da hori, orokorrean begiratzea?

- Galdera batekin erantzungo dizut.

- Bota.

- Zenbat denbora da honelako kasu bat ez daukagula?

- Nahikotxo.

- Hori ba!

- Ni neu ere horretan nengoen.

- Albainduta datorrela ematen du.

- Ea, goazen, hemen ez dugu ezer egiten eta.

- Bai, hemen guk egin beharrekoa egin dago. Ea zientifikokoek zer aurkitzen duten!

- Bon.

Haakonsson inspektorea lantokira heldu bezain laster, mahaiaren aldamenean agiriak ikustearekin batera, militar hiltzaileaz gogoratuko zen. Ahantzia zuen, nolabait lubakiko gorpuaren kontuetan buru-belarri sartu izanak beste huskeriak alde batera uzteko joerara eroria baitzen.

- Dagny zoaz ziegara eta begiratu zelan dagoen militar hiltzailea.

- Nola militar hiltzailea?

- Auto ilararen kontutik dator. Talka egin eta beste autokoari begia ubeldu ondoren neure aurrean tiro egin eta ez du hil ba! Eraman iezaiozu kafea, hutsa, eta kafeari bota gatz, ea hiltzen den gustu txarrarekin!

- Zelan?

- Horixe!

- Zer demontre gertatzen da gaur, ba! Oraintxe noa. Besterik?

- Bai, jakina. Gero hasi ikertzen auto kiskaliaren gorabeherak, eta gure taldera etorri berri den ikasleari eman auto kiskalia aurkitu duenaren telefonoa, eta agindu beste norbaitekin galdeketa egitera.

- Horretara etorri gara hona, ezta?

- Autoari kendu diozun plakatik hasi beharko zenuke, ez daukagu besterik eta.

- Bai ba.

- Nik militarren txostena egiten hasi beharko dut, fiskalarekin egon, eta epailearen aurrera eraman beharko da eta.

- Utzi ziegan egun pare batean ea usteltzen den.

- Horixe egin beharko genuke, ezta?

- Bai, horixe preseski!

- Baina, Dagny, zuk sobera ere badakizu guk gauzak zuzen egiten ditugula. Penaz, baina gogoarekin soilik geratuko gara.

- Bai, penaz.

- Markestxo horiek eskarmentua behar dute, ezta?

- Horixe ba!

- Bon, oraingoz egin dezagun esandakoa, eta geroago hartuko ditugu erabakiak.

- Ziegan daukazunari ez diozu galdeketa egin behar?

- Zertarako?

- Txostena prestatzeko.

- Txostenerako ez dut behar galdeketarik.

- Ez?

- Ez.

- Nola osatuko duzu, deskribapen soil batekin?
- Jakina.
- Nahikoa horrela?
- Bai ba, neure aurrean gertatu da dena.
- Eta sinatuko du?
- Eskubide osoa dauka ez sinatzeko.
- Beno, hainbat lekuko daude, ezta?
- Bai; izen, abizen eta telefonoak hartu dizkiet lauri.
- Lekukoei ere ez diezu galdeketarik egingo?
- Oraingoz ez.
- Epaileak onartuko dizu?
- Baietz uste dut!
- Dena den, laster ikusiko da, ezta?
- Bai, gaur bertan.
- Ba horrela onartzen badizu, nahikoa eta sobera daukazu.
- Hori uste dut.

lau

Egunero bezala, goiz jaiki zen Haakonsson inspektorea. Kafeteran gelditzen zena baso batera bota zuen, eta azukrerik gabe edan ondoren, astean pare bat aldiz egiten zuen bezala bera bizi zen karrikatik lau harat zegoen saunara joan zen. Izerdi patsetan hamar bat minutu inguru eta hiru-lau luze igerian egitea nahikoa zitzaion leher eginda ez amaitzeko. Orduan, uretatik ateratzen zenean, lasaitasun itzela antzematen zitzaion, ez aurpegian bakarrik gorputz osoan baizik. Eskuoihal handi batekin buruko ileak lehortzeko hazka bezala eginez hasten zuen lehortzeko erritua, begietatik belarri zuloetara, eta

besapeetatik bizkarrera, gero gorputzeko beste alde guztiak artoski erreparatuz. Hara joaten zen bakoitzean egiten zuen ondorengo patxadaz hartzen zuen, presarik gabe; hain zuzen ere, ohikoa zitzaion kiroldegiko tabernan gosaltzea, eta, usadioak alde ona agertzen zionez, tabernako barran eskuak ipini besterik ez zuen egin behar izaten, kortesiako esaldiak botatzekoak ez baziren –kaixo, egun on, zer moduz eta horrelakoak–, halako egunetan berarentzat barruko aldean gordeta izaten zuten egunkaria aurrean izateko. Lehen bi orrialdeetako izenburuak azkar irakurtzeko apenas betarik, eta aurrera ekartzen zioten betikoa: laranja zukua, ogi txigortua, gurina eta arbeletzeko marmelada kafe hutsarekin batera.

Ohikoa izaten zuen metodologia berdinari jarraitzea ere sarri ibilitako karriketarik bulegorainokoa oinez egitea, kalea batetik bestera leku beretik igarotzea, zebrabide berdinetatik lerro berdinetan txapinak urratzea, edo eta gaztetatik ezaguna zuen betiko okinari egun ona opatzea, eta, jakina, kioskoko uruguaitar emakume adinduari, irribarrea agertuz, egunkari ezkertiarra erostea. “Sasoi honetarako eguna fresko dator”, besoetako mahukak eskuarekin igurzten zituen heinean pentsatu eta jarraian kirol-jertsearen kremlera kokots alderaino igoko zuen. Blue-jeans oso gastatuak zeramatzan, kirol-jertse urdin ilun-iluna barrutik mahuka luzedun kamiseta grisarekin, eta oinetan orkatilarainoko txapinak, sasoi batean berdeak izango zirenak. Tarte pixka batera osotasunean begiratzen bazitzaion, zalantzak albo batera botata, harrapakaria harrapakinaren atzetik zihoanaren itxura hartzen zitzaiola esan zitekeen erratzeko arrisku larregirik hartu gabe.

Bihozkadei jarraitzeko joerari amore emanaz, lantoki aurrean automobila hartuko zuen. “Gure Oslon, non bizi dira afrikar gehienak...” gomutan zebilen, auto barrura sartzeko ahalegina beti bezain nekeza egiten zitzaiola, eta, beste behin, gehienetan bezala, buruarekin xasisaren goialdea joko zuen. “Berrero ere, zer demontre! Beti gauza bera!” esanez hasi zuen madarikazioen agerraldia, eta aurpegi latz mingarriarekin, buruan kolpea hartu zuen aldean hatz egin zuen, supituan, ernegaturik, motorra piztu eta hegoalderantz joateko pentsakor. Osteratxo bat egiten zuen bakoitzean joaten zen bezala zihoan, astiro. Errepidean berrogei bat metro egin baino ez, eta atzetik zetorkion autokoaren klaxon-hotsak erne jarri zuen. Astiroegi zihoan. Oraingoan ez zuen matrakarik nahi, eta ibilgailua azeleratu zuen, baina bide-seinaleak agintzen zuen baino motelago joateko, orduko berrogeian. Jarraikiz zetorkiona ikusteko barruko atzerako ispilua begiratu ondoren, leihoa zabaldu zuen eskuarekin aurrera egin zezan agintzeko.

Urrunera, fiordoa inoiz baino ederrago ikusten hasi zen, eta izugarrizko errespetua eragiten zuen ur berde ilunak, “Erdu! ondo ibiliko gara! nik kulunkatuko zaitut zu aparra oinetan biltzera irristatuz joan zaitezen!” esaten egongo balitz bezala. Sakon agertzen zen. Handik itsasoaren kresala beste inondik baino hobeto usaintzen zen, portuan baino askoz ere hobeto. Lodi zetorren; gustua hartzeko moduan.

Haizearen norabidearen erruz, udaberriko olatuek ekartzen zuten aroma zen, oro blaitu arte, hirian barrena poliki-poliki hedatuz joaten zena. Haakonsson usaina edonora zegoela zabaldua orduantxe jabetu zen.

Søndre Nordstrand auzora heldu zenean, ikuspegia sekulakoa agertzen zen bere harrotasunean. Beste inon halakorik ikus zitekeenik zail egiten zen pentsatzea. Auzotegi hartarako joan etorria mila aldiz egin bazuen ere, oraingoan zirrara ikaragarria eragiten zion. Begien aurrean ur handiek bailara izoztua nola bereganatu zuten oso-osorik azaltzen zitzaion. Fiordoaren magalean bitxi ipinita zeudenak antzinako Bjørvika eremuko baserrizarraren lurrak ziren. Ertzak irregularrak, mugagabeak, bururik gabeko sugearen erara berebaitako nortasuna noranahi hedatuz, iragan denborako Thorren agintaldiko bazterrak ziren, sendo, gogor, indartsu, eta, aldi berean, bortitz zirautenak. Goitik, etxeen inguruetatik, bertakoak laztandu nahian-edo, haizea leun mihise eskuarekin springar dantzaren hiru laurden konpaseko erritmoari jarraitzen bezala-edo. Kontrajarria zirudien hain eremu bortitzean airea leun eta gozo ibiltzea, baina batzuetan halakoak ziren inguru hartan gertatzen zirenak. Gaitza ematen zuen sinestea; hala ere, bertara joatea baino ez zegoen han zer zegoen ikusteko. Sarritan, nola esan behar zaion jakiten ez den mizke hazitako oso haur berezia bezala ikusten zen hango eguratsa.

Toppasueien kaleko bidegurutzean geratuko zen motorra oraindik martxan utzita. Segundo pare bat, eta automobila kalearen bazterrean eraman zuen, poliki-poliki, han bertan uzteko, belarraren gainean, ia-ia arekan. Laneko autoa, kolorez gris ilunekoa, giltzaz itxiko zuen. Tesla zaharra zen. Beti bezala nekez ateratu zen barrutik. Izugarri kostatzen zitzaion autorako sartu irtena egitea; gorputzaren neurriaren kontuak. Oinez bideratuko zen aurrerantz, autoaren muturrak adierazten zuen norabidean, aldika olatuei begira, besteetan eman beharreko urratsera.

Han, itsaso urrutian, itsasontziak txiki ikusten ziren, eta barruan biltzen ziren gizonak akaso egiten zuten mugimendu txikiren batengatik bakarrik jakiten zen lanean buru-belarri zebiltzala, hiriko jatetxeek estimu handitan izaten zituzten jaki preziatuak biltzeko sareak botata. Zeruertza zirudien aldean, ordea, txalupak esku trebeak koadro batean ipinitako puntutxoak ziren, ez besterik. Uraren mugatik, itsasertzetik etxeetarantz jendeak urratutako xendra ausartak nabarmentzen ziren. Lorategi batean lorezainak hobeki egin ezin zitzakeen bezala zeuden oinbideak, etxeetarako nahaspila askaezinak orografian ipinita. Goialdean blokeak ziren bezala, behean bizitza lekuak denak zeuden bata bestearen alboan, bakarti, ondokoa ukitu gabe, triste. Teilatudun behe solairuak ziren, batzuk egurrezkoak, besteak porlanezkoak, batzuk gorriak, beste batzuk zuriak, haragokoak urdinak, eta bista helduko zen lekuetan grisak. Aspaldian distira galdutako auzunea, amets egitea galarazita zeukaten emigratzaileen ingurua zen orain, non askotxori nabarmen igartzen baitzitzaien euren lurraldera noiz bueltatzeko itxaroten zeudela.

Haakonssonek irribarre arina agertu zuen ezpainetan. Keinua begietan ere igartzen zitzaion. Paisaia zoragarria zelako-edo izango zen. Irudi ederra. Segur aski udaberria kolpean zetorrela pentsatu zuen. Edo bazitekeen hogeita hamarren bat metrora zeuden neska eta mutilagatik izatea. Nerabeak ziren; beltzak; gordeta ibili behar izaten duten umetxoak; begiradan antzematen zitzaien jende ezezagunekiko izua. Bizirik irauteko desirak bultzatuta beharbada, korrika hasi ziren, alde egiteko; ezkutatzera zihoazen beldurak eraginda-edo.

Haakonssonek aldapa behera zuen begirada jarrita. Hango kalerako bide zidorra hartu zuen. Bidea estua zen, oinbidea, eta gainera, maldan behera zegoen, bizkarrean; eskerrak lurra lehorra zegoen.

Narras jantzitako etxe beilegi ilunera heldu zenean, alboak begiratu zituen. Presarik gabe egiten ikusten zen, bazterrak irakurtzen bezala, berak bakarrik zekien bezala, zorrotz usaintzen. Keinurik gabe egiten zuen, begirada zoli. Eraikina goitik behera zegoen itxita, eta inguruan zuen lursaila ere berdina zegoen. Denbora ez zen alperrik joana izan, eta gizonaren eskuek egindakoak zaharkituta utzi zituen. Kaiolak etengabe hegaldatzen zebiltzan beldurturik. “Bon, bulegora joango beharko dut”, inolako seinale txarri kasurik egin gabe, bat-batean etorri zitzaion gogora. “Gauzek eta pertsona guztiek seinaleak bidaltzen dituzte; ikusten ez diren kontuak dira, baina hor daude, ezkutuan, misterioak bezala. Ikusten den guztia dago sinbologiaz beterik, baina hala ere, ikusten ez dena baino gauza argiagorik ez da egongo. Bai, egia da, jakina, baina joerari egin behar zaio kasu”, maiz errepikatzen zuen leloa zen. Inoiz esana zion Dagny Gulbrandsen detektibeari: “Joerak aintzat hartu behar dira, horiek bai adierazten dutela noranzkoa, bestea usaimenarekin harrapatu behar da”. Erlojuari begiratu zion. Zortzi eta erdiak ziren.

Etxearen atzealdeko bazterretik zerbait iluna mugitzen ikusi zuen. Une bat baino ez zen izan, segundo baten hamarrena-edo. Berehala desagertuko zen itzala izan zen. Haakonsson eraikinetik hamar metrora zegoen. Eskuarekin ilea atzerantz eramanean zuen, eta gero, zorriak izango balitu legez, garondoan hatz egingo zuen. “Ez zait bat ere gustatzen”, pentsatuko zuen. “Pertsona makurtuarena, kakanarruarena, edo soilik edozein animalia txikiren itzala izango zen”, buruan bueltaka zebilkion, ziurtasunez jakin ezinik zer izango zen.

Aizkolariak enborrean aizkora nola, supituan txistuak hala airea apurtuko zuen. Hots metalikoa bat-batekoa izan zen. Balek ateratzen duten doinuak lagundua, eta jarraian zarata idorra. Inguruko sasizatik txantxangorri taldea ikaraturik hegan aireratu zen, noraezean, bakoitza bere aldetik.

Berehala ezagutu zuen hotsa. “Ze kakalardo!”, errepikatu zuen bi aldiz. Boz gora, garrasika aterako zitzaion, eta, berak zuen bizi- senari jarraikiz, gorputza lurrera botako zuen, oso osorik bota ere, jarraian hotsa etorri zen etxearen beste alderantz hiru- lau metro pirritan egiteko.

- Urte osoa tiro barik eta gaur bota beharko ote dut ba!, - berriro ere ozen aterako zuen ahotik. Instintiboki poltsiko batean autodefentsarako zeraman espraia atzamarrekin ukituko zuen, eta "honekin ez dut ezer egiten" pentsamendura etorri zitzaion. Eskuineko poltsikoan telefono mugikorra zeraman. "Horixe egingo zuen, telefonoa hartu"! "Hemen sekula ez da tiroketarik egoten eta gaur gertatu behar" - jarraituko zuen, nahiz eta pentsamendua beste alde batean zuen. Dagny Gulbrandsenen zenbakia sakatu zuen. Burua ehun eta hogeik kilometro orduko bazebilkion ere, leloturik bezala zegoen. Ez zekien tiroa nondik etorria zitzaion. Etxea babesten zuen hesiak gaindiezina zirudien, eta babesa bilatzeko ezin izango zuen hormara heldu. Lurrean etzanda jarraitzeko gogoa zuen, baina ez zitzaion aukera ona irudituko. Detektibearen telefonoa lehen doinua jotzen ari zenean etorriko zen espero ez zuena. Berriro berunezko hots bizia eta talka isila. Oraingoan bere ondoan. Gorputzetik gutxira harrotuko ziren harri txiki arinak lagun ekarriko zituen gainera.

- Ebbe, esan! - telefonoan adituko zuen, baina bere ahotik, "zer kaka mokordo, berriro ere!", horixe soilik aterako zitzaion.

- Ebbe, zer diozu? - Gulbrandsen detektibeak telefonoaren beste aldetik egiten zion galdera adituko zuen, baina ezin izango zion erantzun. Lehenbailehen jakin behar zuen nora egin beharko zuen, edo bereak bertan egin zuen betiko. Etxetik urruntzeko ahaleginean, beste hiru-lau metro joan zen pirritan, mugimendua ahal izan zuen arinen eginez. Gehiegi eskatzea zen.

- Dagny! tiroketa! etorri berehala! - esandako hitzetan bizitzak alde egingo balio legez agindu zion detektibeari.

- Nora?

- Søndre Nordstrand auzora! Kokalekua Dagny, teknologia kontxo!

- Zenbat dira?

- Nola zenbat diren! Nik zer dakit ba!

- Oraintxe goaz!

- Azkar edo nireak egin du!

- Bai, berehala!

- Ea oraingoan egia den!

- Eskegi, tira!

- Tira? Hiltzeko zorian eta, eskegi tira! Adarra jotzen ala?

Gulbrandsen detektibeak ez zion ezer erantzun. Eten zen komunikazioa.

Haakonsson inspektoreak sakon hartu zuen arnasa. Badaezpada ere, lurrean etzanda jarraitzea erabaki zuen. Babesa non aurkituko, batera eta bestera begira egon zen istant baten bederen. Lasaitasun arraroak biltzen zuen bere burmuina. Beti gertatzen zitzaion antzera, gauzak zail xamar ipintzen zitzaizkion bakoitzean, bere baitara lasaitasun arraroa etortzen zitzaion. Ezin zion besteari aurre egin. Oslon inoizkoak soilik izaten ziren tiroketak, horregatik ez zuten arauzko pistola aldean eramaten; galarazita zeukaten. Automobila urrun zeukan. Han zeukan pistola. Araudiak agintzen zuen bezala pistola poltsa batean berunez zigilatuta zeukan guanteran. Glock 357 SIG pistola zen, bederatzikoa, "Safe Action" zuena. Armak aldi berean hiru segurtagailu zituen, ezustean tiro ez egiteko; segurtagailu batek huts egiten bazuen beste bi zituen. Baina hori pentsatzeak ez zuen aterako zegoen egoera larritik.

Hiru-lau aldiz arnasa sakon hartu zuen. Apurtxo bat aurrerago autoak uzteko estalpe baten antzerakoa zegoela zekusan. Erdi katamar, erdi narraska harantz zuzendu zen. Bat-batean, benetako basurdea bailitzan, lau hankatan jauzi luze bat eginda babesean sartu nahi zuen. Jausia arraroa egin zuen, apenas metro erdikoa. Ez zuen helburua lortu. Gorputzaren neurrien kontuak. Katamar saiatu beharko zuen. Burdinazko xafla herdoilduz egindako estalpea une batetik bestera lurrera erortzeko moduan zegoen. Hala ere, ezkutua emateko beste bazegoen, baina berriro tirokatzen bazuten xaflek ez zioten inolako babesik emango. Dena den, ezin zuen besterik egin. Itxaron. Itxarotea luzeegi joaten den denbora izaten da, baina ez zuen besterik, horixe egitea baino.

Istant batean, bat, bi, hiru, lau metal zarata burrunbatsu bata bestearen atzetik entzun zituen, eta telefonoa eskutik lurrera erori zitzaion. Eskuineko sorbaldan kilikak sumatuko zituen, eta une batez inurriak izango zirela pentsatuz geratuko zen. Ez zegoen beste ezertarako. Kostata lortu zuen bizkarra barruko xaflaren kontra jaurtitzea. Xaflak kakotu ziren. Eutsi zion arnasari. Kopetatik izerdi hotza zerion, dardara arinarekin batera etorri zitzaiona. Urrutira, patruila-autoen sirena hotsa entzuten zen doi-doi hurbilduz zetoze. "Apur bat gehiago eusten badiot, salbatuta nago", etorri zitzaion burura, eta lurrean etzan zen. Etxearen atzealdetik automobil baten motor zarata zetorren. Motorra adituta, birak abiadura handian egiten zituela irudika zitekeen, eta zerbait apurtu ondoren alde egin zuen. Arin zihoan, txirringak irrirtzika ipinita. Gero, pentsatuz arriskua urrunduz zela, lasaitu ederra emango zion arnasotsa atera zuen.

- Ebbe! non zaude? - entzun zuen, urrutiegi oraindik. Deia, bazirudien, handik, alde zaharretik etorriko balitzaio bezala heltzen zitzaio. Zalantzan zegoen bere ahotsa Gulbrandsen detektibea zegoen punturaino hel zitekeen. Hala ere, bakarrik zegoelako ustean, zutik ipintzeko erabakia hartu zuen.

Eskuak lurrean ipiniko zituen zutitzeko ahaleginari laguntza emateko. Bata berehala tolestu zuen ukondoan gorputzaren babes eske. Belauniko jarri zen. Bertikal ipintzeko lan nekagarria esku baten laguntzarekin erraztuko zuen. Kostatu zitzaion. Atera zen estalpetik, eta biriketako indar guztiez baliaturik deiadarka erantzun nahi zuen. Eztul arina atera zitzaion, ordea. Eztarria garbitu zuen erantzuteko.

- Hemen, Dagny, hemen! - detektibea arineketan heldu zen, beste hiru poliziak ingurua babesten jartzen ziren bitartean. Arnasestuka heldu zen.

- Baina, Ebbe! Zer demontre gertatu zaizu, odoletan zaude bata!

- Zelan odoletan?

- Ez duzu ikusten ala?

- Zer?

- Zure eskuin sorbalda!

- Eskuineko sorbaldan kilimak soilik ditut - artean ez zen konturatu bala batek jo zuela eta odoletan zegoela.

- Ez da ezer, odol apur bat baino ez!

- Goazen berehala ospitalera! Kirol-jertsea eskuin aldean odolez dena zopa-zopa egina daukazu eta!

- Zer ospitale eta zer ospitale!

- Bai, oraintxe bertan, eta ez dut tutik ere aditu nahi, entzun?

- Ezetz ba! Odol apur bat baino ez dela, ba! Gainera lan pila daukagu egiteko!

- Lanak itxaron beharko du!

- Ezetz ba! Ez dela ezer, kontxo!

- Hori han ikusiko dugu. Goazen.

- Beno, baina zeu zarelako bakarrik. Gaur ez dut zurekin inolako matrakarrik nahi eta.

- Horrela nahi dut.

Gulbransen detektibeak besotik helduta zeraman aldapan gora. Haakonssonek hara eramandako autoaren ondora heldu ziren, arnasestuka bata, eta besteak aurpegia gorri-gorri.

- Emazkidazu giltzak - Gulbrandsenek lagunik izango ez balu bezala agindu zion.
 - Bai, tori. Tori arinegi esan dizut. Itxaron.
 - Zer ba?
 - Nola, zer ba?
 - Bai, hori, zergatik itxaroteko?
 - A, ba giltzak lepoaren zauritu didaten aldeko poltsikoan ditudalako. Ez duzu ikusten beste eskuarekin zelango maniobra egiten nagoen, ala?
 - Dena oker atera behar izatea ere!
 - Patua kontuak?
 - Baliteke.
 - Zer patu eta zer pato!
 - Zer?
 - Gure lanbidean ez dagoela paturik!
 - Zalantzan nago.
 - Bon.
- Giltzak poltsikotik atera zituen, eta airean bota zizkion. Higidura erreflexuari jarraituta edo, Gulbrandsenek inolako arazorik gabe harrapatu zituen.
- Dagny Gulbrandsenek autoaren motorra abiarazi zuen ospitalerantz egiteko. Ziztu bizian ari zen gidatzen. Errepideko lehen bihurgune bihurrian autoa atzez joan zitzaion, eta biraka hasi zenean hirugarren martxa sartu zuen azeleragailua barruraino sakatuta aurrera egiteko.
- Hori non ikasi duzu? - Haakonssonek areka saihestu izana oraindik ezin sinetsirik, harridura aurpegia ipinita galdatuko zion.
 - Zer uste duzu, esne bitsetan hezitakoa naizela, ala? - Gulbrandsenek burdinazkoa bailitzan.
 - Ez, baina hori edo kinkiek edo oso iaioek bakarrik dakite egiten.
 - Behin izan nuen beste bizitza bat.

- Gaitza?

- Bai.

- Hitz egitea nahi?

- Ez.

- Bon.

- Ebbe, nor edo nortzuk izan dira? - detektibeak gertatu berri zenari nolabaiteko azalpena eman guran galdetuko zion inspektoreari.

- Ez dakit. Ez dut ezer ikusi. Ez dakit bat edo bat baino gehiago izan diren, eta ez dakit eskuartean daukagun kasuarekin erlazionatuta egon daitekeenik ere. Baliteke kasualitate hutsa izatea. Ez dakit kasualitatea edo kausalitatea izan den, nahiz eta zentzuzkoena bigarrena izaten den. Ez dakit zuria edo beltza, edo morokila, edo nor edo nortzuk izan diren, edo eta kakanarrua izan den. Tiroketa hasi aurretik soilki itzal arina ikusi dut, ez besterik. Eta ez dakit itzala pertsona makurrarena edo animalia txikiarena izan den.

- Beno, ikusiko da. Taldekoak ipini ditut ingurua arakatzen. Baliteke laster zertxobait jakitea.

- Dena argituko da, denbora besterik ez dugu behar, denbora.

- Horixe da beti faltan duguna.

- Utzidazu telefonoa.

- Zertarako behar duzu?

- Dei bat egiteko.

- Bulegora?

- Bai.

- Itxaron dezatela. Behar bagaituzte eurek dei diezagutela.

- Nire telefonoa estalpean geratu da.

- Ez, neuk hartu dut.

- Non daukazu?

- Poltsan daukat.

- Emadazu.

- Gero.

- Noiz da gero?

- Ospitaletik irtendakoan.

- Bon, baina zeure nahia delako bakarrik, e!

- Ondo.

Ospitalera heldu zirenean ateetan gurpil-aulkiarekin zaindari bat zegoen euren zain. Zaindariaren ondoan erizaina. Erizainak apur bat urduri ematen zuen. Haakonssoni aurpegira begiratu ondoren, lagunik izango ez balu bezala, gurpil-aulkian esertzeko agindua eman zion.

- Ezetz ba! ondo noala oinez, ba! - Haakonssonek, hain denbora laburrean hainbeste aginduri men egin behar izatearekin asperturik, aurpegira bota zion.

- Haakonsson jauna, protokoloa da - erizainak bere horretan ekin zion, nolabait hura ere kokoteraino baitzegoen berari zegokion txandan inork kasurik egiten ez ziolako. Nabarmen igartzen zitzaion jendea tente jartzeko ez zuela ahalmenik. Serio jartzen bazen ere, agerian geratzen zitzaion pertsona samurra zela.

- Ezetz ba!

- Ebbe, eseri zaitetz hor, agindua da - manatu zion Gulbrandsen detektibeak.

- Bon, zuk agintzen didazulako bakarrik, bestela ez gero! - Haakonssonek noizbehinka soilik hartzen zuen adarra jotzeko jarrera hartu zuen. Aspaldian ez zen horrela ikusten, eta sekula ez zen izaten Gulbrandsen detektibearekin. Hala ere, Dagny Gulbrandsenek txantxa ontzat hartu zion. Bazekien goizko lehen orduetan hasita estres itzelaren menpean zegoela, eta dena barkatzeko prest agertzen zen.

Erizaindegia edozein ospitaletan egoten den horietakoa zen. Ez zuten itxaron beharrik izan. Berehala etorri zen mediku andrea. Hura ere, lagunik izango ez balu bezala hasi zitzaion galdezka. Ematen zuen ospitalean, ordu hartan batik bat, inork ez zuela lagunik.

- Bala?

- Bai - erantzun zion Haakonssonek. Bai lehorra izan zen, gertatu zitzaion guztia hitz horretan jarriko balu bezalako indarrarekin botatakoa gainera.

- Ez da muskuluan sartu baina ondo urratu dizu. Odol pila botatzen ari zara. Garbituko dizut, eta lau, edo akaso bost puntu eman beharko zaizkizu.

- Hainbeste?

- Bai, odol asko dario hemendik. Bost bat beharko dira. Garbitu eta jarraian anestesia lokala emango dizut.

- Anestesia?

- Bai, behar da. Izan duzun shockarekin eta galdu duzun odolarekin likido asko edan beharko zenuke. Batez ere ura edo eta infusioak. Kaferik ez, eta alkoholik inolaz ere ez.

- Kaferik gabe ezin naiteke bizi.

- Esan dizut esan beharrekoa, hortik aurrera zuk ikusi!

- Bon.

- Ea, tentsioa hartuko dizut.

- Tentsioa. Ez nauzu tentsioan ikusten ala?

- Horrexegatik jakin behar dugu noraino igo zaizun!

- Bon, beste erremediorik ez badago...

- Ea, orain barbarik ez!

- Zer ba?

- Hitz egiten baduzu tentsioa aldatuta azalduko delako.

- Bon.

Mediku andreak presio arteriala hartzeko tresna ipini zion, eta berehala besoan ipinitakoa puzten hasi zen. Laster agertu ziren zenbakiak pantailan.

- Inspektore, oraindik shockaren eraginpean zaude, bederatzi koma hiru eta hamabi mediku andreak – esan zion.

- Beti izaten dut tentsio baxua.

- Bai, baina goikoa ondo daukazun arren, behekoa gora joan zaizu. Bulegora heltzen zarenean erizainari esan lau ordutik behin tentsioa hartzeko. Berak jakingo du zer egin beharko duen. Bulegoan badaukazue erizainik, ezta?

- Bai, gaztea eta oso ona gainera.

- Ba, horixe!

- Horixe bakarrik?

- Adarra jotzen?

- Bon.

- Gero errezeta bat emango dizut, eta sei ordutik behin bi pilula ur apurtxo batekin irentsi beharko dituzu. Eta beste hauek mina kentzeko.

- Lehenengoak zertarako?

- Zauria gaizkoatu ez dakizun. Inspektore jauna, txantxa gutxi hemen, e!

- Bon.

- Ea, orain begiratu beste aldera edo zorabiatuko zara.

- Zorabiatu ni?

Medikua bera hasi zitzaion puntuak ematen. Lehenengo puntuak ematen hasi zitzaionean inspektoreak beste aldera begiratu zuen.

- Zer esan dizut?

- Bon.

- Esku-ohetan etzatea nahi?

- Bai.

- Aurpegia zuritu zaizu.

- Bala batek ezer ere ez eta ziztada batek hainbeste?

- Maiz gertatzen da. Orratza ikusi bezain laster kristoren gizonak ikusi ditut lurrera jausten.

- Zergatik ote da?
- Ez dakigu. Beste batzuk euren odola ikusteaz batera ere zorabiatzen dira.
- Inorenarekin ez eta norberarekin bai, ezta?
- Bai, horrela izaten da.
- Azaldu ezin diren kontuak.
- Beno, hau badago.
- Amaitu da hemengoa orduan?
- Bai, hemengoa egina dago, kontuz ibiltzea geratzen zaizu.
- Hori baino ez bada, zail xamar.
- Zuk ikusi.
- Bon.
- Adinez nagusia zara, ezta?
- Horretan nago!
- Ba, horixe.
- Batzuetan besterik pentsatzen dut.
- Zure barneko kontuak?
- Nireak izan beharko.
- Ez dira neureak izango, ezta?
- Ez ba!
- Horixe!
- Bon.
- Bihar goizean ez etorri esatera ez didazula ezertan kasurik egin, gero!
- Ez da horrela gertatuko, gorputzean bala batekin ez bada behintzat.

- Ez nuke nahi.

- Nik ere ez.

- Ba, kontuz ibili.

- Erraza da esatea.

- Bai, ziur. Esatea erraza, saihestea beste kontu bat, ezta?

- Bon.

Bulegora heldu bezain laster, Haakonssonek dutxarako bidea zuzenean hartu zuen, garbitzeko irrikaz baitzegoen. Dutxara sartu aurretik, zauria zuen aldea zelofan zabalarekin biribilkatu zuen, baldar eta basati. Ura behar zuen burutik behera sentitu. Ur beroa, eta xaboia. Denbora pila eman zuen txorrotaren azpian ura goitik behera bero-bero erortzen zitzaiola, bainugela lurrinak ezer gutxi ikusteko moduan jarria zuela ohartu zen arte. Orduan, eskuoihal handi batekin gorputz hezea sikatu ondoren arropa garbia jantzi zuen. Horrelako ezusteetarako beti izaten zuen zerbait armairuan. Jarraian, langelara jaitsiko zen. Besaulkian eseri zenean patxadaz hartuko zuen eginbeharrekoa. Presarik gabe. Dutxa beroak bizirik sentitzeko indarra eman zion. Halako batean, konturatu gabe bezala, eskuak besaulkiaren beso-euskarrietan jarri zituenean, aiene mingarri arina atera zitzaion ahotik, zauritutako aldeko eskua instintiboki sabelaren babes eske joan zitzaiolarik. Gulbrandsen detektibea deitu zuen. Konturatu orduko, lanerako ezinbestekoa zuen andreak atea jo eta bulegoan sartu zen.

- Bai, Ebbe!

- Dagny, bidal ezazu norbait kafe bat ekartzera. Eskatu zuretzat beste bat.

- Medikiak ez al dizu esan kaferik ez edateko?

- Txotxolokeriak!

- Zure osasuna da!

- Bai, horixe!

- Ez didate niri tiro egin.

- Eskerrak neuri egin didatela!

- Ez zen hobeto izango beste bati gertatu izana?

- Bon, laga dezagun metalinguistika adituentzat.

- Oraintxe bertan noa.
- Arren!
- Banoa.
- Ez etorri hamar minutu beranduago, gero!
- Ez zaizu adarra jotzeko gogoa uxatu, e?
- Hori gertatzen denean gureak egin duelako izango da.
- Ehun urte barru-edo?

Haakonssonek ez zion erantzun. Arraroa. Gustukoa izaten zuen azken hitza berak jartzea.

Gulbrandsen detektibea bulegotik atera zen, eta agindua ematera harrera gunera zuzenduko zen urratsa zoli. Telefonoz ere egin zezakeen baina mugitzea nahi zuen. Ez zuen geldirik egon nahi. Nolabait mugimendua ibilian sorrarazten dela pentsatuko balu bezala zebilen. Behingoan Haakonssonen langelara bueltatu zen.

- Ebbe, zerbait entzuteko moduan zaude?
- Lanean jarraitzeko prest nago, ez nauzu ikusten ala?
- Bai, jakina, baina pentsatzen nengoen, behintzat minutu batzuetan atsedena hartu nahiko zenuela.
- Hiltzen garenean a zelango atsedena hartuko dugun! Ordura arte, segi aurrera!
- Ziur orduan ere norbait zirikatzen ibiliko zarela.
- Batzuek merezi dute.
- Batzuk bakarrik?
- Batzuek bai behinik behin.
- Gehienek, esango nuke.
- Jendaurrean lan egin behar dutenek ez.
- Bat baino gehiagori pipermina ipurditik.
- Ez da hainbesterako izango.

- Ezetz?

- Ziur naiz.

- Ez pentsa.

- Ea, goazen harira!

- Ba, begira, arakatu genuen erretako automobila, uste izan genuen bezala Chrysler Voyagera, Hartmut Borchgrevinkena da. Deitu diot eta bere emazteak esan dit aparkalekuan izaten dutela, eta handik asteen behin-edo soilik ateratzen duela erosketak egitera joateko. Bere gizona ez dagoela gidatzeko moduan, oso zaharra dela, eta berak bakarrik gidatzen duela. Triste ipini da autoa erreta aurkitu dugula esan diodanean. "Hori ere guri egokitu behar" Aspaldi honetan a zelango marka daramagun!", horixe esan dit, eta lasaitzeko agindu diot, neu joango naizela euren etxera gorabeherekin eta.

- Oso ondo, Dagny, detektibe aparta zara. Nire ezagun batek "aparta, emakumea izateko", esango luke, baina nik ez dut horrelakorik esango. Ez dakit inoiz horren gaixotasunik izan dudan, baina izan badut aspaldidanik sendatuta nago, eta eskerrak. Lehenago ere esana dizut inspektore kargua hartzeko sobera prestatuta zaudela, eta, egia esan, oraindik ez dakit zergatik ez zaituzten mailaz igotzen. Oso efikaza izaten laguntzen zaituen zerbait berezia duzu, eta zerbait berezi hori oso jende gutxiri antzeman diot.

- Mila esker, Ebbe, estimatzen dizut.

- Baina, Dagny, ez joan zu, bidali beste norbait Hartmuten etxera.

- Ondo dago.

- Besterik?

- Beno, zu tirokatutako lekuan lau bala-zorro aurkitu dituzte, eta dagoeneko zientifikokoei eraman dizkiet.

- Sei tiro aditu nituen.

- Izango ziren baina aurkitutakoak lau bala-zorro izan dira.

- Metala bilatzeko tramankuluarekin ibili dira?

- Bai.

- Ondo.

- Aterpetik entzun duzun autoaren arrastorik inondik ere ez. Desagertu egin dela ematen du.

- Bon, hori jakin nahi nuen.

- Aditu zenuen metal hotsa?

- Bai.

- Ba, hango markak auto beltzak egindakoak dira.

- Besterik?

- Bai. Lauko taldea jarri dut hango bazterrak arakatzen.

- Bon.

- Laster jakin beharko genuke zerbait.

- Agindu diezu bertakoak bezala ibil daitezela?

- Zergatik?

- Susmorik ez eragiteko.

- Ez diet horrelakorik esan, baina horrenbeste badakite, ezta?

- Ez dakit ba!

- Hurrengorako ikasi dut.

- Bon.

Haakonsson arduratuta zegoen. Aurrera abileziaz ateratako ehunka kasuetatik esku artean zeukatena bitxienetarikoa iruditzen zitzaion. Emakume afrikarraren hilketak buruhauste itzela ematen zion. Ez zuen ezer apartatzen. Dena posible zela uste zuen. Hala ere, senak esaten zion ez zela kasu arrunta izango. "Bazuen senarrik? eta seme-alabarik?", galdetzen zion bere buruari. "Nor ote zen? Hemen bizi ote zen? Genero-indarkeria? Nortzuk ziren haren lagun eta famili artekoak?" etenik gabeko hausnarrean jarriko zen.

Eskuin sorbaldako zauria min ematen hasiko zitzaion eta, pentsatu gabe, lasaigarri-flaskoa ahoz behera ipinita, gora begira zeukan eskura pilula pare bat atera eta, jarraian, ahora sartu ondoren, mahaiaren albo batean zuen botilatik ur zurrutada laburrekin batera irentsi zuen.

Telefonoa joka aditu zuen. Haakonssonen nagusiak agindua emateko deia zen. Telefonoaren beste aldean zuena Yndag kapitaina zen. Egiten zuen lanagatik babesa emateko deiak agindua ere bazekarren: esku artean zeukaten kasuak iraungo zuen bitartean pistola aldean eramatekoa, arauzko Glock 357 SIG, bederatzikoa, "Safe Action" zuena.

Egunean ehunka aldiz bezala, beste behin ere, telefonoak jo zuen berriro. Dei aspergarria izango zelako ustean, nagiturik hartu zuen. Bere zalantza eta kezka ezkutuek nolabaiteko poza behar zuten, noizbehinka bederen.

- Bai - erantzun zuen, autoritate kutsua zuen doinua ateratzea kostatu zitzaiola, ohikoa izaten zuen bere buruarekiko konfiantzak huts egin balio bezala, normala bestalde, ezen kasuak aurrera egin heinean, oraindik urrutiegi argibideren bat izatea eta, zalantza gehiago ekarriko zizkion, eta, horrek, jakina, oreka izatea zail jartzen duen estresa sortuko zion, ondorioz ahulezia psikikoaren zantzuak ezinbestean pairatzera behartuz. Inspektorea jabetzen zen gertatzen zitzaionaz, hots, batzuetan adorea beheraldia, besteetan ahotsa behar beste baino gehiago igotzea, ahuleziatik babesteko adarra jo beharra, sarritan egonezina, gauero hiru ordu eskas lo egitea, eta kasua argitu arte burua horretan bakarrik izatea; betiko kontua.

- Ebbe.

- Bai?

- Forentse buru andrea, Alfhid telefonoan.

- Ondo dago. Hartuko dut.

- Besterik?

- Ez.

- Bon.

- Alfhid! laztana! - oihera egin zuen, garrasika bezala, bestearekiko haserrea, ohikoa izaten zena, baretu nahian edo. Dena den, Ebberri euren arteko tirabirak kudeatzea oso eroso egiten zitzaion, kontuari neurria hartuta zion eta.

- Joan hadi antzarak ferratzera - sendagileak erantzun zion, besteak handietsiagatik pikutara bidaliz- . Etorri hadi gura dokenean zeozer bajaukaguk eta.

- Ederto, Alfhid! Oraintxe goaz - hasierako tonua galdu gabe erantzun zion.

- Kakalardoaren adarrak heurtzat - esanez batera, sendoago jartzearren-edo, Alfhild forentse andreak belarrira eramaten den telefonoaren aldearekin mahaiaren kontra hiru-lau kolpe gogor eman zituen.

- Kar-kar-kar! irriz Haakonsson inspektorea.

Medikuak zenbait hitz ulertezin bota ahala eskegiko zuen telefonoa.

- Aiurri txarreko emakumea! bai horixe! Horrela da! - esanez, telefonoan bi luzapena sakatuko zuen inspektoreak. Gulbrandsen detektibearen ahotsa entzun zen. Beti bezala zegoela ematen zuen. Pertsona zentzudunak izaten duen jarrera izaten zuen une oro, oso gutxitan aztoratzen zena. Jende aurrean egoten zenean bederen, burdinazko nerbioak zituela ematen zuen.

- Dagny, gorputegira joan behar dugu, forentseak deitu dit esateko badaukatela zerbait eginda eta.

- Txostena osorik?

- Ez dut uste, zertxobait esan dit eta.

- Goazen, ba! Gorputegira joan aurretik kafea? - Gulbrandsenek proposatuko zion Haakonssoni.

- Nola muzin egin kafeari, bi ere bai! - Haakonssonek sekula ez zion ezetz esaten kafea edateko gonbitari; zerraldo egon beharko luke horretarako. Horixe zen inork egin ziezaiokeen estimurik handiena, hain zuzen, kafea edatera gonbidatzea.

Sarrerako bazter batean zegoen mahaiaren, forentseak norvegiar pastel tipikoak jarrita zituen. Horixe bakarrik zegoen harrera-gela egiten zuen espazioan; ez zegoen bestelako apaingarririk. Tututxoak, Madagaskarreko Bourbon banillarekin egindako natillaz beteak, zeuden plater luzangan, esku treberen batek bitxi jarrita. Portzelana zuriak zuen urrezko ertzak oraindik erakargarriago egiten zituen platerean zeuden tututxoak. Dozena bat zeuden noiz jango itxaroten. Inspektoreak ezin izan zion tentaldiari eutsi, eta, bere laguntzailearekin soilik zegoela ohartuz, bat hartu zuen disimuluz ahora sartzeko. Gulbrandsen detektibeak beste hainbeste egin zuen, baina lehenengo inspektoreari argibide gisa zera esanez:

- Ebbe, badakizu desberdintasun handia dagoela, zuzeneko lekuko izatetik, gaizkide izatera, ezta? – Haakonssonek ez zion kasurik egin. Oraindik zapore eztanda mihian bueltaka zutela forentsea atera zen, eta bortizki agiraka egin zien:

- Zer, ezin itxaron?

- Probatzeagatik bakarrik norbait hil egin daiteke. Hori egiteraino bultzatzen dute. Egin kontu! – inspektoreak ahoan zuen jaki gozo-gozoak mihia tratatzen ziola botako zion.

- Bai, horrela da. Hain dira gozoak. Plazer sentzazioa deskribaezina da behin ahora sartuta. Biontzat ekarri ditut, preseski. Zuretzat ere bai, Dagny, horregatik esan dut biontzat. Nik ez nuke jan beharko, baina... ai, nire gluzemia!

- Ni ere tentaldian erori naiz, ni ere gaizkide naiz, jauna! - Gulbrandsen detektibeak txantxetan erantzun zion hain gozoki zoragarria eurentzako opari gisa ekarri izanagatik.

- Eta nor ez? - mediku forentse andreak.

- Hala da - Gulbrandsenek.

- Noizbait denok egiten dugu gehiegikeriaren bat. Tentaldiak hain dira zailak ekiditea - Alfhild medikuak.

- Zuri ere gertatzen zaizu? - Gulbrandsenek, begiak zuzen-zuzen besteenetan jarri ondoren, ahoan zuen zapoarekin hordituta.

- Ene, maitea, jakingo bazenu! - Alfhild forentseak begiak beherantz jarrita gomutara ekarri zituen hirulau tentaldi. Ez zuen ezer gehiago gehitu.

Alfhild mediku forentse andrea bakeak egin nahian zebilela ematen zuen, Haakonsson inspektoreak esker onez hartuko ziona. Halakoak noizbait egiten zituzten, nahiz eta gehienetan txakurra eta katua bezala ibiltzeko joera zuten.

Lehenengoa Ummm esatekoa izango zen, baina handik aurrera, antsiak jota-edo, aho bete zebiltzan jaten. Kurruskuak egiten duen bezala, tututxoak ahoan lehertzen zirenean natillarekin nahastatzen ziren eta, orduan, sentzazioa zoramena bihurtzen zen. Ez ziren Landa jatetxean zeuden bezalakoak, nahiz eta hangoak ere oso onak diren; bestelakoak ziren, gozo-gozoak, apartekoak.

- Hildakoari buruz zerbait esateko moduan?, - aurrerapen bezala bota zuen Haakonssonek, ustez berari zegozkion tututxoak amaitu ondoren. Nolabait lanean jarraitzeko gogoz zegoela ematen zuen, hari guztiari buruz lehen bai lehen zerbait argitu nahian.

Alfhildek agiraka egin zion.

- Zer, heureak jan ondoren besteenak bost axola! Itxaron! - eta begiak itxi zituen ahoan zuenari gozatzeko luzapena eman nahian-edo. Aukera ikusten zuen guztietan eta, gainerakoetan ere bai, zerbait derrigorrean esan behar. Horrelakoa zen forentsea.

Haakonssonek ez zion ezer erantzungo, eta euliak egon ohi diren lekuan jarri zituen begiak.

Forentseak ezer berririk gaineratu gabe barruko gelara pasarazi zituen, oraindik ahorik zabaldu gabe. Gorpua esku-ohetaren baten gainean jarrita zeukaten.

- Lehenengo eta behin, zelan zaude? - hasi zen mediku forentsea- . Entzun dut lehentxoago gertatu zaizuna. Leku onetik libratu zara, ezta? - ulertezina baina egia zen.

- Bai, larri ibili naiz!

- Madarikatuak!

- Bai, madarikatuak, eta oraindik ez dakigu nortzuk!

- Ez diozu aurpegia ere ikusi, ala?

- Azkar mugitu den itzal bat ikusi dut, ez besterik.

- Pertsona baten itzala?

- Horixe ere ez dakit. Pertsona makurrarena, kakanarruarena edo animalia txikiarena, horixe ere ez dakit.

- Ikusmena galtzen ala? - Alfhildek, adarra jotzeko donuarekin. Aukera txikiena agertzen zitzaiotenean nola geratu zirikatu gabe? Ezinezkoa zuen. Ziur gaztetatik ekarriko zuen izaera izango zela. Bazitekeen genetikak ere zerikusi handia izatea.

- Hain ondo, eta berriro! Ez hadi hasi, gero! – Haakonssonek haserre kutsuz blai ihardetsi zion. Betiko kontua, behin bata hasiz gero besteak derrigorrean jarraitu behar.

- Argituko da, lehentxeago edo gerotxoago dena argitzen da. Urrats bat egitea, hori da egin behar dena. Horixe bakarrik, urrats bat egin - Alfhidek suabeago bota zuen.

- Zeuk esan duzu, urrats bat. Horixe.

- Beno, jarrai dezagun, ezta?

- Bai.

- Heriotza enbor entzefalikoaren mozketaren eta garuneko odoljarioagatik izan da.

- Kolpeka hil dute?

- Ez bereziki.

- Ea, harira, ez nago igarkizunak asmatzeko moduan eta. – Haakonssonek, etsipen gardena hortzetan agertuz.

- Buruan kolpeak eman dizkiote, eta bortitzak gainera, hortik garuneko odoljariora, baina, hil, enbor entzefalikoa moztu diotelako hil da.

- Beraz, lepoa moztu diote?

- Bai, eta ez.

- Berriro hieroglifikoekin ez, e! Nola da hori?

- Ba, moztu, moztu ez diotela egin.

- Ea, argiago Alfhid? - bien elkarrizketan sartu zen Dagny Gulbrandsen detektibea.

- Beno, hasiko natzaizue esaten, egin duenak praktika daukala. Ez da izan edozein eratako hiltzailea. Esan nahi dudana zera da, elementu horrek baduela nolabaiteko medikuntza prestaketa.

- Zergatik diozu? - Dagny Gulbrandsenek.

- Orain ikusiko duzue. Atzo, lubakian gorpuari azaleko begiratu eman genionean, alde batetik gorpua garbitu egin zutelako, eta bestetik ileak ezkututzen zuelako, ez ginen ohartu. Baina, Ebbe, begira ezazu, ebakia egiteko erabili duten aiztoa estokearen antzerakoa da. Estokea ez da aho bateko edo biko aiztoa, baizik eta puntarekin egiten du zuloa edo ebakia. Ikusten duzun bezala, ebakia ez da zabala, estua baizik, eta gainera sakona. Begiratu ezazu berriro, egin zaion mozketa bat bakarra da, eta ez hiru edo lau, elementu narrasak egingo zukeen bezala. Horregatik esan dizut moztu, moztu ez diotela egin, sastatu baizik - Alfhidek oraingoan, azalpen zehatzak eman behar ziren guztietan bezala, nynorsk norvegiera berrian hitz egin zien.

- Bon, profesionala.

- Bai.

- Eta makadura hauek?

- Azalekoak dira.

- Bortxaketaren arrastorik ba al da?

- Ez.

- Honek ematen du antzinako makadura bat dela, ezta?

- Honako hau oraindik antzinagokoa da. Ematen du karate edo horrelako kirolen bat egin izan duela – medikua, xehetasunetan.

- Burua garbitu diote.

- Jantzita aurkitu bagenuen ere, biluzi ondoren goitik behera garbitu dute, eta gero berriro arropak jantzi dizkiote.

- Bai. Printzarik edo ilerik aurkitu diozue?

- Badakigu ikerketa forentsea egiten gero! Zer uste duzu fakultatean amaitu eta lanean hasi berriak garela? Interpretazioa ez dagokit niri, gurea zientzia da!

- Nire ustez gauza asko esaten du –Haakonssonek.

- Horixe da zure lana, interpretazioa.

- Hori ere bai, baina ez hori bakarrik. Hainbeste lan eta kontu, zertarako? Ezagutzen zuen, eta horregatik pentsatuko du berarekin lotu dezakegula?

- Pasio-hilketa izango ote da, ba? - galdetu zuen Gulbrandsen detektibeak.

- Pasioa estokearekin? –Haakonssonek.

- Psikopata bat?

- Ez dakit. Baliteke.

- Marisorgina?

- Mantis religiosa, Marisorgina diozu? Ez dakit. Baliteke. Estoke bat, bat soilik, ziztada bat eta hila. Baliteke. Baina Alfhildek dioen bezala, nor dago horrelako estoke bat emateko prestatuta? Nik hemen daramadan denbora guztian, ez dut sekula estokez hildako pertsonaren berririk izan. Gertatu izana gertatuta ere, ez zen izan pasio-erreakzioa. Pasioak beti darama urduritasuna atxikita. Ez zuen zati txikietan zatitu. Hori ere pasioarekin erlazionatzen da. Berdin zitzaion guri eragozpenak ipintzea edo ez. Beraz, ausardia itzela du. Guk zer aurkituko genuen hotzean pentsatuko zuen. Beraz, hotza da. Gainera, arrasto guztiak oso lasai kendu dizkio, arineketan ibili gabe, presarik gabe. Beraz, egitekoetan zorrotza da. Arreta handia jartzen du. Singularrean ari gara baina pluralean ere izan liteke.

- Zergatik garbitu diote burua - galdetu zuen Gulbrandsen detektibeak.

- Lehenengo eta behin, eta hori argi dago, utz zitzaketen aztarnak ezabatzeko, baina baliteke gorpua manipulatzeari ere izatea, edo berarekin egon zen une hura luzatzeko ere izan liteke. Beraz, beste bi kontzeptu berri agertzen zaizkigu: bata manipulazalea, eta bestea denbora; denbora kontrolpean du. Edo baliteke heriotzarekin batera garbitu aditza erabili nahi izana. Badakizu garbitu, txikitu, suntsitu..., berriro ere singularrean nabil, baina guztiz aldatzen da pluralean bada.

- Ez dago mozketarik? - galdetu zuen Gulbrandsen detektibeak.

- Bai, atzamarretako ermamiak, ez duzu ikusten ala? Ez da mozketa baina... - gaineratu zuen Alfild forentse andreak.

- Bai, hori bai, erre egin dizkiote, baina badakigu zergatik? –Haakonsson inspektoreak pentsakor, gorpuari begira jarraitzen zuela. Eta beste gauza bat: zerekin erre dizkiote? Beraz, bi galdera gehiago, zergatik eta zerekin. Goazen lehenarekin. Zergatik?

- Bera nor den jakiteko zailtasunak ipintzeko - argitu zuen Gulbrandsen detektibeak.

- Bai, hori argi dago, baina horregatik bakarrik?

- Ez dakit.

- Horixe ba, oraingoaz itsu gabiltza. Bai, egia da nortasuna kendu diotela, baina horren zergatia da jakin beharrekoa. Esan duzunagatik, jakina, baina horregatik bakarrik? Eta zerekin?

- Hori zientifikoen kontua da – Alfild mediku forentseak, beste batzuen kontuetan sartzeari muzin eginez.

- Bai, jakina, hori zientifikokoek argituko dute, baina baduzu susmorik?

- Erabili duten metal gorria ez da oso lodia.

- Zergatik diozu?

- Metal lodiak ermamia jango ziolako.

- Bazitekeen horrela izatea. Azaleko erredura da, hamar hatz-markak ezabatzekoa soilik.

- Oraingoan kontuak zail xamar agertzen zaizkizue, - forentse andreak, aldizka batari eta gero besteari begiratuta, seriooki esan zien.

- Beste batzuk egongo direlakoan zaude? Haakonssonek zer erantzungo zuen jakin nahian, Gulbrandsen detektibeak galdatu zion.

- Ez... baina egongo dira.

- Nola da hori?

- Hiltzailea bat bakarra baldin bada behintzat, gehiago egongo dira. Hiltzaileak mugak gainditu ditu, eta ez da ikaratu. Jada, ezin du atzera egin, hiltzailea bat bakarra baldin bada. Hiltzaileak bat baino gehiago badira, baliteke gorpu honekin soilik kontu guztia amaitzea. Bon..., emakume hau nor izan den ikertu behar dugu. Edertasunean jantzia, norbaitekin biziko zen? Bazuen senarrik? Emazterik? Seme-alabarik? Afrikarra izanik errefuxiatuen auzunean biziko zen? Nolakoa zen bere izaera? Jendearekin egotea atsegin zuen? Maite zuen bakardadea? Oslon gustura zegoen? Edo izan zezakeen lehen aukeran hemendik alde egin nahi izango zuen? Bazuen asmorik? Handinahirik? Ezagutzen zuen hiltzailea? Hala balitz, silogismo errazarekin zera lortuko genuke: guk hildakoa ezagutzen badugu, baliteke guk hiltzailea ezagutzea. Lehenengo eta behin, non bizi izan da? Non dago bere etxea? Bere etxean aurkituko dugun guztiak gauza asko esango digu, eta auzokoek beste hainbeste. Norbaitek sumatuko du bere falta, ezta? Profil psikologikoa atera behar diogu.

- Ba, nik uste laster igarriko duela norbaitek bere falta - Gulbrandsen detektibeak, gorpu biluzian zehar begiak eramaten zituela.

- Lan egingo zuen nonbait? Han ere konturatuko dira bere faltaz, ezta? - Haakonssonek begirada galdua. Istant bat geroago, forentsearen begietan bereak irmo jarrita beste galdera bat bota zion.

- Edo julis ibili da? - Gulbrandsenek.

- Zer? - Haakonssonek.

- Julis edo gaueko erregina, batera edo bestera esaten da - Gulbrandsenek

- Ez, - Alfhilek.

- Ziur?

- Erabat ziur.

- Norbaitekin biziko zen - Gulbrandsenek berriro.

- Bon, oraingoz kontu hau ezin da aireratu. Apur bat gehiago itxaron behar dugu. Kapitainarekin egon beharko dut, eta gero kasua daraman epailearekin. Ez dakit oraindik epailea izendatuta dagoen. Kapitainari galdetu beharko diot.

- Bai, onena apur batean itxarotea izango da, - Gulbrandsenek.

- Bai, ezinbestekoa zaigu.

- Laster izango du norbaitek haren mira, - Gulbrandsen detektibeak bekainak gorantz eramanez Alfild mediku forentseari begira esan zuen galdera erara.

- Alfild besterik?

- Oraingo ez.

- Agur ba.

- Adio, bai; zuri ere bai, Dagny.

- Agur, Alfild.

Haakonsson inspektorea eta Gulbrandsen detektibea, Alfildek emandako behin behineko txostenaren aurrerapena hartu ondoren, bulegora bueltatu ziren. Bost minutuko ibilbidea zen oinez egiten zebiltzana. Urratsak urrats, forentseak eman berri zien txostenari Haakonsson irakurketa arina ematen ari zitzaion.

- Txostenean dio oraindik ikertzen ari direla jatorriz emakumea nongoa izango zen jakiteko.

- Ez daki, beraz - Dagny Gulbrandsenek erantzun zion.

- Ez.

- Handia da ba, Alfildek ez jakitea!

- Zer uste duzu, Wikipedia dela, ala?

Detektibeak ez zion ezer erantzun.

Bulegora helduko zirenean Haakonssonen langelara egin zuten. Esertzeko denborarik ere ez zuten izan, ezen inspektoreak "Beno Dagny, badaukagu nondik ibili" esan orduko, telefonoa beste behin ere, egunean hamaika aldiz egiten zuen erara, joka entzun zen.

- Telefono madarikatu honi bolumena jaitsi beharko diot. Bai! - lehor.

- Ebbe, dei pertsonal bat duzu, Daia du izena - deia sarrera gunetik zetorkion. Telefonoa eskuan zuela, Gulbrandseni zuzendu zitzaion, dei pertsonala zuela, eta arren bakarrik uzteko aginduz. Detektibea mutu atera zen bere langelara bidean, jakinez, noizbait bederen, denek zutela beharrezko bakardade apur bat izatea.

- Bai, hartuko dut. Daia, maitea! zer moduz? - inspektoreak letrak luzatuta ahoskatuko zituen hitzak, bai Daia, bai maitea, eta zer moduz esaterakoan, nolabait pertsona bera eta berarekiko zuen estimu handia nabarmendu nahian.

- Ondo. Egunetan ez didazu deitu, eta neuk egitea erabaki dut.

- Leporaino nabil. Badakizu, betikoa.

- Aizu, Ebbe, gaur ikusiko dugu elkar?

- Nire falta botatzen duzu, ala?

- Badakizu baietz.

- Bon...baina berandu.

- Ipiniko dut zeozer?

- Astirik izango duzu, ala?

- Zu baino lehenago heltzeko bai.

- Orduan zeozer.

- Lehenengo, edo gerorako?

- Lehenengo badakizu, eta gero zeozer.

- Nik ere horrela nahi dut. Gero zeozer.

- Bai, gero zeozer, baina gauza arina. Badakizu gauza arina gustatzen zaidala afaltzea.

- Erromesa ematen duzu!

- Afalorduetan bai.

- Gauza arina, beraz?

- Baietz ba!

- Hori gero, ezta?

- Bai, lehenengo badakizu, eta gero gauza arina afaltzeko.

- Hamarretan?

- Bai, hamarretan, lehenago ez.
- Badakizu zelan egongo naizen itxaroten?
- Badakizu zelan gustatzen zaidan!
- Hamarretan?
- Bai, tira!
- Etxeko giltza betiko lekuan aurkituko dut?
- Bai.
- Agur.
- Tira, eskegi!

Haakonsson besaulkitik jaiki zen, eta ezkerreko pareta ia osorik hartzen zuen kasuak grafikoki azaltzeko jarrita zeukaten panelera zuzendu zen. Panelean, bulegoko atera ematen zuen aldean, orri bat jarri zuen, eta bertan errotulatzadorearekin gorpuaren ertza margotu. Ertza margotzerakoan gauza bat izan zuen soilik kontuan: gorpua norantz begira aurkitu zuten. Norakoaren ondoan, gorpuaren ezkerretara, beste orri bat eskegi zuen, eta bertan baserria izena idatzi. Mahaitik txartel bat hartu zuen orduan, eta gorpua irudikatu zuen orriaren eskuin aldean, txintxeta baten laguntzarekin, goian jarri zuen, eta bertan ermami erreak bi hitzak idatzi. Beste txartel batean lubakia hitza idatzi zuen, eta aurrekoaren azpian jarri. Haren azpian beste txartel bat eta automobil errea, eta txintxeta baten laguntzarekin auto barruan aurkitutako bitxia. Orduan telefonoa eskuetan hartu eta Gulbrandsenen luzapena sakatu zuen. "Bai" hitza entzun zuenean zera galdetukzion:

- Dagny, zientifikokoek ez dituzte gorpuaren argazkiak bidali?
- Ez, oraindik ez.
- Deitu, arren, eta esan lehentasuna daukatela.
- Oraintxe deituko diet. Agur.
- Bai, agur.

Eskegi bezain laster, telefonoa berriro ere joka jarri zen. Haakonssonek "Bai" soilarekin erantzun zuen, haren aurpegiak nekea agertzen zuela. Oso denbora laburrean gauza gehiegi gertatzen ari zitzaizkion.

Erritmo frenetikoak igartzen ari zen. Hala ere, oraindik bere burua halakoei eusteko moduan ikusten zuen.

- Haakonsson, pertsona baten desagerpenari buruzko salaketa jaso dugu. Afrikarra eta emakumea.

- Deitu duenak nola du izena?

- Mwezi.

- Afrikarra ematen du!

- Bai, afrikarra dela esan dizut, afrikarra eta emakumea, kontxo!

- Desagertuaren urteak?

- Urduri egon da eta ez du jakin zehatz-mehatz zenbat. Hala eta guztiz ere, berriro galdetu diot, eta hogeita hamar, gutxi gora behera.

- Desagertuaren kolorea?

- Afrikarra.

- Zer gehiago?

- Desagertuaren auzokoak dio bere aurrean bizi dena atzo goizetik ez duela barrundatu. Arratsalde guzti-guztietan bere hamar urteko mutikotxoarekin etxeratzen dela, eta oso arraroa iruditzen zaiola herenegun etxean ez agertzea. Mutikoak egun guztietan jotzen omen diola txirrina, eta besarkatzen duela, gutxienez horixe eta egunero, bertan denbora gehiago ez badu ematen ere. Sarri afal ordura arte, eta berandurago ere bere etxean egoten dela.

- Ondo dago, ekarri helbidea. Aizu!, berehala!

- Baietz ba, oraintxe noala ba!

- Ez itxaron hamar minutu, gero!

- Ebbe, mesedez!

- Bon.

Inspektorea besaulkitik jaiki zen. Jauzi egingo balu legez altxatu zen, eta Gulbrandsen detektibea deitzeko pasabidera atera.

- Dagny! - garrasika deitu zion, urduri, argitasuna ikusiko balu legez.

- Bai!

- Erdu!

- Zer gertatzen da?

- Erdu, banago ba hildakoari buruzko zerbait daukagula!

- Banoa!

Detektibea Haakonssonen langelara arineketan heldu zen.

- Baliteke zerbait izatea.

- Zer dakigu?

- Pertsona bat desagertu den salaketa jaso da. Kasu honetan ez dugu berrogeita zortzi ordurik itxarongo, hildakoa andrazkoa, afrikarra eta hogeita hamar ingurukoa delako. Prestatu zaitetz salatzailearen etxera joateko. Desagertuaren auzokoak dio bere aurrean bizi dena herenegun iluntzetik ez duela barrundatu. Desagertuak mutiko bat duela, eta egun guzti-guztietan txirrina jotzen omen diola, eta besarkatu. Gutxienez horixe eta egunero; sarri, afalordura arte eta gehiago ere, bere etxean egoten dela. Prestatu zaitetz, berehala joan behar dugu eta. Badaukagu zeozer!

- Oraintxe bertan. Emazkidazu hamar minutu.

- Hamar minutu? Zertarako behar duzu hainbeste denbora? etxera zoaz, ala?

- Hamar minutu behar ditut eta kito!

- Ile-apaindegira zoaz, ala?

- Ebbe, nahikoa da, e!

- Bon.

Dagny Gulbrandsen detektibeari itxaron bitartean, Haakonsson inspektorea grafikoaren paretara hurbildu zen, eta zerbait barrutik "bai, jar ezazu" errepikatzen izango balu bezala aditu zuen. Emakumearen gorpua zuen orriaren eskuin aldean txintxeta batekin txartel bat jarri zuen. Txartelean semea hitza idatzi zuen.

Bulegoko atea jo zuten.

- Aurrera!

- Haakonsson! Eskatu didazun helbidea. Beste guztia esan dizut. Idatziz behar duzu?

- Honekin nahikoa dut. Mila esker!

- Ez horregatik. Agur.

- Azkar egin duzu.

- Ez hadi adarra jotzen hasi gero!

- Adio.

- Agur.

Gulbrandsen detektibea Haakonssonen langelara sartu zen.

- Ebbe, nora joan behar dugu?

Haakonsson inspektorea mutu zegoen paretan egiten ari zen grafikoan begiak ipinita, eta ezer esan gabe helbidea idatzita zegoen papera erakutsi zion.

- Ebbe, helbide hau ez dago beltzen auzotegian. Danmarks gate hemendik hamar minutura dago, eta hor ez dago immigranterik.

- Ez - horixe baino ez zion erantzun; burmuina irakiten zuelako izango zen.

Bidean Haakonssonek basati gidatu zuen. Prisa zuen hara heltzeko, nolabait zerbait garbi ikusteko aukera paregabea izango balu bezala zegoen. Muskulu guztiak tentsioan antzematen zitzaizkion, estu. Gulbrandsenek ez zuen hitz egiteko gogorik, eta Haakonssonek bere baitan eskertzen zion horrela egotea. Haakonsson inspektoreak ez zekien Gulbrandsen detektibeak bazekiela horrela gidatzen zuenean egiten zitzaion edozein galderari erantzun neurritz gairik ematen zizkiola eta, sarri, istripuren bat izateko arriskuan jartzen zela. Horregatik, eta horregatik bakarrik joaten zen halakoetan isilik.

Bulegora deitu zuen andrearen etxera heldu zirenean Gulbrandsen detektibeak salatzailaren etxeko tinbrea jo zuen. Anderea etxabea eskuineko aldean bizi zen. Kanpotik, leihoaren bestaldetik, errezelak nola mugitzen ziren ikusten zen. Mugimendu soila izan zen, leuna, ikusmiran ibiltzen diren horiek egiten duten antzerakoa. Goitik interfonoan emakume ahotsa:

- Bai?

- Andere, Ebbe Haakonsson inspektorea naiz. Zuk deitu duzu polizia-etxera desagerpen bat salatzeke, ezta?

- Bai, sartu eta etorri - bestaldetik.

Sarrera xumean, salatzailearen ateetara heltzeko lau eskailera maila baino ez zeuden. Zabaldu berri zen kanpoko atearen aurrera, eskuineko horman ispilu luzanga eta estua, eta paretak antzinako azulejuz jantzita zeuden; ez zegoen besterik.

Beste behin ere, Haakonssoni sorbaldako zauriak min ematen zion. Medikiak emandako flaskotik atzamarrekin bat hartu zuen, eta, ahora sartu ondoren, urik gabe, aurpegia latz ipinita listua bildu behar zuen irensteko.

Salatzailearen etxeko atea adineko andre batek zabaldu zien. Beltzez zegoen jantzita, eta, oro har, harrokeriarik gabeko emakume apala zelako itxura hartzen zitzaion. Jatorriz, inolako zalantzarik gabe, afrikarra zen. Aurpegi zimurtua ile kizkurraren jarraipen bezala zihoakion, eta, oraindik orain, bizitasun osoa mantentzen zuten tristezian jantzitako begi beltz-beltzek salatzen zuten bihotzean pairatzen ari zena. Ez zegoen zalantzarik. Zerbait larria gertatzen zitzaion.

- Egunon, andrea. Ebbe Haakonsson inspektorea eta Dagny Gulbrandsen detektibea gaituzu. Lehentxeago deitu duzu zure aurrean bizi den emakumea desagertu dela salatzeke; zelan da hori?

- Herenegun arratsaldean konturatu nintzen haren faltaz. Zerbait ez dabil ondo.

- Norabait joango zen. Oraindik deituko dizu, ez dira berrogeita zortzi ordu ere igaro eta.

- Ez. Zerbait ez dabil ondo.

- Zergatik diozu hori?

- Zerbait esango zidalako.

- Hainbesteko konfiantza duzue ala?

- Bere ama izango banintz bezala naiz berarentzat, eta bere mutikoarentzat, amona. Ez daukate beste inor.

- Nola dauka izena andrazkoak?

- Mary.

- Abizena?

- Nicizanye.
- Jatorriz nongoak zarete?
- Burundikoak.
- Hori Afrikan dago, ezta?
- Erdi-erdian.
- Biok, zu eta bera zarete hangoak?
- Bai. Mutikoa hemen jaio da.
- Duela zenbat urte bizi zarete hemen?
- Hemen, Oslon diozu?
- Bai ba, hemen Oslon, Norvegian!
- Norvegian. Hona etorri ginenetik ez gara beste inon bizi izan; hementxe, Oslon soilik.
- Duela zenbat urte etorri zineten?
- A!, bai!, galdetu didazu. Ez dakit, pentsatu beharko nuke.
- Gutxi gora behera?
- Gutxi gora behera, hogeita hiru urte.
- Beraz, Mary hona heldu zenean zenbat urte zituen?
- Zazpi.
- Umea!
- Bai.
- Hona heldu zinetenean errefuxiatu politikoentzako-edo babesa eskatu zenuten?
- Bai, eta gero nazionalitatea ere bai.
- Zu ez zara Maryren odoleko ama?
- Ez. Bere gurasoak eta neba-arrebak denak hil zituzten, han Buyumburan, Burundiko kapitalean.

- Genozidioa hasi zutenean?
- Aurreragotik ere hasita zegoen, baina bai.
- Zein da zure abizena?
- Enyzacinya.
- Eta paperetan familiarteko zein harreman duzu ipinita Maryrekin?
- Adopzioz hartu nuen? Beraz, alabatzat daukat. Baina zergatik egiten dizkidazue hainbeste galdera pertsonal, Mary eta semea faltan direnean?
- Lasai, Mwezi, dena da garrantzitsua eta.
- Ez dut ulertzen.
- Zergatik ez zenion zure abizena eman?
- Berak berea duelako, eta guraso eta arbasoenganako errespetu eta ohoretan ez nion abizena aldatu nahi izan.
- Paperak denak legez dituzu?
- Baietz esan dizut.
- Zuk bai, zuk Mary alabatzat daukazu, baina Maryk ba al du gainerako familiartekorik hemen, Oslon, edo Norwegian?
- Ez.
- Mary non dabil lanean?
- Erdi aldean, banketxe batean.
- Zein banketxetan?
- Handelsbankenen.
- Erdi aldean?
- Bai, erdi aldean.
- Kalea, badakizu?

- Ai! Kalea..., egoitza nagusia da.
- Zenbat urte darama bertan lanean?
- Gaztea zenean hasi zen bertan lanean; ikasketak amaitu eta urte berean hasi zen bertan. Ez du beste ezertan lanik egin. Horixe izan da bere lehen lana eta bakarra, bankaria da lanbidez.
- Bankaria bai, baina zein lan mota egiten du banketxean?
- Administrazio-lana.
- Badakizu laneko lagunik duen?
- Bai, bat, bereiziki bat, Lovise.
- Ekarri du etxera inoiz?
- Urte hauetan behin baino gehiagotan.
- Bon, semea duela esan duzu?
- Mutiltxo bat.
- Non dago mutikotxoa?
- Bera ere falta da, biak falta dira, Mary eta semetxoa.
- Zelan dauka izena semeak?
- Yamwezi.
- Abizena?
- Nicizanye.
- Amaren abizena du, zelan da hori? Ohitura da zuon lurraldean? Aitak zer dio?
- Ez, ez da ohitura gure lurraldean, eta ez du aitarik.
- Nola da hori?
- Ilargiaren semea delako.
- E?
- Ilargiaren semea dela, kontxo!

- Zenbat urte ditu mutiltxoak?

- Hamar.

- Zein ikastetxetan dabil mutikoa?

- Hedmarkgatakoan.

- Beti ibili da ikastetxe berean, edo aldatu du?

- Bai, eskolatu zenetik ikastetxe berean dabil.

- Maryk umea ikastetxean hartu ondoren zein ibilbide egiten du etxera etortzeko? Beti egiten du berbera?

- Nik lagundu izan diodan guztietan berbera egin izan dugu, baina asteazkenean ez dakit zein egingo zuen.

- Zein da ibilbide hori?

- Hedmarkgata hasierako ikastetxean haurra hartu, eta Stromsveinetik Etterstadgatara, eta handik hona, Danmarks gatera.

- Goizez nork eramaten du haurra ikastetxera?

- Nik neuk.

- Esan duzun ibilbidetik?

- Beti leku beretik.

- Bon. Zabalduko diguzu Maryren etxea, arren!

- Bai, goazen - emakumeak gona luzeko poltsikotik atera zuen aurrez aurre zegoen atea zabaltzeko giltza, nolabait horixe aginduko ziotela pentsatu baitzuen.

Kanpoko atea zabaltzearekin batera, atondoko ezker aldeko paretan Carlina acanthifolia bat dotore nabarmen agertzen zen esekita. Lorearen inguruan, neurri egokiei jarraituta, kristalik gabeko koadro handi baten markoa zuen ipinita. Bi elementuak bateratzeak bitxia ematen zuen emaitza. Behean, apaingarri bezala argazki bat zuela, sarreretan egon ohi diren mahaitxo estua eta alboan, euritako-ontzia hutsik. Metro biko atondoari amaiera emateko, igeltsuzko korintoar zutabe biren gainean, erliebean loreak zituen arku ederra zegoen egongelari ongietorria emateko.

- Andere - Haakonssonek, sarrerako mahaitxoan zegoen argazkia eskuan hartuta- , hau al da Mary? -
baiezko erantzuna jasoko zuen esperoan galdetu zion.

- Bai, hauxe da Mary, eta beste hau bere semetxoa.

Ama-semeak ikusi bezain laster, Haakonsson eta Dagny argazkiko andrea lubakian hilik agertutakoa zela jabetu ziren; hala ere, Mwezi andereari ez zioten ezer esan.

- Dagny, jarri taldeko guztiak martxan. Ikus ditzatela haurraren ikastetxetik honako kamera guztien grabaketak, baten bat egongo da eta; gero, ikertu ditzatela segundo guztiak. Telefonoarekin atera honi argazkia, eta bidali taldera. Haurra bilatzen jarri dezatela lehentasun osoa.

- Mwezi anderea, baduzu Maryren eta semearen argazkirik?

- Bai.

- Emango?

- Bai, oraintxe hartuko dut albumetik. Apalategian dago.

Egongelaren erdialdean, elea egiten zuten sofa biren aurrera, kristalezko mahai baten gainean, Erdi Aroko norvegiar olerki bat zegoen fotokopia batean. Haakonssoni ezaguna egingo zitzaion. Eskuetan hartu ondoren, ahots ozenez hasiko zen irakurtzen.

Veit ek, at ek hekk?vindga mei?i á?nætr allar níu,?geiri unda?r?ok gefinn Ó?ni,?sjalfr sjalfum mér,?á
?eim mei?i,?er manngi veit,?hvers af rótum renn.

Ví? hleifi mik sældu?né ví? hornigi,?n?sta ek ní?r,?nam ek upp rúnar,?æpandi nam,?fell ek aftr ?a?an.

Olerkiaren eskuin aldean, lerroka ipinita, hizkuntza arraro batean idatzitako itzulpena zegoen. Haakonssoni ezezaguna egiten zitzaion. Zer edo zer ulertuko, luze geratu zen begira.

- Dagny, ezaguna egiten zaizu hizkuntza hau?

Gulbrandsenek orria eskuetan hartu zuen, eta, bat-batean, erantzun zion:

- Ezta antzik ere! Zein hizkuntza da hori?

- Neuk baneki! Gaur lehenengo aldia horrelako hizkuntzarik idatzita ikusten dudan! Hizkuntzalariarekin egon beharko dugu. Segur aski emakumearen jatorrizko hizkuntza izango da. Badaukagu zeozer.

- Andere, hizkuntza hau zuon herrialdekoa da? - Haakonssonek Mwezi andreari.

- Bai, kirundia da.

Inspektoreak tolestu zuen orria, eta, emeki, jakako barruko ezker poltsikoan sartu zuen. Laztandu guran egin zuen gordetze mugimendua, ondo zaindu beharreko harri bitxia izango balitz legez.

- Dagny, zoaz bulegora eta koordinatu ezazu hango guztia, badaukagu argitasun apur bat eta. Nik hemen amaitzen dudanean hara egingo dut.

- Ondo dago. Han ikusiko dugu elkar.

- Bai, zoaz!

- Automobila zuk, ala nik eramango dut?

- Eraman zuk eta agindu norbait nire bila. Itxaron, itxaron –Mwezi anderea albumean Maryren eta semearen oraintsu egindako argazkiei begira zegoen bitartean, Haakonssonek Dagny Gulbrandsen detektibea besotik helduta atera zuen kanpora. Behin eskailera-buruan, argiago hitz egin zion-. Dagny, eramane zuk autoa, eta autora sartzearekin batera bi gauza egingo dituzu: bata, norbaiti hona nire bila etortzeko agindua ematea, eta, bestea, patruila-auto bat hona bidaltzea, amona zaintzera. Baina ez daitezela ateetan jarri, apurtxo bat aldentuta baizik.

- Oso ondo. Pentsatu dut aginduko zenidala. Besterik behar duzu?

- Ez, esan dizudana baino ez.

- Orduan banao.

- Bai, zoaz.

- Gero arte.

- Adio.

Ebbe Haakonsson inspektorea barrura sartu zen, eta afrikar anderearen ondora egin zuen galdeketarekin jarraitzeko. Mwezik bere alboan ikusiko zuenean hitz egiteari ekin zion, nolabait barruan zuen presioa askatu nahian bezala-edo.

- Berak esaten zidan ezer ez ukitzeko, horregatik ez ditut gauzak atondu. Gauza bakoitza dagokion lekuan ipintzea gustatzen zait baina berari ez zitzaion gustatzen bere logelara sar nendin. Badakizu, norbere logela oso leku pribatua da. Egunero gauza bera egiten du. Noiz behinka ateratzen da, baina oso gutxitan. Igandean atera zen azkenengoz, gauez, eta nahiko larri bueltatu zen –Mwezi andereak argibide bezala gaineratu zion Haakonssoni.

- Eskerrik asko andere. Orduan, igande gauez festa batera joan zen? Eta mutikotxoa zurekin geratu zen?

- Zehazki ez zen jaia izan. Gazteak joaten diren horietako lokal batera joan zen, eta, bai, mutikoa neurekin geratu zen, neure bilobatzat daukat eta.

- Ez dauka egunkari pertsonalik?

- Gaur egun bada inor horrelakorik duenik?

- Banakaren bat bai.

- Bai, badauka; beno, ordenagailua dauka, eta bertan gauza asko idazten du. Baina ez dakit non egon daitekeen. A, bai, normalean berarekin eramaten du hara eta hona, eta egunero lanera eramaten du. Lanetik zuzenean joaten da semearen bila, eta horregatik berak izango du.

- Bon.

- Igandean bere mutil-lagunarekin ika-mikan ibili zen, eta horregatik hamarrak aldera haserre heldu zen –esatea beharrezkoa izango zelakoan Mwezi andereak bigarren aldiz gaineratu zion, nolabait horri ematen baitzion garrantzia.

- Haserretu egin zen, e! Hori interesgarria da.

Haakonssonek paperontzia arakatu zuen. Karrerako lehenengo ikasgaia zen: “hortxe aurkitzen omen da etxearen pertsonalitatea; etxearena hain zuzen ere, eta bertakoen miseriekin nahasita gainera”, supituan burutik bueltaka jarri zitzaion. Zerbaiten atzetik zebilen, usaintzen bezala. Erretratu bat zen. Eskuetan zuela albo batean zegoen armairua zabaldu, eta begirada zorrotza eman ostean:

- Diseinuzko gauza asko dago hemen; garestiak. Mwezi anderea, Maryri ondo janztega gustatzen zaio?

- Emakume guztioi bezala. Dirua aurreratzen duenean kapritxoren bat erosten du. Hor kapritxo batzuk badaude, baina emakumea izango bazina jakingo zenuke gehiena prêt-à-porter dela.

- Mutil-laguna duela diozu?

- Baietz esan dizut.

- Ekartzen zuen etxera?
 - Noiz behinka ekartzen zuen etxera, bai.
 - Gizonezkoa ala emakumezkoa?
 - Gizona.
 - Zelan dauka izena?
 - Rhon.
 - Argazki honetako hau?
 - Bai.
 - Badakizu non egiten duen lan?
 - Oraindik unibertsitatean, lehen ikasturtean dabil.
 - Zer ikasten du?
 - Literatura, uste dut.
 - Familia aberatsekoa?
 - Zer ari zara barrundatzen?
 - Ez dakit. Bazuen aitaorderik?, osaba aberatsik?
 - Ez. Baina arropa horiek ordaintzeko ez du behar inoren laguntzarik, eta gainera, lanak modu onean jantzita ibiltzea eskatzen dio.
 - Bon, joango gara mutil-lagunarekin hitz egitera. Unibertsitatean dabilela esan duzu, ezta?
 - Bai.
 - Ikasgelan, lagunen aurrean egingo diogu galdeketa. Ustekabean harrapatuko dugu; horrela, bere ikaskideak hitz egiten hasiko dira. Horixe behar dugu, jendeak hitz egitea - inspektoreak, nolabait Mwezi anderea lasaitu nahian.
- Haakonssonek bitxiontzitik eraztun bat atera zuen. Esmeralda berde-berdea zen urrezko koroan ezarrita zegoena.
- Miresle bat?

- Ez, neuk oparitu nion. Ikasketak amaitu zituenean egindako lorpenagatik oparitu nion.
- Diruz ondo orduan?
- Kapritxo bat, ez besterik!
- Jende landerrak ez du izaten horrelakoetarako.
- Hainbesterako ere ez da!
- Bon, oraingoz nahikoa dut.
- Noiz izango dut berririk?
- Mwezi, oraintxe hasi gara! Emaguzu denbora apur bat behintzat!
- Barkatu, larritzen hasia naiz eta.
- Bai, hainbeste maite diren alaba eta iloba desagertuta, normala da larri egotea, baina pentsatu behar duzu oraintxe hasi garela.
- Bai, barkatu!
- Egon lasai. Zertxobait dakigunean neu etorriko natzaizu esatera; bien bitartean ahalegindu zaitez lasaitzen. Badakigu eskatzen zaizuna oso zaila dela, baina ez daukazu besterik. Mwezi, itxaron behar!
- Bai, itxarotea luze joaten den denbora izaten da.
- Hala izaten da, bai.
- Dena den, mila esker.
- Ez horregatik. Hauxe da gure lana.
- Agur, ba!
- Agur bai, Mwezi anderea.
- Adio.

Haakonssonek bulegoaren aurrean hartu zuen Mwezi anderearen etxetik Dagnyk hara eramandako Tesla zaharra. Tirokatu zuten etxera joan nahi zuen. Orduan, gertatu zena gertatuta, ez zuen ezertarako denborarik izan. Etxea goitik behera arakatu nahi zuen, eta ingurua ere bai. Jakin-mina zuen han zer

egon zitekeen ikusteko. Susmoa zuen zerbait aurkituko zuela. Susmoa besterik ez zen, bihozkada nolabait esatearren eta bihozkadaren aurrean ez zuen amore ematen. Nola jakin esku artean zeukan kasuarekin harremanik izan zezakeen, hara joan eta dena hankaz gora ipini arte? Han gertatua kasualitate hutsa ere izan zitekeen, nahiz eta inspektoreak horrelakoetan ez zuen sinesten; kausalitatean bai ordea. Dena den, bazitekeen zerbait azaltzeko balio izatea.

Haakonssoni ezinbestekoa egiten zitzaion leku guztietan muturra sartuta ibiltzea. Behin xehetasun guztiekin, kontu mordoa buruan izanda, harila apurka-apurka askatzen joaten zen.

Automobilera sartzerakoan, beste behin, buruan kolpe itzela hartu zuen. Sarri gertatzen zitzaion, maizegi. Barrura sartzeko kontu handiarekin ibiltzen bazen ere, berdin gertatzen zitzaion. Hiru-lau birao bota zituen gora begiratuta.

Eguzkia arratsaldeko lehen orduetako bidea egiten zebilenez, bazuen oraindik ordu pare bat iluntzea gainera etorri orduko. Zuzenean heldu zen joan nahi zuen etxe ondora. Autoa zauritu zuten estalpean sartu zuen; sartu ere, beldurrez sartu zuen, aterpea une batetik bestera lurrera erortzeko zorian baitzegoen. Atea giltzaz itxi zuen. Apur bat aurrerago, bizilekua inguratzen zuen hesiak burdinazko sarrera zuen, autoak sartzeko besteko zabalerakoa. Albo batera eramanda zegoen atea erabat herdoildutako ohe zahar baten malgukizko lastaira zen. Katea eta giltzarrapoa lurrean botata, banden aldean. Asfaltoa hasten zen lekutik, aspaldian egindakoa zela ematen zuen bidea harri xehez eginikoa zen, ezen gurpilak ibiltzen ziren gurtarrastotik bereiz, beste ia gehiena, belarrak irabazia baitzuen. Etxearen atzealdeko sarreraraino heltzen zen, amaieran auto arrunt batek buelta emateko nahiko leku zegoelarik; sagarrondoren bat saihestu beharra izango zen, baina lasai bira emateko moduan zegoen. Sarreratik fiordorantz, sarri ibiliaren ondorioz, belar zapalduak xendra egina zuen. Pertsona batek baino gehiagoren ibiliak sortua zela ematen zuen. Haakonsson adi geratu zen. Ez zen ezer entzuten. Aldizka, inguruko txori despistatuen txorrotxioagatik ez balitz, hilen etxeetan izaten den isiltasuna zela esan zitekeen. Senezko erreazio gisa pistola eskuetan hartu zuen. Ez zuen ordu batzuk lehenagokoa berriro gerta zekion nahi. Isilean jarraitu zuen. Euritik edo eguzkitik babesteko, sarrera atsegina egokituz, etxeak fiordora begira estalpea egiten zuen. Albo batean lau bat pertsonarentzako porlanezko mahaia oraindik orain sendo zegoen. Bazterrean, plastikozko aulkiak lurrean botata. Urteetan, gogoratzea ere zaila zen noiztik, garbitu gabe zeudela ikusten ziren. Inoizkoren baten zuriak izango ziren, baina orain hezetasunak guztiz belztuta agertzen zituen; aspaldian erabili gabeak ziren seinale. Loreontzietan inoiz edertasunean egongo ziren lore zimelen arrastoak hotzikarak sortzeko modukoak ziren. Eskailera-burura heltzeko porlanezko lau maila. Ezkerretara, atea. Itxita zegoen; trangatuta bezala. Oraintsu indarrez zabaldua izan zela ematen zuen. Eskuineko sorbaldarekin bultzatu zuen. Ezkerrekoa ez zuen horretarako. Egurrak karraska egin zuen bera ozta-ozta igarotzeko beste zabaldu aurretik. Alboz sartu

behar izan zuen. Etxe osoa behe solairua zen. Gorantz begiratuta hainbat itoginen eraginez teilatuko egur umelak egoera penagarrian ikusten ziren. Aurrealdetik igarotzen zen autoen bidera, egun eguzkitsuetan argi apurra sartzen utziko zuten bi leiho txiki zituen. Sagarrondo beteriko atzealderantz ordea, beste bi, apur bat handiagoak. Fiordora begiratzeko eginiko etxea zen, oso apala aurrealdera, baina ur gaziak irabazitako glaziarren aldera itzela; behinola gozatzeko atsedean baketsua eskainiko zuen. Espazio handian sukaldea eta egongela batera zeuden. Bertan ikusten ziren arrastoek arestian behin baino gehiagotan zeozertarako erabilia izan zela salatzen zuten. Harriaren ondoan, narda emateko beste, lurrera botatako zakarrak hats arina ateratzen zuen. Mahaian, plater batzuk nahasian, ogi zati sikua, saltxitxoi punta bat, eta ardoarekin erabilitako hiru-lau kopa. Bizilekua norbaitek erabiltzen zuen. Anabasaren artean, garbitzen saiatu baziren ere, oraindik ageriko odol markaren bat erraz etortzen zen bistara. Ez zen handia baina nahikoa odola zitekeela baieztatzeko. Irudi tristea. Haakonssoni ez zitzaion batere gustatu. Larritu zen. Barrenak orroka jarri zitzaizkion. Egongelaren ezkerretara bi atek logeletara ematen zuten. Hurbildu zen. Hezetasunak janda zeuden. Lurrean lastairen gainean manta zahar batzuk nahaspilan. Arnasa sakon hartu zuen. Bota zuen berehala. Kiratsa. "Hau norbaitek erabiltzen du", - imajinatu ondoren, Gulbrandsen detektibearen telefono zenbakia sakatu zuen.

- Bai?

- Dagny, deitu zientifikokoak eta esan tiroketa izandako etxera etortzeko. Hemen odol arrastoren bat dagoelakoan nago. Etxera atzealdetik sartu daitekeela esan. Etor daitezela patruila batekin, armaturik.

- Oraintxe deituko diet!

- Agur.

- Adio.

- Dagny, itxaron, beste gauza bat: ikertu etxea norena den.

- Ados.

- Dagny, beste gauza bat.

- Zer?

- Etxera sartzeko epailearen agindua beharko da.

- Zu zelan sartu zara ba?

- Ez galdetu lelokeriarik!

- Ulertu dizut, neure kontu!

- Bon.

- Besterik?

- Oraingo z besterik ez.

Haakonsson giro ustel hartatik atera zen. Astiro-astiro, belarra zapalduta zegoen alderantz egin zuen; belarra eta abarrak, abar hezeak nahasian. Xendrak, zilar bidea eske, erreguka, ez zuen bere baitan zalantzarik biltzen itsasoa ikusmiran jartzeko. Labarrera heldu zenean, uretara heltzen zen oinbide estua zegoela ikusi zuen. Pertsona bat bakarrik hartzen zuen bidezidorra zen, oraintsu behin baino gehiagotan ibilia. Beherago zulo bat zegoela pentsa zitekeen; ez oso handia. Marea gorak guztiz bete zezakeen. Marea igotzen zebilen. "Ezkutaleku interesgarria", pentsatu zuen.

Autora bueltatzeko oinetan bira egin zuen. Nekatuta zegoen, eta gose zen. Azken mokadua noiz egin zuen gogoratzea zail egiten bazitzaion ere, batik bat gorputzean kafearen beharra areagotzen zitzaion, eta, aldi berean, zuzentasun-gose eta egarria ere izango zen, segur aski. Memento z taberna batekin konformatu beharko zuen.

Betiko jatetxera sartu zenean, ez zen ohi bezala barrak elea egiten zuen alderik laburrenean geratuko, erdialdean, beirateak gozokiak babesten zituen aldean, aurrez aurre kaffebrødak zeuden lekuan baizik. Aksel bezero bati zerbait ipintzen beste puntan zebilen. Egiten zebilena bertan behera utzi, eta Haakonssonengana hurbilduko zen.

- Egunon, Ebbe; kafea?

- Kafea.

- Betikoa?

- Bai.

- Atoan!

- Aksel!

- Bai, Ebbe.

- Kaffebrød bat.

–Gose zara, ala? - hain itxura goibela zuela ikusita, zerbitzariak kafe-makinaren ondotik galdetuko zion. Haakonssonek ez zion erantzungo. Oso zegoen bere baitan bildurik. Une hartan, zaila zen Akseli entzungo zion ala ez jakitea. Harila biltzen edo askatzen ibili zen? Nork jakin. Kaffebrødari gogo onez haginkada itzela emango zion, eta, gozokia tamaina onekoa bazen ere, magoek ikusi-makusi esaten irauten dutena baino lehenago amaitu zuen.

Bulegora paperezko edalontzietan beste bi kafe luze esku banatan, zeramatzala bueltatu zen, Gulbrandsen detektibearenera zuzenean egiteko. Bigarren kafea ezinbestekoa zuen laguntzailearentzat izango zen. Detektibearen langelara atea lepoarekin bultzatuz sartu zen.

- Aizu, Dagny! –Kafez beteriko paperezko edalontziak esku banatan zituela zerbait agintzeko gogoarekin.

- Zelan zaude, Ebbe?

- Kafea ekarri dizut.

- Oraintxe bertan nintzen horrexetan irtetekoa. Mila esker! Besoa zelan, Ebbe?

- Ondo esan beharko.

- Pozten naiz.

- Ondo, pilulekin!

- Horrela konpontzen bazara!

- Aizu, bihar goizean, etxe horiaren atzealdetik fiordoaren ondoko kobazuloa begiratzera joan beharko zenuke. Goizez da itsasbehera, horregatik diotsut bihar goizean joateko. Zulo bat ikusten da uretatik gertu. Han egon naiz, baina ura sarrerako ahoaren erdi aldera helduta egon da, eta ez naiz jaitsi – Haakonssoni senak esaten zion bazitekeela eskuartean zeukatenari irteera emango zion hasiera izatea. Mementoz, ez zeukan besterik. Beste kontu guztiak zalantzazkoak ziren. Bazitekeen handik gauza garbirik ez ateratzea. Hori horrela gertatuko balitz berriro hasierara jo beharko zuten, baina, bederen, burutik kendu zuen.

- Oso ondo, Ebbe, joango naiz.

- Bon.

- Lehen orduan?

- Bai.

- Eguna zabaltzen denean joango naiz.

- Bon.

- Beste gauza bat.

- Zer?

- Zientifikokoak bidali ditut zuk agindutako lekura.

- Epailearen agindua azkar lortu duzu.

- Bai, beste batzuetan baino arinago.

- Gora begira, aspertuta aurkitu duzu, ala?

- Hori izango zen.

- Bon.

- Ondo.

Haakonsson inspektorea etxeratu zenerako orduak ziren jada gau zarratua egina zela. Giltza sarrailan sartu zuenean barrutik Daiak zabaldu zion atea. Esan bezala zeukan itxaroten, ez beti horrela egiten zuelako, hainbeste egun ikusi gabe izateagatik andreak biziki desiratzen zuelako baizik. Bi urteren bueltan aldizka izandako harremanak nahikoa ezagutza emana zion Haakonssonon gogo sexualak ondo ezagutzeko, eta ustez besteak espero zuen bezala zegoen noiz etorriko. Satin ehuntxoaren zulo alde desiragarria ezkutatzera, eta titiak airera. Haakonssonek kaixo esateko ere ez zuen betarik izan, Daia gainera etorri zitzaiolako. Musu sendoa izango zen, mihia gingileraino sartzerainokoa, gustukoa, beroa. Motxila lurrera erortzen utzi zuen, eta bi eskuekin ipurdi masailei sendoki helduz, bizkor egin zuten ohera, zalantzarik gabe luze joango zenaren seinalea. Daia samatik paparrera joango zitzaion ezpainak eramaten eta, aldi berean, arropak erantzen lagundu zion.

- Zer duzu besoan, maitea? - bendari erreparatuz galdatu zion.

- Ezer ere ez, zauritxo bat - balak sortutako urratu sakonari kasurik egin gabe erantzun zion.

Elkar laztantzen jarraitzen zuten bitartean, Daiak prakak kentzen lagundu zion, eta, segituan, Haakonsson hasi zen besteak hainbeste desiratzen zuena egiten. Behatsetara jaitsi zuen ahoa, eta azazkalak azalarekin elkartzen diren gunetxoak musukatzen hasi zitzaion, leunki lehenengo, eta

xurgatuz bezala ondoren. Oin bietan aritu zen. Gero, berna-bizkarretik, gozo-gozo, gorantz egin zuen, musukatu heinean mihi hezea baliatuz, txuaren arrastorik utzi gabe, aldizka kilima leunak suspergarri bezala erabiliz, etorriko zenari ongi etorria egitera bezala, eta, Daia ohean etzateko mugimenduan, belauetatik gorantz joan zen izter batetik bestera eginez, alde beroa sudurrarekin ukitzeraino heldu zen arte. Gauzak hala, ahoa albora bihurtu zuen, izterraren barnealdean zupada-aztarna uztekoa izan zena, baina ez zen horretaraino helduko ezen trebeki zekien egiten, eta, denborarik galdu gabe, bi atzamarrak soilik erabiliz, satin ehuntxoa alboratu zion gogo morbosoarekin andrearen bagina musukatzeari heltzeko, alde bateko ezpainetatik besteetara eginez eta alderantziz, klitoria ahantzi gabe mihiarekin dantzatu heinean zupadak egiten zizkiola dardara zolia igarri zion arte. Orduan, supituki burua altxatuko zuen, eta andreari baieztapen erara esan zion: "Klitoria bai gauza itzela, e!" Ez zen beste hitzik entzun, eta, klitoria eta baginako ezpainak tartekatuz, bere horretan jarraitu zuen Daiak bere bi eskuak Ebberen belarri aldeetan jarrita goranzko indartxoa egin zion arte. Bi ahoak bat egiteko gonbita zen. Txingar-musu indartsuan elkartuko ziren, Daiak desiraren desesperantzan erabili zuena gogoz esateko "orain maitea, ezin diot eutsi, sartu orain. Barruan sentitu nahi zaitut!" Gizonak emakumearen eskaera erregu erara ulertu zuen eta, men egiteko apur bat apartatu ondoren, ipurdi aldean zapladatxoa eman zion, emakumeak ulertuko zuena lau oin erara ipintzekoa zela, eta zaldiak behor beroari egiten dion erara sartu zion aitzurraren kirtena bezain gogor ikusten baitzen. Kolpea, bortitza, basatia izan zen, animalien erakoa, eta denbora, konturatu gabe, airean desegitekoa, urruma eta hatsanka artean dantzan ibili zen.

Sorbaldako zauria min ematen hasi zitzaion. Medikuek emandako flaskotik atzamarrekin bi pilula hartu zituen ahora sartzeko. Jarraian, sukaldera zuzendu zen iturrian basoa betetzeko, eta pilulak irentsi zituen.

- Zeozertxo afaltzeko?

- Bai, zeozertxo. Afaria berotu artean mahaia ipiniko dut. Daia, ardoa zuria ala beltza?

- Arraina.

- Usaindu dut.

- Zuria?

- Hori espero nuen.

- Aizu, Ebbe, iluntzean honantz nentorrela aurpegi arraroa zuen batekin gurutzatu naiz.

- Marrokia?

- Ez, beltza.
- Ba al da ba beltzik zuon auzoan?
- Hi, ez hadi adarra jotzen hasi, gero! Sobera ere badakik; han akaso arabiarren bat, beste guztiok beltzak gaituk.
- Txantxa bat da, ez besterik.
- Horixe ere ez!
- Bon.
- Bai.
- Automobiler?
- Bai.
- Zure auzoan esan didazu, ezta? Søndre Nordstranden, ezta?
- Bai, eta aurpegia ez zait bat ere gustatu.
- Zein auto zeraman?
- BMWa
- Kolorea?
- Beltza.
- Matrikula?
- Arinegi joan da, eta gainera, bihurtuneetan izan da.
- Lasai, bagabiltza zerbait egiten eta.
- Ea ba!
- Bon.

Leihoaren kanpotik, itsasoak irabazitako glaziarraren bidetik, trumoiak lagun zuen lanbroak aurrera egiten zuen, errukirik sumatzen ez zitzaiola. Ziur aski, Thor handiaren armada gainean zuen laino zarratua izango zen, inguru izugarria trosta motelaren hotsak oro blaitzen zuela, inongo aurkariren beldurrik izan gabe. Hain tamaina handiko indarrek etxe barruan gordetzera gonbidatzen zuten,

bertako epeltasuna desiratuz. Haakonssonek ardo zuriari zurrupada txikia eman zion. Kristalaren beste aldetik, dena berdintzeko nahia agerian uzten zuen gudarosteak, urratsa irmo, aurkitzen zuen oro ezabatuz, nekerik gabeko bidean aurrera egiten zuela ikusi zuen. Fiordo neurrigabeen nabarmen hedatzen zirenak tamaina handiko indarrak ziren, munduaren azken borondateak bailiran.

bost

Goizeko hamaikak ziren Oslo baketsuan. Bezperakoaren irudiko argitu zuenetik, gorabehera handirik gabe, eguna aurrera zihoan bertakoei tenperatura egokia eskainiz. Hego ukituarekin errusiar haizea motel antzematen zen zeru barreneko hodeiak leunki mugituz mendebalderantz. Argitasuna betikoa. Ez zegoen. Norak, hain zuzen ere, horrexen falta nabaritzen zuen gehien, nahiz eta jakin bazekien, bertakoek ziur ez zutela bestelakoren beharrik. Edo bai. Zalantza egin zuen.

Zabalguneko karrketan, aspaldi nagiak aterata zebilen jendea ibilera frenetikoan ikusten zen, batetik bestera gelditu gabe, nora joan behar zuten argiegi jakingo ez balute legez. Berriketa entretenituari etenik egin gabe adineko emakume bi erakusleiho baten aurrean barruko salgaiei erreparatzen. Alboan, txakurra erabat biribilkatuta lotan zuen eskaleak hiru pilotarekin malabarismoak egiteko ahaleginean ziharduen, bere ondotik igarotzen zen edonori txanponen baten erreguzko eskaeran; goizegi izango zen berarentzat, ezen bitik behin pilotak lurrera joaten zitzaizkion. Kale gurutzean, garagardo kamioia geldituta. Gidaria tabernatarara aluminiozko upelak eramateko zama jaisten zebilen besoak garbalduta, izerditan, eta ernegaturik zebilela ematen zuen. Alemana zirudien jubilatu bikotea alboei begira interesaturik zeuden, andrazkoak eskuetan zuen mapari aldizka begiratuz. Txinatar talde nahiko handia argazki-makinekin noranahi klik egiten; txinatarrena ohikoa zen.

Norarentzat bertara moldatzeko lehen egunak ziren, eta zer hobearik arrotza zitzaion hiria ezagutzeko bazterrak begiratzen denbora ematea baino. Bertara heldu ondorengo hirugarrena zuen, nahiz eta, itxura batean, hamabigarrena zela irudikatzen hasita zegoen.

Goiz hartan, sentipenak eta sentimenak nahi gabe kontrajarrita esnatu zitzaizkionak, borborrean zituen. Zalantzak ere berdin, gainezka. "Agindutako lana egiteko gai izango ote naiz?" galdera buruan bueltaka jarri zuen larri sentitzeraino. "Edo egingo dudana huskeria batean geratuko da?", hori oraindik okerragoa iruditu zitzaion. Nolanahi ere, zalantzak zituen, eta une hartan ez zitzaion ezer okerragorik iruditu bere lehen eremu-ikerketan zalantzak izatea baino. Inolako ahaleginik gabe, supituan gogora etorri zitzaion behin irakasle batek ikasgelan botatako esaldia: "Zalantzak hil egiten du!". Baina berak baieztapen hori entzun zionean, isilik geratu bazen ere, beste bat ekarri zuen gogora: "Zertan bihurtzen da zalantzarik gabeko pertsona?". Nolanahi ere, ofizioa ikasi berriengan maiz izaten dena gertatzen ari

zitzaion, eta, jakina, aurrean egokitu zitzaizkion bi irtenbide posibleetatik bat aukeratu bitartean pairatu behar zuen. Edonola ere, agindutako lana bertan behera uztea ez zitzaion zentzuzkoa iruditzen, eta bigarrena izan zen, alegia urrats bat egitea, kostata ere, egin beharko zuena. Azken hori izan zuen arrazoimenak eman ziezaiokeen jarraitzeko gomendio bakarra. Bestea, beroaldiak eman ondorengo irtenbidea izan zitekeen, edo gerta zitekeen baita, denbora asko hausnartzen eman ondorengo ere izatea. Baina ez zen kasua, urrats bat egitea zen irtenbide aproposa.

Ahoskatzea ere zail egiten zitzaion kaleko arrantzaleentzako horniketa dendaren aurrean, azken boladan egon zitekeen arraroen sentitzen zen. Hain egoera bitxitik ateratzeko bulkada bezala etorri zitzaion telefonoaren dardara. Deia bertan behera uzteko gogoia ere sartu zitzaion, eta, unetxo batez zer egin behar zuen zehazki jakin gabe, ezbaiari baiezkoa emanez, pantailan nor zen begiratu gabe erantzun zuen.

- Bai? - ahotsa korapilatuta, ulertezin bezala atera zitzaion. Eztul leuna eginez garbitu zuen.

- Nora? - bere izen propioa aditu zuen telefonoan.

- Bai.

- Ondo zaude? - Bihon zen.

- Bai, egunari eusten. Esadazu! - Bihon zela jakin zuen.

- Arraro sentitzen zaitut!

- Zalantzak bueltaka, baina lasai, ondo nago, zalantzak izatearren ez naiz hilko eta. Esan.

- Beno ba, nire lagun ohiarekin hitz egin dut, eta arratsaldeko seiatarako geratu gara bere etxean. Ondo datorkizu, ezta?

- Bai, primeran!

- Ni ordu erdi lehenago-edo helduko naiz etxera. Biok elkarrekin joango gara motoz, ondo?

- Bai, oso ondo.

- Ziur ondo zaudela?

- Bai, bai.

- Orduan, arratsaldera arte, bai?

- Bai, tira!

- Agur.

- Adio, arratsaldera arte.

Telefonoz hitz egin zuen heinean, Norak aurrerantz jarraitu zuen karrikan, eta konturatu gabe, Bihonekin bizi zenera helduta zegoela jabetu zen. Gibelean zuen liburu-denda ezaguna egin zitzaion, eta une hartan presazko egitekorik ez zuenez, zalantzak uxatzeko zer hobeagorik liburu artera sartzea baino. Mahaietan bata bestearen gainean pilatuta zeudenekin hasi zen, eta ezer ulertu ezinik derrotean azalak nolakoak ziren begiratu ondoren, polizia-liburuak zeuden atalera zuzendu zen. Ez zuen aurkitzen. Galdetu zuen non zeuden, eta ea ingelesera itzuliak ere bazituzten. Bai. Baiezkoa. Baietz. Liburu-saltzaile ziren bi andrazkoek aldi berean zerbait bazeukatela erantzun zioten. Han bai, han eman zuen denbora. Halakoak ziren bere espazio sekretuak. "Ez naiz honaino John Banvillen liburu bat erostera etorri" gomutatu zuen, eta begiratu ematen denbora luze joan zitzaion, ohartu gabe bezala-edo. Bere saltsan zegoen. Ingelesera itzulita zeuden Anne Holt, Unni Lindell, Jo Nesbø eta Karin Fossumenak zituen esku artean. Sinopsiak irakurtzen zegoen, lasai, gozatzen. Ez zeukan presarik. Oraindik irakurri gabe zuen Karin Fossumen Emakume bat zure bidean titulua zuena erakargarria iruditu zitzaion. Lehen orrian geratu zen harrapatuta. Jada azpikeriak soilik izaten dituzten horiek ez zitzaizkion bat ere laket. Polizia-nobela bat irakurri nahi zuenean zerbait gehiago eskatzen zuen. Eskuartean zuena, nahiz eta oraindik bigarren orrian zegoen, atmosfera bereziko thrillerra, eta gainera, xurgatzailea ere bazela iruditzen zitzaion. Erosi zuen.

Kale bereko janari-dendan hiru-lau gauza hartu ondoren, etxerantz bueltatu zen artean bazkal ordua etortzeke zela, baina denbora izaten zuenean bederen, janaria prestatzea ere gozamina iruditzen zitzaion. Atarira heltzekotan zenean, pakistandarraren dendaren ateetan gutxi gora behera jabearen neurrikoa zen emakume bat zegoela ohartu zen; itzela. Otu zitzaion zerbait behar zuela. Hurbildu zitzaion eta:

- Hello!

- Kaixo! - Nora nor zen jakin gabe, emakume ezezagunak euskaraz artatu zuen, eta nola gainera!

- Hemen, Oslon, ez nuen uste nik euskaldunik aurkituko nuenik, baina hau poza!

- Zein txikia den mundua, ezta?

- Eta zer egiten duzu zuk hemen? -Norak, oraindik harrituta.

- Erraza erantzuna: hemengo jabearen emaztea naiz. Orain nik ere galdera bera egin beharko nizuke - andre euskaldunak.

- Istorio luzea, akaso zurea bezalakoa?

- Baliteke!

- Egia esan, nirea ez da hain luzea, lan bat egitera bidali naute.

- Nirea luzeagoa orduan –pakistandarraren emazteak ahoan paleta falta zuen, baina oso atsegina eta alaia zen, euskaraz artatzen.

Norarentzat egun guztiak ziren Aberri-egunak, baina laster Aberri Eguna zetorrela eta, aukera paregabea aprobetxatuz, ikurrina eroatera sartu zen barrura. Finean, han, Oslon, euskaldunak ere bazirela eta, bertakoak jakitun izan zitezen ikurrina jarri nahi zuen zazpi balkoietako batean.

- Ikurrina bat nahi dut, ba!

- Denak dira tamaina berekoak. Hotelen batean zaude, ala? - pakistandarraren emazteak galdetu zion, han, Oslon, euskaldunarekin berriketari jarraipena emateko irrikaz, nolabait han maizago euskaldun batekin topo egitearen mira izango balu bezala. Nabarmen nabaritzen zitzaion euskaraz mintzatzen gozatu egiten zuela gorputzeko zelula guztietan.

- Ez, hortxe, hirugarrenean nago lagun batekin!

- Bihon irakaslearekin?

- Bai, ezagutzen duzue, ala?

- Zelan ez dugu ezagutuko ba!

- Hau ere kasualitatea!, - Norak.

- Zein ondo! Asko maite dugu Bihon! Etxeko dugu!

- Adiskide mina da!

- Bai, ezta?, ez da izango ba! Bihon oso estimu handian daukagu!

Izan ere, handik lasterrera, inguruko tabernaren batean kafea edan berri, pakistandarra heldu zen, eta 23,60 nok merkeago egingo zion, gutxi gorabehera, 2,50 euroko deskontua.

Haakonssonen aginduei jarraikiz, Dagny Gulbrandsen Søndre Nordstrand auzoko etxe horiaren atzealdetik fiordora ematen zuen kobazulora joango zen gainbegiratua ematera. Atzealdera heldu

zenean, sagarrondoan inguruan, batetik bestera zer aurkituko bazterretan zokomiran aritu zen. Etxeak, errepidearen aldetik hesia eginez haritzak, lizarrak, hurritzak, zumarrak, astigarrak, ezkiak eta izeiak zituen. Mendebalderantz, ertz egiten zuen tokitik fiordorantz zihoan aldean, urkiak, haltzak eta makal zuriak. Zuhaitz haiek guztiek ez zuten uzten auzoko gainerako etxeak ikusten, eta aldi berean, babes leku itzela eskaintzeaz gain, ezkutatzeko txoko paregabea oparitzen zuten. Ez zen etxera sartu. Belarra zapalduta zuen oinbide hezeari jarraikiz uretarantz zuzendu zen. Bere oinetan lurra bigun aurkitu zuen. Apenas hirurogei pausu eta labarrera heldu zenean, Haakonssonek esan bezala, beheago kobazuloko sarrera ikusten uzten zuen itsasbehera zegoen. Handik goitik, detektibea zegoen lekutik begiratuta, ez zuen handia ematen. Jaitsi zen. Sarrera apenas bera baino garaiagoa. Urak jandako arroakak bi eskailera maila egiten zituela ohartu zen, nolabait barrura sartzeko gonbitari muzin egiteko ohartaraziz. Sartuko zen. Barrualdea ez zen oso handia, akaso dozena erdi pertsona eroso egoteko bestekoa. Lata huts batzuk nahasian, eta lurrean sartutako hesolari lotuta zabor poltsa beltza. Barruan zerbait zeukan. Instintiboki latex eskularruak ipini zituen, eta, nola zegoen lotuta begiratu ondoren, bitan pentsatu gabe, zabaldu zuen, eta barruan jaki latak aurkituko. Segur aski norbaitek larrialdi baterako han beren beregi ipinitako jakiak ziren. Arazoa aztertuta. Plastikozko poltsa aurkitu zuen bezala uzteko korapiloari bi begi egin zizkion. Nahikoa zekien. Norbait zerbait egiteko prestaketak egiten zebilen, edo horren antza hartu zion; bestela, zertarako? Haurrak jolasteko? “Beno, hemengoa egin dugu, nahikoa dakigu, eta orain, bulegora” pentsatuz, handik autoa utzi zuen lekurantz zuzentzeko bere oinetan bira egin zuen.

Haakonsson taldera praktikak egitera etorri berriarekin Maryren lankideari galdeketa egitera banketxera oinez joan zen, bulegotik bi etxadi albora baitzegoen. Lovise aurkitzea erraz egin zitzaien, ezen sartu eta bost eskailera maila igota, eskuinetara zegoen mahaiko mendekoari galdetu baino ez zuten behar izango. Nagiturik zegoen adin ertaineko gizona. Nekez zutitu zen. Zirudienez, zapatak erdi narras eramateko ohitura zuen, eta horrek, jakina, itxura baldarra ematen zion. Horregatik, inspektorea eta Waldemar Lovise zegoen lekura laguntzeko etenak eta bi behar izan zituen. Emakumea bere lanpostuan zegoen, aurrean zuen ordenagailuan datuak sartu eta sartu. Gogoan alhan, mahai gainean zituen orrietara soilik begiratzuz heinean teklatura erabiltzen zuen, inguruan biribilean jarrita zeuden hiru-lau lankideen ele-meleei kasurik egin gabe.

- Lovise? Haakonssonek aurpegian irribarrerik gabe galdetuko zion.

- Bai, ni naiz.

- Haakonsson eta Waldemar gaituzu. Mary Nicizanyeri buruzko galdera batzuk egitera gatozkizu.

- Haakonsson inspektorea, ezagutzen zaitut - Lovisek.

Haakonssonek bera nor zen azaltzeko ez zuen beste ezer egin beharrik izaten. Aspaldikoa zenez kontua mundu guztia zegoen jakinaren gainean. Ospea eta aintza arrantzalearen semearen kasua argitu zuenetik zetorkion. Orduko kasuak Osloko biztanleria zur eta lur utziko zuen. Erabakitasun handiz eginiko lana izan omen zen, egunkari zein telebista guztietan mendiko etxolatik mutila ekarri zuen salbatzaile bezala agertu zen eta. Orduz geroztik, ez zen Oslon egongo, bertakoen zein kanpoko etorkinen artean, bera ezagutuko ez zuenik. Handik aurrera, norbaiten aurrera agertzen zenean, soilik esaten zuen bere abizena, nor zen argitzeko gehienetan ez baitzuen beste beharrik izaten.

- Zerbait gertatu zaio, ala? - Lovisek aurpegian galdera ikurra jarrita itaundu zion.

- Desagertu egin dela.

- Atzo deitu nion, eta telefonoak itzalita edo estaldurarik gabe dagoela erantzuten du.

- Bai, horrela da. Nola konpontzen zara berarekin? - Haakonssonek orain aldian jarri zuen esaldia, oraindik ez baitzuen Mary Nicizanye hilik zegoela argitzea nahi. Orain aldian lan egitea erosoago egiten zitzaion; errazago aurrean zuenari zerbait ateratzeko, lehen aldiak defentsak bizkortzen zituela uste baitzuen, bestea alerta-gorrian ipintzea bezala-edo.

- Maryrekin ondo konpontzea oso erraza da. Horko mahai horretan lan egiten du. Oso langile ona eta lankide hobea dela esango nuke - Lovise ez zegoen ezeroso, baina eroso ere ez. Lasai zegoela ematen bazuen ere, itxura zaintzean jartzen zuen arreta. Mary Nicizanyek zerbait egiteko, egun pare bat-edo hartuko zuela pentsatu nahi zuen, lanera hurrengo egunean bueltatuko zela sinetsita, baina han, bere aurrean, inspektorea zegoen.

- Asteazkenean etorri zinen lanera?

- Bai.

- Lanaldian ezer arrarorik susmatu zenuen? Hemen esan nahi dut?

- Hemen ohiko eguna izan zen. Denak dira berdinak.

- Eta bera beti bezala ikusi zenuen?

- Bai. Ez nuke esango pertsona sentibera denik, egun batetik bestera umorea aldatzen zaien horietakoa; aldiz, esan liteke zerebrala dela. Hemen gauden guztiok egun osoa ematen dugu zenbakiekin, eta azkenean aurpegia ere zenbaki bihurtzen zaigu. Ez zaigu nabaritzen?

Inspektoreak entzungor eginez berean jarraituko zuen.

- Lanetik kanpora badaukazu traturik berarekin?

- Bai. Noizbehinka geratzen gara kafea edateko eta horrela, edo gu bere etxera joaten gara, edo bera semearekin etortzen da gurera, afaltzeko-eta geratzen gara. Nire seme-alabak Yamweziren adinekoak dira biak. Bikiak ditut.

- Bon. Lanean badu gorabeherarik norbaitekin?

- Ez. Aldi berean hasi ginen biok lanean. Ezezko biribila esango nuke. Sekula ez dut ikusi inorekin errietan, eta gainera eztiki hitz egiten du. Oso andere otzana dela esango nuke; zerebrala eta aldi berean otzana.

- Eta hemengo arduradunekin?

- Hemen denok men egiten dugu. Esaten digutena egiten dugu eta kito.

- Badu hemengo arduradunen batekin harreman pertsonalik edo?

- Ez dut uste, inoiz ez dut horren susmorik hartu behintzat.

- Eta hemendik kanpo?

- Eredua da guztiontzat.

- Eta semearen aitarekin?

- Sekula ez dugu horri buruz hitz egin. Ez dakit norbaitekin izandako sexu-harremaneko semea den, edo intseminazio artifizialekoa.

- Bon. Oraingoz nahikoa da.

- Badakizue non nagoen. Besterik behar baduzue, deitu edo etorri - Lovisek gehigarri bezala gaineratuko zion.

- Mila esker.

- Ez dago zergatik. Horretarako gaude.

- Agur.

- Adio.

Hamabiak aldera, Haakonsson unibertsitateko hizkuntzalariarekin bideokonferentzia izatekoa zen. Unibertsitatera ere joan zitekeen, edo kafetegiren batean geratu, baina zergatik ibiliko zen batetik bestera, kontu batzuk bulegotik bertatik argitu zitzakeen eta. Olerkiaren itzulpenaren hizkuntza kirundia zela baieztatzea nahi zuen. Bai, Mwezi andereak horixe esan zion, baina berak beste iturri bati jarraituta baieztatu behar zuen. Bezperan postaz agindua zion olerkia, eta hizkuntzalariak erantzuna hurrengo egunean emango ziola ziurtatu zion. Honela zioen olerkiak:

Sustraien jatorria

ororentzat ezezagun den

haizeak astindutako arbolan,

lantza batez zauriturik,

Odini errezuan,

ni neu

neure buruarekiko eskaintzan,

bederatzi gau luze

eskegi nituela

Badakik.

Ez zidaten ogi apurra

ez eta edatekorik eman,

sakonera begiratu nuen,

Errunak hartu nituen,

garrasika hartu ere,

eta gero kolpean jausi nintzen.

- Kaixo, Erland.
- Zer moduz, Ebbe?
- Ondo, ondo. Zu ere bai, ezta?
- Bai, bai, ondo. Aizu, irratian entzun dut gertatu zaizuna. Zauritu egin zaituzte, ezta?
- Bai, baina soilik azala urratu, besterik ez. Mila esker galdetzeagatik.
- Zer gutxiago, ezta?
- Bon, ba, zu agurtzeaz gain, kontsulta bat egin nahi nizuke.
- Bai, aurreratu didazu telefonoz. Hori da, ezta?
- Horrela da, bai.
- Atzo zabaldu nuen posta, eta begirada bat eman diot. Gure poesia epikoa itzela da, ezta?
- Bai, horixe da hitza, itzela - Haakonssonek hizkuntzalariari ihardetsi zion.
- Ba, Ebbe, zuk aurreratu bezala, hizkuntza kirundia da. Zure zalantzak argituta?
- Bai, horixe zen behar nuena. Kirundia, Burundiko hizkuntza ofiziala, ezta?
- Bai, horixe da!
- Besterik ez.
- Esku artean kasu zaila?
- Beno.
- Afrika aldetik datoz zantzuak, orduan?
- Ikusi behar. Oraindik goizegi da ezer esateko, eta horregatik alde guztietara gaude begira.
- Ederto. Besterik behar al duzu?
- Ez, Erland, mila esker. Horixe izan da dena.
- Beste ezer beharko bazenu, deitu.

- Ederto. Mila esker berriro ere.
- Ez horregatik.
- Gaineko egunen batean kafea, ados?
- Oso gustura gainera!
- Adio.
- Agur, bai, agur.

Haakonssonek itzali zuen aplikazioa eta telefonoa hartu zuen psikologo andreari deitzeko. Sakatu zituen zenbakiak. Sorbaldako zauriak ez zion bakerik ematen. Medikuak emandako flaskotik pilula bi eskura bota zituen, eta jarraian ahora sartu ondoren, mahaiaren aldamenean zuen ur botilatik zurrutada luzea emanda irenstekoak izan ziren. Ura ahotik sabelerako bidea hartuta joan bazitzaion ere, apurra okerreko bidetik, eta eztulka hasi zen aurpegia gorritu arte. Itotzeko zorian izan zen, nahiz eta azkenean bere onera etortzea lortu zuen.

- Bai - erantzun zuen beste aldekoak.
- Hildegarde! - oraindik, nolabait, ahots- galerarekin, normal hitz egitea kostatzen zitzaiola.
- Bai.
- Ebbe.
- Egunon-edo, eguerdion-edo, Ebbe.
- Baita zuri ere. Aizu, Hildegarde, libre al zaude?
- Ahots barik geratu zara, ala? Ez da izango nigatik?
- Ez, ondo nago. Ur apurra okerreko bidetik joan zait.
- Hori bakarrik bada, ez da asko.
- Libre al zaude?
- Ez banengo ere berdin. Lehentasuna daukazu.
- Mila esker. Oraintxe noa.
- Ez, Ebbe, neu joango naiz zure langelara.

- Ez, maitea, besaulki madarikatu honetatik ipurdia altxatu behar dut, bertara josita daukadala pentsatzen ari naiz eta.

- Ondo dago, nahiz eta niri ere gauza bera gertatzen ari zaidan.

- Zuri ere gauza bera?

- Bai.

- Goazen ba orduan kafe bat edatera, on egingo digu eta.

- Ideia ona. Oso ondo. Sarreran itxarongo dizut.

- Oraintxe noa.

Hura ez zen Haakonssonentzat egun astitsua izango baina bi gauzak aldi berean egiteko aukera izanik harrera-gunera berehalakoan helduk zen, Hildegarde baino lehenago. "Kaixo, zelan doa dena?" - sarrerako mostradorekoei aurpegira zuzen-zuzen begiratuta irribarrez esan zien. Kalera ateratzeak beti pozten zuen. Bere eskuetan egongo balitz, egun osoa emango zukeen kaleetan gora eta behera.

- Dena ondo, Ebbe, mila esker - zaharrenetariko emakumeak adeitsu erantzun zion. Besteek euren kontuetan ziharduten, eta ez zuten begirik altxatu. Erantzun zionak gazterik atera zituen oposizioak, eta geroztik han zegoen; leku berean. Ondo zeraman lana. Laster jubilatuko behar zuela eta, gaia ateratzen zenean penaz hitz egiten zuen. Ez zuen erretiratu nahi. Lanean jarraitu nahi zuen. Berarekin batera zebiltzanei ulertezina egiten zitzairen halakorik irudikatzea ere. Ezin zuten sinetsi euren lankide batek jubilatuko nahi ez izatea.

- Zer, bagoaz? - psikologo andreak esaldia botatzerakoan eskuarekin gerrian fereka leuna eginez ahots goxoz gibeletik esan zion. Begiz jota zuen, eta, horregatik, berarekin egoten zen guztietan haur mizke haziari bezain ondo esaten zion.

- Bai, goazen!

- Bai. Ebbe, ikusi zenuen atzo gaueko filma? - Kafetegirantz oinez zihoazen.

- Barkatu, Hildegarde, deia erantzun behar dut, telefono mugikorra sokorruka daukat eta - psikologo andreak ez zion ezer esan. Isilik geratu zen, baina inspektoreak gutxietsiagatik muturra okertuta. Gulbrandsen detektibea zen.

- Bai, Dagny, esadazu.

- Aizu, Ebbe, non sartu zara?

- Bulego inguruko kafetegian, Hildegarderekin kafea edaten; beno, edaten ez, horretara goaz, edatera.
Zer behar duzu? Erdu nahi baduzu.

- Ez, oraingoz kafearen neurriak maila onean ditut.

- Bon.

- Zientifikokoek eman dizkirate atzokoaren xehetasunak.

- Non zaude?

- Neure langelan.

- Laster noa.

- Ondo.

- Agur.

- Bai - detektibeak agur gisa.

- Barkatu, Hildegarde, zeri buruz genbiltzan?

- Galdetu dizut ea atzo gauean telebistan eman zuten filma ikusi zenuen. –muturra lasaitzen zitzaion heinean jarrera ere aldatuz zihoan, ezen inspektorea Gulbrandsen detektibearekin elkarrizketa izateko ez baitzen bere ondotik aldendu, nolabait bera ere partaide izateko gonbita eginez.

- Filma? Filma ikusteko moduan nengoen ni! Leher eginda heldu nintzen etxera eta!

- Se deg ikke tilbake! Ez begiratu atzera - bota zuten.

- Ez al da ba hori Karin Fossumen eleberria?

- Bai, filma bere nobela horretan dago oinarrituta.

- Ikusita daukat.

- Noiz?

- Estreinaldian ikusi nuen.

- Zineman?

- Bai, ba!

- Gonbidapenarekin?

- Noski!

- Bazara norbait!

- Ez da hainbesterako. Sarrerak sobera izango zituzten, eta debalde eman behar.

- Ziur ez dela horrela.

- Ez dakit ba.

- Zein trebea den azalpenak egiterakoan, e?

- Gustuko dut berak ematen dion intriga.

- Eta korapiloa, zein ondo eratzten duen, ezta?

- Ez hori bakarrik, konturatuta zaude zein trebea den irakurlearen interesa hasieratik amaiera arte mantentzeko?

- Eta pertsonaietan zelan sartzen den? Azaleko itxuratik barruraino zelan joaten den, ezta?

Kafetegira heldu ziren.

- Ebakia? - Haakonssonek Hildegarde psikologo andreari galdetu zion.

- Ez, kafesnea.

Aker jatetxean elea egiten zuen mostradorearen alderik laburrenean zeuden; sarrera aldean. Bulegoaren alboan zegoen hotelaren aldameneko taberna zen. Zerbitzaria hurbildu zitzaien eta, "Haakonsson jauna, betikoa?", goizeko txandan beti egoten zen Aksel mutilak esango zion. Ohi bezala zegoen, beti adarra jotzeko prest, baina oraingoan manerak zaindu zituen.

- Bai, Aksel, niretzat bai, eta Hildegarderentzat kafesne bat. Horixe bakarrik.

- Oraintxe bertan, jauna!

- Zer diostazu olerkiari buruz? - gaia supituki aldatu zuen. Haakonsson ez zen hitz egin eta hitz egin ibiltzen zen horietakoa; alegia, berriketa hutsa bizitzeko era bakarra dela uste duten horietakoa. Buruan zerbait izaten zuenean, harako bidea zuzenean egitea izaten zuen gustuko. Ez zitzaion laket adarretatik hara hona, zuhaitz batetik bestera, asperraren beldurra zer den jakin gabe ibiltzea, azkenean izaten den denbora apurra zapuztuta amaitzeko. Zirt edo zart egitea zen bere jokabidean zegoena. Horrelakoa zen.

- Bai. Badirudi zerbait ikaragarria gertatuko delako susmoa duela, nolabait etortzekoa denaren bihozkada izango balu bezala. Badakizu, pertsona batzuek izaten dutela etorkizun-sena, gertatzear dagoenaren etorkizun-sen berezia; etorriko dena usainduko balute bezalako zerbait izaten dute. Ez daukat inolako zalantzarik emakume hori itzelezko trantzean izan dela. Bizirik dago?

- Ez. Erail dute.

- Lubakian agertutako afrikarra?

- Bai.

- Hauxe bakarrik aurkitu diozue, edo badago honelako gehiagorik?

- Ez, hauxe bakarrik.

- Kontua badakizu nondik doan, ezta?

- Gutxi gora behera.

- Ba, pertsona gehienek zerbait izan den edo izango den susmorik ez dutela izaten. Hori horrela da. Hori da ohikoa. Baina badaude batzuk hori, ezkutuan dagoen hori, sentitzeko ahalmena dutenak. Pertsona berezi horiek bihozkadak izaten dituzte. Sarritan amestutakoarekin nahasian agertzen zaie, eta, behin gertatu ondoren, eurek izandako bihozkadarekin konturatzen dira. Horrelakoek garuneko eskuineko hemisferioa bestea baino garatuago izaten dute. Alde horretan intuizioko kontuak, sormena edo eta ikurrak izaten dira gobernuan dabilzanak. Horregatik pertsona horiek ikusten ez den errealitatearekin erraz-erraz lotzen dira. Errealitate hori ia-ia ukitu egin dezakete, guk baino askoz errazago, jakina.

- Horrelako zerbait irakurria nuen, nahiz eta ez dakidan noiz eta non.

- Ziur naiz lubakian hilik agertutako emakumea horrelakoren bat izango zela.

- Baliteke.

- Ba, esandakoa bakarrik esan diezazuket. Ez da gauza asko baina baliagarria bazaizu...

- Bai, nahikoa dut.

- Alde psikiatrikotik begiratuta, olerki horrek esan nahi duenaz hitz egin diezazuket. Baina, ez dakit ba, baliagarria izango zaizun.

- Ez, esan didazunarekin nahikoa dut.

- Aizu, Ebbe, eta zu zer? - begietara leunki begiratzuz, eta, mozolo aurpegia ipinita, Hildegardetik galdetu zion.

- Ni, zer, zer?

- Gaez zer egiten duzu?

- Lo!, maitea.

- Nahi izango bazenu, badakizu...

- Baina Hildegarde, panpoxa, zuk uste duzu ni horretarako nagoela...

- Oraindik gazte zaude.

- Gazte! Bai, jakingo bazenu! Eta zure bikotekideak zer dio?

- Ezer ere ez. Harremana eten dugu.

- Nola da hori? Ez zineten ba ezkontzeko? Zer gertatu da neskatoarekin? Zu baino hamar urte gazteagoa zen, ezta?

- Aspertuta nengoen.

- Zenbat zituen, hogeita bost?

- Hogeita sei.

- Eta orain nirekin nahi al duzu? Uste nuen emakume zalea zinela!

- Zurekin zein edonorekin.

- A! hori ez, maitea! Ni ez naiz sukaldeko sorkia bezala erabiltzekoa!

- Ez, kutuna. Zurekin ibiliko banintz zurekin bakarrik izango litzateke, ez beste inorekin. Badakizu zurekin nahikoa eta sobera izango nukeela.

- Hirukoterik ez, beraz? Ze pena! pozten hasia nintzen.

- Joan hadi pikutara!

- Txantxa bat da, bihotza!

- Beno.

- Behin izan nuen harreman egonkorra.
- Emaztearekin?
- Bai.
- Gutxi iraun zuen?
- Apenas bi urte.
- Semea jaio eta berehala, orduan?
- Semeak urte bete izango zuen.
- Zer gertatu zitzaizun?
- Etxetik bota ninduela.
- Etxea ez zen, ba, zurea?
- Bai, baina emaztea eta semea, badakizu. Gauza materialei sekula ez diet atxikimendurik izan.
- Lana, erruduna?
- Zalantzarik gabe. Gure lanak ez du ordutegirik eta horrek dena tratatzen du.
- Hori kudeatzea oso zaila da, ezta?
- Ez izan zalantzarik. Batzuetan goiz, beste batzuetan berandu, askotan lorik ere ez, maiz estresa... Kudeatu ezazu hori.
- Zaila.
- Zaila ez, maitea, ezinezkoa!
- Beno, baina pentsatuko duzu esan dizudan horretan?
- Hildegarde, ezinezkoa egingo litzaidake harreman egonkor bat hasi behar dudala pentsatzea ere.
- Larrutan egiteko?
- Ez dut zalantzarik primerako maitalea izango zinatekeela!
- Noizbehinka?
- Noizbait.

- Bulegoan?

- A, ez! Bulegoan ez, zure lurrinarekin dena blaituko zenuke!

- Ez dut lurrinik ematen eta!

- Bai, zure gorputzaren lurrina! Bulegora sartuko nintzatekeen bakoitzean zu zeu usainduko zintuzket, eta hortxe amaituko litzateke nire askatasuna. Ez, laztana, bulegoan ez!

- Autoan?

- Hildegarde, gu ez gaude horretarako! Ez duzu ikusten nire neurriak zelangoak diren, ala?

- Ebbe, zein ondo hitz egiten duzun!

- Ez esan horrelakorik edo gorrituko nauzu!

- Ai, maitea, tantakadaka jarri nauzu!

- Ez da hainbesterako izango!

- Baietz, ba! heze jarri nauzu! Goazen komunera!

- Lehen aldia?

- Bai zera!

- Lasaitzen nauzu!

- Zer uste zenuen, lekaimea nintzela?

- Bai zera!

Lantokirako bueltan, Hildegarde psikologoak berriketari ekiteko gogoaz ustekabeko kontua atera zuen.

- Badakizu antigoaleko gauzak izaten dituzten denda horietako bateko erakusleihoan urrezko letra larriz idatzia zer irakurri dudan?

- Gauza bitxia, ziur!

- Inondik inora ere ez zenuke asmatuko.

- Saiatu naiteke.

- Mozolokeria hutsa da.
- Bota, ba!
- Neska obedienteak paradisura doazela, besteak eurek nahi duten lekura!
- Irribarrea sortzeko karga ederra!
- Bai.
- Eta zu?
- Zalantzarik?
- Ez.
- Ba horixe, nahi dudan lekura!
- Morokilen kontuak doaz hortik, ezta?
- Perpaus konpletibokoa bai, baina morokiletatik harat doan kontua da.
- Horien lurraldean emakumeen askapena noizko?
- Puf!
- Eta gurean?
- Puf!
- Gizonak askatu beharko genituzke lehenago?
- Ez. Aldi berean egiten da, edo jai daukagu.
- Berriro eskolara joan beharko dugu?
- Bai.
- Matxismoa, mobbing-a, handinahikeria, arrazakeria, erlijio diskriminazioa, eta nik zer dakit zer gehiago. A zelango gizartea egin dugun, ezta?
- Zeuk diozu!
- Norberarengandik hasi behar, ezta?
- Horixe preseski!

Harrera gunean bi emakumezko zeuden bakoitza bere salaketa jartzen. Bata, adindua, etsita zegoen, bere txakur txikia desagertu zela eta ea poliziak ez zuen ezer egin behar galdezka. Gurpilek kirrinka egiten duten bezala ahotsa gorenera botata hitz egiten zuen. Bestea, norbaitek etxeko lanpasean metalezko kutxa gorri hutsa utzi ziola, eta kezkatuta zebilen zer edo zer adierazten zuen jakin nahian. Hildegardek musean dupleen keinua eginez inspektoreari begiratu zion, eta aurrera egin zuten. Bakoitza bere langelara egiteko zenean Haakonssonek galdera bota zion:

- Hildegarde, zer da kutxa metalikoaren kontu hori?

- Zaraten kontutik etorriko da.

- Zelan da hori?

- Goikoak bekoa, edo behekoak goikoa, edo biek ezin dutela besteak etxean egiten dituen zaratak jasan. Auzoen arteko matraka dela esango nuke.

- Eta kutxarena?

- Batak bestea beldurtzea nahi duela esango nuke.

- Ea argiago.

- Batak besteari lanpasean kutxa metaliko hutsa utzi dio, eta, horrek, oparia egin duenarentzat, bestearen jokaera etsipen handia izan dela adierazten du, edo etortzeko den proiekturen bat hutsean geratuko dela, edo horrelako zerbait ere adieraz lezake; oparia hutsa da; ezereza. Metalak hoztasuna esan nahi du; oparia egin duen pertsona horrek bestearenganako sentimendu ezkorak dituela. Kutxa gorria izateak pasioa adierazten du, baina era ezkorrean.

- Betiko kontuak.

- Dena den, horregatik, behintzat, uste dut inork ez duela inor hilko.

- Hobe horrela.

- Zarata da kontua.

- Finean bizi-kalitatea, ezta?

- Horixe preseski!

Haakonsson besaulkian eseri zenean, Gulbrandsen detektibeak zientifikokoan xehetasunak eman zizkion. Ahoz eman zizkion aurrerapen gisa, nahiz eta txostena mahai gainean utzita zion. Han, amets

egitea galarazita zegoen auzoko etxe madarikatu hartan, Maryren odola aurkitu zutela esan zion. Mary zenaren gorpuaren argazkiak ere gutun-azal handi batean zeuden. Haakonsson jaiki zen besaulkitik, eta haietako argazki bat kasuaren grafikoan zegoen gorpua jartzen zuen orriaren ordean ipini zuen.

- Hasi zara grafikoa egiten.

- Bai.

- Mary han hil bazuten, zergatik eraman zuten lubakira?

- Hori argitu beharko da. Baliteke lubaki hitzak esan nahi duenagatik izatea. Badakizu lubakia, borroka egiteko babes lekua izateaz gain, aginte tokia ere bazela, eta hortik joan daiteke kontua. Suposizio bat besterik ez da, eta lehenago edo geroago argitu beharko da.

- Bai. Arraroa, ezta? Metafora bat ipintzearen arriskuak hartu?

- Bestalde baserria ere badaukagu.

- Eta?

- Baserriak esan nahi duena!

- Zer da hori, baserriak esan nahi duena?

- Badakizu, basoko herria, autosufizientzia! Herriak zertarako sortzen ziren?

- Ba, babes emateaz gain, bertakoei behar zuten guztia emateko.

- Horixe, hain justu! Biztanleek herrian lortzen zuten bizitzeko behar zutena; ez zuten beste inora joan beharrik bizitzeko.

- Bai, eta?

- Ba, horixe: herrien sorreraren aurretik baserriak gauza bera egiten zuten. Herri txikiaren sinbologia berbera dauka. Autosufizientzia. Familiak behar zuten guztia etxean ekoizten zen: proteinak, hidratoak, bitaminak, sua egiteko egurra... Badakizu, horixe, autosufizientzia.

- Berrito beste metafora bat!

- Dena da posible.

- Baliteke.

- Horixe da argitu beharko dugun beste kontu bat. Beste gauza bat, Dagny: Maryren telefono dei guztien zerrenda behar dugu, bai mugikorrekoak bai etxeakoarenak, etxekorik baldin badu. Interneten izan duen jarduera, posta elektronikoa, whatsappak... dena, mugimendu guztiak jakin behar ditugu. Eman agindua taldeko informatikariei.

- Agindu hori emanda dago.

- Bon.

Haakonssonek zalantzarik gabe hitz egingo zion, protokoloko kontuak bailiran. Agindua ohiko prozeduretan egiten zena zen, liburukoa, nolabait esateko.

- Maryren etxea berriro arakatu behar da - jarraitu zuen- , goitik behera gainera. Dena hankaz gora jarri behar baduzue, jarri. Zerbait gehiago behar dugu. Eraman horretarako taldeko behar dituzunak. Maryk egin ohi zuen bidean bizi diren guztiei galdetu, ea egun horretan ezer deigarrik-edo, arrarorik-edo, ikusi zuten. Maryren azken eguna berriro ikusi behar dugu osotasunean. Hori guzti hori daukagunean, hiltzailea edo hiltzaileak nor edo nortzuk izan diren jakiteko gertakariak berritzeari ekingo diogu. Hurbiltzen ari gara, baina zertxobait gehiago behar dugu. Tira, segi. Aginduak ematen dituzunean etorri hona, Maryren mutil-lagunarekin galdeketa egitera joan behar dugu eta.

- Ondo. Oraintxe nator.

- Dagny, beste gauza bat ere egin behar da.

- Zer?

- Mutikoaren ikastetxera joan eta zuzendariari zein irakasleei galdeketa egin behar zaie.

- Ondo. Utzi neure kontu.

- Aizu, Dagny, balistikokoen azterketarik ez dut hemen ikusten. Ez dute oraindik egin, ala?

- Ez da heldu.

- Beraz, oraindik bala-zorroei buruz ez dakigu ezer?

- Ez.

- Tira. Segi.

- Oraintxe nator.

Maryren mutil-laguna aurkitzea oso zail egingo zitzaien. Unibertsitatera heldu zirenean erratuko zuten norabidea, eta, Letra Fakultatera joan ordez, Zientzietakora egin zuten. Gero, solairuarekin ere gauza bera gertatu zitzaien, eta, azkenean, goizeko txanda amaitzear zegoenean, alde egiteko unean, ikasgela barruan harrapatu zuten. Rhon zein zen beste ikaskide batek esan zien.

- Rhon?

- Bai, ni naiz.

- Haakonsson inspektorea eta Gulbrandsen detektibea gara. Zu Maryren mutil-laguna zara, ezta?

- Pasa den asteko igandean utzi genuen.

- Orduan ika-mikan ibili zineten, ezta?

- Ika-mikan, ez dakit nik ika-mikan edo eztabaidan.

- Zergatik zenbiltzaten ika-mikan?

- Nik geunden tabernatik alde egitea nahi nuen eta berak ez. Horixe izan zen eztabaida. Horri ika-mika deitzea gehiegi deritzot.

- Zer ordutan izan zen hori?

- Bederatziak aldera.

- Eta nora joan nahi zenuen zuk?

- Nik handik alde egin nahi nuen.

- Nora joateko?

- Berarekin egoteko.

- Baina berak ez zuen zurekin egon nahi, ezta? Tabernan egon nahi zuen, ezta?

- Berak tabernan jarraitu nahi zuen.

- Eta zuk larrua jo nahi zenion, ezta?

- Ez da hori.

- Eta horregatik hil duzu, ezta?

- Zelan hil dela? Nik ez dut hil!

- Zure nahietara ez zen makurtzen, ezta?
- Zer diozu?
- Zure nahietara makurtzen ez zelako hil duzu, ezta?
- Nik ez dut hil. Zergatik hilko nuen ba?
- Beraz badakizu hil egin dutela?
- Zer diozu?
- Non gorde duzu Mary hiltzeko erabili duzun labana?
- Zer labana eta zer arraio. Hara bestea!
- Hobe duzu orain aitortu, bestela kartzela-zigor luzeagoa ezarriko zaizu.
- Nik ez dudala hil ba!
- Non gorde duzu Maryren gorpua?
- Nik ez dut inon ezer gorde! Zer demontre zabilzate zuok!
- Zergatik hil duzu?
- Berriro? Ez dudala hil ba!
- Zuk eskatzen zeniona ez zuen egin nahi, ezta? Eta horregatik hil duzu, ezta? Non dago Maryren gorpua?
- Ez dut beste ezer esango. Susmagarria banaiz atxilotu nazazue, eta jarraian abokatu bat eskatuko dut.
- Zertan lan egiten du zuen aitak?
- Arrantzalea da.
- Eta zuen amak?
- Jatetxe bateko sukaldean lan egiten du.
- Bon. Emadazu nortasun agiria, eta erdu bihar goizean polizia etxera. Han ikusiko dugu zer egingo dugun zurekin. Bizi zaren helbidea hemen dagoena da?

- Bai, gurasoekin bizi naiz. Polizia egoten den lekuetan dibertimendu gutxi - esanez jarri zuen motxila sorbaldan, eta Rhonek ikasgelatik irteteko mugimendua egin zuen.

- Itxaron! - Haakonssonek besotik heltzen ziola aginduko zion- . Kontua ez da polizia bai ala ez, noren zerbitzura dagoen baizik. Eta beste gauza bat: guk ere badakigu dibertitzen, gero! Baina lanetik kanpo! A, eta gure beharra daukazunean negarrez etorri, ados?

- Zer?

- Tori nortasun agiria. Ez duzu bihar zertan etorri.

Rhonek ikasgelatik alde egin zuen.

- Sakatu diozu, gero! –behin ikaslea urrundu zela ikusi zuenean Gulbrandsenek Haakonssoni esan zion.

- Bai. Sobera ere badakizu, batzuetan mugara heldu behar dela. Hor agertzen dira zalantzak. Hor, puntu horretan ikus daiteke zerbait dagoen ala ez. Guk sobera ere badakigu Mary hil duena ez dela bera izan, baina Mary ezagutzen gabiltza, eta horretarako baliagarri zaigu.

Norak etxean bazkaldu zuen, eta ondoren, siestarik egiten ez zuenez, irakurtzen eman zuen tarte luzea. “Zein ona izaten den irakurtzeko astia izatea, beste mundu batzuetara joateko, gozatuz, ezeren faltan sumatu gabe, lasai, norbera bakarrik, kafe beroaren lurruna lagun izanda”, nagiak ateratzeko muskuluak tenkatzen hasi zenean irudikatu zuen. Bizkarraldean kuxin handia zuela sofan luzetara zegoen. Bidaiarako eraman zuen Harrian mezua irakurtzen buru-belarri ikusten zitzaion. Amaitzeko hiru-lau orri baino ez zitzaizkion falta, eta ordurako erosi berria hasteko irrikaz zegoen. Esaldiak eta paragrafoak irentsi egiten zituen. Aditzen denborari, hitzei, izenondoei, guztiari egiten zion kasu. Era horretan, nobela amaitzen zuenean, gai izaten zen goitik behera azalpenak emateko, baina ez nondik norakoa, trama edo eta pertsonaien izenak bakarrik, idazleak erabilitako gramatikaren xehetasunak ere argitasunez emateko gai izaten zen.

Agindu bezala, Bihon, arratsaldeko bost eta erdietan, beti bezain dinamiko heldu zen etxera. Egiten zuena gustatzen zitzaion. Horregatik izango zen beti pozik, baikor.

- Zelan joan da? - Bihonek Norari galdetu zion.

Nora artean besaulkian liburua eskuetan zuela luze zegoen. Oso gustura zegoen. Noizbehinka zalantzak gora-behera azaltzen bazitzaizkion ere, Osloko egonaldia opor bezala hartzen ari zen. Giro aldaketak

buruan izaten zituen mamuak uxatzeko beti egiten zion ondo; distantziak gauzak beste era batera ikusarazten zizkion; beste interes batekin agertzen zitzaion mundua, bizitza, egunerokoa.

- Primeran! Olibak, oliba olio, beste jaki batzuk, eta bota hauek ere erosi ditut. Egia esan, botak ez dakit zertarako erosi ditudan, uda dator eta.

- Negua ere etorriko da.

- Bai, baina han ere eros nitzakeen.

- Beno, horrela Osloko oroigarri ona izango duzu, luzaroan iraungo dizuna gainera.

- A! Hori bai.

- Bazkaldu duzu?

- Bai. Liburu bat ere erosi dut, Karin Fossumen Emakume bat zure bidean.

- Irakurrita daukat. Zergatik erosi duzu, horko apalean daukazu eta?

- Ingelesez?

- A, ez, norvegieraz!

- Hori ba.

- Kafe bat?

- Bai, zelan ez.

Bihonek mahai gainean zegoen kutxa txikitxotik zigarro bat hartu, eta poltsikotik txiskeroa aterata, piztu egin zuen. Lehen zupadaren kea airera botaz zihoan sukaldarantz, tabakorriaren kea atzean nahita utzita.

Bikotekide ohiaren etxera joateko, motora igo ondoren martxan jarri eta abiatu zirenean, Noraren eskuak Bihonen titietara joan ziren instintiboki. Naturaltasun osoaz egin zuen, Bihonek onartuko ziona, eta mugimendu leun batekin, ipurdia atzerantz bo zuen emeki. Orduan Norak bere nahiaren adierazle gisa kaskoa bestearen sorbalda gainera botata sendoago helduko zion. Epailearen etxera heltzeko hamar minutuko bidea egin beharra izan zuten, soilik. Pena handia hain labur izana; hain gozo zihoazen! Osloko etxe dotoreak zeuden auzoa zen, Haakonsson inspektorea bizi zenetik beste aldera. Harlanduz eginiko atari ederrean etxeak bideokamera zuen, eta barruan itzelezko lanpara bat zegoen sabaitik eskegita; eder agertzen zena, kristalezko negar- tantak izaten dituzten horietakoa zen. Nolabaiteko

nortasun sendoa barrukoei eman nahian egongo zen han esekita. Goian, kanpotarra ezagutzeko lehen enkontrua desiratzen egongo balira bezala, euren zain zituzten. Ez zuten txirrina jo beharrik izan. Gora heldu orduko atea zabalduta zeukaten. Edonori gerta dakioken erara, milaka aldiz egiteagatik, behetik gora igotzeko behar zuten denbora garunean ondo finkatuta izan zuten. Bihonen bikotekide ohiaren ama agertu zen ateetan.

- Kaixo, maitea - Bihoni zuzenduta esango zion- , zer moduz!

- Oso ondo, Agathe! - eskuak batak bestearen gerrira eta bestearenak aurrekoaren sorbaldatara zihozela musu pare batekin agurtukzuten elkar-. Agathe, hau Nora da, Haritz Zaharraren Lurraldekoa.

- Norak eta Agathek berdin egin zuten.

- Nola da hori, Haritz Zaharraren Lurraldea? - esandako herrialdeak ustekabeen harrapatu zuelako Agathek bi gazteei galdetu zien.

- Euskal Herria - Bihonek ezpainetan irribarretxoarekin erantzun zion.

- Sartu, sartu barrura!

Barrua itzela zen. Material bereziak erabilia eginiko etxea gustu ona agertzen zuen espazioa zen. Egongelan epailea egunkaria irakurtzen zegoen, eta Aftenposten besaulkiko eskuineko besoan utzita zutitu zen. Aldamenean zegoen mahaitxoan Oslon argitaratzen ziren beste guztiak ikus zitezkeen. Kiroletakorik ez zegoen han. Ematen zuen gizonak bazuela egunerokoa jarraitzeko interesa, baina kirolena ez. Edonork egin ziezaioken lehen behaketan kontserbadorea izango zelako susmoa hartuko zion, baina aurpegia xehe-xehe aztertu ondoren, dena ez dela izaten hain argia pentsa zitekeen. Ilea, motz ebakia zuena, ordurako aspaldian urdindua, ez zuen orrazten, eta horrela eramateak nolabaiteko informaltasuna ematen zion. Begietan argi erakusten zuen ez zela batere ergela, eta aurpegi luzangan ipinitako sudur makoak segur aski 68ko maiatzean gazteriaren ihardukitzeko gogoaren alde jarriko zela agerian uzten zuen. Papilotak aurrerantz mozten zituela kontuan hartuko bazen, edonor jabetu zitekeen, ziur aski, bere baitan pentsaera aurrerakoiaren gomuta ere egingo zuela. Oro har, eta salbuespenak salbuespen, legeak zerbait edo norbait kontserbatzeko eginak izan baziren ere, era batera edo bestera jokatu, alde izugarria agertu liteke.

- Kaixo, Bihon! - Norarengana zuzentzen zela eskua altxatuz esan zion- , eta zuri ere bai, Nora duzula izena aditu dut. Horrela da zure izena?

- Bai, bai, horrela da, Nora Williams.

- Euskal Herrikoa aditu dut?

- Bai, horrelaxe da.

- Jende ona han, borondate trinkoduna eta langilea. Eta zer egiten duzu hemen, turismoa eta zertxobait gehiago, ezta?

- Bai, biak, nahiz eta zertxobait egiteko bidali nauten!

- Beno, beste horri buruz gero hitz egingo dugu. Lehen aldia ona zatozena, Oslora diot?

- Bai.

- Ta?

- Hunkigarria, bazter guztietatik begiratuta.

- Agmundr, utzi galdeketa eta zatozte hona zerbait askaltzera! - Agmundr epaileak emaztearen aginduaren aurrean men egin zuen, eta eskuarekin besaulkiak seinalatuz Norari ere harantz egiteko gonbita egin zion.

- Nora - Agathek esango zion- , hau da gure alaba. Ez duzue elkar ezagutzen, ezta?

- Ez.

Jannicke, itxuraz Bihonen adin berekoa, tankera bereziko gaztea zen. Berak ere bazekien edertasun paregabea zuen emakumea zela, eta, hori zela eta, harro agertzen zen. Jantzkeran nabarmentzen zitzaion. Tulezko soineko arina, Preppy style erakoa, gorputz mehearen gainean labur-labur zeraman jarrita, ezkutuko alde desiragarria ozta- ozta tapatzera heltzen zitzaiona. Itxura batean wasp talderen batekoa zela ematen zuen. Ziur talka zegoela aitaren eta alabaren arteko pentsamoldean. Agmundrrek eskuzabala eta bihotz onekoa ematen zuen; alabak, ordean, hertsia, mesfidatia eta apetatsua zelako airea zuen, beste inongo kulturaren eraginik onartzen ez zuenarikoa-edo. Noraren azalaren kolorea ikusi bezain laster horrela agertu zen bederen. Urruti mantentzen zen, nolabait berarekiko traturik izan nahi ez balu legez.

Zerbitzariak kafea eta pastak ekarri zituen. Kikaratan kafea bota ahala, bakoitzari berea emango zion. Jarraian pastak zeuden platera epaileari hurbildu zion, gero etxandrearri, alabari, Bihoni eta azkenik Norari. Nora almendra gainean zuena hartzera zihoanean ustekabeko lehenengo kolpea agertu zen.

- Hori neurea da! Hori neurea da! - Jannickek bere senetik irtenda bota zuen- . Nora non zegoen ere ez zekiela geratuko zen. "Nola da posible hau, baina nor da hau?", pentsatzen jarri zen. Bihoni zuzendu zion begirada, eta, keinuz, burua kanpoko aterantz bihurtuz, alde egiteko gogoia agertu zion. Bihonek baiezkoa esanez bezala burua beherantz mugitu zuen, eta aldi berean apur batean eusteko izan zen

aurpegi serioa jarri zion. Zerbitzariak platera mahaitxoan utzi eta, erabat lotsatuta, sukalderantz egin zuen.

- Hartu beste bat, maitea - Agathek Norari erregutu zion.

- Bai –adeitasun arauak eskatzen duten bai soila izan zen. Baina ez zuen mugimendu txikerrenik ere egin beste bat hartzeko. Aldi baterako, pastak jateko gogoa joan zitzaion. Nora ezeroso zegoen. Handik joan nahi zuen.

Erratzeko arriskurik hartu gabe, Jannicke azaleko neska zela esan zitekeen, gauza hutsalak begiratzen dituen horietakoa. Une oro hotz agertuko zen, muturra okertuta, suminkor zerbait partekatu behar zenean. Jannickeren jarrera hain zen ezkorra, ezen Agathek giroa eraman ezina zela ikusiko zuen, eta Agmundr senarrari keinua egin zion, egin beharrekoa lehenbailehen egiteko agindua emango balio bezala.

- Nora, gaur goizean egon naiz lubakian agertutako emakumearen kontua daraman inspektorearekin hitz egiten. Berarekin egoteko hitzordua biharko hamarretarako duzu. Ordu horretarako ezin baduzu joan, deitzeko. Hauxe da inspektorearen izena eta telefonoa –izena eta telefonoa txartel zuri batean zeuden idatzita, eta epaileak mahai gainean utzi zion.

Nora jaiki zen besaulkitik mahaira hurbildu eta txartela hartzeko, eta gero berriro leku berean eseriko zen, Bihonen ondoan.

- Mila esker, Agmundr jauna.

- Ez horregatik; badakizu Bihonengatik edozer gauza egingo genukeela.

- Ez da harritzekoa.

- Ez, ezta?

- Ez –irribarrez.

Giroa jasanezina zen. Bihon ohartu zen amaitzeko gonbita zela.

- Zazpiak dira eta! - esan zuen Bihonek, nolabait hain adierazgarri esaterakoan, berandutu egin zitzaizela, eta alde egin behar zutela ulertu zutelakoan.

- Bazoazte? Ze pena. Pentsatzen nuen denbora gehiago emango zenutela –Agathek pena hitza esaterakoan komikietan agertzen den aurpegia jarri zuen. Bene-benetan esan zuen. Bihotz oneko emakumea zela ematen zuen, eta alabaren jarrera kudeatzea zaila egiten zitzaizela. Horrelako baten

ondoan denbora luzea ematen denean bizitza zorigaitzoko bihurtzen da. Neska goitik behera zen toxikoa. Ama entzun bezain laster, Jannickek logelara alde egin zuen. Zirudienez, ez zuen inor agurtzerik nahi izan. Musuak eman zizkioten elkarri. Bihon ohartu zen neskaren mugimenduaz eta haren gelara zuzendu zen. Behin harekin, ezpainetan musu zakarra emango zion. Era hartan, gaizki portatu zelako emango zion. Mihia aho barruraino sartu zion, gingila ukitzerraino. Bazirudien ito nahiko zuela. Jannickek okadaka aritzeko keinua egin zuen, eta, aldi berean, urtu egin zen. Jannicke aldi berean bi gauza egiteko gai zen; ahalmen itzela.

- Jannicke, bagoaz - Bihonek kokoteraino zegoenaren aurpegia jartzen ziola bota zion. Irakasleak neska harekin harremanik izan zuenik ere ezin zuen sinetsi.

- Noiz ikusiko dugu elkar biok bakarrik? - Jannicke oraindik maiteminduta zegoen; argiro antzematen zitzaion; begiek agertzen zuten tristezian ere igartzen zitzaion.

- Laster - nolabaiteko esperantza emanez, nahiz eta uler zitekeen erantzuna bestea animatzekoa ere izan zitekeela, depresibo jarri ez zedin-edo, erantzun zion. Bihonek bazekien besteak horrelako jarrera hartzen zuenean sufritu egiten zuela, eta horregatik esan zion laster esatearena. Oso bestelakoak ziren biak. Bien arteko harreman sexualak aurrera egin zezakeen arren, pertsonalak ez zeukan inolako aukerarik. Oso urrun zeuden bata bestearengandik. Oso bestelakoak ziren.

- Beno, Agathe eta Agmundr, mila esker, eta Noragatik egin duzuenagatik ere bai. Etorriko naiz, eta denbora gehiago emango dugu elkarrekin.

- Ez daukazu eskerrak zertan eman, eta erdu gehiagotan, nahi duzunean. Badakizu, sobera ere, hemen maite zaitugula.

- Nik ere maite zaituztet.

- Agur, Nora, ondo izan.

- Mila esker.

- Agur, bai, agur.

Bihonek eta Norak isilik jaitsi zituzten eskailerak. Ez zuten igogailua hartu nahi. Oinez jaitsi nahi zuten. Tarte hartan ez zuten hitzik trukatu, sopikun begiradaren bat soilik. Behin behean, Nora lehertu beharrean zegoen, eta zera esan zion Bihoni:

- Bihon, nola demontre izan duzu amodio-konturik pipi horrekin?

- Azaleko harremana baino ez da izan, eta gainera elkarrekin ez dugu denbora askorik eman, soilik larrutan egiteko bildu izan gara. Ez dut gogoratzen kafetegiren batean kafe bat ere edan genuen. Apeta bat izan da soilik.

- Beno, hori bai; Nahiluke kondesa horrekin horixe soilik izan daiteke, edo akaso horixe ere ez.

- Bai, hori bai, zelan ezetz! - Bihonek.

- Pastak erosi nahi ditut.
- Pastak?
- Bai, pastak, kontxo!
- Pastak? Nik ere bai! Dozena bat jango ditut oraintxe bertan, zer demontre!
- Nik beste dozena bat. Non demontre aurki daiteke gozotegi bat?
- Goazen! Oraintxe bilatuko dugu bat - Bihonek.
- Ez da berandu izango?
- Ez, eta baten bat hemendik zabalik ez badugu aurkitzen, gure kalean badaukagu zapore guztietakoak saltzen dituen bat, kontxo!
- Goazen gure kalera!
- Goazen!

Etxera heldu zirenean besaulkira bota zuten bere burua, musuz lagunduta bota ere. Batak bestea emeki laztanduz joan ziren, bidea egin nahian. Berotuz etorri zen maitasuna, azkar, erritmo frenetikoari jarraika. Bihonek gerrikoa kendu zion, eta zirrituko botoiak askatzen lagundu zion, bestearen atzamarrekin trabatuz, ukituz, gozatuz.

- Ez, ez! - Norak esan zion supituan.
- Ez duzu nahi? –Bihonek, nolabait harrituta.
- Ez, ez.
- Ezin duzu?
- Ez, ez, hemen ez. Goazen ohera!

Inolako zalantzarik gabe, sentimenez eta maite-garrek dena blaitzeko sasoa heldu zela agerian zegoen.

- Pasta bat jango dut. Nahi duzu beste bat? –Nora Williamsek, bizkortzen hasita.
- Ez. Gerezi likorea duen txokolatezko bonboia jango dut.
- Bonboiak gustatzen zaizkizu, e?
- Itsuki amaituko nuke munduan dagoen txokolate guztia, begiak itxi eta zabaldu egin orduko.
- Ez nuen uste hainbesterako izango zenik.
- Egunerokoan ahalegin itzelak egiten ibiltzen naiz txokolatea dagoen inguruetara ez joateko. Ez dakit ba, txokolatea sexuaren ordezkia ez ote den.

- Hori esaten dute.
- Garagardo bat?
- Bat bakarrik bada bai, baina bat horrek atzetik etor daitezkeen besteen atea zabaltzen badu, ez.
- Bakoitzarentzat bat, hozkailuan ez dago besterik eta.
- Jaki-tokian utzi ditut dozena bi.
- Eskerrak epel egongo diren, bestela gai gara denak edateko.
- Gaur ez, Bihon!
- Bihar egun gogorra espero duzu, ala?
- Bai.
- Nik bihar egun oso lasaia. Ordu beteko eskola eta badago.
- Zer ipiniko dugu afaltzeko?
- Pentsatua nuen tortilla frantsesa eta jogurta.
- Nik ere berdina afalduko dut.
- Neuk ipiniko dut.
- Ez, zuk atzo ipini zenuen, gaur niri dagokit ipintzea.
- Ondo.
- Sartuko dut garagardo pare bat izozkailuan?
- Sartu lau!
- Berriro ere hasi gara!

sei

Hiria lauso jartzeko laino trinkoa aurretik zekarren ekialdeko haizeak leunki jotzen zuen etxeen artetik, karrikan ordura arte egondako zurrumurru isila ikaratu gabe iratzartzea nahiko balu legez.

Apur bat geroago, baina ez hainbeste, Nora Williams Ebbe Haakonsson inspektorearen bulegora heltzeko zenean, goizeko hamarrak inguru izan zirenean, laino itxia albokoarekin estropezu egiteko bestekoa zen. Williams anderea urduri zegoen. Ez zuen bere bizitza osoan halako batekin elkarriketarik izan, eta, horrek, jakina, ez zion gauzak berak nahi bezala gertatuko ziren segurantzirik ematen. "Izan

dadila izan behar duena” atera heltzeko zazpiren bat eskailera maila geratzen zitzaizkiola pentsakor zebilen. Sarbidea zeharkatu ondoren, aurre-aurre aurkitu zuen harrera mostradore. “Orain ez dut atzerabiderik, aurrera egin beharko” zetorkion burura, nolabait instintuak babesa emango balio bezala.

Ingurua jendez gainezka zegoen. Batera eta bestera begiratu zuen. Mostradorearen goialdean txanda adierazteko zenbaki taula elektronikoak hogeita bederatzi jartzen zuen. Begiratu zuen tiketa non hartu zezakeen. Makina sarreran zegoen. Bere txanda noiz helduko zain zegoen andrazkoari galdetu zion ingelesez. Andrazkoak ez zekien ingelesez baina ulertu zion. Hitzik esan gabe baina txeratsu atera zion berrogeita bost zenbakia zuen tiketa. Hamabost minutu geroago bere zenbakia heldu zen. Mostradorera hurbildu zen.

- Bai, andere, zertan lagundu zaitzaket? - mostradorearen atzean zegoen emakumeak itaunduk zion. Lehen begi kolpean, Norari jela bezain hotza iruditu zitzaion. Hala ere, harrera esaldian arreta jarri ostean, andrazkoa besteen nahietara egokitzen den horietakoa zela imajinatu zuen istant batean. “Bai” soilean gera zitekeen, baina ez zuen hori egin; ustea zuen andrazkoak esan berri zionarekin laguntasuna eskaintzen ziola; ondo esan ziola. “Zergatik pentsatu behar dut okerreko konturik? Ez daude, ba, laguntasuna emateko?” kiribilean jarraitu zuen azalpena emateko zen esaldiarekin batera, eta gero ere bai.

- Egunon, Ebbe Haakonsson inspektorearekin geratuta nago hamarretarako, - eskaera legez egin zezakeen ingeles argienean bota zion.

- Nola daukazu izena?

- Nora Williams.

- Zer ordutarako esan didazu?

- Hamarretarako.

- Zoaz horko egongelara eta oraintxe deituko zaitugu.

- Mostradorearen beste aldekoak irribarre ñimiñoa jarri zuen ezpainetan, eskuarekin egongelako atea adierazten zion aldi berean.

Barruan eseri eta aldizkari bat hartu zuen eskuetan; itsasoetatik belaontzietan bidaiak egitekoa zen. Ez zuen zabaltzeko betarik izan. Atetik harrera egin zion andrazko berberak deitu zion. Norari arraroa iruditu zitzaion ezen, edonon eta beti, norbaitekin egoteko nahikotxo denbora itxaron behar izaten baitzuen. Akaso izan zitekeen epailea eta Haakonsson inspektorea lagunak izatea, eta horregatik hain

arin deitu izana. Enkontrua heldu bezain laster eman izanagatik. “Ingelesen tankerakoak ote dira hemen ere, ba!” hori ere etorri zitzaion bat-batean.

- Nora Williams anderea, Haakonsson jauna zain daukazu. Bere bulegoa horko hirugarrena da. Jo atea eta sartu, hori da hemengo ohitura eta.

- Thank you - aurpegira begiratu eta hirugarren aterantz zuzentzen zela erantzungo zion. Ez zegoen urduri. Lana egiten hasteko ezinbestekoa zuen daturen bat izatea. Horregatik, derrigorrezkoa zuen aurrean agertzen zitzaizkion oztopo guztiak gainditzea; atzokoan bezala. Hirugarren atearen aurrean zegoen, eta ez zuen arnasa hartzeko astirik ere hartu, “zirt edo zart egin behar dut. Ez dut zalantzarik izateko astirik; zalantzak astia izaten denean soilik izan behar dira; gaur ez dago horretan denbora galtzerik” azkar pentsatuz, oldarrean sartuko zen barrura. Ahaztu zitzaion atea jotzea, baina zer axola zitzaion, barruan zegoen jada eta.

- Bon jour - irten zitzaion Norari, eta zuzenean bota zuen ingelesezkoa- , Good morning! How are you, mister Haakonsson?

- Bien, merci. Voulez vous parler francais avec moi? - Haakonsson inspektoreak besaulkitik jaiki eta eskua ematearekin batera erantzun zion galdera gisa.

- I prefer to speak in English - Norak nolabait ingelesez hobeto egiten zuelako ustea zuen, nahiz eta frantsesez ere oso ondo moldatzen zen. Ziur aski, segurantz kontuak izango ziren.

- Bai –inspektoreak, egurra franko islatzen zuen irribarrea aurpegi zailduan jarrita, euskara doinu itzel onarekin gaineratuko zion.

- Mintzatzen al zara euskaraz?

- No. Bai is the only word I know in Basque.

- Ok.

- Eseri zaitetz.

- Mila esker.

- Zuk esango didazu ba!

- Ba, beno, inspektore, badakizu, atzoko Agmundr epailearen deiagatik, hildako afrikarrari buruzko alde pertsonaletik begiraturako lantxo egitera bidali nautela; nolabait esateko, haren historia idaztera.

- Lubakian hilda agertutako andrazkoari buruz ari zara?

- Bai.

- Hain garrantzitsua ote da, ba?

- Ez dakit ba nik. Nik dakidana ez da gauza asko-askorik. Zer esango dizut, ba!

- Zehazki, zer dakizu?

- Interneten agertutako xehetasunen bat.

- Horiek egunkarietatik ateratakoak dira.

- Ba, horixe bakarrik.

- Ez da gauza asko.

- Ez.

- Badakizu afrikarra dela?

- Hori bai, jakina!

Norak eskua poltsikoan sartu eta diru zorroa ateratzera zihoan bertatik egunkariko kredentzialak erakusteko asmoarekin, baina lubakiko kasuaren ardura zeramanak ezetz esango zion, ez zela beharrezkoa.

Eseri ziren.

Haakonsson inspektoreari sorbaldako zauriak ez zion bakerik ematen; min ematen zion. Gehienez ere, hiru-lau orduero mina kentzeko pilulak hartu beharra izaten zituen. Besaulkian esertzerakoan, eskuak beso-euskarrietan jarri zituenean, keinu mingarria agertu zitzaion aurpegian. Medikuak emandako flaskotik bi bota zituen eskura, jarraian ahora sartzeko. Besaulkiaren atzealdeko mahaitxoan goizero komunean ur freskoz betetzen zuen botilatik zurrutada txikitxoaren laguntzaz irentsi zituen.

- Barkatu, Nora - esan zion egin berri zuenagatik- . Ez da beharrezkoa agiririk erakustea. Dena den, jakin badakizu sumarioa sekretupean dagoela, eta horregatik ezin dizudala ezer esan.

- Horrela izango zela uste nuen.

- Baina lagun baten bitartez zatozenez, hildakoaren aurrez aurre bizi denaren izena eta helbidea emango dizkizut. Mwezi dauka izena Mary Nicizanyeren alboko etxean bizi den andreak, eta ziur naiz gauza asko esango dizula.

- Hildako afrikarrak Mary Nicinzaye zuen izena?

- Bai. Hau esan eta gero, ezin diezaiokezu inori horren berri eman; agindua da, ados?

- Bai, noski.

- Beste gauza bat: Mwezi andereak, susmoa izango duen arren, ofizialki ez daki Mary hilda dagoela; beraz kontu handiz ibili beharko duzu, bestela arazoak izan ditzakezu, entzun?

- Bai. Ez izan horren zalantzarik. Berregokituko dut lanaren izenburua.

- Zer daukazu pentsatuta?

- Ba...

- Asmatu bat.

- Ba, ez dakit; akaso, hemen, Oslon, bizi diren afrikarrei buruzkoa egiten nabilela.

- Hobeto, horrela hobeto. Tori helbidea. - Haakonssonek andrearen izena eta helbidea post-it batean idatzi ondoren eman zion.

- Mila esker, inspektore.

- Gauza bat bakarrik; arren eskatuko dizut, Nora: ibili zaitetz kontu handiz, oraindik ez gaude ziur arriskuaren tamainaz eta. Arazo edo arrisku txikerren baten aurrean aurkitzen bazara dei nazazu, mesedez. Tori nire txartela. Berriro esango dizut: egunak hogeita lau ordu ditu; beraz, edozein ordutan dei nazakezu, aditu duzu?

- Lasaitzen nau hori entzuteak.

- Kontuz!

- Mila esker, Haakonsson jauna.

- Besterik behar duzu?

- Ez, mila esker. Behar dudan guztia eman didazu. Helbide horretan dago egin behar dudana. Beste guztia nire abilezien ondorioa izango da.

- Ea ba, besterik behar baduzu, deitu. A, gauza bat, Nora: Mwezi andereak ez dut uste ingelesa dakienik, baina bai frantsesa.

- Mila esker esateagatik.

- Zuk badakizu frantsesa, ezta?

- Bai, bai. Eskerrik asko berriro ere.

- Agur eta ondo izan.

- Agur, bai.

Nora bostekoa emanda atera zen Haakonssonen bulegotik, kontua ez zela hainbesterako izan pentsatuz, eta jarraian taxi bat hartzera zuzendu zen. Eraikinetik irten eta berehalakoan plaza txikiaren beste aldean ikusiko zuen taxien geralekua. Mweziren etxera lehenbailehen nahi zuen joan. Barrutik zerbaitek bultzatzen zuen denborarik galdu gabe ibiltzera. Luze egin zitzaion harako bidea, luzeegi. Taxi barruan emakume afrikarra ezagutzeko irrikaz zegoen; egonezinak blaitu zion gorputza telefonoa hartzera behartuz. Azkar ari zen teklak sakatzen. Bihoni whatsapp agintzeko idazten zegoen; Haakonssonekin izandako solasa labur biltzen zion. Beste bat ere bidali zion, Mweziren etxera zihoala esateko; mezuan ez zion helbidea idatziko. Amaiera gisara, hirugarren whatsapp ere bidali zion, berak desiratzen zuena agertzekoa izan zena, gurarituta zegoela esatekoa. Gordin-gordin igorri zion: "Desiratzen nago, gaua noiz helduko, berriro besarkadan urtzeko..."

Nora bulegotik irten ondoren, Haakonssonek bilera zuen. Sikkerhetstjenesteko pertsona batekin elkarrizketatuko zen; aspalditik laguna zuenarekin. Norvegiako segurtasunerako arduradunetarikoa bat zen. Haakonssonek sakatu zuen bideokonferentzia egiteko ikurra. Ez zen tarterik izan. Berehalakoan gertatu zen, beste aldekoa itxaroten izango balu bezala. Elkar agurtuz hasi zen hizketaldia.

- Zelan zaude, Ebbe? Tiroketa zer? - galdetu zion Sikkerhetstjenestekoak.

- Egundoko ezustekoa izan da. Ez nuen espero. E!, azkar jakin duzu, gero!

- Ebbe! gu Sikkerhetstjenestekoak gara!

- Bon, hainbeste badakizue, esadazu nork hil duen Mary Nicizanye?

- Oraindik ez dakigu, baina jakingo dugu, nahiz eta harrapatu zuok egingo duzuen, segur aski gure laguntzarekin.

- Ba, kostatzen zaizue zerbait esatea!

- Gauza bat esango dizut: ez duela batek hil. Talde osoa dabil horren atzetik. Hori uste dugu behintzat.

- Eta orain arte ez didazue ezer esan? Hori da zuok ematen didazuen laguntza paregabea?

- Lasai, susmoa baino ez da, Ebbe!

- Zer lasai eta zer demontre! Telefono dei bat da soilik, gizona!
- Ondo dago, hemendik aurrera ni neu arduratuko naiz, konforme?
- Ea egia den!
- Horrela izango da, ikusiko duzu.
- Ea, goazen harira. Zer gertatzen ari da Burundin?
- Beno, ba, arazo itzela dagoela han.
- Ez didazu ezer esaten. Hori leku guztietako kontua da!
- Ba, ez, ez da horrela. Bestelakoa da kontua. Begira, gaur egungo Burundiko gatazka, lur arraroak ustiatzeko kontroletik datorrelako ustea dago. Une honetan, uste hori mundu osoan dago erabat zabalduta, zeren eta, badirudi, Nkurunziza presidentek metal horien ustiakarako kontratua Txinarekin sinatu duela. Hortaz, bertan bakartuta badago ere, presidentek Txinaren sostengua du. Gainera, bakartuta egotea presidenteari badirudi bost axola zaiola, atzean indar hori izanda, badakizu...
- Beraz, dirua, botere politikoa?
- Bai. Kontua da, bertako egoera politikoa ez bada egoki bideratzen, inguru horretan guztian sekulako gerra zabalduko dela.
- Aintzira Handien eskualde horretan esan nahi duzu?
- Bai, hortxe. Geografian doktoratu zara, ala?
- Google maps-en begiratu behar izan dut.
- Burundi non zegoenik ere ez?
- Ahantzia nuen duela ez dakit zenbat urteko genozidioa.
- Bai, pasa den mendeko 72an hasi zuten genozidioa, urteetan iraun duena gainera, baina kontuz, etor daitekeen aldean baliteke txiki geratzea. Eta hura bai izan zela genozidioa. Hamahiru urtetik gora iraun zuen horretan 300.000 herritar baino gehiago hil zituztela badakizu, ezta?
- Ba, ez, ez nekien.

- Azken hilabete hauetan, gertatu zena berriro gertatuko ote den beldurra agertzen ari da. Susmoa da, baina han jendea beldurtuta dago. Horregatik, dagoeneko bertatik 200.000 pertsona inguruk ihes egin du.

- Hainbestek?

- Bai, eta hori bakarrik ez. Bertan dauden diplomazialariak kanporatzen dabilta; dagoeneko Ruandakoa kanporatu dute. Eta horretarako erabili duten aitzakia zera izan da: Ruandak presidentearen kontrako jendea bere lurraldean gaitzen duela, gero Bujunburan gobernuaren kontra egiteko.

- Horraino heldu da kontua, e?

- Bai. Beste alde batera joanda, konstituziora...

- Zer gertatzen da konstituzioarekin?

- Hangoak presidentearen agintaldi urteak mugatu egiten dituela, eta badirudi ahalegin guztiak egiten dabilela karguan jarraitzeko.

- Beno, hori munduko beste leku batzuetan ere ikusi dugu.

- Baina Burundin dagoen egoera horrekin ez du parekotasunik.

- Zergatik?

- Hori herriak ez duelako nahi, eta era guztietako protestak egiten ari dira, jakina, euren bizitza arriskuan ipinita. Pasa den urteko uztailean, esaterako, oposiziorik gabeko hauteskundeak ere egin ditu. Oposizioak ez du presidentearen hirugarren agintaldia onartzen, eta ez da aurkeztu. Bere alde izan dituen militarrek ere berarengandik aldendu dira. Militar kolpe bat ere jasan du. Baina berari berdindio.

- Horraino heldu da, e?

- Baina ez hori bakarrik: egunero borrokak gertatzen ari dira. Gauean hiltzen dituzten herritarren gorpuak hurrengo egunean aurkitzen dituzte kaleetan barreiatuta. Egunero daude atxilotuak. Torturak basatiak dira, bortxaketak kontaezinak, eta abar luzea. Eta zergatik hori guztiori? Ba, lur arraroak, badakizu, betikoa: dirua.

- Aurrean aurkitzen duten guztia txikitu egiten dute, ezta?

- Bai, horrela da, betiko kontua.

- Berrero ere lur arraroak aipatu dituzu; zer dira, bada?

- Bai, baina zer diren esan aurretik esango dizut Burundin dauden lur edo metal arraroek daukaten kontzentrazioa munduan inon dagoen baino handiagoa dela, % 55 ingurukoa. Hori kontzentrazio oso handia da. Lur arraroak edo metal arraroak, batera zein bestera deitu daitezke, hamabost lantanoideek, eskandioak eta itrioak osatutako multzoari deitzen zaio. Oxidoei deitzeko era bat da.

- Baina metal horiek zertarako balio dute?

- Gauza askotarako. Ordenagailuak egiteko, zein DVDak, edo bateriak, telefonoetakoak, eta, batez ere, automobil elektrikoak egiteko. Baina ez egiteko bakarrik, birziklatzeko batez ere.

- Zelan da hori?

- Bai. Auto elektriko bat egitea gauza bat da, baina auto guztiek bezala, urte batzuk iraungo du, eta gero txatarra, ezta?

- Horrela izaten da.

- Ba, ez. Laborategi batek auto elektriko bat birziklatzea lortu du, eta auto hori egiteko erabilitako metal arraroak % 75 birziklatzeko metodoa ere bai. Oraindik motor elektrikoek ekoizpena ez da handia, baina etorria horrantz doa; hau da: teknologia berriak gora doaz, eta beraiek sortutako produktuek gora egingo dute. Beraz, metal horiek zelango garrantzia izango duten agerikoa da. Ikusten duzu kontua norantz doan?

- Lehengo egun batean Tesla elektrikoa nola egiten duten ikusi nuen telebistan.

- Bai, nik ere bai.

- Itzela erreportajea.

- Gauzak horrela, erratu itzela izango litzateke Nicizanye anderearen erailketaren atzetik Burundiko inteligentzia-zerbitzukoak ez dabilzala pentsatuko bagenu.

- Noiztik dakizue hori?

- Herenegun hartu genion susmoa. Kontuz! Susmoa da, ez besterik.

- Eta ordutik hona ez didazue ezer esan?

- Esan dizut, bada, susmoa dela, eta gainera zuk gauzak beti egiten dituzu ondo.

- Baina laguntza apur bat, zer demontre zabiltzate, ba!

- Eta Mary Nicizanye hangoa zen?
- Bai.
- Eta bere aita politikari boteretsua izan omen zen.
- Zelan dakizu hori?
- Ebbe, berriro galdera inozoa! Ikusten duzu konexioa?
- Bai, kontua argitzen hasi da. Harritzen nauena da hemen informazioa ezkutuan zein arin ematen den!
- Hemen, eta han, eta beste aldean. Leku guztietako kontua da hori.
- Leku guztietakoa ez dakit, baina kontu honetan Mary Nizinzayeren izena Dagnyk eta biok bakarrik genekien.
- Baliteke. Ordenagailuan sartu duzu berririk?
- Bai, jakina, kontuak gertatu ahala egiten dut hori.
- Eta salaketa gelan ere deiak jaso ahala ordenagailuan sartzen dituzte, ezta?
- Jakina!
- Beraz, bide asko dago kontuak jakiteko.
- Bai, baina izen-abizenak nire ordenagailuan bakarrik daude!
- Hori zertan ukiturik ez dago andrazkoaren izen abizenak zeintzuk diren jakiteko.
- A!, bai. Kasu honetan salatzailearen helbidea jakinda lortu zitekeen.
- Hori ba. Dena den, agindu teknikariren bati ordenagailua arakatzeko.
- Hori zertan eginik ez dago!
- Ez. Zuon egoitzan zein gurean, erdipurdiko edozein informatikaririk edozer gauza egin dezake.
- Hori ba.
- Aholku bat nahi?
- Bota.
- Ezkutuan izan nahi duzun guztia, konexiorik gabeko ordenagailuan.

- Bon, besterik ez. Kontuz ibili.
- Zuk bai ibili beharko zenukeela kontuz, batez ere poltsikoan daramazun espraiarekin.
- Ez hadi adarra jotzen hasi, entzun! Zeren neuk ere bazekiat, gero!
- Ondo izan, Ebbe.
- Baita zu ere –Haakonsson inspektoreak bideokonferentzia izateko erabiltzen zuen programaren ikurrean saguarekin berehalakoan egingo zuen klik. Telefonoa joka jarri zitzaion. Ez zuen bigarren aldiz txirrinak noiz joko itxarongo.
- Bai?
- Haakonsson, salaketa bat.
- Ea harira, ez daukagu egun osoa eta.
- Aparkaleku batean pertsona bat hila eta odoletan automobil barruan.
- Automobila?
- BMWa.
- Kolorea?
- Beltza.
- Hildakoaren kolorea, kontxo!
- Beltza.
- Badatoz kontuak. Kalea eta zenbakia.
- Gydas Vei hiru.
- Hori alde aberatsa da!
- Bai.
- Solairua?
- Lur azpiko bigarrena.
- Mila esker.

Haakonssonek Dagny Gulbrandseni deitu zion.

- Bai, Ebbe, esan –Gulbrandsen detektibeak jesarlekutik altxatzen zela erantzun zion.

- Dagny, zatoz berehala.

- Zer dago ba? –garondoraino eskuarekin ileak eramaten zituela, eta berriro, bigarren aldiz egitean, parietal aldean geldituko zuen ukondoa gora eramanez.

- BMW beltza eta barruan beltza hila.

- Oraintxe noa.

- Deitu lehenengo zientifikokoei.

- Helbidea?

- Gydas Vei hiru, aparkalekua, bigarrena azpitik.

- Hori alde aberatsa da –helbidea paper batean idazten zuela.

- Bai.

- Zenbat arrisku hartzen dabilzan, ezta?

- Neuk ere susmo horixe daukat.

- Atoan noa.

- Ok.

Hildakoaren aurrean zeuden, BMWaren ondoan. Autoa, atentzioa ez deitzeko, beste lauren artean zegoen, erdi ezkutuan.

- BMW honek bi urte apenas izango ditu.

- Bai, matrikulagatik hor nonbait.

- Deitu dituzu zientifikokoak?

- Bai, laster izango dira hemen.

- Beti bost minutu berandu etorri behar!

- Hala da.

- Hortik dator gure ospea.
- Bai, beti bost minutuko atzerapenarekin.
- Bon. Ematen du bera izan dela gidaria. Tiro bat kokotean; beraz ez da erailketa arrunta. Zerbait txarto egin du eta horregatik hil dute. Pistola bere eskuetan badauka ere, berak ezin izan du bere kokotean tiro egin.
- Horrela ematen du. Atzean joan denak emango zion tiroa, ezta?
- Segur aski. Ustekabean izango zen, bestela babesteko nolabaiteko mugimenduren bat egingo zuen.
- Senak hori agintzen du.
- Ematen du hildakoa ez dutela mugitu.
- Argi eta garbi, ez.
- Arroparen izurrak?
- Gidatzen etorri izanaren ondorio.
- Hori ba!
- Argi eta garbi, ez dute mugitu.
- Hartu pistola eta sartu plastikozko poltsan. Marka?
- 77B pistol.
- Txinatarra esportaziorako?
- Ziur.
- 9koa. Parabellum, ziur.
- Ziur.
- Made in Txina by Norinco?
- Ziur.
- Bala-zorrorik?
- Bistan ez. Izatekotan atzealdean.

- Bon. Begiratu guanteran zer dagoen. Autoa lapurtua izango da.
- Ziur.
- Itxaron zientifikokoei, eta gero autoa norena den jakiteko jarri taldekoren bat ikertzen. Bulegora noa.
- Haakonsson, itxaron!
- Zer?
- Autoak aurrean, eskuin aldean!
- Zer?
- Metalezko zerbaitekin egindako urradura du. Kolorea ez dago argi. Nik uste herdoilduta egongo zela.
- Tiroketa ostean entzun nuen autoa?
- Baliteke.
- Bon, bulegora noa.
- Han ikusiko dugu elkar.
- Gero arte.
- Bai.
- Aizu, Ebbe, pistola?
- Zientifikokoei eman beharko diezu.
- Ondo.

Kostatu zitzaion taxiari Mwezi bizi zen kale ondora heltzea. Nora Williamsi bi edo hiru aldiz leku beretik igaro zirela iruditu zitzaion baina, hala ere, gidariari ez zion ezer esan. Mwezi anderea bizi zen kalearen hasieran gelditzeko agindua eman zion. Handik, joan beharreko zenbakirainoko tartea oinez egin nahi zuen. Ingurua ezagutu nahi zuen: jendea, etxeak, karririkak, farolak, automobilak nola aparkatuta zeuden... Apenas izan zuen aukerarik. Halako batean heldu zen zenbakira. Etxeko txirrina jo zuen. Laino itxiak leihotik amonaren aurpegia ikusten doi- doi uzten zuen; hala eta guztiz ere, goitik botatako esaldia entzuteko ez zuen eragozpenik jartzen.

- Je t'en pris, rentre, rentre, - entzun zuen interfonoan.

Emakumearen ahotsaren doinua bere aitarenaren antzerakoa zela ohartu zen; sendoa, bildua, gogorra.

Emakumeak, zabaldu berri zuen atearen ondotik:

- Oui - esan zion frantses bikainean.

Ez zegoen harridurarik haren aurpegian. Norbaiten zain zegoela ematen zuen.

- Madame Mwezi?

- Oui, c'est moi.

- Je suis Nora William, l'inspecteur Ebbe Haakonsson m'a donné son adresse. Pouvons nous parler, si possible, un tout petit moment?

- Mais bien sûr! venez avec moi. - Mwezik etxera sartzeko gonbita egin zion Norari.

- Merci.

Mwezi andereak egongelara eraman zuen artezean, eta, behin bertan, sofa zahar batean eseraraziko zuen, bera Noraren ondoan jartzeko. Ez zion hitz egiten utzi. Emakume adindua bera hasi zitzaion nolabaiteko galdeketa egiten.

- Zure izena Nora dela esan didazu, ezta? Zein izen polita. Zure aita da afrikarra, ezta?

Afrikar anderea Noraren aurpegiera irakurtzen zebilela ematen zuen, ezaguna egingo balitzaio bezala.

- Bai, nire aita da afrikarra.

- Nongoa? Ez da ba Burundikoa izango?

- Zelan dakizu?

- Gure herrialdeko hazpegiak dituzu, zuriarekin leunduta.

- Zure ama, nongoa?

- Du Pays Basque.

- A, du Pays Basque! indar handiko eta borondate trinkodun jendea. Roches solides - andereak amaitu zuen esanez.

- Oui.

- Zu ere horrelakoa zara?

- Egunero saiatzen naiz.

- Zure aita kapitalekoa?

- Nola kapitalekoa?

- Buyumburakoa?

- Bai.

- Abizena, Williams esan didazu?

- Bai, Ntare Williams.

- Ntare Williams?

- Bai, zer ba?

- Mwambutsa eta Sindatumaren semea?

- Bai, zelan dakizu?

- Ai, laztana, adinak asko laguntzen du horretan! Ezagutu nituen zure aitona eta amona. Zure aita ere bai. Egun berean-edo alde egin genuen. Berak orduan hemeretzi urte inguru izan zituen. Zelan bizi da?

- Ondo, ondo.

- Zure aita Maryren lehengusua da. Maryri buruz etorri zara hitz egitera, ezta?

- Nor da Mary?

- Laztana, ez nauzu ikusten! Txantxetan ibiltzeko urteak joan zitzaizkidan aspaldi! Nirekin egon nahi baduzu bihotza ireki beharko didazu!

- Bai, baina zelan da hori? nire aita Maryren lehengusua dela diozu?

- Bai. Zure aitona, Mwambutsa, eta Maryren ama neba-arrebak ziren.

- Zer diostazu?

- Bai laztana! Zein txikia den mundua, ezta?

Nora harri eta zur geratu zen; ez zuen espero halakorik. Ezin zuen sinetsi Mwezik esandakoa egia zitekeenik. Egia izango zen, bestela nola zitekeen inoiz elkar ikusi gabeak izanik, eta bere existentziaren berririk ez zuen emakumeak Norak bakarrik zekizkien hain xehetasun garbiak jakitea? Telefonoa hartu eta aitari deitzeko eta dena kontatzeko gogoia etorri zaizkion ustekabeen. “Horregatik bidali naute hona”, irudikatu zuen supituki. “Ezin da izan”, jarraitu zuen pentsakor: “Orain arte inork ez zekien Mary Nicizanye Burundikoa zenik, eta nik ez diot inori aipatu nire aita ere hangoa zela, Bihoni ez bada, baina Bihonek ez daki lubakian hilik agertutako afrikarra Mary Nicizanye dela, ez eta Burundikoa denik ere”. Izozkailuan denbora asko eman ondoren jakia egoten den bezala zegoen; ezin zuen hitzik egin. Mweziren begietan zituen bereak iltzatuta, ezen afrikarrari entzundakoak barruak erretzerainoko talka eragin zion.

Norari gogoeta egiteko astia ematearren- edo, Mwezi sofatik jaiki zen, eta erdi armairu, erdi liburutegi zen altzariaren beheko ate bat zabaldu zuen orri batzuk hartzeko. Orriok eskuetan zituela itzuli zen sofara, eta berriro ere Noraren ondoan eseri zen. Aldamenean utzi ondoren, Noraren eskuak samur hartu zituen bereekin biltzeko. Norari Mweziren berotasuna nabarmen helduko zitzaion.

- Bai, laztana, horrela dira kontuak! - ahapetik bota zion.

- Tori, hartu orri hauek. Hortik hasten da hona ekarri gaituen gure bidea - jarraitu zuen Mwezik- . Badakit, maitea, nik zirriborraturiko hiru-lau paper hauek ez dutela deus asko balio. Kasurik onenean, segur aski, ganbera ilun eta heze bateko bazterren batean geratuko dira hautsak eta sitsak noiz jango arren erregutuz. Ez dira egongo itxaroren norbait noiz agertuko euren gaineko jakin-minez. Horixe izango da euren destino petrala, geuk egindako bidaia gogaikarri eta penaz betea, inoren begietara agertu barik, isiltasunean betiko desagertzea. Horrexegatik eman nahi dizkizut, zuk behintzat zeozertarako baliagarri izan ditzazun, eta baita gure herriak pairatutako genozidioa eta oraindik geratzen garenon etorkizun latz eta argirik gabea munduari agertzeko ere.

Hitzak entzun heinean, Norak biziki hunkituta jarraituko zuen begiak harenekin josita. Ez zen egongo beste ezertan. Kazetariak badute gauzak entzun ahala galderak prest izateko joera, bai elkarrizketaren bideari jarraitzeko bai eurek nahi izaten duten punturantz eramateko, baina Nora erabat zegoen atsoaren hitzetan sartuta; nolabait belakiaren erara zegoen. Ezin zuen erreakzionatu. Izoztuta bezala zegoen, gorputzeko zelula bat bera ere ezin mugiturik.

- Hemen dituzu, bada, paperok - jarraitu zuen ile urdindua eta begi beltz-beltzak zituen adineko emakumeak- . Hartu eta erabili behar duzunerako.

Zeremoniala izan zen, nolabait Mary hilda zegoela jakingo balu bezala, eta, paperok, jaraunspen gisa, beste norbaiti eman beharko balizko legez. Oinordeko bat behar zuela ematen zuen.

- Mila esker, Mwezi - Norak eskuak zabaltzeko gaitasuna bakarrik zuela eskertu zion. Oraindik bestearen begietan zituen bereak itsatsita, eta, era berean, luze jarraitu zuen, harik eta masail bietatik behera negar anpuluak doi-doi irristatzen zitzaizkiola ohartu zen arte. Hasperen egin zuen zotinari eutsi nahian baina ezin izan zuen. Gaztea barrutik lehertu zela oharturik, Mwezik Nora besarkatu zuen. Estutu zuen indarrez, bularrak bular, sendo, eta orduan Noraren zotina areagotu zen zeuden gela doinu mingarriarekin betetzeraino.

- Lasai, lasai, laztana. Egin negar. Zuk behar beste.

Noraren negar anpuluak, errekastoak blaituz, Afrika erdi-erdian mendi muinoetaraino heltzeko moduko laino tristura bilakatu ziren, seguruenik.

Denbora, egonean, biak besarkadan bildurik eustera joan beharrekoa izan zen. Ezin zuten besterik. Mwezi, Noraren ilea laztantzen zuen heinean, euren lurraldeko sehaska kanta zahar bat abesten hasiko zen doinu goxoan, pitean-pitean adatsa musukatzen ziola. Luze joan zen. Halako batean, Nora eskuarekin negarraren arrastoa lehortzen hasi zen. Makilatzen ez bazen ere, nekeza egin zitzaion. Afari bereziren baterako soilik egiten zuen halakorik. Natural-natural ibiltzea zuen gustuko, beste ezeren beharrik izango ez balu legez, eta, hala ibiltzeak negar anpuluak lehortzea erraztuko bazion ere, zaila egin zitzaion hezetasuna masailetara itsatsi baitzitzaion.

- Ai, Mwezi, ez nuen nik honelakorik espero! - erdi oihu bezala atera zitzaion, pentsatuz bizitzak aukera paregabea ematen ziola bere aitaren sustraiekin bat egiteko.

- Hala dira kontuak, laztana!

- Bai.

- Nora, zenbat egunerako etorri zara Oslora?

- Ez dakit ba, hemen, Oslon zaudeten afrikarrei buruzko lantxoa egiteko agindu naute hona eta.

- Non bizi zara?

- Lagun batekin, alde zaharrea.

- A, lagun batekin bazaude ondo, ezpabere erdu hona.

- Beharbada bai. Beharbada hona etorriko naiz. Hemen egon nahi dut. Zurekin egon nahi dut. Nora iratzartzen hasi zen. Berehala abiadura burura bueltatu zitzaiola konturatzen hasiko zen. Bere onera zetorren. Trantze batean egondako denboratxoa besterik ez zitzaion iruditu. Bihotz kontuak. Oroitu zuen Mweziren begirada, ondoan zuenaren begirada, eta ziurtasunez sinesten hasia zen Mwezik

bazekiela Mary hila zela. Baina berak ezin zion ezer esan. Sor zitekeena itzela zitekeen, edo ez. Hala ere, ez zuen nahi izan ate hura zabaltzea, eta itxarotea erabaki zuen. Bazekien orduetako kontua zela. Mwezik laster jasoko zuen Haakonssonen deia. Kostatuko zitzaion baina eutsi beharko zion.

- Beno, hartu lasai. Orain zertxobait bazkaltzeko ipini behar dugu. Aitak ipiniko zizun noizbait gure janari tipikorik, baina nik neuk ere ipini dizut. Norak atzetik jarraitu zuen Mary ezagutzeko gogoz. Beste kontu bat ere bazuen buruan bueltaka: Haakonssonek Mweziren helbidea eman izana. Zergatik eman zion oraindik Mwezik ez bazekien Mary hilda zegoela? Zer zekien Haakonssonek Maryri buruz? Soilik hila zela? Horregatik helbidea Mweziri etor lekiokkeen atsekabea arintzeko eman zion? Baztertu zuen azken ideia, inspektoreek ez baitiote horrelako kontuei jaramonik egiten. Mwezik bazuen lubakian eraildakoaren berri? Galdera gehiegi eta erantzunik ez. Egoera hartan, uraren korronteari jarraitu eta etor zitezkeen berriei itxarotea zela onena pentsatuko zu. Pentsamendutik esaldi bat aterata irten zen.

- Aitak esanda dakit hil ala biziko kontua izan zela handik irtetea, ez zegoen beste aukerarik, ezta?

- Derrigorrean alde egin behar izan genuen, bizirik irautea nahi bagenuen behintzat.

- Hutu madarikatuak!

- Bai, munduan horrelako asko egongo da, baina horiek bene-benetan madarikatuak dira.

- Maryk badu senitartekorik? - Norari ez zitzaion ahantzi Mary bizirik egongo balitz bezala hitz egin behar zuela.

- Ez.

- Hemen ez, eta han ere ez?

- Hemen ez, han norbait geratuko zaio, nik uste behintzat; akaso urrutiko lehengusuren bat, zure aitaz gain esan nahi dut. Baina Ntare Williams au Pays Basque bizi da.

- Familia aberatseko alaba zen?

- Ez bereziki.

- Mwezi, hitz egingo didazu argiago, mesedez?

- Bai.

- Familiako norbait politikan sartua zuen, ezta?

- Bai, bereziki.

- Nola da hori?

- Ba, horixe. Euren aita politikari garrantzitsua izan zela. Baina nik uste denak hilda daudela.

- Erailak esan nahi duzu?

- Bai, erailak.

- Mary eta biok familia zarete?

- Odolekoak ez.

- Nola da hori?

- Handik irten behar izan genuenean bere ardura hartu nuen. Ni Maryren aitaren lantaldekoa nintzen eta horregatik, derrigorrezkoa nuen ardura hori hartzea. Nahi izan nuen. Hartu behar izan nuen. Maryren ardura nahitaez hartu behar izan nuen. Eman dizkizudan paper horietan dituzu xehetasun guztiak. Eta orain utzi galderak gerorako, laztana! Jar ezazu telebista, eguerdiko partea ikustea gustatzen zait eta.

- Ebbe Haakonssonek badakizki gauza hauek guztiak?

- Ez dit galdetu horrelakorik.

Norak ez zion erantzun, eta jarraian egongelara zuzendu zen. "Zergatik ez diozu esan?" - esateko zorian egon zen, baina ez zitzaion hitzik ahotik atera. Supituan, Mwezik emandako agindua osotasunean etorri zitzaion. "Jar ezazu telebista eguerdiko partea ikustea gustatzen zait eta" esaldiak argi agertzen zion Mwezik hango gorabeherak jarraitzen zituela. Nora orduan konturatu zen Mwezik bazekiela Mary hila zela. Telebista guztietan eman zuten lubakikoaren albistea. Ez zuten esan nor zen baina bai afrikarra zela eta hogeita hamar urte ingurukoa. Erabat argia zen eta erlazonatuko zuen. Piztu zuen telebista. Ez zuen katea aldatu, pentsatu baitzuen Mwezik beti kate bera ikusten zuela. Adin kontuak. Hala ematen zuen. Haakonssoni deitzeko telefonoa hartu zuen.

- Bai, nor da? –aditu zuen telefonoaren bestaldetik.

- Haakonsson jauna, Nora Williams naiz!

- Esan, Nora.

- Begira, Mwezi anderearekin nago, eta uste dut zerbait garrantzitsua esan gabe geratu dela, badakizu, goibelaldia.

- Esan, ba!

- Begira, Mary Burundiko politikari handi baten alaba zen, eta hutuek familia osoa erail zuten; horrexegatik txikia zela atera zuten handik. Ez dakit garrantzitsua den baina zuk jakitea beharrezkoa delako ustetan deitzen dizut.

- Mila esker, Nora, dena da garrantzitsua. Aizu, kontuz ibili eta zerbait arraroa sumatzen baduzu dei nazazu berehalakoan, entzun?

- Bai, Haakonsson, erne ibiliko naiz. Haakonsson, zergatik ez diozue Mweziri esan Mary hilda dagoela?

- Zientifikokoak dabilta horretan, ziurtasunez dakigunean esango zaio. Laster izango da, eta ordura arte ez esan ezer.

- Konforme.

- Hori espero dut.

- Adio.

- Adio, bai.

- Mwezi, parte hastear dago, segundoak ematen ari dira eta. –Norak besaulkitik egin zion oihu. Ahotik atera zitzaion ahotsaren tonuak bera ere harrituta utzi zuen.

- Banoa. Zuk ez duzu ezer ulertuko, ezta?

- Ez dakit norvegierarik.

- Horixe ba.

- Aizu, Mwezi, Maryk badu seme-alabarik?

- Bai, Yamwezi.

- Eta non dago?

- Bera ere desagertu egin da.

- Eta Yamweziren aita non dago?

- Ez dauka aitarik.

- Nola da hori?

- Yamwezi gauaren semea delako.
- Mwezi batzuetan ez zaitut ulertzen, zelan da hori?
- Ba ez daukala aitarik, horixe!
- Ezaguna edo ezezaguna, baina aita izan beharko du?
- Bai.
- Zer izan zen, gau bero baten ondorioa?
- Ez.
- Orduan?
- Hori guzti hori baino errazago.
- Ez didazu esan nahi, ezta?
- Bai, nola ez dizut esango ba!
- Kostatzen zaizu!
- Finlandiako enpresa batetik lortu zuen hazia.
- A! intseminazio artifiziala!
- Bai, horixe.
- Hazien kartarekin.
- Bai, etxera bidali zioten.
- Ezagutzen dut kontua.
- Hor, ordenagailuan dituzu xehetasun guztiak. Berak egindako mugimendu guztiak daude ordenagailuko postan. Begiratu nahi badituzu, hortxe dituzu.

Bazkal ostean Mwezi sofan erdi lotan geratu zenean, Norak paperak eskuetan hartu zituen. Ordenagailu eramangarria kargatzen jarri zuen. Irakurtzen hasi zen. Nekeza egiten zitzaion. Aitak irakatsitako kirundia urruti geratzen zitzaiola konturatzen hasi zen. Hala ere moldatuko zela uste zuen. Ulertzeko moduan zeudela idatzita ikusten ari zen. Arkatzarekin tindatutako letra idatziak denboraren poderioz

horituz joandako koaderno koadrikulatu bateko orri zuri zimurtu solteak ziren. Bidaia neketsuaren seinaleak era honetan hasten ziren:

- Goizaldeko ordu biak aldera erabaki da, neskatilaren ardura nik neuk neure gain hartzea, gogo onez egiten dudana bestalde, ni bera bezain bakarrik nagoelako, herenegun arratsean senarra eta elkarrekin genituen bi seme-alabak etxeko atarian hilik aurkitu nituenetik. Hemen geure hildakoei negar egiteko denbora ere lapurtu digute.

Haraino heltzeko urre apurra eman didate, eta joango garen harako ere bai. Lagun izango ditudan sasoiko hiru gazte aurkeztu dizkidate. Arropa zaharrak jantzita, eskuetan makila, lepoan beste hiru-lau gauzatxorekin motxila, eta abiatzeko prest gaude. Emandako bedeinkapenaren ondoren eta ezer esan gabe, leinuko aguretxoa aurrean jarri zait, egurrezko gure ama, bitxia benetan, iduneko gisara ipintzeko. Larruzko sokatxoa ere kokote aldean lotu dit. Abiatu gara zehazki nora eramango gaituen ez dakigun bidean. Gogo barik baina halabeharrez goaz aurrera, oraindik ilunpean, argiaren arrastorik sumatuko ote dugun ere ez dakigula. Hala ere, desiragarria da pentsatzea gaueko iluntasuna ehunka zatitan hautsi duten eguzki izpi berriek egunero agertzeko patuaren indarra dutela. Akaso gaur, bihar, edo eta etzi ez dira geuretzako azalduko, baina helduko diren irrikan gaude. Ia laster datozen!

Beldurra aspaldidanik sartu da gure etxeetan. Orain areagotuta daukagu, okelan izu bihurtuta. Baina ez gaude dardaran. Geure herriarenganako fedea emango digu aurrera egiteko arnasa.

Neskatoa zaindu behar dugu. Bere aita, ama eta neba-arreba guztiei duela ordu batzuk moztu diote lepoa. Bera bakarrik geratzen da buruzagiaren oinordeko. Esperantza handia da guztiontzat, ez bakarra, baina bai handia. Harribitxia da guretzat, eta hiltzaileek hori badakite; bizirik uzten badute egunen batean oso arriskutsu bihurtu dakiekeela badakite. Horretarako, egin dezaketen guztia egingo dute umetxo honen arima basamortu infinituan herratuta ibiltzera kondenatzeko. Zazpi urte soilik ditu, eta ziur dakigu oso zail duela joan beharreko lekura heltzea.

Burunbura Mairien 1993ko udazkena amaitzera doa. Oraindik goizaldeko laurak jotzeko daudenean, Burunbura nekazalea zeharkatzeko erabakia hartu dugu, Tanganyika aintzira zeharkatzea ez baita guretzako aukera, heriotza baino. Handik aurrera Mwarotik Gitegara, eta gero Rutanatik, gure herrialdea atzean utziz, Tanzanian sartuko gara. Oraingo horixe da gure asmoa, nahiz eta jakin badakigun Tanzanian ere ez garela seguru egongo.

Lagun eta babes ditugun gazte gihartsuak hirurak dira gure leinuko buruaren taldekoak, fidagarriak, etxeakoak. Oraingo horixe idatziko dut, denbora baino lehenago harrapatzen bagaituzte bakoitzaren jaioterria non dagoen jakin ez dezaten. Jada Mwarokoaren lurretarantz goaz, gure eguzki handi eta gorria lur-bidea berotzen noiz hasiko esperantzarekin. Bidexketatik goaz, segurtasun handiagoa

emango digun segurantza dugulako, besterik ez bada ere, horixe, babesa hitza dagoeneko gure ahoetatik jausi baita.

Hor aurrean pertsona batzuen ibilia barrundatzen da. Azkar ezkutatu gara inguruko sastraka itxian. Senar-emazteak mutiko zaparroarekin doaz leporaino kargaturiko astoaren atzetik merkaturako bidean. Bistatik galdu ditugunean, gure aurretik ehunen bat metroko tartea utzita, mwarotarra jartzea pentsatu dugu. Era horretan, noiz ezkutatu beharko dugun abisua emango digu. Orpotik, aldiz, rutanatarra zuhaixka adar bat narras dakarrela dator aingeru zaindariaren antzera. Mutilak itzelezko entzumena dauka.

Gaztetan ikasitako kanta zahar batek dio atalase guztiak kontu handiz begiratu behar direla, eta murmurikatuz bezala nabil. Mary txikitxoahartu da, eta irribarrea agindu didala uste dut; gaua hain da iluna!

Atalase guztiak,

barrura sartu aurretik,

begiratu behar dira,

adi begiratu, gainera

euren bidea:

aurretiaz ezinezkoa baita

etsairik egongo den jakitea

salan eserita esperoan.

Kamioi baten dardara dator ez hain urrunetik. Zarataren aldetik, arineketan, hasperenka rutanatarra gu gauden lekura, izu-laborriak hartuta bezala heldu da. Deabrua kodainarekin zutik kamioi gainean datorrela diosku. Non ezkutatuko begira gaudela, unetxo bat besterik ez da izan, azken aldi honetan abandonatu ez gaituen izua sartu zaigu berriro okelan. "Ez dago izua hartzeko denborarik", pentsatu dut, eta babesa non aurkituko bidexkatik urrunduz gara. Munatxo bat hor aurrean eta arbola nahiko handia. Mary eta biok sustraietan sartu gara munaren beheko aldera. Ahal izan dugun bezain ondo ezkutatu gara. Xendrak ez dio kamioiari aurrera egiten utzi eta buelta eman behar izan du. Soldaduak jaitsi eta zigarroak erretzen hasi dira. Bat gauden aldera hurbildu da, eta munatxoaren gainetik txiza egiten dago. Ez da konturatu. Hiru- lau lurrean eserita daudela ematen du, berriketa argi- argi heltzen zaigu eta. Ez zaigu asko falta dardarka hasteko. Umeari begietara begiratu, eta hatza ezpainetara eramanda, isilik egoteko keinua egiten diot. Doministikua egiteko zorian dago, eta badaezpada eskua

ahoan ipini eta burua ene paparraren kontra estutu diot. Panpoxa. Argia ikustea eragotzita dauden segundoek ilunpean jarraitzen dute, nolabait trabatuta egongo bailiran, eguzkia ez ikustera kondenatuta. Noiz alde egingen dute. Ordu erdi inguru pasa da. Ezin mugiturik leher eginda gaude; karranpak muskuluetan. Badoazela ematen du. Bai. Badoaz. Azkenean badoaz. Hiltzaile madarikatua badoaz.

Bagoaz. Gure umeak ezin du gehiago, oraindik Mwarora heltzeko asko falta zaigun honetan. Giregako mutilak lepoan hartu du. Abesti zahar bat datorkit burura, "...eta segi aurrera...", bidezidorrean aurrera nekez goazela. Zeharkaldia hasi baino ez, eta bernak urratu zaizkit. Odoletan ditut.

Enkontru eguneko eguerdi hartan, Mwezi andereak egingo zuena lo kuluxkatxoa besterik ez zen izango. Nekearen nekeak eragindakoa izango zen. Lotan geratuta ere, berehala esnatzen zen. Desagertuen ardurak ez zion atsedetik ematen eta, une oro, Mary eta Yanwezi mutikoa buruan bueltaka zituela antzematen zen. Disimulatzea nahi izaten bazuen ere agerikoa zen. Etsipena izango zen, ezen izaera aldatzeaz gain, nortasuna ere aldatzen du, dena aldatzeko indarrarekin etortzen baita; adorean ere nabaritzen zitzaion. Altxatu zen sukaldera joateko.

- Kafe bat, maitea?

- Bai, amona, luzea gainera –Nora Mwezi andereari amona deitzen hasiko zen, nolabait familiarterkoa zela sentitzen ari baitzen; aireak ekarritako aita eta arbasoak buruan bueltaka izatearen ondorioa izan zitekeen. Dena hain urruti eta zerbaiti atxikitzea beharko zuen, baina ez huntzak orman bezala, mendietara eramaten duen oskilasoaren hegazkada bizkorraren erara baizik.

Mwezik sukaldean kafea egiten ziharduen bitartean, Norak paperak ordenagailuan idazten jarraitu zuen. Handik ez denbora askora, eta paperetan buru belarri bazebilen ere, eten bat egitea pentsatu zuen, Mwezi anderea alaitu nahian-edo. Ordenagailua garraiatzeko maletaren kanpo aldeko poltsikotik liburuxka mehe bat atera zuen; edonora joanda ere, beti poltsa horretan eramaten zuena zen. Txirritaren bertso berriak ziren. Lehena eta zazpigarrena, 49. eta 51, orrialdeetan markatuak zituenak, Gernikako arbola gogoratzekoak, mihian erritmo motelean dantzatzuz ipini zituen sukalderako bidean.

1/ Zeruko Aita, barka itzatzu

pekatarien pausuak,

Kantabria'ko deskalabroak

dirade lastimosuak;

arbola eder bat dala mediyo

jartzera nua bertsuak,

milla urtean mantendu gaitu

lau probintzia osuak.

7/ Arbola orren zain prinzipala (3)

zan Bergara'ko partean,

arri sillarez inguratua

burnizko kaja batean;

milla zortzireun irurogei ta

amalaugarren urtean

satorrak fuerte ibilli ziran

ura ebaki artean.

- Bai bitxia doinua - Mwezi andreak bitrozeramika ondotik bota zion. Nora sukaldeko sarreran zegoen, irribarrea ezpainetan, lepoa atearen markoaren kontra jarrita. Oslon oso egun gutxi zeraman, eta berehalakoan Kantauri itsasoa desiraren erara etorri zitzaion.

- Bertsoak dira, amona, gure haritz zaharrari botatakoak, - argitu zion Norak, lurrunean bilduta zetorren kafearen usaina etxe osoan hedatzen joan zen unean.

- Gustatzen zait.

Mwezi anderea izenburua ipinita zion karpeta zabalduta, Norak orri horiztatuetan aurrera egin zuen. Idatzi ahala ez zuen paperetan zegoena albaintzen, bere horretan utzi nahi zuen, Mwezik berak idatzia zuen bezala jartzea, izen, aditz, izenorde, egitura, xehetasun eta beste enparauak aintzat hartuta, bizipena errespetatuz. Hala ez egitea bekatu larritzat zuen. Ortodoxiak larri jartzen zuen. Batik bat orrazi

kontuak ziren besoko iletsoak puntan jartzen zizkionak; dena txukun ipini beharra; dena zuzendu beharra. Jarraituko zuen paperekoekin:

Ezertarako gelditu gabe, igaro berri dugun kafe- sail handia atzean utzita, orain berriro sabanaren barrenean ibili eta ibili gabiltza. Pausua nekez doa hemen. Mwarotarrari zail egiten zaio xendrari jarraitzea, eta galduko ote garen beldurrez dago, hainbat bidexka baitira begiratu beharrekoak. Bata bestearen atzetik joateko itxaron digu, eta belar makurtuak eskuarekin ukituz burua makurtuta dabil. Zarata arrotzik ez dugunez entzuten, izua lasaitasuna eskainiz lotan doala dirudi; hala ere, erne ibili behar onik aterako bagara. Indarrak makalduz doaz lehen gaua heldu den honetan, eta aurrean egokitu zaigun bizkarretik gora, esperantzak ekartzen duen kemenak bultzatzen gaituela uste dut. Ez gara lotarako geldituko, aurrera egin behar, eta, konturatu barik, akazia erne berrietan trabatuta geratu naiz, eta xendrra bueltatzeko neureak eta bi behar izan ditut, arantzen erresuminarekin bernak erabat urratu zaizkit eta. Orain aldats behera goaz, eta urratsa ematea, nekezago, zailago egiten zait. Umeak negarrari ekin dio lurrean etzanda, luzaroan, berriro Giregakoaren bizkarrean ipini dugun arte, eta, horren ondoren, atoan lotan geratu da. Eskerrak. Aurretik doana sarri jartzen da ortzira begira. Izarrartea irakurtzen eskuan mapa izango balu bezala dagoela ematen du. Hala ere, galdu egin gara. Geldi gaude. Mwarotarra gora dago begira, zerura. Unetxo bat izan da. "Goazen hemendik", dio. Hotz egiten du. Menditxoaren hegiraino heldu garenean berriro aurkitu dugu bidezidorra. Pozik gaude. Apur baten esertzea erabaki dugu, mokadu bat egiteko behintzat. Goian ilargi bete itzela ikusten da, gure baitara lasaitasun zoragarria ekartzeko aginduarekin-edo egiten duela pentsatu nahi dut. Ahantzia nuen lasaitasuna zer zen. Bizkarra zuhaitz baten kontra ezarrita jarri naiz, zerura begira. Umea altzoan dut. Gozo dago lotan, aingeru baten antzera. Ez dut iratzartzea nahi. Beldur naiz iratzartzen bada berriro negarrez ez den hasiko. Esnatzen denean zertxobait emango diot jateko eta edateko. Kutunari ilea ferekatzen nago, eta masailean musu ematen diot. Gure laztana ez da esnatu. Aurrera egin aurretik ur apur bat edateko beta.

Muino gainetik garaiera berdineko beste bat ikusten da. Aurretik doan gazteak errazagoa izango dela dio; bigarren muinoa ez dugula igo behar, bidezidorrak mazelatik egiten duela.

Mazaleatik joanda ere, akiturik igaro dugu muinoa. Motelegi agertuko den egun berrian hotz egiten du. Izpien erreinuak bere aurpegi beroa oraindik ez du agertu nahi; lotsaturik dagoela ematen du, goibeldurik bezala. Laster etorriko dela ekarri dut gogora. Aurretik doan gazteak berak ondo ezagutzen dituen Mwaro lurretan sartuta gaudela dio. Bertakoa delako argi dauka, eta irribarrez dio ordu bete barru-edo txabola bat aurkituko dugula eta gainera, bertan indarra berreskuratzeke lo egingo dugula. Pozik jartzen gaituzten hitzak botatzen daki.

Etxola arboladi baten barnean ikusi dugunean, harantzago, aurrealde urrunetik, beharrezkoa dugun sosegua ekartzera datorren eguzki gorri-gorria harro ari da lehen izpiak indarrez erakusten.

Egurrez egindako aterpearen barruan, txingar batzuei airea ematen, aguretxo bat sua bizkortzeko dago makurturik. Ez da mugitu, soilik okertu ditu begiak gureak aurkitzeko. Berehala ezagutu eta zutitu da mutilarekin luze besarkatzeko. Gure beharrizanaz jakingo balu bezala-edo besteekin berdin egin du. Gure neskatilak begiak zabaldu ditu, eta aguretxoak sudurra hatzarekin ukitu dio. Panpoxak esker onez irribarretxoa agindu dio ezpainenetan jarrita. Asrienek osaba duela dio, eta Ntabona duela izena. Emaztea hil zitzaionetik ahuntz taldearen ardura hartuta bakarrik bizi dela, eta horrek ematen diola bizitzeko haina, horrekin nahikoa duela gaineratu du.

Handiturik dauzkadan bernek esertzera behartu naute oinetakoak kentzeko. Ntabonak berak eginiko ukendua ekarri dit. Oinetan ere emateko esan dit. Horixe egin dut. Usain gozoa du, eta eman ez batera nabaritzen nago ondo egiten ari zaidala.

Aguretxoa mendian isolatuta bizi bada ere, ematen du gertatzen den guztiaren berri duela. Lasai egoteko esan digu, sobera dakiela ezkutatzen eta. Hiltzaile horiek inoizkoren baten soilik ikusi dituela, baina aspaldi ez direla honaino etorri. Honaino etortzeko derrigorrean oinez etorri behar da, eta berak uste du madarikatu horiei oinez ibiltzea ez zaiela lar gustatzen.

Etxolaren bazter batean, ahuntz-larru batzuen gainean, zirkulua egiten gaude lurrean eserita. Ntaboak taloak egin berri ditu, eta berriro sua bizkortuta lapikotxo batean ahuntz esnea berotzen ari da. Taloak eta eztia ekarri ditu zirkuluaren erdira. Gerotxoago, esnea lau katilutan dakar; ez dauka katilu gehiagorik. Akerko apur bat ere ekarri du, eta gazta zati bat. Gizonak akerkoarekin hasi dira. Ni neu ere bai. Hain gozo dago dena!

Umea unatuta dago. Ni ere bai. Gazteak, sasoi betean daudenez, gau pasa egin balute bezala daude; ondo.

Egun oskarbi eta sargoria dator. Atzean utzi ditu jada gauaren hotza eta desesperantza. Gosaria egin dugun leku berean lo egiteko prestu gara. Ntabonak lasai lo egiteko esan digu, muino gainetik bera jarriko dela zelatan eta. Laster igo da haraino. Bi ardi-txakurrekin igo da. Han goian, naturaren besoetan, garau bat besterik ez da, muinoei eta sabana zabalari so egonean dagoela. Behean, arboladi txikian disimulaturik, gu gauden txabola orban txiki bat besterik ez da izango lur gorri koloreko maindirean. Baliteke aguretxoa horixe irudikatzen egotea. Umetxoa ene besoetan lotan geratu da, eta ni neu ere bai.

Iluntzea. Iluntze eder honetan gaua etortze dago, eguzkia gorri-gorri sartzen ikusten gaudela, eta gure jainko lurak, bere dohaineko handitasunean, zein ikuskizun ederrak ematen dizkigun pentsatu dut. Aguretxoa agurtu dugu, eta, biderako zertxobait ematen digun heinean, azken gomendioak adi entzuten dizkiogu. Batez ere bere iloba izan da arretaz jarraitu diona. Atera gara. Agur egiteko besoa altxatu dugu. Eskua mugituz egin dugu, horixe baita gure ohitura.

Beherantz egiten du xendrak eta eroso goaz, dezente ibilia baita agurearen ahuntz taldeak. Bidezidorraren ondoan mizpirondo bat aurkitu dugu. Arbola bitxi kuriosoa iruditu zait. Ez dugu mizpirarik hartu, gogor daude eta. Gaua zarratu da arima bako bidean. Oraindik ez da ilargia agertu. Laster ikusiko dugu. Ez dugu inondik zaratarik entzuten geure oinek lurrean ateratzen dutena ez bada. Lasai goaz. Bi ordu inguru daramagu gelditu gabe eta atsedean txiki bat egitea erabaki dugu. Gure kutunak ondo dagoela diosku; hala ere, oinak begiratu dizkiot. Gauaren iluntasunean badirudi ondo daudela. Beste aurpegi bat hartzen hasia dela antzematen diot, nolabait xalotasuna galtzen hasiko balitz bezala. Hemendik aurrera maltzurkeria apur bat ondo etorriko zaiola pentsatzen jarri naiz.

Aurretik doan mutila lauhun metro aurrerago hiru-lau gizonezko daudela esatera etorri zaigu. Entzun egin ditu eta zigarroen txingarra ikusi duela. Derrigorrezkoa zaigu xendra utzi eta inguratzea, hori egiteak nahiko atzeratuko bagaitu ere. Berrero beldurra letaginak erakusten. "Gazte horiek hor aurrean zer egiten dute? Hemen inguruan etxolarik ez badago, zer egiten dute hor?", ene buruari galdezka nabilkio. Erantzuna sobera jakina dudan arren, horixe etorri zait burura. Nolabait egonezina uxatu guran-edo izango da, baina erantzunak ez du bere baitan zalantzarik gordetzen. Bidazti nekatuak gara izuaren menpe.

Bost gau osoak behar izan genituen Tanzaniara heltzeko. Behin mugatik harago, herritxo txiki batean basoko automobilekin bi lagun zain genituen itsasoraino eramateko. Beste lau egun behar izan ditugu nazio handia zeharkatzeko, eta dagoeneko Madagaskarrera doan itsasontzi barruan gaude.

Gorputz arras triskatuetan galduta gaudelako sentazioa badaukagu ere, bihotzean daramagun saminaren agergarritzat esango dut geure baitan ez dagoela bekaturik, eta hortaz gure arima ez dagoela okerturik. Finean, tutsiak gara, eta, gauden lekuan egonda ere, tutsiak izateagatik hiltzera kondenatuak. Horixe ei da gure patua, eta ez dugu amore emango.

Norak Mwezi anderea agurtuko zuen, hurrengo egunean gosaltzera etorriko zelako promesa eginez, jarraian Bihonen etxerako tartea autobusez egiteko. Alde zaharreko geltokira heltzeko hamar minutu ingurukoa izaten bazen ere, auto ilararen erruagatik ordu erdiko bihurtu zen, eta handik Bihonen etxera beste bat eskas. Behin lagunaren bizilekuan, Mwezirekin izandako enkontrua aitari kontatzeko irrikan

zegoen. Pentsatu zuen kontuak whatsapp soil eta hotza baino gehiago merezi zuela, eta gainera baziren bost egun gurasoekin ez zuela hitzik egiten. Sakatu zuen aitaren zenbakia.

- Bihotza! Zelan hortik? - ama zen aitaren telefonoa hartu zuena.

- Ondo, ama, inguru hau oso ederra da, eta jende jatorra dago hemen.

- Pozten naiz, bihotza. Aita eta biok irrikan gaude zurekin egoteko! Hotzik eta?

- Bai, eskerrak hemengo lagunak arropa utzi didan, ezpabere eroatera atera beharko nuen.

- Ez ibili hotza pasatzen, entzun?

- Bai, ama, egon lasai. Hiru-lau egun gehiago baino ez, eta bueltatuko naiz. Deituko zaitut noiz joango naizen esateko. Ama, aita hor al da?

- Bai, oraintxe jarriko da. Maite zaitut, bihotza!

- Nik ere bai zu, ama!

- Kaixo laztana! - aitak.

- Aita, gogoratuko zara zertara bidali nauten hona, ezta?

- Bai, zer gertatzen da?

- Ba, eserita zaude?

- Ez, zutunik nago.

- Ba, eseri zaitez.

- Ale, tira, zer da hori?

- Lubakian hilik agertutako emakume afrikarra!

- Bai, zer?

- Burundiarra zela.

- Nor?

- Mary.

- Zein Mary?

- Zure lehengusina.

- Mary Nicizanye?

- Bai.

- Erdu etxera! Erdu etxera, lehenbailehen! - aitag erabat beldurrez beterik aginduko zion hil ala biziko kontua bailitzan.

- Ezin dut.

- Nola ezin duzula? Utzi dena eta erdu etxera, atoan!

- Ezin dut, aita.

- Hil egingo zaituzte, laztana, erdu etxera, maitea, mesedez, maitea, erdu etxera atoan!

- Egon lasai, aita, laster itzuliko naiz!

- Ez, lasai ez, erdu berehala, edo ama eta biok joango gara zure bila!

- Aita, ez egin hori; laster, egun pare bat bakarrik behar ditut, eta hor izango naiz –Norak bazekien egoera larria zela, baina aita eta ama lasaitzeko esango zion esandakoa.

- Ez, maitea, ez!

- Ez izan astuna, aita. Eskegiko dut. Agur.

- Ibili zaitetz kontu handiz, behintzat!

- Bai, aita. Agur.

- Agur.

Behin telefonoa itzalita, aitag emandako agindua hausnartzen hasi zen. Trukatutako hitzak bueltaka zebilzkion, eta egonezinak ordura arte zeukan sosegua apurka-apurka jaten arituko balitz bezala sentitzen zuen, denbora gutxira izuak gainezka egingo baitzion. Kontua berak uste baino larriagoa zela jabetzen hasi zen. Bera ere nahasita zegoela uste izaterainokoa zen egiten zebilen gogoeta.

Etxeko sarrailan giltza zelan sartzen zen entzun zuen. Ikaraturik zutitu zen. Artegatuta zegoen. Ez zekien zer egin. Ez zekien nora joan. “Non ezkutatu ninteke?” sokorruka galdetu zion bere buruari. “Balkoian..., baina berehala konturatuko dira, eta gainera hirugarren solairuan nago. Neure burua botatzen badut

behean hilda agertuko naiz”, jarraitzen zuen pentsakor. Noraezean zebilela, Bihon izan zitekeela ere pentsatu zuen.

- Nora, etxean al zaude? - galdera sukalderantz zihoala entzungo zuen. Emakume ahotsa zen, eta ezaguna.

- Eskerrak, Bihon! Noraezean nenbilen izuak hartuta - Nora dardarka zegoela jabetuz, Bihonek indarrez besarkatu zuen babesa eman guran.

- Zer gertatzen zaizu?

- Ikaratu egin naiz! Egunean gertatu zaidanarekin larri nago. Aitari deitu diot eta oraindik okerrago ipini nau.

- Zer da, ba? Dardarka eta irribarre goibela antzematen dizut!

- Disimulatzen nabil, ba!

- Zer gertatzen zaizu?

- Esan dizut, eguneko gorabeherak. Baina horretaz gero hitz egingo dugu. Zu, zelan?

- Ondo, betiko martxan.

- Unibertsitatean ondo?

- Bai. Badakit nondik nora ibili behar dudan.

- Aizu, Bihon, ez dut izan astirik afaltzeko ezer ipintzeko. Heldu eta aitari deitzeko baino ez dut izan betarik.

- Egon lasai. Beheko tabernara joango gara. Ogitartekoa jango dugu eta garagardoa edan. Zer, txarto ala? Neuk gonbidatzen zaitut.

- Ederto. Behar dut irtetea. Zeharo lur jota nago.

- Lasai. Komunera noa. Gero zigarro bat eta kalera. Aizu, Nora, egidazu mesede bat.

- Bai, zer?

- Hartu lainoztagailu hori, bete ur freskoarekin eta bota iezaiozu goroldioari.

- Zer da goroldioa?

- Ez dakizu goroldioa zer den?

- Ez.

- Ene bada!

- Ez dakit!

- Zer diozu?

- Ezetz ba!

- Ezin dut sinetsi!

- Ea, esadazu zer den!

- Erdu.

Bihonek egongelako hiru balkoietatik erdikoaren ateak zabalduko zituen, eta kalostratik ateetarainokoa zen loreontzi borobil itzel handian aspaldi gainezka egina zuen goroldioa nagusikiro agertuko zen balkoiko zoruan zehar hedatuz, berde-berde, indartsu, tapizaren erara hazten.

- Hauxe da goroldioa - Bihonek.

- Ikaragarria da.

- Bai, ezta?

Norak goroldioa ukitzeko eskua luzatu zuen, eta samur, gozo, suabe, sentitu zuen.

- Zer deritzozu?

- Gozamina da laztantzea - Norak.

- Bai, ezta?

- Bai. Lorerik ematen du?

- Ematen dituen loretxoak bitxi-bitxiak dira. Burdeos koloreko harizpiak izaten dira, oso txikiak, mehe-meheak, kuriosoak benetan.

- Bere gainean etzateko gonbita egiten duela ematen du.

- Bai, ezta? Badakizu munduan zehar desagertzen ari den landarea dela?

- Zelan jakingo dut, zer den ere ez nekien eta. Klima- aldaketa?
- Ba, orain, badakizu. Klima-aldaketa diozu? Ez izan zalantzarik. Horrela da.
- Ikaragarria da gertatzen ari dena, ezta?
- Badakizu dagoeneko zenbat espezie, bai animalia bai landare espezie, desagertu diren?
- Zenbaki zehatza ez dakit, baina ziur pila bat direla.
- Azken hamabost urteetan hamar!
- Ikaragarria!
- Eta datozen hamabost urteetan?
- Pila bat izango dira!
- Zuk esan duzu, pila bat izango dira.
- Eta datu horiez gain arriskuan daudenak?
- Batzuk badakizkit, esaterako intxaurrondoa, gereziondoa, gaztainondoa, palmondo mota batzuk, mitxoleta, lilipa, zizare-belarra, eta pila bat gehiago.
- Eta tximeletak? Sasoi batean baserri inguruetan ikusten ziren mila kolore desberdinekoak desagertu dira.
- Nik ikusi ditudan tximeleta bakarrak National Geographic-eko dokumentaletan ikusitakoak dira.
- Zuk bezala beste askok.
- Asiako liztorrarena jarraitzen duzu?
- Bai, nola ez!
- Ezin dela desagerrarazi diote.
- Erabat desagerrarazi akaso ez, baina kontrolpean izan bai, nola ez!
- Dirua?
- Noski. Asiako liztorrarena kontrako talde bereziak sortu behar dira. Administrazioak sortu behar ditu. Herritarrek salatzen dute baina...
- Zuhaitzetan egiten dituzten habiak errazak dira ikusteko, baina lur azpian egiten dituztenak zailak dira.

- Bai, horretarako behar dira talde espezializatuak.
- Japonian badaukate horretarako prestaketa.
- Zuon herrialdera sartu da liztor hori?
- Nora ez?
- Dagoeneko edonora.
- Hori ba, arazoa herrialde guztiona da.
- Goroldioa bera, herrialde askotan dagoeneko desagertu den landarea da.
- Bai, esan didazu lehentxeago.
- Hori ba!
- Etorkizun latza. Erleak eta tximeletak desagertzen badira landaretza desagertuko da, eta landaretza desagertzen bada animaliek eta gizakiok ere bide hori hartuko dugu.
- Beldurra sartzeko kontua.
- Tori, hartu lainoztagailua.
- Ur freskoarekin beteko dut eta gero lainoztatu?
- Bai.
- Oso osorik?
- Bai eta beldurrik gabe. Maite du hezetasuna, hobe esanik, behar du hezetasuna, bestela hil egingen da.
- Horretan maistra naiz!
- Zuk egin horixe.
- Ok.
- Komunera noa.
- Nik ere joan behar dut.
- Nire ostean.
- Ok.
- Gero zigarro bat eta kalera, ok?
- Ok.
- Goserik?
- Amorratzen nago zerbait jateko.

- Ni ere bai.
- Zerbait berezirik jatea nahi?
- Pernila.
- Pernila?
- Bai, pernila!
- Ez dut uste pernila daukaten tabernaren bat aurkitzeko arazorik izango dugunik.
- Ohikoa hemendik?
- Badago, ez hangoa bestekoa, baina beno.
- Iberikoa eta horrelakorik heltzen da hona?
- Nik nahiago dut Baionakoa.
- Baionakoa jan duzu, ala?
- Bai, han egon nintzenean jan nuen.
- Zuk probatu ez duzunik ez da egongo.
- Ez pentsa.

zazpi

Eguraldia aldatuta sumatzen zuen, ez asko, baina nahikoa goiz hartan aurrekoetan baino freskoagoa egiten zuela antzemateko, edo bazitekeen tiroketan zauritua izan zenetik hozberago bihurtu izana. Hori izango zen, segur aski, ezen Haakonsson inspektorea hotz handiagoarekin inoizkoetan mauka-hutsik ere ikusten baitzen.

Taldekoek hainbat egun zeramaten gelditu gabe ikerketak egiten, inolako zalantzarik gabe, zeukan guztia eman ondoren Oihan Beltzean gordeko zen halako filosofoak esaten zuen bezala-edo ibiliko ziren, hausnarkariak belarra nola, euren pentsamenduaren printzak hala marruskatuz; noski, hausnartzen; Nietzsche izango zen.

Lubakian hilik agertutako Mary Nicizanyeri buruzkoan lehentasuna emanez buru belarri zebiltzan. Tamaina hartako lanak aurrera ateratzeko, jakina da ekinean aritu behar dela, eta goiz hartan, hain zuzen ere, halaxe zebiltzan; gainera, haietariko batzuk inoiz baino biziago eta arduratsuago.

Mugimenduan zebiltzanen aurpegiei begiratuta, zerbait gertatzen ari zelako susmoa hartu zitekeen, eskuartean zeukatenari ongi aterako zelako usaina hartuta zeuden, itxaropentsu, hieroglifikoa egiteko gauza izango zirelakoan.

Gulbrandsen detektibea bertako teknikariek informatika-gelan zebilen lanean. Mahaitik altxatu zen. Aurpegian irribarretxo jarri zuen, zerbait argi ikusten zuen seinalea agertuz, eta solairu berean zegoen Haakonsson inspektorearen bulegora zuzendu zen, atea jo ondoren zabaldu eta sartzeko:

- Ebbe!

- Bai, Dagny! Irribarrea, e!

- Bai.

- Zerbait argi?

- Bai.

Haakonssoni bala madarikatu hark sorbaldan egindako zauriak min izugarria emateaz gain ez zuen bakean uzten; mina ezin kendurik zebilen. Ordurako gaitzua izan beharko zuen, baina orduak ez ziren horrela etorri. Gainera, puntuak kentzeko hamargarren eguna oraindik urrutiegi zegoela ikusten zuen. Eskerrak ospitaleko medikuak emandako lasaigarriak aldean zituen. Kirol-jertseko poltsikoan zuen flasketatik pilula pare bat atera zuen eskura, eta jarraian ahora sartutakoak mahaiaren aldamenean zuen ur botilatik zurrutada luzea hartuta irentsi zituen.

- Esan.

- Ebbe, badaukagu zerbait. Baduzu etortzerik?

- Non zaudete?

- Informatika-gelan.

- Bon - Haakonssonek jaikitzeke besaulkiko beso-euskarrietan eskuak ipiniaz batera, sortutako minaren keinuan begiak ere izurtuz, muturra okertuta erantzun zion.

- Etortzeko moduan zaude?

- Bon. Goazen. Ezer aurreratzea nahi? – Haakonsson pasabidean galdezka.

- Bai, bahiketa.

- Hala izan behar, lubakira bere kabuz ez zen joango eta!

Behin bideo-gelan, Dagny aritu zen aginduak ematen. Ikerketako xehetasun guztiak bere ardurapean zeuden, nahiz eta, jakina zenez, kasua, ezinbestean, Haakonsson inspektorearena zen.

- Bahiketa hasten den unetik jarri martxan! - Gulbrandsen detektibeak agindu zuen- . Ebbe, une horretara arte ez dago ezer. Behin eta berriz aritu gara, eta bahiketa gertatzen den arte ez da ezer ikusten. Bai, ikusten da jendea batetik besterako ibilian, baina bahiketarekin ez daukate inolako loturarik. Gainera, horien artean ez da afrikarrik agertzen.

- Nongoa da grabaketa? - Haakonssonek xehetasun horri garrantzia ematen ziola galdetu zion.

- Banketxe baten sukurtsaleko grabaketa da. Kalea argi-argi ikusten da; beno, argi-argi esate bat da.

- Nongo banketxekoa? inspektoreak moztuko zion.

- Bide osoan dagoen bakarrekoa. Stromsvein-eko banketxekoa. Ez da argi-argi ikusten baina nahikoa jakiteko Mary eta semea direla.

- Zenbat bahitzaile dira?

- Hiru; beltzak hirurak. Grabaketa banketxe barrukoa da. Barruan dagoen kameraren bisore optikoak sarrera soilik hartzen du; badakizu, legea - Dagny Gulbrandsenek erantzun zion.

- Ea, jarri martxan! Une horretatik aurrera! - Haakonssonek denborarik galdu nahiko ez balu legez.

- Bai.

- Zein ordutan gertatzen da bahiketa?

- Bostak eta hamar minutuan.

- Ba, eraman horra grabaketa.

- Bai, hemen dago.

Berriro ere grabaketa ikusten talde osoa jarri zen, baina oraingoan Haakonssonek esango zuenari arreta ipinita. Grabaketan gidaria barruan geratua zela argi ikusten zen, eta beste biak Maryren gainera botatzeko furgotik ateratzen zirela. Maryk, senezko erreakzioa izango balu bezala, semeari alde egiteko deia eta keinuak egiten zizkiola ere argi eta garbi ikusten zen. Alde egiteko ahaleginean, haurra alderantzizko norabidean korrika zihoala, Maryk erasotzaileen kontrako borrokan segitzen zuen, eskuak, belaunak, oinak, burua eta gorputzeko alde guztiak erabiltzen zituela. Baina alferrik. Furgoira narraska nola zeramaten ikusten zen. Sokorruka. Haurraren motxila lepoan zerman. Dena istant batean gertatu zen; apenas segundo batzuen buruan.

- Ea, itxaron apur bat. Bota atzera, Mary eta mutikoa agertzen hasten diren unera.

Atzera bota zuten.

- Mutikoak ez darama motxilarik, eta Maryk motxila bat bakarrik darama ezkerreko sorbaldan. Egiten dituen mugimenduetan ematen du ez dela astunegia, eta bere eskuko poltsatxoan ez dauka ezertarako lekurik, ez bada makillajeko zerbait, edo telefono mugikorra, etxeko giltzak, txikleak, eta beste zeozer.

- Hori ematen du - Gulbrandsen detektibeak erantzun zuen.

- Hori da.

- Zer zabilta barrundatzen?

- Mwezi andereak gezurra esan zigula.

- Zergatik?

- Ez zinen zu han egon? - Haakonsson zalantzan zegoen.

- Bai, baina zer esan zigunean?

- A, egia da, zu aginduak ematera bulegora etorria zinen. Galdetu nionean ea egunkari pertsonalik-edo zuen, ni berarekin bakarrik nengoen. Berak, erantzunez, galdera bota zuen ea gaur egun horrelakorik inork egiten duen, eta ordenagailu bat bazuela, baina Maryk egunero eramaten zuela lanera. Motxila horrek ematen du mutikoarena dela, ezta? Barruan ordenagailua izango balu ez luke era horretan eramango, astunegia izango litzatekeelako.

- Beno, Mwezik esan ziezazukeen ordenagailua, baina erratu bazen eta tableta esan nahi bazizun?

- Bai, baina bankura tableta eskuetan eramango zuen?

- Ez. Ez dut uste - Gulbrandsen detektibeak, erabat ziur.

- Nik ere ez dut uste eskuan eramango zuenik. Bere poltsatxo horretan bada tableta sartzerik?

- Ez dut uste.

- Beharrezkoa da poltsatxo horren neurriak jakiteko aplikazio informatikoan kalkuluak egitea, fidagarritasuna izateko?

- Ez. Argiegia da -Gulbrandsenek. Haakonsson eta Gulbrandsenen arteko solasa zen.

- Hori ba.

- Ez. Aldean ez zeraman ordenagailurik, ezta tabletarik ere; beraz, lanera ere ez zuen eramango.

- Hortaz, zerbait ezkututzen dabil. - Haakonssonek, erabateko ziurtasunarekin.

- Zurekin bat nator.

- Ordenagailua, edo tableta, edo biak, Mwezik bere etxean izango ditu gordeta. Beno, gordeta esan dudanean segurantza handiegiarekin esan dut, eta zalantzan nago Mwezi andereak beste zerbait ere ez ote duen gordeta.

- Segur aski –Gulbrandsenek erabat konbentziturik baieztatu zion- . Baliteke egon daitekeen nolabaiteko kontu horretan inplikatura egotea. Hori esan nahi duzu, ezta?

Haakonssonek ez zion galderari erantzun, eta aginduarekin jarraitu zuen.

- Ea, goazen berriro grabaziora. Zenbat denbora irauten du? –Haakonssonek, aurrera eginez, hura guztia laburbiltzeko nahiarekin.

- Hamahiru segundo.

- Profesionalak, eta hirurak afrikarrak. Badirudi Sikkerhetstjenestekoak adi dabilzala. Hilketaren eragingarria Buyumburan dagoela ematen du. Bertako egoera oso larria da. Oposizioa Nkurunzizaren erregimenaren kontrako borroketan dabil. Hilketak, bahiketak, desagertzeak, bortxaketak..., oposizioak indarrak bildu behar ditu, eta Mary Nicizanye hango tutsi politikari handia izan zenaren alaba da, beno izan da. Hori izan daiteke eragingarria. Mary, politikari garrantzitsuen alaba izanik, hara joan izan balitz oposiziokoak harrotuko zituzkeen. Hango jendea inork baino hobeto bilduko zuen. Hor arriskua. Baina, hori bakarrik? Hainbeste urteren buruan, orain? Zergatik orain eta ez lehenago? Dagny, zeozer falta zaigu.

- Zer izan liteke?

- Datoren bat falta zaigu –Haakonssonek.

- Ez dut ikusten.

- Zuk lehentxeago egin duzun galderaren haritik, eragingarriak beste zeozer ere izan behar du, nahi eta nahiez, zeozer gehiago izan behar du. Baina zer?

- Afrikar talde horrek nola jakin du Mary non bizi izan den?

- Erantzun erraza da hori, Dagny. Hori informatikan erdipurdiko trebetasuna duen edozeinek lor dezake. Maryk sekula ez du bere Nicizanye abizena ezkutuan eraman. Horrek aurkitu beharrekoa are gehiago errazten du. Bueltaka guk ez dakigun beste daturen bat ez badabil, lan erraza da.

- Baina bazekiten Mary Burundira joatekoa zela?

- Oraindik hori ez dakigu, baina Mary Burundira joan ala ez, arriskua tamaina berdinekoa zitzaien. Joango balitz, arriskua. Joango ez balitz, joan zitekeen, beraz arriskua. Mary garbituz gero, arrisku hori betiko kenduta. Beste zeozer ez badago.

- Mary Burundira joatekoa ez bazen, beste agertoki baten aurrean egongo ginateke, ezta?

- Bai, zalantzarik gabe. Horrela izango balitz beste alde batera eramango gintuzke, nahiz eta hori ez dakidan gure ardurapekoa, ala Sikkerhetstjenestekoena izango litzatekeen.

- Zergatik?

- Espioitza kontuetan murgilduko ginatekeelako.

- A! Bai.

- Eta kontuak horrantz badoaz, guk ez dizkiegu lanak Sikkerhetstjenestekoei egingo, ezta?

- Inolaz ere ez! –inspektoreak egin berri zuen gogoetak erabat konbentziturik Gulbrandsenek baieztatu zion.

- Ikusten duzu?

- Bai. Baina nola jakin dute Mary bizirik zegoela?

- Galdera ona. Hor dago koska. Horrexek garamatza zalantzan daukagun puntu horretara, hain zuzen ere Sikkerhetstjenestekoengana. Dagny, jarri beste patruila bat bazterrak arakatzen, haurra aurkitu behar da eta. Eman lehentasuna horri. Segur aski, beldurrez beterik, gosez eta batek daki nola, nonbait ezkutatuta egon daiteke.

- Oraintxe bertan.

- Beste gauza bat, Dagny.

- Zer?

- Informatikariak badabiltza zeozertan?

- Lan nekeza daukate, baina badabiltza –Gulbrandsenek, inspektoreari aurpegira begiratuta.
- Mary zeozertan zebilelako susmoa dut.
- Baliteke. Hori informatikarien lanak argituko du.
- Telefono deien mugimenduak eta Interneteko jarduera behar ditugu.
- Ibili badabiltza baina oraindik ez daukate emaitzarik. Aurkitu duten informazioa enkriptatuta dago, eta hodeian gainera. Oso zaila izango da ezer garbirik jakitea.
- Zer informatikari edo zer daukagu, ba?

- Hemen daukagun informatikari taldea primerakoa da, baina nahi dugun informazioa lortzea oso zaila. Esan dizut lehenengo hodeira sartzeko pasa hitza behar dela, eta gainera informazioa enkriptatuta dagoela. Antzerako arazoa izan dute Estatu Batuetan. Uste dut informazio hori epaile baten aginduekin bakarrik lortuko genukeela. Telefonoko mugimenduak ateratzea baliteke errazago izatea. Dena den aurreratuko dizut beste gauza bat: Suediako TELIA eta Norvegiako TELENOR elkartu direla. Baina gehiago dago. TELIA UNISOURCE taldearen barruan dago, eta Holandako KPNrekin elkartu dela. Baina itxaron, TELENOR BRITISH TELECOM taldearekin elkartu da, eta baliteke Suediakoekin partzuergo berri baten bidez elkartzea, eta hori guztia gutxi balitz bezala, Estatu Batuetako SBCCOMek COMCAST erosi eta beste horiekin guztiekin nahastean dabil. Eta nora joko dugu, zuzenean Telenorera, edo epaileari agindua eskatzera goazenean denetara joatekoa eskatuko diogu?

Haakonssonek ez zuen ezer erantzungo, eta begirada behera zuela itxaron zuen Gulbrandsenek jarraitu arte.

- Laster jakingo dugu zertxobait gehiago, buru belarri dabilta eta. Orduan ikusi beharko da, epailearen atea zabaldu, edo lan hori Sikkerhetstjenestekoentzat utzi.
- Zerbait daukatenean mahai gainean nahi dut - Haakonssonek begirada behera zuela jarraitzen zuen.
- Horrela izango da, egon lasai.

Haakonsson inspektorea oraindik oso urruti zegoen hipotesi argia emateko. Ideia batzuk balantzaka zituen, eta orotara, kontu guztia koadro bateko irudi lausoa bezala ikusten zuen. Datu gehiagoren beharra zuen. Ezer esan aurretik, garunetan korapilo bezala zituenak egiaztatu behar zituen. Berrito ere barne-muinetaraino blaituko zen, xehetasun guztiak buruan bueltaka ipinita. Grabaketa ikusi zuenetik galdera berriak etengabe zetozkion. “Zergatik bahiketa? Ez al zen ba errazago, bertan, zeuden lekuan, Mary eta bere semea erailteza? Zergatik agertu zen Maryren gorpua lubakian? Eta zergatik orain?

Egoera politiko berriagatik bakarrik ezin zitekeen izan. Edo bazitekeen Mary Nicizanye anderea galdeketa egiteko bahitu behar izana, berak zekien guztia ateratzeko. Hori horrela izan balitz, Maryk Burundiko oposiziokoekin nolabaiteko harremanak izango zituen?”.

Bakarrik, inori ezer esan gabe, aldi baterako behintzat telefonoa itzali ondoren, bulegotik ezinean bezala alde egin zuen, galdera haiek guztiak zeuden kako artetik irten nahian, indargabe, trabatuta. Begirada galduta jarri zitzaion. Aker tabernan inoiz baino jende gehiago zegoela ikusi zuen. Erlojuari begiratu zion; oraindik goizeko hamarrak ere ez. Kasu bat esku artean izaten zuen bakoitzean gauza bera gertatzen zitzaion, ez zuela jakiten goiza, ala arratsaldea, edo gaua noiz izaten zen. Berdin zitzaion. Denborak berarentzat plano lauan egiten zuen aurrera, ez gora, ez behera, nondik norakoak entzefalograma planoan agertuko balu legez. Buruan horixe bakarrik izan zezakeen, kasua. Kafeina behar zuen.

Haizeak olatuen gainean bortizki jotzen zuen, fiordoaren kontra jaurtitzera bulkatzen zituela, harriak indarrez astintzera derrigortuz. Kolpean aparrarekin batera sortutako hotsa laino zarratuarekin nahasian zetorren alde hartara ematen zuten kaleetan barreiatzeko, larrialdietan anbulantzien sirena uluak zabaltzen diren erara.

Kirol-jertsearen kremailera goraino igoko zuen. Erlojuari begiratuko zion. Goizeko hamarrak eta minutu bat ziren, hain justu. Minutu bat lehenago ere begiratu zuela konturatu zen. Bart gauetik ezer jan gabe zegoen, eta sabelean zorriak zituela jabetzen hasita zegoen.

Ez zuen jende gehiegiren artean egon nahi, eta garuneko indarra bizkortzeko antsiaz, hurrengo kafetegira oinez zuzenduko zen. Kafea aditasuna berreskuratzeko erabiltzen zuen; arreta izateko bizkorgarri paregabea maitalea bezalakoa zitzaion. Likido preziatu beltza edan eta gero, adimenean erdi lotan izaten zuena bat- batean etortzen zitzaion, eta, aldi berean, nekeak ekartzen zion beherakada uxatzeko ere lagungarri itzela zuen.

Handik ez hain urrun zegoen tabernara, inoizkoren baten joaten zenera, sartu zen, bertako bezero gehienen begiradei ezikusiarena egitea erabakiz. Ile beltz kizkur eta aurpegi luzangadun emakume atseginak irribarre samurrearekin egingo zion harrera. Irribarreari ez zion garrantzirik eman. Kafea eskatu heinean, barrako beiratean ikusi zuen Geitosta ere ekar ziezaion erregutu zion. Aldamenean zuen egunkaria hartu eta atzetik aurrera zabaltzeko asmoz, begirada zoliaz orriak azkar pasatu zituen, zazpi orri atzerago kafearen artikulu luzea egokituko zitzaion arte. Irakurtzen jarri zen.

- Begira kafeari buruz zer dioen hemen - andrazko zerbitzariari esan zion. Hogeita hamarren bat urteko gazteak barraren atzealdetik beste irribarre bat agindu zion, biziagoa oraingoan, eta bekainak gora eramanean zituen musean dupleekin bezala.

- Zer?

- Interesgarria!

- Zer dio, ba?

- Kafeinak duen egitura kimikoa eta ahalegin handia egiten denean burmuinak bertako zelulak babesteko sortzen duen substantzia antzerakoak ei direla.

- Horregatik izango da guk hainbeste kafe edatearena?

- Baliteke. Begira, hau ere interesgarria da: kafeinaren molekulek zuhurtziaz jokatzen omen dutela dio, burmuinak sortzen duen substantzia horren antzera.

- Zer dio, kafeinaren molekulak zuhurrak direla?

- Hori dio hemen!

- Zeozer izango dute bazterretan hainbeste kafe edateko, ezta?

- Hori, ba!

- Zeren kafea edaten dugu, gero!

Haakonssonek artikulu hartan irakurtzen zegoena aspalditik zekien. Horregatik, kafea behar zuenean neurritz kanpo edaten zuen. Gainera, egunkariko artikulu hartan beste gauza bat ere bazetorren idatzita: kafea edaten dutenek nekez izaten dutela erotasunean jausteko arriskua. Hori ez zekien. Hori irakurri zuenean, nolabaiteko lasaitasuna eta poza hartu zuen, bere garuna jada ez zegoen parrandara joateko moduan eta.

Kafeari zurrupada ematearekin batera, lagungarri gisa, Geitost zati txiki bat ahoratu zuen; gozo zegoen. Komunerako ibilian, abegi ederreko neska katxarroari beste ebaki bat eskatu zion. Konketako kanila zabaldu eta urari irteten utzi zion une batez, jarraian likido preziatua esku biak elkartuta hartu eta aurpegian zabaltzeko, txapla-txapla. Horren ostean eskuak kopetatik burugainerantz eramateko mugimenduarekin ileak atzerantz egokitu zituen, barrutik garbi sentitzerainoko freskatze ahaleginean. Barrara bueltatu zenean marmarra isiltasun bilakatu zen bere presentzian. "Isiltasuna pobreen indarra zela esaten zuenak arrazoi zuen", supituan etorri zitzaion burura. Zail egin zitzaion hura botako zuena nor izan zitekeen gogoratzea. "Chaplin izan zitekeen?" - Alboratu zuen galdera.

Taberna bazterreko mahaian marinel zaharra zegoen eserita. Naufrago Bakartiak esku artean ginez beteriko baso zabal bat zuen, bera bakarrik, urruntasuna begietan luze ipinita, pitean-pitean basokoari

zurrupada arina ematen ziola. Atzamar dorpeekin paper puska tolesten ziharduen itsasontzi txikitxo egiteko antsiaz. Ginaren gainean nabigatzen jarri nahi zuen, aldizka bulkadatxoak emateko, itsasontzixoa kristalaren eremu biribilaren inguruetan kolpatzera behartuz, eta, derrigorrean norabide laburra aldatzean, paper zatiaren mugimenduak sorrarazi zituen uhintxoak olatu erraldoiak zirela pentsatuz ibili zen, segur aski. Handik ez denbora askora, itsasontzia ginean ikusi zuen urperatzen, astiro-astiro, beherantz zihoala, hondora. Gero, erreskatatzeko, ginean gaztetatik maskurtutako hatzetatik bi sartuko zituen, eta begien parean ipinita unetxo batean so geratuz, istant bat baino ez, paper zatia ahora sartuko zuen ez mastekatzeko, begiak ozeanora oso luze jarrita irensteko baizik; burmuina ozeano infinitu bilakatzen zitzaion, behar bada.

Haakonsson Naufrago Bakartiarengana hurbilduko zenean ondoan eseri zitzaion, lepoan eskuarekin fereka leuna egin ondoren zera galdetzeko:

- Zelan dabil, itsasoa?
- Olatu handiak gaur!
- Lema ez galdu, bestela hireak egin dik!
- Nireak aspaldi egin zian!
- Zertan habil?
- Olatuak gidatzen nabilek! Ez nauk ikusten, ala?
- Eta obeditzen diate?
- Beti, bestela irentsi egingen dizkiat. Beraiek bazekitek!
- Gin apurra nahi? –Haakonssonek.
- Egundo ere ez sobera!
- Ondo zegok!

Haakonsson bueltatu zen barrara eta zerbitzariari lehenago eskatutako ebakia non zegoen galdetuko zion.

- Hotz geratuko zitzaizulakoan oraindik ez dizut ipini. Atoan jarriko dizut!
- Bon. Beste gauzatxo bat, andere!
- Zer?

- Naufrago Bakartiari gin apurra eraman eta kobratu neuri.
- Ondo. Kafeak zein ondo egiten dizun, e! - zerbitzariak nolabaiteko hizketarekin jarraitzeko asmoarekin ekin zion. Atsegin zuen Haakonssonekin hitz egitea. Enpatia kontuak izango ziren.
- Bai - inspektoreak erantzun zion, berriketan aurrera egiteko.
- Egunean zenbat?
- Hainbat. Eta zure mutil-lagunak zer esaten dizu? - galdera inolako garrantzirik eman gabe, eta hizketaldia huskerietara eramateko asmoarekin Baiona balio zuenari bota zion.
- Nire mutil-lagunak ez dit ezer esaten.
- Nik esango nizuke.
- Zer esango zenidake? - suabe erantzun zion, barran besoak jarri, eta burua zertxobait hurbilduz Haakonssonek berak soilik entzuteko moduan.
- Iluntzean lanetik ateratzen zarenean kopa bat, eta zure etxean edo nirean larrua. Horren ostean afaltzera gonbidatuko zintuzket.
- Aupa! Baina ni zuretzat oso gaztea naiz! - burua atzerantz bota zuen astiro-astiro, eta eskuak barraren hertzean jarri zituen, bere horretan ekiteko gogotan, baina distantzia ñimiñoa ipiniz.
- Abesti bat datorkit burura.
- Zein abesti?
- Ez dut gogoratzen.
- Abestia ez duzu gogoratzen edo izenburua?
- Izenburua da gogoratzen ez dudana.
- Norena?
- Hori ere ez dut gogoratzen. Alzheimerraren zantzuak-edo izango dira.
- Ziur ezetz!
- Gogoratzen dut hegoaldeko batek abesten zuela, ez dakit ba, Valverde ez ote zen, eta Antton izenez - Haakonssonek garrantzi handirik eman gabe jarraitu zuen.

- Eta abestiak zer dio?
- Maitalea eta printzesaren artekoa da.
- Eta?
- Bada oso gaztea den amorante bat bere printzesa gorteatzeko lotsetan.
- Ta?
- Ba, oraindik gaztetxea zela erantzungo ziola.
- Eta?
- Hamazortzi urterekin gauza bera, eta erantzuna maitemintzeko gaztea zela.
- Polita. Eta?
- Eta berdin. Apur bat aurrerago ezkontza eskatuko zion.
- Ta?
- Aspertzen zuela esango zion, beste batekin ezkonduko zela, eta joateko apaiz.
- Hor amaitzen da?
- Ez.
- Zer gehiago? Gustu hartzen ari natzaio!
- Geroago adarrak, eta kontu horretan, erantzun berdina; etxeoandre jatorra zela.
- Eta nola amaitzen da? Irrikan nago jakiteko!
- Mutilzahar, eta andrea etxeo ateetan aurkituko zuen hartan, erantzuna jakingo duzu zein izan zitekeen?
- Ez dakit ba, esadazu, arren!
- Alarguna zela eta beragan maiz pentsatzen bazuen ere, oheratzeko zahartu zela erantzungo zion.
- O, ez!
- Oraindik ez!
- Bitxia istorioa.

- Bai, ezta? Zu ere gazteegia, orduan?
- Ez. Ni gazteegia naiz zuretzat.
- Lastima! Agur.
- Hurrengoan etortzen zarenean ea zelan nagoen!
- Hizketaldiaren puntu berberera bueltatuko gara?
- Baliteke!
- Agur! –Haakonssonek, begiratu pikaroa aurpegian itsatsita.
- Agur, bihotza! Oraintxe bertan sartuko naiz Interneten abestia entzuteko, irrikaz jarri nauzu eta.
- Oso ondo.
- Agur!

Nora Mweziren etxera hamarrak eta hogeia aldera helduko zen. Hara joandako lehen aldian taxian joan bazen ere, handik aurrera, autobusez egitea erabaki zuen; merkeagoa izateaz gain, erosoagoa iruditzen zitzaion; bazterrak ikusteko hobe. Bestalde, Mwezi andereak bezperan Nora ezagutu zuenetik haren falta sumatzen zuen; haren beharra sentituko balu bezala zegoen Nora noiz agertuko. Nolabait Norak aitarengandik jasotako Burundiko kultura sakontzeko ardura bere gain hartzeko gogoia zuela antzematen zitzaion Mweziri. Gerora ikusiko zenez, Norak asmoa begi onez jaso zion, berak ezagutu ez zuen amonaren ordezkari bezala onartua baitzeukan.

- Kaixo, maitea, bazatoz! Zain ninduzun. –Mwezi, luzetsita, Noraren aurrean eskuzabal agertu zen.
 - Eup! Zelan, amona?
 - Pozik ikusten zaitut.
 - Zu ikusteagatik, amona.
- Besarkadarekin batera musuak.
- Sasoi latzak pozik ibiltzeko, maitea!
 - Bai, baina aurrera egin behar da, amona!

- Bai, nola edo hala aurrera egin beharko da. Nora, gosalduta duzu?

- Ez. Hemen zurekin egin nahi nuen.

- Erdu, goazen sukaldara. Kafea, ogi txigortua, gurina eta marrubi marmelada, edo zerbait gehiago nahi duzu?

- Esan duzunarekin nahikoa dut.

- Hartu hortik kafetera eta egizu kafea.

- Non daukazu kafea?

- Hozkailuan. Kafea ontzira botatzen duzunean bota iezaiozu gainean gatz apur bat, apurtxo bat baino ez.

- A, bai, gatz, gure aitak ere botatzen dio. Amak ez.

Norak kafetera itxi eta sutan ipini zuen. Bitrozeramikako su txikian jarri ostean, Otik 9ra zihoan indarretik, ermamiarekin puntu gorria sakatuz 8ra eramango zuen. Aldi berean, etxeko atean norbaitek hiru aldiz txirrina jotzen zuela entzun zen.

- Nora, zoaz eta zabaldu atea, baina lehenengo behatxulotik begiratu.

- Bai.

- Zoaz, ba!

- Banoa!

Hamar pausu geroago...

- Amona, adineko emakume bat da.

- Kolorea?

- Zuria.

- Zabaldu atea.

Mweziren aginduari men eginez Norak atea zabal zuen, hitz egitera zetorrena auzokoa zela antzemanen.

- Good morning!

- Baita zuri ere. Mwezi etxean al da?

- Bai. Nor zara ba?

- Goiko solairuan bizi dena.

- Ragnhildr, erdu! sukaldean nago! - esaldiari laguna izatearen doinua itsatsiz, bera zegoen lekura joateko esanez Mwezik aginduko zion.

- Kaixo, maitea!

- Ragnhildr!

- Zelan zaude?

Musuak.

- Txarto!

- Horrelaxe gaude denok.

- Beno, badakizu, okerrena itxaroten, eta oraindik mutikoaren berririk gabe. Horrexek ez dit lorik egiten uzten. Ez duzu Nora ezagutzen, ezta?

- Ez, ba.

- Kazetaria da. Bere aita gure lurraldekoa –Mwezik.

- Erdu hona, laztana, eta emaidazu musu pare bat! - Ragnhildr auzoak gogo onez.

- Bai, oraintxe gainera!

Musuak.

- Ragnhildr, gosaldu duzu? –Mwezik.

- Bai.

- Kafea nahi?

- Bai, kafeari sekula ez diot muzin egiten.

Kafetera italiarrean kafeak igotzean ateratzen duen lurrun burrunba hasi zen entzuten. Egina zegoen. Norak sutatik kendu, eta Ragnhildrentzat izango zena kikarara bota zuen ia bete arte. Ondoren,

kafeteran geratzen zena katilu bitan banandu, eta, esne apur bat gaineratu eta gero, biak utzi zituen mahaian.

- Amona, katilura esne apur bat bota dizut; ondo egin dut?

- Bai, ondo egin duzu.

- Hori uste nuen nahiko zenuela!

- Ragnhildr! Egunero nabil kalera irteten, eta bazter guztiak arakatzen, baina ez dut ez Maryren ez Yamweziren errazturik aurkitzen. Txorutzen hasia naiz.

- Egon lasai, Mwezi, izango dena izango da, eta hori ez dago gure esku. Gure esku dagoena jarraitzea da, bilatzen jarraitzea. Nik neuk ere lagunduko dizut horretan. Dena den, polizia ere badabil, ezta?

- Bai. Baina luze iritzita nago.

- Horrela izaten da, bai, itxarotea zein luze egiten den! Emaitzak lehenbailehen izatea gustatzen zaigu baina gehienetan ez da horrela gertatzen.

- Txarrenaren zain nago.

Egongelan telefonoa txistukari jarri zen. Gosaria amaitzear zeukala, Mwezik Norari joateko eta hartzeko agindu zion.

- Bai?

- Ebbe Haakonsson naiz. Zu nor zara?

- Nora Williams.

- Kaixo, Nora.

- Zelan, inspektore jauna?

- Aizu, Mwezi anderea hor al da?

- Bai.

- Esango diozu jartzeko, mesedez?

- Bai, oraintxe jarriko da. Amona, inspektorea da, jartzeko mesedez –Norak ahotsa goratuz egongelatik esango zion. Ez zuen telefonoa eskuetatik laga. Bertan, Mwezi noiz helduko geratuko zen.

- Tori, amona! Telefonoa ematearekin batera, Nora Mweziren ondoan geratu zen. Deia-aren zergatia jakingo balu bezala zegoen, eta inspektorearen hitzen aurrean Mwezirik izan zezakeen erreakzioa nolakoa izan zitekeen begira jarri zen sorosteko asmoarekin.

- Bai?

- Mwezi anderea?

- Bai.

- Ebbe Haakonsson inspektorea naiz. Gorputegian emakume bat dago, eta bertara etorri beharko zenuke ea hildakoa Mary den ala ez baieztatzeko.

- Oraintxe goaz. Yamweziren berririk?

- Horretan gabilta, laster izango duzu berririk.

- Non dago gorputegia?

- Etorri polizia-etxera, eta neuk lagunduko dizuet. Norak badaki non dagoen.

- Oraintxe goaz.

- Oraintxe arte, ba.

- Bai, adio.

- Agur, bai, agur.

Ragnhildrek kikiran zuena ahitzeko tanta bat falta zitzaiola, Nora eta Mwezi sukaldara zuzendu ziren ez gosaria amaitzeko auzoa agurtzeko baizik.

- Nora gorputegira joan behar dugu —espero eta nahi ez zuena entzun berri-eta, Mwezi larri jarri zen. Inspektorearen hitzak laburbilduz esan ondoren agurtu zuen Ragnhildr, eta behin auzoak etxetik alde egitean, Norari zuzendu zitzaion, Mary Nicizanyerena zen ordenagailua motxilan gordetzeko aginduarekin.

- Zer da hau, amona?

- Maryren ordenagailua.

- Eta ezin da etxean utzi?

- Ez. Horregatik ematen dizut zuri motxilan eramateko. Geure bizitza izango balitz bezala gorde behar dugu.

- Ez esan besterik. Neure ordenagailua etxean utziko dut, bai?

- Jakina. Orain goazen, laztana.

- Gorputegira joan behar dugu?

- Ez, polizia-etxera, inspektorea han izango dugu zain eta.

- Goazen, amona.

Inspektorea ez zegoen agindu bezala polizia-etxean, gorputegian baizik. Mwezi eta Nora polizia-etxeko arrera gunean emandako argibideei jarraituta heldu ziren Maryren gorpua zegoen espaziora.

Mwezi anderea ez zen konturatu Mary zenaren gorpua hotz zegoela, bihotza garretan baitzuen. Gorpua musukatzeraz joana zen itsuki. Masaila Maryrenarekin itsatsi zitzaion. Ozenki, "Ai laztana, nire bihotza, joan zara betiko" aldi batean esaten jarraitu zuen. Begiak urtu zitzaizkion baina ez zuen negar-tantarik botako. Euren lurraldea utzi, eta, geroztik ere makina bat zorigaitz ezagutu izanak, segur aski, zirrarak menpean harrarazi zizkion. Hala ere, bizi izango zen artean, bihotzean sartuta zuen arantzak gupidarik eta etenik gabe eztenkatuko zuen. Jaso zuen aurpegia, eta eskua Maryren gorpuaren masailean jarri zuen heinean Haakonssoni begira geratu zen. Negar egiteko gogoa zuela antzematen zitzaion; alabaina, eutsi egin zion. Masailetan behera irristatzean arrasto hezea uzten dutenak haren begietan behin zeharkatu behar izan zuten itsasoa ematen bazuten ere, ez zuen anpulerik isuri. Pairatutako bizitza latzak ez zion utzi.

- Haakonsson jauna, semea?

- Ondo dago.

Inspektorea lepoko zauriko mina gero eta handiagoa zelakoan zegoen. "Hau zelan da posible?", barru-barrutik zetorkion pentsamenduan sufrimendu keinua aurpegian agertzen zuela, ustekabean lasaigarri pare bat ahoratuko zuen. Iturria non zegoen begiratuta zuzendu zen ahoa ur jarioaren behean jartzeko, eta zurrutada luzea, amaigabea, itotzeko bestekoa eman zuen. Ezpainak eskuekin lehortzen zituela berriro begiratu zion Mwezi andereari.

- Agertu da? - Mwezi andereak Haakonssonek ezpainak lehortu zituela ohartuta.

- Bai.

- Non dago?

- Ondo dago.

- Non dago? Esadazu! Arren! –Mwezi bere senetik irtenda, urduri, asaldatuta, Haakonssoni erreguka aritu zitzaion.

- Zaintzen gaude, ondo dago, ospitalean daukagu.

- Goazen!, goazen!, goazen! - zioen andere afrikarrak, haurra salbatzeko segundo baten gora behera izango balu legez.

- Lasai, Mwezi. Umea ondo dago. Joango zarete, baina lasai.

- Amona, oraintxe joango gara - Norak besotik heldu zion eta laztandu egin zuen- . Oraintxe goaz!

- Lasai, lasai, bai, baina goazen - Maryri ezpainetan eman zion musua, eta “Agur, maitea, laster ikusiko dugu elkar gure muinoetan” bota zion azken agurraren erara.

Norak amonaren besoari helduta jarraitzen zuen. Inspektoreari kasurik egin gabe kanporako bidea hartu zuten. Hainbeste oinaze eta atsekabek ez zieten gauzak behar bezala egiten utziko.

- Nora, tori, mutikoa dagoen ospitalea eta gela hemen daukazue idatzita. Gelako ateetan polizia bat dago. Eman txartel hau berari.

Ospitalera heltzeko denbora bakarrik behar izan zuten, gogo mutikoarengan jarria baitzeukaten. Solairura joateko igogailuak non zeuden sarreran galdetu ondoren heldu ziren polizia zegoen ateetara. Haakonssonek emandako txartela lagunik izango ez balu bezala han zegoenari erakutsi ondoren, aurrera egiteko baimenarekin sartuko ziren. Yamwezi Nicizanye mutikoa bere albotik mugitzen ez zen erizainaren txeratan zegoen. Lotan jarraitzen zuen. Ondoko ohean ez zegoen inor. Erizaina altxatu eta sartu berriengana hurbildu zen. Mwezi anderea osorik zegoen. Ez zitzaion nabaritzen gogoaren beheraldira eroria zenik. Mutikoaren ardura hartu beharrak eman zion orekagatik izango zen; ziur. Biak hezi zituen: lehenengo Mary eta gero Yamwezi; ama-emeak.

- Zelan dago? –Mwezik erizainari besotik helduta galdetuko zion.

- Ondo dago. Makal, oso makal heldu da, indarrrik gabe, eta badirudi egun batzuetan jan ere ez duela egin. Zikin-zikin ekarri dute; aurkitu duten bezala. Garbitu ondoren seruma ipini diogu eta, gainera, lasaigarria lo egin dezan. Lo egitea behar du.

- Noiz ekarri dute?

- Lehenengo, nerabeak babesteko zerbitzuan egon omen da, eta handik hona ekarri dute. Hona, itxaron, txostenean agertuko da, bai hemen jartzen du, herenegun arratsaldean ospitaleratu zuten.

- Gaur arte nola ez dugu ezer jakin, ba? –Mwezik, biziki hunkituta, haserretzeko gutxi falta zitzaiola.

- Ez dakit, beharbada ez zutelako jakingo nor zen.

Mwezi anderea mutikoarengana hurbilu zen, eta kopetan musu eman ondoren, albo baterantz mugitu zuen sorbalda-hezur aldea begiratzeko. Eguzki txiki baten antzerako jaiotzeko orina zuela ikusi zion. Ez zuen ezer esango. Supituan, inori begiratu gabe, ohearen ondoan zegoen jesarlekuan eseri zen. Jesarlekua ospitaleetan gaixoaren familiartekoentzat izaten diren horietakoa zen.

- Nora, zoaz bazkaltzeko zerbait erostera, mutikoarekin etxera joan arte ni ez naiz hemendik mugituko eta.

- Ondo dago, amona, oraintxe noa.

- Ekardazu nahi duzuna.

- Bai amona, utzi dena neure kontu.

- Tori, hartu dirua.

- Ez, badaukat dirurik.

- Obeditu, arren!

- Ezetz ba!

- Mesedez, Nora!

- Ondo dago.

Nora gelatik irten aurretik Yamwezi mutikoarengana hurbildu zen musu ematera. Kopetan emango zion. Mwezirekin beste hainbeste egin zuen, baina amonari masailean eman zion. Luze emango zion, errespetuz eta maitasunez.

Nora bueltatu zenean Yamwezik lotan jarraitzen zuen oraindik. Amonarengana zuzendu zuen begirada eta ohe gainean eseri ondoren, nolabait Mweziri hitz egin arazteko, galderaren bat egiten hasi zitzaion.

- Ez da esnatu?

- Ez, oraindik ez.

- Bazkaltzeko esnatu beharko da.

- Bai, baina erizainaren kontua da hori, ezta?

- Bai.

- Eurek badakite zer egin behar duten.

- Bai.

- Urruti aurkitu duzu janari denda?

- Ez, hemen ospitalean dago bat. Txikia da baina nahikoa geuretzat. Gero hitz egingo dugu beharko dugunaz, eta hemen ez badut aurkitzen joango naiz handiagoren bat bilatzera, edo erizainari galdetuko diogu.

- Ondo.

- Sandwich pare bat ekarri dut eta fruta ere bai.

- Ondo.

- A, patata frijitu pakete handi bat, ura, eta bonboi batzuk ere bai.

- Ederto, maitea.

- Amona, Maryk bazuen hobbyrik?

- Bazuen bat; bat, behintzat bai, eta oso gogoko zuena gainera.

- Zein?

- Argazkiak egitea.

- Argazkiak?

- Bai, baina ez edozein eratakoak.

- Nolakoak, ba?

- Argitasunarekin jolastea gustatzen zitzaion.

- Nola da hori?

- Zuk ez duzu argazkirik botatzen?

- Telefonoarekin soilik, eta noiz behinka.

- Maryk hiru-lau makina ditu. Etxean ditu. Oso garestiak dira gainera. Bat nik oparitu nion, Nikon f-501. Bigarren mundu gerrari buruzko film batean egin zen ospetsu. Filmean ikusi zuen, eta geroztik obsesio bihurtu zen berarentzat. Ikasketa hasierako ikasturtean zebilen, eta ikasgai guztiak ekainean gainditzen bazituen neuk oparituko niola agindu nion. Beste guztiak karrete bakoak dira, moderno horiek, digitalak, badakizu. Garestiena lanean hasi eta lehenengo soldatarekin erosi zuen, Nikon D750 reflex digitala.

- Zaletasun aparta, ezta?

- Bai, oso polita. Erretratuak ikusi nahi badituzu etxean ditu horretarako soilik duen ordenagailuan. Pila bat ditu, milaka esango nuke.

- Argitasunarekin jolastea gustatzen zitzaiola esan duzu?

- Bai. Gogoratzen dut behin baino gehiagotan joaten ginela mendira, eta zuhaitzen artetik sortzen diren argi itzalak, badakizu, argitasunaren lainoa harrapatzen ibiltzen zen. Yamwezik bederatzi urte bete zituenean mendi aldean dauden txoko berezi batzuetara joaten hasiko ginen, Xoxobarro aldera, Usineta inguruetara, eta, batik bat Matxinkorta aldera. Han badago pagadi motz baten barnean harrizko antzinako zubi bat, oinetan erreka ur gardena mantso iragaten zaiona. Goizeko lehen orduetan joaten ginen, eta gauera arte han ibiltzen ginen. Gu, Yamwezi eta biok, harat honat ibiltzen ginen bitartean, bera zubiaren ondoan argitasunak goitik behera lainabera geruzatxo noiz ekarriko itxaroten egoten zen. Orduan, inguru ere, badakizu, pagoak, goroldioa, orbela, lurrean barreiatutako zuhaitzen adarrak, eta beste enparauekin berari gehien gustatzen zitzaizkion erretratuak ateratzen zituen.

- Goroldioa esan duzu?

- Bai, goroldioa.

- Atzo jakin nuen zer den.

- Nik ere hona etorri arte ez nekien zer zen.

- Hirian ez zitzaion gustatzen argazkirik botatzea?

- Bai, nola ez. Bakarrik ere ibiltzen zen, baina gehien gustatzen zitzaiona osteratxoren bat egiten genueneko izaten zen. Aurpegi deigarrien atzetik ibiltzen ginen. Baina ez pretty style erakoak, horiek denak baztertu egiten zituen; eskaleenak, arrantzaleenak, pertsona ondo zailduen aurpegiak baizik. Horietakoak zituen gustuko; zerbait adierazten duten horrelakoak; gehienetan bizitza neketsuak ematen dituen aurpegiak. Horiek ziren gustatzen zitzaizkion aurpegiak; badakizu, sinbiosia kontuak.

Yamwezi mutikoa esnatuko zen amari deika. Amonak bazekien umea kontsolatzen. Abilezia itzela zuen berak asmatutako ipuinekin nerabearen burmuina atoan biltzeko. Ez zitzaion asko kostako mutikoaren aurpegian irribarretxo ipintzea.

Bazkal aurretik esnatu zen. Psikiatra eta psikologoa etorri bitartean, amonak, ipuinekin batera, galderak egin heinean laztantzen zion burua, aldizka musuak ematen zizkiola.

- Badatoz - Mwezi andereak.

Psikiatra andrea eta gizonezko psikologoa heldu ziren.

Psikiatra andreak laster alde egin zuen. Bertan geratu zen psikologo gizonezkoak ordu erdi gehiago eman zuen Yamwezirekin solasean. Seiak aldera mutikoa berriro ere lotan geratu zen.

Iluntzean, Bihonen etxera bueltatu aurretik, Norak motxilakoa gogoratu zuen.

- A! amona, ahaztu zait ia-ia: motxilakoa eman beharko dizut, ezta? - Norak Mwezi andereari xuxurlatuz bezala hitz egingo zion. Ez zuen mutikoa esnatzerik nahi.

- Bai, Nora, ekarri, zu etorri bitartean neure poltsan sartuko dut. Baina hori egin aurretik gauzatxo bat egin behar dugu.

- Zer, amona?

- Piztu ordenagailua.

- Oraintxe.

Une bat izan zen ordenagailuak kargatzeko behar izan zuen denbora. Mutikoa zegoen ohearen aldamenekoaren gainean zeukaten.

- Amona, Identifiant?

- Bai, E4AADQENFB.

- Mot de Passe?

- Bai, mmyn10.

- Amona, mot de passe hau aldatu beharko zenuke.

- Zergatik, Nora?

- Asmatzea oso erraza delako.

- Zuk asmatuko zenuke, ala?
- Horregatik diotsut!
- Ea, esadazu.
- Izen propioen lehen hizkiak dira, eta hamarra, Yamweziren urteak.
- Izen propioak?
- Erraza.
- Esan!
- Mari, Mwezi, Yamwezi, Nicizanye!
- Bai, horrela erraz-erraz gogoratuko duzu.
- Bai.
- Ondo?
- Bai. Orain, zer?
- Klikatu ikur hau.
- Bai.
- Idatzi hor.
- Zer?
- Bi Dama eta lau fitxa, eman jatera fitxa bat Dama jateko, eta itxaron.
- Zer gehiago?
- Klikatu ikur hori beste horiek markatzeko.
- Bai, eta?
- Agindu.
- Mwezi, ez zenuke hau egin beharko.
- Zer ba?

- Hau guztia erreta dagoelako.
- Lehenbailehen egin behar da.
- Ados –Norak klikatu zuen, agindutako ikurra sakatuta.

Egina.

- Gauzatxo bat baino ez, Mwezi.
- Zer?
- Polizia-ikerketa dago tartean.
- Eta?
- Dena aterako dutela.
- Ezin izango dute.
- Bai, amona, lehentxeago edo gerotxoago dena jakingo dute. Gomendio bat onartuko zenidake?
- Nola ez ba, maitea!
- Dena berriz egiten hasi beharko zenuke.
- Dena berriro?
- Bai. Ordenagailu berria, izen berriak, pasa hitz berriak, helbide berriak, suebaki berriak, dena egin beharko litzateke berriro, zerotik hasita. Orain arteko guztia dagoeneko erreta daukazu.
- Horraino daude kontuak gaur egun?
- Bai, eta gehiago. Nola jakin dute Mary nor den eta non bizi den?
- Nork hil du ba?
- Mwezi, zuk hori badakizu, eta ni honi guztiari susmoa hartzen hasi natzaio.
- Beno ba, hori egiten hasi beharko dugu, baina etxera itzultzen garenean.
- Zergatik ez zatozte nirekin Haritz Zaharraren Lurraldera?
- Dena daukagu hemen, baina pentsatzekoa da. Yamwezirentzat seguruena horixe izango litzateke.
- Ez izan zalantzarik!

- Bai.
- Hemen dena daukazue arriskuan, bizitza ere bai, Yamwezirena eta zurea, biona.
- Baiezkoan nago. Dena den, poliziak babesten gaitu.
- Hiltzea erraza da, eta polizia saihestea oraindik errazagoa. Dagoeneko jakingo dute Maryk seme bat duela.
- Baliteke.
- Mwezi, amona, beste gauza bat.
- Zer, bihotza?
- Paperak egiten hasi beharko genuke?
- Zer paper?
- Yamwezi semetzat hartzekoak.
- Ez. Ez da beharrezko.
- Zelan da hori?
- Oslora heldu ginenean egin nituelako.
- Mary alabatzat hartu zenuen!
- Bai.
- Ondo, ondo, horrek dena errazten du.
- Beharrezko izango dugun paper bakarra Mary hil dela dioena da.
- Neu arduratuko naiz horretaz.
- Ondo.
- Ordenagailua poltsan gordeko dizut?
- Bai, maitea, sartu hemen, nire poltsan, arren!

Iluntze aurreratuan, zortziak inguruan, Nora alde zaharreko lagunaren etxera bueltatu zen. Bihoni ospitalera zihoala esan nahi zion; Mwezi anderearekin batera umearen ardura hartu behar zuela; nahi zuela.

Kaleko atean giltza sartu baino ez zuen egin indarrez zabaldu zutenean. Barrutik arrapaladan atera zen Nora bultzatuz. Kolpearen eraginez lurrera zihoan unean, erreakzio erreflexuak aginduta-edo, Norak azazkalekin oldartzaileari eraso zion. Alde bateko masaila urratuta utzi zion. Nora lurrean zegoen. Buruan kolpe itzela hartuta zegoen, erdi leloturik bezala. Odol apur bat zerion. Arineketan joanari afrikarra zelakoaren antza hartu zion. Eskuetan ordenagailu eramangarria zeraman. Bihonena zen. Ez zuen zalantzarik. Mina zuen. Ez zuen burua eskuekin ukitu nahi, azazkaletan koloreko pertsona haren odol eta azal apurra zuela uste baitzuen. "Batek daki zer duen horrek" pentsatuz, beste behin instintiboki eskuak burura eramateko joerari eutsi behar izan zion. Minez, lurretik nekez jaiki zen. Gertatua esateko Haakonssoni deitu beharko zion, baina goian zerbait ondo ez zegoelakoaren susmoa zuen, eta poliziarri deitu aurretik etxera igo nahi zuen. Hori egin zuen. Eskailera mailak binaka igo zituen. Heldu zen atera. Zabalik zegoen. Barruan dena hankaz gora. Sofan, ahoz gora, Bihon hila zegoen. Hainbat zaurititik oraindik zerion odola gatzatzen zihoakion arropa blaituetan. Ikaratu zen. Zirkin bat egiteko adorerik gabe, muskuluak gogortu zitzaizkion, eta horrek atean jelatuta gerarazi zuen.

Halako batean, senez-edo, motxilatik sakelako telefonoa hartu eta Haakonsson bilatu zuen. Ezker eskuko hatz erakuslea jarri zuen izen propioan, deitu ipintzen zuen aldean.

- Bai, nor zara?

- Haakonsson inspektorea, erdu mesedez, lehenbailehen!

- Nor zara eta nora?

- Nora Williams!

- Non zaude?

- Bihonen etxean!

- Nor da Bihon eta non da hori?

- Alde zaharrean!

- Kalea eta zenbakia behar ditut!

Norari urduritasunak gainezka egin zion. Ezin zuen han egon. Kalera jaitsi zen. Eskaileratan behera, begi ertzetan sortuz zihoazkion anpulu lodiei ezin eutsirik, negarrari eman zion, zotinka, hasperenka.

Masailatik behera zihoazkion ubidea eginez bezala. Ez zuen akordurik eskumuturrekin lehortzeko. Jendea laguntza ematera hurbiltzen hasi zitzaion, baina ezer esateko adorerik gabe jarraitzen zuen. Haakonsson Hildegarde psikologoarekin pentsatu baino lehen heldu zen. Eskerrak. Laster batean bi patruila autoak kalea ixtera bezala jarri zituzten.

- Nora! Erdu hona! - nolabait babesa eman nahian agindu zion inspektoreak. Besarkatu zuen, eta zer gertatu zitzaion galdetu zion.

- Bihon hil dute, dena odola!

- Non da?

- Hor!

- Solairua?

- Hirugarrena.

- Zein aldetan?

- Ate bakarra.

Haakonsson Bihon Dahl irakaslearen gorpua zegoen solairura bere taldeko beste birekin igo zen. Hildegarde psikologoak Nora indarrez besarkatu ondoren, gertatu berria berresateko eskatu zion. Gulbrandsen detektibea geroago heldu zen, eta Hildegardek adierazi zion nora joan behar zuen. Bigarren solairura igo zenean han ez zegoen inor. Txirrina joko zuen. Eskaileratan gora bertaratzen ziren zientifikokoak hasi zitzaizkion esaten gora joateko.

- Hirugarrena, Dagny!

- Hildegardek bigarrena esan dit eta!

- Hirugarrena, Dagny –zientifikokoek, berriro ere.

- Leloturik bezala nago!

Astiro-astiro igo zituen bigarretetik hirugarrenerako mailak.

- A! zelango egunak daramazkigun, ezta? - Gulbrandsen detektibeak Haakonssoni itaun erara bota zion, nolabait berandu heltzeagatik lekuz kanpo zegoela aditzera eman bezala.

- Bai, hamar urtetan ezer gutxi, eta begira kasu honekin zer datorren. Ilargia?

- Betea. Hori izango da?

Haakonssonek ez zion erantzun.

- Matraka ez zen ateetan hasi –eszena lekua usainduko balu bezala, inspektoreak baieztapen esaldia bota zion detektibeari.

- Ematen du ezetz.

- Bihon etxera helduko zenean, hiltzailea gelatik atera zen; ziur aski, Bihonen gelatik.

- Zein da?

- Hau ez, hori, beste hori ematen du.

- Itxuraz horrela ematen du, ezta?

- Bai, horrela izango zen.

Nora eta Hildegarde gora heldu ziren. Ordurako argazkiak aterata zituzten eta Bihonen gorpua poltsan sartuta. Poltsaren kremailera ixten zeuden. Nora Haakonssoni afrikarrarekin gertatua esaten ahalegindu zen, eta azazkaletan zuena ere ikus zezan erakutsi zion, hitzak ahoskatzerakoan tartailoen erara botata. Haakonsson zuzenean hasi zitzaion galderak egiten. Bazirudien ez zuela segundo bat ere galdu nahi.

- Nora, Bihonekin bizi izan zara?

- Bai.

- Noiztik?

- Igande arratsaldean heldu nintzen, eta berak opatu zidan hona etortzeko.

- Nola ezagutu duzue elkar?

- Bihonen telefono zenbakia egunkarian eman zidaten.

- Zein da zure gela?

- Hauxe, lehena, ezkerrekoa.

- Ondo. Badakizu non egiten zuen lan?

- Bai, unibertsitateko irakaslea zen.

- Bon, bazuen maitalerik?

- Duela ez dakit zenbat denbora eten zuen azkenarekin. A, bai, apenas hilabete pare bat.

- Gizonezkoa ala andrazkoa?

- Andrazkoa.

- Nor? badakizu?

- Epailearen alaba.

- Agmundrren alaba?

- Bai.

- Kakalardo itzela! –Haakossonek bat-batean erlazionatuko zuen dena. “Bihon irakaslea eta Jannicke maitaleak izan baziren, Bihonek eskatuko zion Jannickeri aitak niri dei ziezadala Norarekin egoteko eskatzeko” bat-batean heldu zitzaion.

- Bai, Agmundr eta Agatheren alaba, Jannicke.

- Zer demontre! Preppy style neskatoa. Wasp! Ederra daukagu!

- Wasp? - Dagnyk harridura aurpegia jarrita galdetu zion entzun berria ezin sinetsirik.

- Bai, wasp.

- Waspak hemen? - Hildegardek ere galdera erara botako zuen. Zail egiten zitzairen Oslon waspik zegoela pentsatzea ere.

- Bai, badira batzuk; oso pertsona oldakorrak dira gainera; ez dakit ba, amerikar waspak baino oldakorragoak ez ote diren gainera!

- Nora, lurrera bota zaituen afrikarrak zenbat urte izango zituen?

- Sasoi betean dago. Hogeita seirik ez.

- Argala, lodia?

- Argala, baina aldi berean indartsua.

- Konturatu zara, izan duzu denborarik odolduta zegoen ala ez jakiteko beste? Bihonen ordenagailua zeramala diozu?

- Bai, ordenagailua Bihonena zen. Horretan ez daukat inolako zalantzarik. Odolduta zegoen? Ba, ez dakit, dena bat-batean gertatu da - Norak une batez begiak itxi zituen. Enkontrua gogoratzen aritu zen unetxo bat. Film baten antzera etorri zitzaion gertatua, eta gero jarraitu zuen- . Ezetz esango nuke. Ez zegoen odolez zikinduta, eta ni ere ez nago. Nire gainera etorri da. Zikinduta egon izan balitz odolaren markaren bat izango nuke, zertxobait bederen.

- Bai, baliteke. Baina baliteke pertsona horrek garbitzeko denbora izana. Dagny, esan zientifikokoei Noraren azazkaletatik laginak hartzeko. Nora, horiek amaitzen dutenean, sartu eta garbitu eskuak. Zure gauzak ere bildu beharko dituzu, hemen ezin duzu geratu eta. Hemen ez zaude ondo, eta gainera zigilatu behar dugu.

- Ez nuen hemen geratu nahi. Bihoni Mwezirekin batera umearen ardura hartzera nindoala esatera nentorren.

- Ospitalera?

- Bai.

- Ondo, ospitalea zainduta daukagu. Gerotxoago guk eramango zaitugu hara. Egon lasai, erraz ez zaizu egingo baina... Guk babestuko zaitugu.

- Mila esker. Haakonsson, beste gauza bat. Zuk Mweziren helbidea eman zenidanean whatsapp bidali nion Bihoni. A!, baina ez, ez nion Mwezi non bizi den esan. Barkatu.

- Bon. Emadazu Bihonen zenbakia.

Norak eman heinean, Haakonsson berean Bihonen telefonoaren zenbakiak sakatzen hasi zen. Bihonen telefonoa nonbait joka jarri zuen.

- Ba, telefonoa ez dago hemen, nirea deika ari da eta. Norbaitek lapurtu dio. Afrikarra izango zen?, edo nor? Bon, Dagny, orain azkar ibili behar dugu; eman agindua, libre dauden guztiak has daitezela hemengo inguruko paperontzi eta zakarrontzi guztiak arakatzen.

- Oraintxe bertan!

- Beste batzuk jarri afrikarraren atzetik, norbaitek ikusiko zuen, ba? Hemen, Oslon, beltza eta ordenagailu batekin alde zaharretik, norbaitek ikusiko zuen, ba! Ilunabarra sartuta dago baina...

- Ados.

- Hori hoberena gerorako ez uztea da. Gero ere egin beharko dugu, eta oraintxe bertan egiten bada, hobe. Hiltzailea odolez zikinduta egon daiteke; beraz, gerritik gorakoa, edo botatzen du norabait, edo jakin behar soinean zer zeraman eta buelta ematerik zion.

- Bai, banoa!

- Itxaron, begiratu dezagun orokorrean. Non sartu dezakegu hilketa hau? Honetan guztian Bihonek zer egiten du? Zein da falta zaigun pieza hori?, zeren hau ez da ahokatzen, ez baita ahokatzen, ez da sartzen ondo. Zerbait ihes egiten ari zaigu. Zergatik Bihon?

- Ez dakit, ba!

- Kointzidentzia hutsa?, badu Mary Nicizanyeren kasuarekin zerikusirik?, pasio-hilketa?, bekaizkeria?, gorrotoa?, jeloskorra zelako? Jeloskorra izatea agerikoa litzateke. Galdera horiei guztiei erantzuna eman behar diegu. Badugu nondik ibili. Bon, zoaz!

- Bai, banoa, behetik koordinatuko dut dena.

- Ondo, laster arte. Dagny, beste gauza bat, ahaztu zait: deitu forentsea eta esan beste kasu bat duela, baina bihar goizean egin dezakeela. Bihar deituko dut.

- Alfhild forentsea?

- Bai ba! Nor bestela? Horixe da gure forentsea!

- Beste edonor.

- Ez, ez, Alfhild nahi dut, ez dut besterik nahi.

- Oraintxe deituko dut. Banoa.

- Bon, behean ikusiko dugu elkar.

- Bai.

- Dagny, beste gauza bat: hartu duzu Bihonen diruzorroa, edo katanarrua, edo dena delakoa?

- Bai.

- Ba, badakizu zer egin behar den.

- Bai. Taldera etorri berria oraintxe bertan deituko dut, eta Bihonen gurasoen helbidea bilatu dezala. Hori egin beharko da, ezta?

- Bai, baina ez zaitez zu joan, agindu norbait.

- Horrela egingo dut, baina gerotxoago. Behean itxarongo dizut. Aizu, Ebbe, ahaztu baino lehen: balistikokoen txostena mahai gainean utzi dizut.

- Zer dio bala-zorroei buruz?

- Txinan egindako pistola batenak direla, 77B modelo batenak. Txostenak dio pistola handia eta astuna delako txinatarrek esportaziorako egokitu dutela. Sistema oso berezia duela, eta oso azkar muntatu daitekeela, eta esku batekin soilik. Baina ondo maneiatzeko tiratzaileak atzamar luze eta indartsuak izatea komeni dela. Beste gauzatxo bat ere badio, eta uste dut garrantzitsua dela: zera, katuak ez diola uzten tiratzaileari oso punteria fina izaten; duen itxuragatik izango da.

- Ederto, bulegoan begiratuko dugu hobeto.

- Zuri tiro egindakoarena?

- Ikusiko dugu.

- Ondo, banoa behera.

- Bon.

Behean ikaragarritzko zalaparta zegoen. Auzotarrak gertatu berri zena ezin sinetsirik arduratuta zeuden. Nolabaiteko elkartasuna agertu nahian, bertan egoteko asmo trinkoa agertzen zuten. Haserre zeuden. Hain herrialde baketsuan horrelako kontu batek zeharo aztoratuta zituen.

Ehorztetxeok Bihon Dahl irakaslearen gorpua gorputegira eramateko poltsa batean sartuta jaitsi zuten. Eskailera estuak nekagarri bihurtu zuen goitik behera jaisteko lana.

Trumoi hotsa. Zegokion sasoiaren baino lehenago burrunbaka heldutako doinua bertan pilotutako auzotarrek harriduraz hartu zuten. Mendi liluragarritik tximistekin batera zetorren. Supituan, auzokoak babesa bilatzera behartuz, kazkabarra bortizki hasi zuen goitik behera, une batetik bestera kalea zuri-zuri janzteko asmoarekin. Thor handiaren mehatxua zitekeen. Segur aski, aldarte txarra agertuz egindako agerraldia justizia eskatzekoa izan zen.

Goizaldeko ordu biak etorri ziren. Dagny Gulbrandsenen deia heldu zitzaionean Haakonsson inspektoreak bulegoko paretan izan zituen begiak jarrita. Deia behin baino ez zuen entzun.

- Esan, Dagny - erantzun zion. Itxaroten zegoen.

- Ebbe, zakarrontzi batean kirol- jertse odoldua aurkitu dute biribilkatuta, eta barruan sukaldeko aizto handi bat, hau ere odolez blai.

- Nork dauka aiztoa?

- Nik daukat. Plastikozko poltsan sartu dut.

- Inork ukitu du?

- Ez.

- Bon. Ekarri dena hona. Arren, ez galdu bistatik! Zure eskuetan soilik, entzun?

- Bai.

- Etorri bulegora, hemen nago eta.

- Oraintxe noa.

- Bon.

- Bai.

Dagny Gulbrandsen detektibea bulegora tentsioan heldu zen. Kirol-jertsea eta aiztoa bakoitza bere plastikozko poltsan sartuta zekartzan. Artegatuta ematen zuen, nolabait kontuak norantz zihoazen jakingo balu bezala.

- Ebbe? - Dagnyk sarreratik deitu zion.

- Bai, neure langelan nago.

- Kaixo, Ebbe.

- Nekatuta, Dagny?

- Oraindik nahiko fresko.

- Horrela hobeto - Haakonssonek besteak zekartzan poltsei begiratu.

- Hemen dituzu.

- Inork ukitu ditu?

- Ezetz ba!

- Odola oraindik fresko dago.
- Bai.
- Non aurkitu dituzue?
- Agmundr epaile jubilatuaeren etxerako bidean.
- Susmatzen genuena.
- Bai, uste dut kontuak horrantz doazela.
- Kosta egiten da sinestea, baina...
- Hala da.
- Zientifikokoak deitu ditut eta honantz datoz. Bi ikerketa egingo dira: bata gurea eta bestea eurena. Aiztoko hatz-markak hemen aterako ditugu, eta, gero, aiztoa beraiek eramango dute euren laborategira, beste guztiarekin han jarraitzeko. Hatz-markak ditugunean, guk eta hemen, nortasun agirikoekin alderatuko ditugu. Nor den jakin behar dugu.
- Ez zara fidatzen ala?
- Botere indarrak bueltaka!
- Susmatzen dena baldin badator, zer?
- Susmatzen duguna egia bihurtzen bada, pentsaezinezkoa etorriko zaigu, eta eragin indar bortitzetan bilduta, gainera - Haakonssonek aldekoetan eta kontraoetan oldoztu ondoren arduratuta gehitu zion.
- Indarrak bakarrik?
- Areak gehiago ere bai.
- Presioa esan nahi duzu, ezta?
- Hain zuzen ere, horixe bera zen esan nahi nizuna.
- Argi daukazu!
- Etor dakigukeenari eusteko prest? –Haakonssonek, Gulbrandsen detektibeari.
- Sobera ere badakizu, baietz.
- Lana galduta ere?

- Orain daukagun lana galtzea aukeran dator - Gulbrandsen detektibeak, zetorkien kolpe bortitzaz erabat konbentziturik.

- Baliteke gela ilun batean euliak harrapatzen amaitzea!

- Ez litzateke okerrena izango.

- Lagunek baztertu egingo zaituzte.

- Horiek ez lirateke lagunak izango.

- Horretarako prestatuta zaudela uste duzu?

- Ez dakit horretarako sekula inor prestatuta egon daitekeen.

- Bai, hori horrela izaten da. Hortik behin pasatu ondoren jakiten da ordaindu den prezioa ordaintzea merezi izan duen. –Haakonssonek, hausnarketaren amaieran.

- Horregatik esan dizut esandakoa.

- Sekula ez gaudela horrelako kontu baterako prest, ezta?

- Hori da, baina...

- Baina zer?

- Zuzena dena egin behar dela.

- Ondorioak latzak izanda ere?

- Ondorio latzak izanda ere.

- Nik ere horrela pentsatzen dut - Haakonssonek arnasa sakon hartu zuen.

- Zer?

- Prestatuta zaudela!

- Hori uste dut.

- Hortik aurrera kontuak ez dira samur ipiniko.

- Kolpeari eutsi beharko diogu.

- Bortitza izango da.

zortzi

Goizeko zortzietan enbatak gogor jotzen zuen kristalen bestaldetik. Aldizka txingorra agintzen zuela, aurpegi latza agertuz zebilen, kanpora ateratzeko gogoeta beldurgarri bihurtzen zelarik. Seguruenik, gainaldean atorra zurian bildutako haitz irmoetan jesarrita, egurats puritanoa saihestu nahian ibiliko zen.

- Thor ez da jabaldu –Haakonsson inspektoreak leihoaren ondotik kalera begira zegoela bota zion.

- Ez, haserre dabil.

- Ea, Dagny, zientifikokoehexhetasunak.

- Bai. Beno ba, atzo esan nizunarekin hasiko natzaizu.

- Has gaitezen bala-zorroekin.

- Bai. Zu tirokatzeko erabili zuten pistola Txinan egindako bat da; 77B modeloa. Txostenak dio pistola handia eta astuna delako txinatarrek esportaziorako egokitu zutela. Sistema oso berezia duelako oso azkar muntatu daitekeela, eta esku batekin soilik gainera, baina ondo maneiatzeko tiratzaileak atzamar luze eta indartsuak izatea komeni dela. Beste gauzatxo bat ere badio, eta uste dut garrantzitsua dela: zera, katuak ez diola uzten tiratzaileari oso punteria fina izaten; duen itxuragatik izango da.

- A, hori!

- Horregatik izango da zu urratu baino egin ez izana.

- Hori da dena?

- Ez.

- Zer gehiago.

- BMWan agertutako afrikarrak zeukan pistolarenak ere bidali dizkigute.

- Zer diote?

- Pistola 77B.

- Txinatarra esportaziorako?

- Bai.

- 9x19 mm. Parabellum?

- Bai.

- Made in Txina by Norinco?

- Bai. Hemendik aurrera da interesgarriena.

- Zer?

- Zu tirokatutako balen bala-zorroak pistola horrekin botatakoak direla.

- Pistolan dauden hatz-markak?

- Hildakoarenak dira.

- Beraz, atzean zihoanak kokotean tiro egin ostean, pistola garbitu eta hildakoari eskuineko eskuan ipiniko zion.

- Bai. Ez dago zalantza izpirik.

- Eta zalantzarik gabe esan daiteke gutxienez hiru zirela ere. Bestela atzekoa ez zen atzean joango, kopilotu baino.

- Bai, beste era batera izateak ez luke zentzurik izango.

- Hori ba - inspektoreak baieztatuko zuen.

- Eta zergatik hil dute? –Gulbrandsen detektibeak.

- Guri eman digute.

- Zergatik?

- Nola nahi ere, garbi dago ni nor naizen jakin dutela, eta bestetik, irteten ari dira. Gainera, erasotzaileak babeslekua erre du. Han ezin dute ezer egin. Nahi eta nahi ez, gu etxe horia zelatatzen gabiltzala susmatu behar dute, eta ez badute susmatzen, edo gu oso lan ona egiten gabiltza, edo eurek artaburu itzelak dira.

- Hiru gauza aldi berean, galdu naiz. Nola da hori?

- Gure kontra ez dabiltzala argitzearren-edo, niri eraso zidana eman digute. Horretarako, erasotzailearen hatz-markak dituen pistola ere eman digute. Arazo bat kendu dute gainetik.

- Nola da hori?

- Bai, arazo bat kendu dute gainetik. Beraiek ez dakite guk zer dakigun, eta baliteke eurek pentsatzea erasotzailea eta pistola emanda, guk bertan behera utziko dugula kasua. Esaten ari zaizkigu erasotzailea hildakoa dela. Eta hori bakarrik ez, beraiek ez dakite Mary Nicinzayerekin erlazionatzen ditugula.

- Eta hildakoari tiro egiteko nola kendu diote pistola?

- Talde burua atzean joango zen eserita, eta eskatu egingo zion.

- Horrela, besterik gabe?

- Horrelako talde militarretan talde burua Jainkoa da.

- Eta irteten ari direla diozu?

- Bai. Hil dutena ez zuten ezertarako behar. Gainera, beste bat ere hilik agertzea ez litzateke arraroa izango, taldea hirukoa bada behintzat.

- Zergatik?

- Egin behar zutena egin dutela ematen duelako. Hortaz, alde egiteko prestatzen ari dira. Alde egiteko errazago izango du berak bakarrik alde egitea, bestearekin batera baino. Hemendik alde egiteko plana izango du, eta ondo pentsatutakoa izango da gainera. Ziur nago buruak taldeko besteak sobera dituela. Hemendik aurrera talde buruarentzat arriskutsuak izan daitezke. Jausten badira dena aitortu dezakete. Hiru badira, bat sobera geratzen zaio. Beraz, oker ez banago, beste bat ere hilik agertuko da – Telefonoak jo zuen. Haakonssonek bai erantzuteko lasai hartu zuen.

- Bai - lehor atera zitzaion.

- Ebbe, Alfhild forentsea telefonoan - Deia harrera gunetik zetorkion.

- Hartuko dut. Alfhild, zer moduz?

- Betiko martxan.

- Berririk bai?

- Horrexegatik deitzen dizut, bestela zertarako, pikutara bidaltzeko?

- Ia-ia, zer daukazu.

- Badaukagu zerbait. Bihonen gorpuaren gorabeherak ditugu. Denak ez, baina gauza asko bai.

- Eta beltzarenak?

- Ere bai.

- Ondo. Oraintxe goaz.

- Agur.

- Adio.

Haakonssonek Dagnyri zuzenduko zion begirada.

- Dagny, goazen, gorputegira joan behar dugu.

- Alfhild izan da, ala?

- Bai.

- Goazen. Ebbe, itxaron apur bat, komunara joan behar dut eta.

- Pixalarri?

- Lehertu beharrean nago.

- Bon.

- Berehala nator.

- Ez hartu presarik.

- Zer ba?

- Begira kanpoan zer ari duen goitik behera.

- A, ondo.

- Bon.

Haakonssonek Bihon Dahl irakaslea supituan ekarri zuen gogora, eta, pentsakor, kasuaren grafikoa zegoen paretari begira jarri zen. Hormara hurbiltzeko jaiki zen besaulkitik. Zerbait ez zuen ondo harilduta ikusten.

“Bihon etxera sartu zenean erasotzailea etxe barruan zegoen. Une hartan afrikarra barruan izatea kasualitate handiegia zitekeen. Gainera, zein izan zitekeen Bihon Dahl hiltzeko izan zezakeen motibazioa? Ordenagailua lapurtzea soilik nahi bazuen, lapurtu eta alde egingo zuen. Zazpi labankada

ematea ez da horiek egiten dutena. Matxetearekin lepoa moztzen dute eta kito. Horretarako ebaki soil bat baino ez dute egiten. Basatiak dira; trebatuta daude horretan. Gainera, irakaslearen etxeko sarraila ez zegoen bortxatuta". Haakonssonek kontu horiek guztiak buruan bueltaka, kiribila eginez zituen.

-Hausnarketan jarraitzen duzu?

- Uste dut Bihon Dahl irakaslea hil zuenak etxeko giltzak izango zituela - oldoztu zuen esan aurretik.

- Egon naiz horretan pentsatzen - Gulbrandsen detektibeak seriocki.

- Eta?

- Zeuk diozuna, sarrerako atea ez zegoen bortxatuta; beraz, logikoa da pentsatzea, irakaslea noiz etorriko itxaroten, barruan egongo zela.

- Bai. Bagoaz?

- Horrela, zauden bezala joan nahi duzu, ala?

- Zer ba, txarto nago, ala?

- Begiratu kanpora.

- Kontxo. Thorrek seriocki jarraitzen du!

Dagny Gulbrandsenek bere langelan anoraka ipini zuen, eta, jarraian, sarreran, bere zain zuen inspektorearen ondora hurbildu zen.

- Bagoaz - inspektoreak. - Detektibeak ez zion erantzun, ez zuen nagusia hausnarketatik erabat esnatzea nahi, eta bide osoan elkarri ezer esan gabe joan ziren. Egia esan, kalean euri-jasa itsua ari zuen, eta bakoitzak nahiko lan zuen guztiz blaituta ez amaitzeko. Gorputegira heldu zirenean Alfild forentsea euren zain zegoen. Eskuak gorpua zegoen ohatilaren gainean jarrita zituela, sartu berriak agurtzeko burua soilik bueltatu zuen. Ez zen agur sutsua izan. Tramite hutsa.

- Kaixo, Ebbe eta Dagny.

- Bai - erantzun zion Gulbrandsenek, Haakonsson gorpuari begira mutu geratuta baitzegoen. Harako tarte osoa egin zuen bezala zegoen, hari matazan tratatuta bezala. Alfild forentseak ez zion jaramonik egin, sobera ere jakin baitzekien horrelakoetan bakean uztea zela onena, eta solaskide Dagny Gulbrandsen detektibea hartu zuen. Berari hasi zitzaion azalpenak ematen, ardua berea izan zitekeela pentsatuz bezala.

- Ez da beharrezkoa izango nola hil den esatea, ezta?
- Suposatzen da - detektibeak erantzun zion.
- Dena den, odol ustu egin zela esango dizut, eta horren ondorioz badakizu zer gertatzen den, ezta?
- Alfhild, hieroglifikorik ez! Gauza argiak behar ditut gaur.
- Gau gogorra?
- Bai, oso gogorra, eta etorriko direnak tankera berdinekoak izango diren beldur naiz.
- Esan nahi nizun horrenbeste badakizula, maitea!

Alfhild eztitsu zebilen. Arraroa. Haren barnean zerbait ez zebilen ondo, edo akaso zitekeen biak emakumeak izateagatik. Segur aski, aireak horrantz joango ziren.

- Bai, baina zure ahotik entzun nahi dut.
- Ba, horren ondorioz bihotzak huts egin diola.
- Beraz, hutsegite horren arrazoia?
- Labankadak, maitea.
- Zenbat labankada?
- Zazpi, eta ez dira oso sakonak.
- Zer esan nahi duzu, ez direla oso sakonak esatearekin?
- Labana erabili duena ez dela oso indartsua.
- Zergatik?
- Bon, Haakonssonek esaten duen bezala, baliteke hiltzailea emakumea izatea.
- Zergatik?

- Oraintxe argituko dizut, maitea. Gauza bat izan behar duzu kontuan, eta zera da: hiltzaileak hiltzea nahi duela, eta ez besteari labanarekin laztanak egitea. Horretarako, hiltzaileak labana bortitz erabiltzen du. Hau guztia esateko bi gauza izan ditut kontuan, nahiz eta esango dizuedan hau esatea ez dagokidan niri. Baina esan diezazueket eta aurreratuko dizuet, bata, labana oso zorrotz dagoela. Bai, bai,

zientifikokoei galdetu diet. Eta bestea zera da: irakaslearen arropak labankadari ez diola erresistentzia handirik jarri. Kirol-jertsea, eta oso erabilia; gastatuta dago. Barrutik kotoizko kamiseta mehea.

- Labankadak nondik norakoak dira? - Zegoen egoeratik iratzartuz, Haakonssonek gibelean zuen Alfhildi galdetuko zion.

- Eskuinetik ezkerretara doaz.

- Beraz? - jarraituko zuen Haakonssonek.

- Beraz? Beraz, badakizu zuk zer den beraz hori.

- Horixe, hiltzailea ezkertia dela –Haakonssonek.

- Argi eta garbi - erantzun zion Alfhild forentseak.

- Nola da hori? - Gulbrandsen detektibeak entzun berria ezin ulerturik galdetu zien.

- Dagny, aldatu ikuspuntua! - Alfhild mediku forentseak segundo pare batez begietara begiratu ondoren agindu zion.

- Karrerako lehen ikasturtea, ikuspuntua, Dagny! - Haakonssonek, oraindik gorpuari begira.

- Nola da hori? –berriro ere Gulbrandsen detektibeak.

- Hiltzailearen tokian zaude. Jarri zaitetz Bihon Dahl irakaslearen lekuan. –Haakonssonek, berriro.

- A, zer tuntuna! Ni ere! Orain bai, orain ikusten dut.

- Bon.

- Marisorgina? - detektibea albaintzen ari zen.

- Horra begiratu beharko dugu - begiak gorpuaren zaurietan finko jarrita zituela erantzun zion Haakonssonek.

- Alfhild, besterik?

- Bai.

- Zer?

- Haurdun zegoela.

- Zelan? - aldi berean Haakonssonek eta Gulbrandsenek, entzun berria ezin ulerturik.

- Horixe, argi eta garbi, haurdun zegoela.
 - Ez da posible, ezin liteke - Gulbrandsen detektibeak.
 - Maite laztan hori, zalantzan jartzen duzu nire profesionaltasuna, ala?
 - Ezta inolaz ere. Neure buruarekiko gomutan nenbilen, eta badakizu batzuetan huts egiten dudala.
 - Emakumezalea izateak ez du esan nahi bietara egingo ez zuenik.
 - Zelan dakizu zuk emakumezalea zela - Haakonssonek.
 - Aizu! Mesedez, Haakonsson handi hori! Mesedez! Bizitza osoa daramat forentse lanetan. Horrenbeste badakigu, ze demontre, eta zer kakalardoren adar dakarzu zuk hona orain!
 - Berriro harrituta utziko gaituen besterik? – Haakonssonek.
 - Ez, horixe da dena.
 - Eta beltza? – Gulbrandsenek.
 - Beltza, arraioa, ahantzia nuen!
 - Zer daukagu beltzari buruz? – Haakonssonek, xehetasunen beharrez.
 - Etxon! - inspektorearen hitzak entzun bezain laster Alfild berotuko zen. Zeuden leku osoan durundi eginez itxaroteko agindua garrasia bezala atera zitzaion ahotik.
 - Itxaron bai, baina...
 - Segundo bat ere ezin etxon, e!
 - Bi ere bai baina... –Haakonsson adarra jotzeko saltsari bueltak ematen.
 - Etorri, kontxo! –forentseak hozkailuko ohatila erakarri zuen, eta gorpua estaltzen zuen maindirea hildakoari gaineratik kendu zion-. Hemen daukazue.
 - Ea Alfild has hadi –Handik alde egiteko ahaleginean gaineratu zion Haakonssonek.
 - Kokotean tiroa. Bat. Hemen duzue bala.
- Dagnyk bala plastikozko poltsatxoan sartu zuen.
- Bederatzikoa –Haakonssonek, inolako zalantza izpirik gabe baieztatuz.

- Bai - Dagnyk nagusiak egin berri zuen baieztapenari supituan eta ziurtasun osoz erantzun zion.
- Zer gehiago? - Haakonssonek begirada irmo, lehenbailehen amaitzearren-edo, mediku forentseari galdetu zion.
- Balak egin duen bidea eskuinetik ezkerrera egin duela eta apenas hamar zentimetrora egin diotela tiro.
- Tiratzailea eskuina da.
- Ez nuke zalantzarik izango. Argi dagoena da eskuinetik ezkerretara egin diola tiro.
- Xehetasun guztiak txostenean?
- Astuna haiz, gero!
- Noizko?
- Nozko, nozko, nozko, beti berdin, atzoko, ostia!
- Adio, ba!
- Agur, bai, agur, kontxo! Azken hori guztia Haakonssonentzat da, ez zuretzat, maitea.
- Dagny, goazen jarraian Agmundren etxera, Jannickerekin egon behar dugu eta. Lehenengo berari egingo diogu galdeketa eta gero unibertsitatera joango gara.
- Bai, nik ere horrela ikusten dut. Bata zein bestea egin dezakegu lehenik. Berdin dio. Biak egin behar dira. Baina hobe Jannickerekin hasten bagara.
- Baina itxaron, lehenengo bulegora igo behar dut, gauzatxo bat hartu behar dut han eta. Berehala nator.
- Laguntzea nahi duzu?
- Ez, ez da beharrezkoa, itxaron hemen.
- Bai, hementxe itxaroteko moduan nago, ez duzu ikusten zer dagoen botatzen goitik behera, ala?
- Harrera gunean?
- Hor bai.
- Bon.

Haakonssonek ez zituen apenas segundo batzuk behar izan langelara sartu eta harrera lekura bueltatzeko. Berehalakoan gertatu zen.

- Eraman zuk autoa - Dagnyri agindu zion.

- Ondo dago.

- Telefonoz deitu nahi dut.

- Ebbe, zer izan da hori, langelara sartu irtena egitearena, ez dut ulertzen.

- Laster ikusiko duzu!

- Zer trikimailurekin zabilta?

- Etxon!

- Zuk ere Alfhilden ipar mendebaldeko aldaeran?

Kar-kar-kar.

- Badut pazientziarik!

- Horrela hobeto!

- Bai, ezta?

- Askoz ere hobeto.

- Epailearen etxean jakingo dut?

- Izan epe apur bat.

- Ados.

Epailearen etxerako bidean Haakonsson inspektoreak Agmundr epailea deitu zuen.

—Hobe telefonoz deitzen badut. Ezustekoa ematea okerragoa izango litzateke. Epaile hauek badakizu zelangoak diren, ezta?

- Sobera ere bai.

Epailearen etxean telefonoa joka hasi zen.

- Bai? —Agathek, epailearen emazteak, erantzun zuen.

- Kaixo, Agathe. Agathe zara, ezta?

- Bai. Zu nor zara?

- Ebbe Haakonsson inspektorea.

- Kaixo, Ebbe, zer moduz?

- Ondo eta zuok?

- Gu ere ondo.

- Aizu, Agathe, Agmundr hor al da?

- Bai, hemen dago. Berarekin hitz egin nahi izango duzu, ezta?

- Bai.

- Oraintxe jarriko da - epailearen emazteak eztiki hitz egiten zuen. Agathek mintzatzeko maneratan ere agertzen zuen bere izaera otzana. Ahotik musika eztia aterako balitzaio bezala entzuten zen. Haakonsson inspektoreak telefonoaren bestaldetik, bai hitza aditu zuen.

- Agmundr, Ebbe Haakonsson naiz.

- Bai, zuk esango didazu ba!

- Bueltarik eman gabe, zuzen hitz egingo dizut. Bihon Dahl irakaslea hilda aurkitu dugu, eta zure alabari hiru-lau galdera egin nahi genizkioke.

- Erailketa izan da?

- Bai. Zalantzarik gabe.

- Jannicke susmagarria da?

- Ez, baina zerbait esango digulakoan gaude, itsu gaude eta.

- Etorri.

- Heltzear gaude.

- Orain arte, ba.

- Bai.

Txirrina jotzea nahikoa izango zuten, bat-batean behean atea zabaltzekoa izaten den doinu elektrikoa entzuteko. Haakonsson inspektoreak txirrina berriro jo beharra izan zuen ez baitzuen gogoratzen zein solairutan bizi ziren. Txirrina jotzeko botoiaren ondoan epailearen izena eta abizena zeuden idatzita, ez solairua.

- Bai?

- Solairua?

- Hirugarrena.

- Ados.

Goian hirurak zeuden itxaroten, hirurak hainbesteko zorigaitzaren aurrean aurpegi serioaz jesarrita.

- Ea etorri aurrera, sartu - epaileak agindu zien, aitaren agindua entzun ahala emazteak eta alabak sarreratik egongelarantz egiten zutela.

- Nire emazte Agathe ez duzue ezagutzen, ezta?

- Kaixo, Agathe, Ebbe naiz, eta hau Dagny Gulbrandsen detektibea.

Musuak.

- Kaixo, Jannicke, - eskua eman ahala Haakonsson inspektoreak agurtu zuen. Jannickek sorbaldan ile bat zuela konturatu zen, eta aukera paregabea zuela pentsatuz, ausardiarekin, inolako lotsarik gabe eta inori begiratu gabe, zera esan zion:

- Ile bat.

Haakonsson inspektoreak bi hatzekin hartu zuen ilea, eta lurrera botatzeko ahaleginean, eskua hiru-lau aldiz astindu ondoren, Agmundr epailearen beste aldera zuen poltsikoan sartu zuen, ezer gertatuko ez balitz legez.

- Jannicke, hau Dagny Gulbrandsen detektibea da. - Haakonsson inspektoreak aurkezpena Agmundrek izan zitzakeen zalantzak uxatzeko gogoarekin egin zuen. Hizketaldiari jarraipena eman nahi zion, nolabait era horretan ilearen kontuari garrantzia kentzeko eta ahantziko zelakoan, nahiz eta soro-muxarraren begiradapean, soro erein berrietan txoriak uxatzen diren bezain baldar egin zuen.

- Kaixo eta kaixo, - elkarri eskua eman ziotenean.

Egongelako besaulki eta sofatan eseri ziren. Agathek bisitariak adeitasun handiz hartzeko ohitura zuenez, ohi bezala, kafe gonbita egin zien. Erantzuna ezezkoa izan zen, leporaino zebiltzala, eta oraindik beste hiru lekutara joan behar zutela, eta horrelakoak erabiliz aitzakia legez. Inori pentsatzeko betarik eman gabe, Haakonsson inspektorea supituan hasiko zen hitz egiten. Beti egiten zuen bezala egin zuen, zuzenean harira joanda.

- Ba, esan dizudana, Agmundr, Bihon Dahl irakaslea hilik agertu da.

- Non izan da? - epaileak bere alabaren laguna hilda zegoela oraindik ezin sinetsirik galdetu zion. Aurpegia latz zuen ipinita. Zalantzarik gabe, berriak latzikara sortu zion eta, horren kausaz, inspektoreari aldika begiratu, eta besteen aurpegietan ere parada txikia eginez, begiak etengabe mugitzen hasi zen. Martxa frenetikoan jarri zitzaizkion, nolabait barrutik menderatu ezina egin zitzaion amorrua bueltaka izango balu legez.

- Bere etxean, alde zaharrea.

Halako batean, Agmundr zegoen egoeratik suspertzen hasi zen. Albisteak aurpegia erabat itxuragabetu zion, eta gainera etor zekioken karga astunegia izango zela barruntatzen bezala-edo hasi zen:

- Nola izan da?

- Labankadaz. - Haakonssonek labankadaz esan zuenean, Jannickeren begiak, ordura arte Dagny Gulbrandsenenetara zuzenduta tentsioan zituenak, beheara joan ziren, alfonbran finko ipintzeko; senak huts egin zion pentsamendua bizipenetan jarritz. Haakonsson berehala jabetu zen gaztearen begien mugimenduaz.

- Sufritu du?

- Asko.

- Nor izan da madarikatua?

- Itsu gaude, Agmundr.

- Aizu, Jannicke, zerbait galdetu nahi genizuke.

- Bota –txolarreak ur tanta edan ondoren mokoa gora eramaten duen legez agindu zion Jannicke.

- Zu Bihonen lagun mina izan zara, ezta?

- Nire harreman pertsonalak nireak dira, eta ez dut hitzik egingo, ez orain ez inoiz. Ez dira zuon kontuak

- Jannicke ahots txistukaria zuen, airea mihiak eta ahosabai aurreko albeoloak sortutako bide estutik

aterako balitz bezalako; zalantzarik gabe, tonua apur bat gehiago igoko balu etxeko beirateria erabat suntsituko zatekeen.

- Zure maitalea izan dena hila dago. Bere heriotza baliteke Mary Nicizanyeren erailketarekin erlasionaturik egotea, eta niri egindako erasoarekin ere bai. Hori gure kontua da.

- Epaile batek bakarrik behartu nazake hitz egitera, eta hori zuok badakizue. Baina hori gertatu aurretik atxilotu beharko nauzue, eta gero auzipetu.

- Beharrezkoa bada egingo dugu, Jannicke anderea. Hilketaren susmagarri izateagatik atxilotu zaitzakegu, eta galdeketa egiteko polizia-etxera eramán. Hori ez litzateke okerragoa izango? Ez genuke horra heldu nahi, eta zure aitak eta amak ere ez lukete hori ikustea nahi izango.

Jannickek bere whatsapp aurpegian irribarre maltzurra agertu zuen, eta gero:

- Hori ikusiko da.

- Noiz ikusi duzu azkenengoz Bihon Dal?

- Herenegun hona, gure etxera etorri zenean. Puta horrekin etorri zen. Ama, nola du izena puta horrek?

- Jannicke, mesedez, errespetu apur bat, gero! Nora Williams du izena - alabak zuen jarrera lotsagabea ikusita, amak erabat lotsaturik erantzun zion. Euren alabak hartutako norabide psikologikoagatik aspaldian Agathe, eta Agmundr bera ere, arduratuta zebiltzan. Beste kontua, Bihon Dahl irakaslearen maitalea izatearena bere egina zuten; horregatik, Haakonssonek esandakoa esan zuenean ez ziren harritu.

- Horrez geroztik ez duzu ikusi?

- Ez. Eta orain zoazte pikutara!

Inspektoreak entzungor egin zuen, eta beste galdera bat bota zion:

- Non zeunden atzo arratsaldeko zortzietan?

- Hemen, eta esan dizuet pikutara joateko!

- Aizu, Jannicke, hemen inork norbait etxetik kanpora bota behar badu zure ama eta ni izango gara, gero? Entzun? Azken bolada honetan zer gertatzen zaizu, ba? Ebbe, aspaldian ez dakigu zer gertatzen zaion. Harrituta, haserre eta arduratuta gabiltza –Jannicke altxatu zen egongelatik alde egiteko, eta une hartantxe Haakonssonek aukera ezin hobea ikusi zuen trikimailu zahar bat erabiltzeko.

- Jannicke! Gauzatxo bat baino ez, tori pilota!

Haakonssonek praktetako poltsikoan zeraman gomazko pilota txikia botako zion Jannickeri, eta honen senezko erreakzioak ezkerarekin hartzera bultzatuko zuen, berehala gaineratzeko:

- Baina, zer lelokeriarekin zabilta?

Jannicke ez zen konturatu.

- Opari bat, besterik ez - Haakonssonek seriocki.

- Haakonsson, sentitzen dut - esan zion Agmundr epaile jubilatua. Besterik behar baduzue, esadazue, -epaileak jarraitu zuen. Agmundr aurpegia itxuraldatuta zuela zegoen oraindik. Bere onetik irtenda zegoela agerikoa zen baina, hala ere, eutsi zion amorruari. Zalantza izpirik gabe esan zitekeen pilotaren jokia berehala harrapatuko zuela.

- Bon, oraingoz nahikoa dugu.

- Besterik ez?

- Oraingoz ez - Haakonssonek.

- Agur, Agmundr, eta zuri ere bai, Agathe! - adeitsu bota zien Gulbrandsen detektibeak.

- Agur, bai, agur, Ebbe eta Dagny - Agathek egin zien agurra, Agmundr horretarako ez baitzegoen. Gormututasunean zegoen.

Behean, autorantz zihoazela, Dagny Gulbrandsen detektibeak zera esan zion inspektoreari:

- Aizu, Ebbe, ez nuen uste pilotaren trikimailu zahar hori erabiliko zenuenik.

- Zein erabiliko nuela uste zenuen, ba?

- Bide luzeagoren bat. Epailearen alaba dela kontuan izanda, beste bide bat hartuko zenuela uste nuen. Agmundr jabetu da.

- Argi eta garbi utzi diot. Zor nion. Orain badaki zer dagoen. Itxaroten nagoena gertatzen bada, ez da berarentzat eta Agatherentzat pozgarria izango. Alaba tuntun hutsa da. Ez da konturatzen ezertaz.

- Ebbe, jabetu zara, aitak erakutsitako bideari jarraitu diola alabak?

- Iturriko ura bezain argi.

- Bai, ezta?

- Bai.

- Dena den, Agmundrek ez daki hiltzailea ezkertia denik?

- Egon lasai, laster jakingo du eta.

- Bai, ezta?

- Garroak oraindik bere onean izango ditu.

- Ziur.

- Emadazu plastikozko poltsa bat.

- Zertarako behar duzu?

- Galderak nik, Dagny. Zabaldut poltsa, hau sartu behar dut eta.

- Ilea?

- Bai.

- Eskua astindu duzunean lurrera botatzeko ahaleginean zenbiltzala uste izan dut.

- Bai, horrexetarako nago ni, lurrera ezer botatzeko.

- Jabetuko zen Agmundr?

- Ez izan zalantzarik. Dagny, hartu poltsa eta gero zientifikokoei eraman ikertu dezaten. Daukagunarekin nahikoa eta sobera daukagu, baina inolako zalantzarik ez izateko DNA egiaztatu behar dugu.

- Ados. Beste gauza bat, Ebbe: pilota txiki hori hartzera joan zara langelara, ezta?

- Bai, horixe zen behar nuena.

- Ondo egon da.

- Trikimailu zaharra baina oraindik erabilgarria.

- Bai.

Haakonsson inspektoreak autoko atea zabaldut eta barrura sartzekotan zenean, beste behin kolpe itzela hartuko zuelakoan, gorputza bihurtuz, kontuz egin zuen barrura. Bolantea eskuekin hartu, eta jesarlekura egokitze mugimendua ez zuen ondo neurtu, eta buruarekin ateko kristalaren goialde metalikoa babesten zuen goma gogorra jo zuen.

–Berriro ere, zer deabrukeria gertatzen zait ba!

Dagny Gulbrandsenek barre egin zuen baina ezer esan gabe geratu zen. Autoa martxan jarri ondoren, unibertsitaterantz ziztu bizian abiatuko ziren, Haakonssonek gidatu ahala buruan hazka egiten zuela. Unibertsitateko lana nekezago egingo zitzaielako ustetan zeuden. Lehenengo, Giza Antropologiako mintegi buruarekin egon beharko zuten. Pentsatu baino errazago etorri zitzaien dena eskura, eta Torbjørn izena zuena irakasle gelan aurkitu zuten.

- Egun on, Torbjørn jauna, Gulbrandsen detektibea eta Haakonsson inspektorea gaituzu. Bihon Dahl irakaslea hil egin dela esatera gatozkizu, eta bide batez galderaren bat edo beste egitera.

- Nola Bihon hil dela? Atzo berarekin egon nintzen, eta oso ondo ikusi nuen eta! Osasun ona zuela ematen zuen.

- Bon, gaizki hasi naiz. Hil egin dute. Bere etxean aurkitu dugu.

- Nola izan da?

- Labanaz. Irakasle edo eta ikasleren batekin harreman pertsonalik-edo bazuen jakin nahi genuke. Hemen norekin ibiltzen zen?

- Hartu emanak diozu?

- Bai.

- Jende askorekin ibiltzen zen. Nola ez zituen harremanak izango ba, oso lagunarteko pertsona da eta, beno, zen. Irakasleok derrigorrezkoa dugu, harreman pila izateko, hartu emanak izatea, hitz egitea, komunikatzea, horixe da gure jarduna.

- Bai, baina bereiziki bazuen hemengo norbaitekin hartu eman berezirik?

- Ez dakit, ba. Baliteke Yngve irakaslearekin-edo. Baina baliteke soilik diot. Inoiz kafetegian elkarrekin ikusi ditut, nahiz eta hori esateak ez duen ezer esan nahi. Mundu guztia gabiltza mundu guztiarekin erlazionatzen.

- Gauza arrarorik sumatu diozue? Normala ez den zerbait?

- Bihon eredu zko portaera izan duen irakaslea izan da. Ez hori bakarrik, irakasle kide ona izan da beti. Ez duzue berari buruz gauza txarrik esango duenik aurkituko. Oso pertsona baikorra zen. Gainera, edozein unetan, edonor laguntzeko prest agertzen zen. Lanez leporaino egonik ere, beti agertzen zen esku bat botatzeko prest.

- Bon. Non aurkitu dezakegu Yngve irakaslea?

- Orain? Ea, itxaron apur batean, taula begiratu dut - Torbjørnek ordenagailuan ordutegiaren karpeta zabaldu ondoren gaineratu zuen:

- Mintegian egon beharko luke.

- Non dago bere mintegia?

- Biak, Yngue eta Bihon Dahl mintegi berekoak dira. Pasabide honetatik azkeneraino joan eta ezkerreko bigarren atea. Atean Giza Antropologia Mintegia jartzen du.

- Mila esker.

- Ez dago zergatik.

Aurrerago...

- Irakasle asko aparteko pertsonak dira, ezta? - Gulbrandsen detektibeak.

- Ematen du Bihon ere talde horretan sartu beharko litzatekeela.

- Bai, Ebbe, pila bat dira horrelakoak, eta gainera batzuk oso bereziak; oso onak.

Giza Antropologia Mintegira heldu zirenean, Haakonssonek atea hats-koskorrekin jo ondoren zabaldu zuen.

- Kaixo, egun on.

- Egun on –lau irakasle zeuden mintegian eta laurak botako zituzten agurra egiteko bi hitzak, baina batek ere ez zuen burua altxatuko.

- Hemen al da Yngve irakaslea?

- Bai, zati bat hemen daukazue - esanez hogeita hamar urte inguruko gizonezkoa jesarlekitik jaiki zen. Ilegorria, bizarduna eta sendoa zen aurpegian betaurreko biribilak jarrita zituena.

- Egun on, Yngve.

- Baita zuei ere.

- Ebbe Haakonsson inspektorea eta Dagny Gulbrandsen detektibea gaituzu.

- Zu, Haakonsson, ezaguna zaitut; zu ez, Gulbrandsen anderea.

- Ospetsuak gara, e?

- Nola ez!

- Bon.

- Zuok esango didazue.

- Atera zaitzke unetxo batez?

- Bai.

Mintegitik pasabidera aterako ziren eta atea itxiko. Barruan geratu ziren beste hirurak elkarri begira geratuko ziren harridura ikurra aurpegian jarrita.

- Bon. Ezagutzen duzu Bihon Dahl, ezta?

- Bai, ba! Mintegi berekoak gara. Nola ez dut ezagutuko ba!

- Lagunak zarete?

- Bai. Lagun onak garela esango nuke.

- Hilik agertu da bere etxean.

- Hilik?

- Bon, hil egin dute, eta bere gorpua etxean aurkitu dugu.

- Hain pertsona ona nork hil lezake? Ez dut ulertzen.

- Atzo arratsaldeko zortzietan non egon zinen?

- Liburutegian. Lan bat gauzatzen nabil, eta ordu pila eskatzen dit. Arratsalde asko ematen ditut liburutegian.

- Ondo dago. Izan duzu harreman intimorik Bihonekin?

- Behin baino ez. Ez dakit, duela hiru bat hilabete edo. Baina hori oso gai pertsonala da!

- Bon.

- Ikasleren batekin edo izan du tirabirarik?

- Ez, eta erabat diot ezetz!

- Notak direla, edo?

- Ez, eta erabat diot ezetz!

- Badakizu norbaitekin arazorik-edo izan duen?

- Ez dut uste horrelako konturik aurkituko duzuenik. Oso pertsona baikorra izateaz gain, gauza gutxi behar izaten zuen pozik egoteko, eta bizitzeko beste hainbeste esango nuke. Gauza gutxirekin konformatzen zen.

- Bon. Besterik ez.

- Zerbait gehiago behar baduzue badakizue non aurkitu nazakezuen. Baina gai pertsonalik ez, mesedez!

- Bai, mila esker.

- Adio!

- Aizu, Yngve, beste gauzatxo bat: ezkertia zara?

- Bai, Norges Kommunistiske Partikoa naiz, eta harro nago gainera. Ez dut inoren aurrean ezkututzen.

- Ez zen hori nire galdera.

- A! Eskuinarekin idazten dut. Hori galdetu nahi zenidan, ezta?

- Hori, preseski. Agur!

- Adio.

- Agur, bai, agur.

Galdeketa amaitu ondoren, polizia-etxeko bi kideek automobila utzi zuten lekuraino tartea berriketan emango zuten.

- Irakasleak buru belarri euren kontuetan, e? - Gulbrandsen hasi zen lehenengo esaldia galdera erara botatzen.

- Bai. Badakizu zer gertatzen den, ezta?

- Zer?

- Irakaskuntzan lotan geratzen dena atzean geratzen dela –Haakonssonek, berriketarako gaia interesekoa zuela agertuz.

- Hori irakaskuntzan bakarrik ez, beste edozein lanetan ere berdin gertatzen da –Gulbrandsenek.
- Bai, baina irakaskuntzan inon baino gehiago nabaritzen da. Esan nahi dut, eskoletatik kanpo egin behar dutena ez dela soilik azterketak zuzentzea, pila bat irakurri beharra dute, eta ez bakarrik euren arlokoa, beste zientzietakoa ere erabiltzen dute.
- Literatura ahantzi gabe –Gulbrandsenek, garrantzia emanez.
- Horrek ere badauka garrantzia, oso garrantzitsua dela esango nuke, baina horretaz gain, kultura orokorra esan nahi dut, eta hor zinema ere sartzen da.
- Zientzietako arlo guztiak, ezta?
- Bai ba, gizartean gertatzen den guztia. Musika, teatroa, dantza, herri mugimenduak. Bestela zer? Atzean geratzen zara. Hori guzti hori beste lanbide batzuetan oso jarrera pertsonalekoa da, baina irakaskuntzan behar-beharrezkoa dela ikusten dut. Zuk ez duzu horrela ikusten?
- Irakaskuntzak hori guztia eskatu egiten duela uste dut.
- Bai, ezta?
- Bai.
- Hori da, edozein materia eman nahi bada, materia horretan oso jantzia izateaz gain, besteetakoetan ere iaioa izan behar da. Bestela nola elkarrekin lotu? –Haakonsson gero eta barrurago gaian sartuta.
- Esan duzuna oso argi ikusten da, esaterako literaturan sasoi bateko idazle bat ikusten denean –Dagny, interesaturik.
- Bai ba.
- Beraz, kasu horretan historia jakitea eskatuko luke.
- Eta sasoi idazlearekin gabiltzanez, orduko politika zein izan zen, eta agintariak zeintzuk ziren...
- Eta biztanleria zein baldintzatan bizi zen, eta oparoaldia izan zen ala guztiz kontrakoa... –Dagny, gogoz.
- Gose naiz.
- Ni ere bai.
- Zer ordu da?

- Ez dakit.
- Zu ere erlojurik gabe?
- Batzuetan hobe izaten da aldean erlojurik ez eramatea.
- Zertarako eraman egin behar dena nahitaez egin behar denean, ezta?
- Hori ba.
- Autoan daukagu erlojua.
- Bai.
- Kafe bat eta zerbait jateko?
- Horixe nengoen pentsatzen.
- Itxaroterik bai?
- Lar ez.
- Aker tabernan?
- Urrutiegia.
- Bidean aurkituko dugun lehenengoan?
- Hobe.
- Berehala aurkituko dugu baten bat.
- Taberna faltarik ez dago bazterretan.
- Asko, baina gure gustukorik asko bai?
- Hortxe dago ba kontu guztia.
- Norberaren gustuan, ezta?
- Bai, hala da.

bederatzi

Goizaldeko hiruretan egurats umelak oldarkor egiten zuen aurrera. Haakonsson inspektoreak orduak zeramatzan langelan atsedetik hartu gabe, azkenengo ordu erdia argazki eta paperez beteriko kasuaren argibide-taulan erabat murgildurik, batik bat hiriko mapa handi batean kasuarekin erlazionaturik

zeuden tokiei errotuladore lodi batekin gorriz pintatu berri zituenei, kasu eginez. Aldi batean, hain luzaroan finko jarrita izateagatik nekatuta zituen begiak eri-koskorrekin igurtziko zituen, lausotzen hasiak baitzituen. Goizaldeko hirurak zirelako ere izan zitekeen. Kasua, hariren bat soilik lotzeko faltan buruan bueltaka kiribila eginez zuena, behin eta berriz, film batean bezala zetorkion.

Lehenagotik ere susmoa hartua bazion ere, inspektorea kontuak gaitz xamar ipiniko zitzaizkiolako ustean oldozten hasi zen beste behin. Euren bisita jaso zuenetik Agmundr epailea garroak mugitzen hasia zela jakin bazekien. Azken egunetan, epailea hurrengo hauteskundeetarako alderdi kontserbadorearen zerrendetan joango zen zurrumurrua hirian hedatzen zihoan, eta hori horrela izateak oraindik arriskutsuago bihurtzen zuen. Ordurako deiak egiten hasia izan zela jakiteko, Haakonssonek ez zuen behar inork ezer esaterik, eta, uste izatekoa zen, epaileak Bihon irakaslearen hiltzailea nor izan zitekeen jakingo zuela, eta, horren ondorioz, noski, goizeko zortzietarako espero zezakeena etorriko zitzaion, alegia, inspektore nagusiaren deia, bere gainekoarena, kapitainarena. Hura hasiko zitzaion sakatzen, eta, gainera, mehatxuak agerian agertuko zizkion.

Gutxieneko argitasuna izan zezakeen edonork pentsa zezakeen bezala, kontraerasoa prestatu behar zuen. Hain justu, horregatik eman zituen orduak hedabideak erabili bai ala ez, pentsamendu horri bueltaka, eta, ondorioz, ezinbestekoa bezain arriskutsua zitzaion bidea zabaldu beharra izango zuen. Ez zuen beste irtenbiderik. Adiskidetasuna baliatuz Nordlys egunkarian lagun zuen kazetaria erabiltzea ageriko aukera zen. Erlojuari begiratu zion. Goizaldeko hirurak eta minutu bat. Bazitekeen garaiz ibiltzea. "Ez daukagu denbora asko, apenas ordu pare bat", - burura etorri zitzaion. Horren aurretik Gulbrandsen detektibeari deitu zion, eta, behar beharrezkoa zuen detektibeak, berehala, lo sakonetik irtetean izaten den ahotsarekin erantzun zion.

- Ebbe, esan.

- Dagny, baduzu bulegora etortzerik?

- Atoan! E, baina badakizu zer ordu den? Bikotekidearekin ohean nago. Hobe esanik, lotan seko nengoen.

- Ea, ea, egongo da denbora lo egiteko.

- Zer behar duzu?

- Zenbat denbora behar duzu?

- Badakizu non bizi naizen.

- Hamar minutu. Balio dit.

- Agur.

- Adio.

Jada atzera egiterik ez, eta prestatu zen ezinbestekoa zen urratsa egiteko. Kontuz ibili beharreko gaietarako soilik erabiltzen zuen telefonoan Nordlys kazetako lagunaren zenbakiak sakatu zituen.

- Bai! - aditu zuen telefonoaren beste aldean.

- Thora maitea!

- Bai, nor da?

- Asmatu beharko zenuke!

- Ba, ez!

- Beste inork agurtzen zaitu Thora maitea esanez?

- Ba, ez!

- Pentsatzeko denbora gehiago behar duzu, ezta?

- Aspaldi ezagutu nuen norbait, horrela esaten zidana.

- Ea hortik!

- Ez duzu zure izena esan nahi, ezta?

- Horixe da kontua!

- Kaixo, aspaldiko esango dizut orduan!

- Thora, zure beharra dut. Non zaude?

- Taberna batean, kopa bat edaten.

- Elkar ikusi behar dugu, eta oraintxe!

- Alboan dudanarekin berotzen hasia naiz, baina zeuk esaten didazun lekura joango naiz, eta oraintxe bertan gainera.

- Zerbait eskegi behar duzu. Papererako ez dakit denborarik izango dugun.

- Proposamena gustatzen hasi zait.

- Bai, ezta?

- Bai!

- Ba oraindik ez naiz hasi, egin kontu!

- Zurekin ere berotzen hasi naiz!

- Banekien.

- Sarekoa berehala egin daiteke.

- Bon, erdu lehenbailehen.

- Nora?

- Arakataka, ezagutzen?

- Polizia-etxearen inguruetan?

- Bai.

- Aker jatetxearen inguruetan?

- Bai.

- Eraikin horren atzealdean dagoena?

- Hain justu.

- Gau osoa izaten dute zabalik, ezta?

- Bai.

- Oraintxe noa. Bost minutu.

- Bon.

Gulbrandsen detektibeak bulegoko kanpoko atea igaro zuenean artekatuta ematen zuen. Nolabait kontuak norantz zihoazen jakingo balu bezala zetorren.

- Ebbe?

- Bai, neure bulegoan nago.

Ez zuen denbora luzerik behar izan Haakonssonen langelara sartzeko. Atea zabalik zegoen.

- Kaixo, Ebbe, zer da hain larria?

- Sobera ere badakizu.

- Freskatu oroimena.

- Bihonen hiltzailearen gure susmo guztiak badakizu norantz doazen, eta baieztatzen ari gara gainera. Hatz-markak atera direnean eta nortasun agiriekin alderatu ditugunean badakizu noren agiria agertu zaigun. Gainera, Agmundr epaile jubilatua bisitatu dugunean baieztatuta geratu da gure susmoa. Ilean DNA bakarrik falta zaigu, eta hori laster izango dugu. Esku artean ditugun frogak guretzako erabakigarriak dira, baina ikusi behar epailearen indarra norainokoa den, eta, gainera, ikusi behar kasu hau hartzea zein epaileri egokituko zaion, eta, bide batez, ausartuko ote diren zientifikokoen frogak kutsatzen. Hau ez nizuke esan beharko, ez zintuzket honetan nahasi behar, baina baliagarria izango zaizulakoan nago. Horregatik deitu dizut. Kazetari lagun bat deitu dut, eta ezkutuan daturen bat emango diot. Sarean eskegiko dugu, eta ea paperekorako denborarik daukagun. Horrela egin beharko da, naiz eta goikoek begi onez ez duten ikusiko. Zu geratu zaitetz alde batera, eta galdetzen badizute ezeztatu dena. Zuk ez dakizula ezer esan beharko duzu. Gauzak horrela ez baditugu egiten alde guztietatik hasiko zaizkigu sakatzen. Epaileek sakatuko gaituzte, nagusiek sakatuko gaituzte, agintea duten politikariek sakatuko gaituzte eta abar, eta abar, eta abar. Nik pentsatu bezala egiten badugu etor dakigukeena saihestu dezakegu. Dena den, eta lasaitu zaitez, egiten ari garenaren ardura guztia neure gain hartzen dut. Honetaz guztiaz neuk erantzuten dut. Neurea da erantzukizuna. Gure gainekoak ordu batzuk barru, gutxi gora behera bederatzietarako-edo, deituko dit. Ordu horretarako denak sarean eta zabaldua egon behar du. Horrela gertatzen bada, kapitainak bere bulegora joateko eskatzen didanean, kontua errieta soil batetatik ez da pasatuko. Sareko eta egunkariko albistearekin ez daukadala zerikusirik esango diot; ez dakidala deus ere. Eta gaineratuko diot Agmundren alaba atxilotzera goazela. Kirol-jertsean agertutako odola Bihon Dahl irakaslearena da, eta DNA frogatan andrazko bat agertzen da. Ez daukat zalantzarik Jannickeren DNA dela. Horregatik deitu dizut. Zientifikokoen egoitzara joan behar duzu, hangoa kontrolpean izan dezagun. Deitu dut bertara, eta ilearen DNArekin laster amaituko dutela esan didate. Gainera, Jannicke atxilotzen dugunean, inork ezeztatu ez diezagun, listua ere ikertu beharko zaio.

Haakonsson inspektorearen kontuzko gaietarako telefonoa joka hasi zen.

- Bai.

- Aizu, lagun!

- Bai.

- Nik konplitu dut eta zu ez zaude.

- Oraintxe noa, minutu bat.

- Ados.

Haakonsson inspektoreak sakelako telefonoa praketako poltsikoan sartu zuen.

- Dagny, laster izango naiz bueltan.

- Ados eta kontuz.

- Oraintxe nator.

- Zu ateratzen zarenean zientifikokoen bulegoetara jaitsiko naiz.

- Egin horrela.

- Bai.

- Agur.

- Adio.

Haakonsson inspektorea tabernara sartu zenean, Thora, Nordlys egunkariko kazetaria, bakarrik zegoen barruan, barran besoak jarrita esku bien artean zuen gin-tonicari begira. Bihurtu zuen burua eta so geratuko zitzaion bere ondora heldu zen arte. Erdi lotan zebilen zerbitzariak inspektoreari apenas egingo zion kasurik, andrazkoa eta bera bakarrik egonda, aukeran esperantza pittina izango baitzuen ipinita, gau miserable hartan arrakasta izateko abagune paregabea ikusiz-edo. Asmoa hutsean geratu zitzaion.

- Kaixo, Thora!

- Zer moduz, Ebbe?

Musuak.

- Bagabiltza. Zu, zelan?

- Zu baino hobeto, Ebbe. Zer da eskegi behar dena? - Thorak ez zuen, minutu batzuk gora behera, aurrean agertu zitzaion aukera paregabea galtzerik nahi izan, eta denbora galtzen ibili beharrean harira joan zen artezean.

- Oraintxe. Goazen bazter hartara.

- Zerbait edateko?

- Ez.

- Kafe bat ere ez?

- Orain ez. Esku artean daukaguna egin behar da!

- Kafe bat ere ez, e! Aldatuta ikusten zaitut.

- Ez da hori, Thora!

- Goazen.

- Thora, badakizu bi kasu aldi berean argitzen gabiltzala, ezta?

- Bai, bata Mary Nicizanyerena izango da, ezta?

- Bai.

- Eta bestea Bihon Dahl irakaslearena?

- Bai.

- Eta zer behar duzue?

- Zer behar duzue, ez. Zer behar dut.

- Ulertzen dut. Txarreanean dena zure gain, ezta?

- Bai, argi eta garbi.

- Eta zer da prentsari ezkutuan ematea nahi diozuna? Zure izena, noski, ezinda inondik inora agertu, ezta?

- Ez.

- Badakizu ez dagoela arazorik. Sekretupeko kontuak izan arren sumariotik beti jakiten dira datu batzuk. Gainera kasu honetan ez dago gaizkiderik. Hortik ezin digute ezer egin. Hori guzti hori gutxi balitz bezala, "Habeas Data" daukagu; kazetari sekretua; berria zein iturritatik etorri zaigun ez esateko Habeas Data.

- Bon.

- Zer nahi duzu agertzea?

- Bihon Dhal irakaslea hil duena epaile baten alaba dela.
- Hori bai lehegailua!
- Itzela, ezta?
- Ez esan noren alaba! Neuk esango dizut!
- Ez duzu asmatuko.
- Bai! Nola ez?
- Ez dut uste.
- Ebbe Haakonsson maitea, zu baino apur bat gazteagoa naiz, baina apur bat bakarrik. Politika arloko kazetaritza egiten dut aspaldidanik. Zuk uste duzu, ezetz? - adarra jotzeko doinuarekin botako zion.
- Hala uste dut.
- Gehiago esango dizut oraindik.
- Zer?
- Epaile horrek politikan sartu nahi duela. Hori zuk ere badakizu, ezta?
- Hirian hedatutako zurrumurrua da.
- Zurrumurrua bakarrik ez. Gehiago dago. Alderdi kontserbadoreak buru ipintzea nahi du.
- Horraino?
- Bai. Jadanik bazkariak eta afariak hasita daude. Bilerak han eta hemen aspaldi hasi dira.
- Horrenbeste?
- Hemen, Oslon, sobera ere badakizu, politikaren berri ematen dugunok kazetari gutxi batzuk soilik garela, baina gabiltzanok buru belarri gabiltza. Gauza asko dakigu.
- Ez dut hori zalantzan jartzen.
- Akaso zuk beste ez dugu jakingo, baina...
- Guk? Guk ez dakigu ezer eta!

- Beno, artikulua egiteko eman didazun esaldiarekin nahikoa dut. Baina labur geratuko da. Fidagarritasunik gabe geratuko litzateke. Arma, Ebbe! Aztarnak!

- Ados.

- Esaldia!

- Hiltzeko erabilitako aiztoan hiltzailearen hatz- markak daude.

- Hori bai, Ebbe!, hori bai! Horren kontra jai daukate. Besterik?

- Bai.

- Zer?

- Bihon Dahl eta ustez hiltzailea dena apenas aste batzuk arte maitaleak izan direla.

- Ufa!

- Bai, ezta?

- Fidagarritasun osoa.

- Inolako zalantzarik gabe.

- Maitale jeloskorra?

- Ez daukat zalantzarik.

- Mantis Religiosaren ziztada, edo eztenkada esan beharko litzateke.

- Marisorginaren ziztada, zuzenago.

- Munduan honelako lehenengo kasua?

- Ez dakit, ba. Lehenengoa ez da izango, nahiz eta gehienetan gizonezkoak uzten duen lurrean emakumea hilda.

- Zalantzan nago lehenengo kasua ote den. Hemerotekara sartu beharko nuke. Kasuarekin amaitzen duzunean, gustatuko litzaidake zurekin lasaiago egotea, honen guztiaren xehetasunak izateko. Bitxia iruditzen zait lan sakon bat egiteko. Badu interesa; itzela esango nuke. Honelako kasu asko ez dira munduan egongo, ez!

- Nik ere ez dut sekula antzerakorik entzun.

- Orain bai fidagarri geratuko dela. Beno, honekin nahikoa dut. Erredakziora noa. Hemen ezin dut grabaketa egin, kutsatuta geratuko zinateke eta.

- Barrako papao horrek ez du argirik.., ezta? –Haakonssonek zerbitzariarengan begiak jarrita.

- Hori ematen du, baina ez fidatu. Badakizu, leloena kapitain!

- Sarritan gertatzen da.

- Sobera ere badakigu, ezta?

- Bai, nola ez!

- Zuk ikusi duzunik ez da egongo!

- Zuk gehiago, segur aski.

- Zalantzan nago.

- Bon.

- Grabaketa egunkarian egingo dut, eta eskegiko dut. Gero erredaktore buruarekin hitz egingo dut, bai digitalean bai paperezkoan jartzeko, edo alderantziz egingo dut. Ez dakit, bidean pentsatuko dut. Domina bat emango didate.

- Mila esker, Thora.

- Ez maitea, hau badakizu ez doala horrela.

- Zer behar duzu?

- Zer behar dudan ez. Trukean zer!

- Zer?

- Mary Nicizanyeren kasuaren albistea argitaratuko duen lehena izan nahi dut.

- Ados.

- Pulitzer saria ikusten nago!

- Horrenbeste?

- Bai!

- Ez dut uste.
- Hori ematen badidazu nik zuri trukean gau zoragarria oso-osorik eskainiko dizut.
- Ez nago ni horretarako.
- Ikusiko duzu baietz, izarrak ikusiko ditugu.
- Ezetz ba.
- Bai, laztana, zu kitzikatzeko zelango armak ditudan jakingo bazenu! Gorenera eramango zaitut!
- Ikusiko da.
- Egon ziur. Hori neure kontu.
- Agur, maitea, zoaz nire aurretik eta kontuz.
- Zuk bai ibili beharko zenukeela kontuz. Hesteetaraino sakatu zaituzkete!
- Bai.
- Prest?
- Egon behar. Horixe da gure patua, zuzena dena egitea.
- Ai!, denak zu bezalakoak izango balira...
- Asko gara.
- Zuk uste?
- Ez izan zalantzarik, horrela da eta.
- Sinestu nahi nuke.
- Ez zara zu ere horren aldekoa, ba?
- Bai, nola ez, jakina! Horregatik nago egunkari honetan, eta ez beste horietako batean.
- Hori ba!
- Tira!
- Adio, banoa!

- Agur!

Langelako telefonoa joka hasi zenean, burua mahaiaren gainera botata zeukala, Haakonssonek oraindik bulegoan jarraitzen zuen. Apenas ordu beteko lo aldi astuna izango zuen egindakoa, iratzartzean kasua bueltaka ibili izanaren oroitzapena aurpegian nabarmen erakusten zuela. Saunara sartu-irtena egitekoa ez zitzaion ametsetan etorri, ez eta kafetegian kafe arina edatekoarena ere, senari ateak zabaldua hausnarrean egondakoarena baizik. Etenik gabe zebilen Burundikoen ezkutalekua non egon zitekeen pentsatuz, eta, batik bat, hari guztien lotura zein izan zitekeen buruhauste itzela bihurtuta zuen. Bihon Dahl irakaslearenak ez zuen jada kezkatzen; kontrolpean zuelakoan zegoen. Erlojua begiratu zion. Goizeko zazpiak eta bost.

- Bai? - bulegoek egiten zioten deiari galdera doinuaz erantzungo zion. Deia harrera-lekutik zetorkion.

- Ebbe?

- Bai.

- Beste beltz bat hilda aurkitu dute.

- Izurritea?

- Hala ematen du.

- Non?

- Malmoysund aldeko portu ondoan.

- Malmoysund portuan?

- Ez, portutik kanpora.

- Nork aurkitu du?

- Arrantzale jubilatuta batek.

- Zer ordutan?

- Duela bost minutu deitu du. Dagny joan da.

- Zergatik?

- Deia sartu denean harrera-lekuan egon delako, eta bost minutu igarotakoan zuri deitzeko agindua eman digu.

- Bon.

Haakonsson inspektoreak Gulbrandsenen telefono zenbakia sakatu zuen, eta detektibeak berehalakoan erantzun zion, berarekin hitz egiteko irrikatzen zegoela nabaritzen zitzaiola.

- Bai?

- Dagny?

- Bai, Ebbe, dena kontrolpean. Deia jaso denean bulegoan egon naiz. Neuk esan diet zuri deitzeko, eta Alfhild forentseari ere bai, baina nik alde egin dudanetik bost minutura. Barkatu, Ebbe, baina lo apur bat egitea behar zenuen.

- Zuk ere bai!

- Ni ondo nago.

- Bon. Non zaude?

- Salbamendu-potinean portutik atera berri gara. Bi potinetan goaz. Heldu berria nirekin dago, eta taldeko beste lau gehiago. Gainerakoak, badaezpada, hor utzi ditut.

- Bon. Alfhild forentseari deitzeko agindua eman duzu, ezta?

- Bai.

- Eta zientifikokoei?

- Zientifikokoei zertarako, zertarako behar ditugu?

- Arrazoi duzu. Erdi lotan nago oraindik.

- Hori ba.

- Ondo. Hor egongo natzaizue itxaroten.

- Gero arte.

- Bai.

Haakonssonek beltza hil ondoren uretara botatzeko urrundu egingo zuten susmoa hartu zuen. Hausnarrean obsesiboki egiten zuen etxe horirantz. Paretan jarrita zuen mapara bueltatu zuen aurpegia. Toki erre batean oraindik handik bueltaka ibil zitezkeela sinestea zail egiten bazitzaion ere, bihozkada zuen, posible zitezkeela, kanpotarrak auzo hura bakarrik ezagutzea, han bertan bakarrik seguru sentitzea. Horixe izan zitekeen talde-buruak izan zezakeen segurantzak bakarra. "Hori pentsatzea ez da logikoa, baina pertsonaren portaera noiz izan da logikoa? Logikak hemen ez du funtzionatzen, segurtasuna ematen duen zerbaiti atxikitzeak bai ordea. Edozein pertsonak jokabide bat edo beste aukeratzeko garrantzi handia ematen dio segurtasuna ematen dion zerbaiti atxikitzeari", urteak atzera, psikologia kriminaleko irakasleak eskola amaitzeko egindako laburpena inspektoreari gomutara etorri zitzaion.

Ezeri jaramonik egin gabe, Haakonssonek taldeko lau deitu zituen, eta beraiekin zuzendu zen amets egitea galarazita zegoen Søndre Nordstrand auzora. Heldu zirenean, senari jarraituta, lau poliziak bananduko zituen, bostak etxe horira ematen zuen errepedearen luzetara jarritz, handik fiordora ematen zuen eremua orrazteko asmoarekin.

- Basurdeak harrapatzen diren bezala ibili behar dugu, entzun? - taldekoei agindua inoizkorik serioen bota zien.- Benetan, hartu kontuan! - gaineratu zien.

Fiordoko urak haserre agertzen ziren, potinak zabuka ibiltzera kondenatuz. Nola edo hala olatuak saihestuz itsasoak irabazitako glaziarraren bidean aurrera joan beharra izan zuten, ez baitzegoen beste erarik Malmoysund inguruetara joateko, itsaslasterraren indarra kontutan hartuta, arrantzalea zegoen lekurako bidea pentsa ezina baitzen itsasertzetik egitea. "Teknologia puntako tresneriak ere, naturaren agerraldi bortitzen aurrean men egin behar, hauxe aurrerakuntzaren sinoa" haur txikia bainuontzian jolasean zebilela, hainbat enbatatan ondo zaildua zen kapitain porrokatuak lasaitasun osoaz zioen.

- Kapitaina, prismetikoak behar ditut, - haize aldakorraren ondorioz ileak aurpegia ezkututzen ziola, Gulbrandsen detektibeak eskatu zizkion.

- Prismetikoak?

- Bai.

- Zertarako behar dituzu?

- Ea, galdera gutxiago eta emazkidazu!

- Arrantzalea non dagoen jakiteko?

- Bai.

- Hemendik eta oraindik ez duzu ezer ikusiko.
- Nola dakizu hori?
- Detektibe anderea, teknologia erabiltzen gabiltza.
- Teknologia eta perretxiko ustela, emazkidazu behingoz!
- Tori, tori!

Bulegora deitu zuen gizona ikusteko, Gulbrandsen detektibea esku bata potineko kordelari eusten, bestearekin prismetikoak zituen bitartean, batera eta bestera begiratzen aritu zen, baina arrantzalearen errazturik ez zen inondik ikusten.

- Ikusten ezer? –kapitainak, begirada maltzur.

- Ez.

- Esan dizut ba! Begira pantaila honetan, arrantzalea dagoen tokiko koordinatuak jarrita ditut. Ikusten duzu puntu hau? Ba hauxe da arrantzalea. Oraintxe egingo dugu harantz. Ematen du han bareago dagoela ura.

- Zurea bai ikusmena!

- Ez dakit ikusmena edo eskarmentua den, edo biak!

- Biak segur aski! –detektibeak, lasaiago.

Kapitainak ezkerretara eginez biratu zuen norabidea. Atzetik zetozenek aurrekoei jarraitzeko berdin egin behar izan zuten. Irratian ez zen esaldirik. Halako batean, kapitainak, prismetikorik gabe, eskuarekin norabidea seinalatuz, “Begira, han dago” Gulbrandsen detektibeari esan zion.

- Bai, huraxe izango da. Arrantzale jubilatua da. –detektibeak baieztatu zion- . Bakarrik dago, ezta? - galdetuko zion.

- Bai, hala ematen du - kapitainak, aldizka olatuen norabidera, besteetan pantailara so eginez, norabidea zuzendu ostean erantzun zion.

Olatu bat potinaren saihetsetan ematera harrotuta heldu zitzairen, eta Haakonssonen taldera praktikak egitera etorritakoa ezustean uretara bota zuen, kapitaina mutila harrapatzeko uraren indarraren kontrako maniobra bortitza bezain brastakoa egitera behartuz. Potineko guztiak geratu ziren mutilari

begira, eskuekin txapla- txapla egiten zuela, olagarroak uretan garroak nola mutilak hala. Waldemarek ez zekien igeri egiten. Ontzira igotzeko bisigua harrapatzen den bezala egin behar zuten.

- Waldemar, tori manta eta jar ezak bizkarrean.

- Ez, ez dut behar.

- Hotzaren hotzez hil nahi duk ala? - Gulbrandsen detektibeak.

- Beno, ondo dago, jarriko dut.

- Amarena egin beharra ere!

Heldu ziren.

Ezer gertatuko ez balitz legez, arrantzale jubilatuak txitxarro beltzen bat harrapatzeko garranga amuzkiarekin botata zuen, gorpua zegoen aldea ez besteko ur mantsoetan. Sinestezina zen hain denbora laburrean eta hain espazio txikian urak beste era batera agertzea.

- Zer egiten duk hik hor arrantzan gorpua aldamenean izanda?, - Gulbrandsen detektibeak hain irudi harrigarria ikustean lekuz kanpo geratuta bota zion.

- Zer egingo dut ba?

- Itxaron!

- Horixe nago egiten!

- Ea, joan hadi portura, hantxe egingo diagu galdeketa eta. Han hemen baino hobeto egongo gaituk, ez duk?

- Portuan zein aldetara?

- Han ikusiko duk inspektorea.

Gorpua mako batez baliaturik igo zuten ontzira. Gulbrandsenek berehala egin zion lehen azterketa, eta jarraian Haakonssoni, inspektoreari, deitu zion. Ez zegoen estaldurarik. Irratia hartu zuen. Irratiak ere ez zuen estaldurarik.

–Nik estaldurarik ez, eta arrantzaleak bai, nola da hori?

- Joan eta etorri ibiliko da eta! - kapitainak serio gorpuari begira.

- Arrantzalea urrundu egingo zen, eta gero bueltatu –Waldemarek.

- Bizkortu haiz, ala? –Dagny Gulbrandsenek, nolabait adarra jotzeko doinuarekin.

- Bai.

- Kapitaina, potineko irratia behar dut, utziko?

- Hemen daukazu.

- Har ezazu zuk, eta esango dizudan zenbakiarekin jar nazatela –goraki, Haakonsson inspektorearen telefono zenbakiak banan-banan esan zizkion. Nagusiarekin hitz egiteko beharra zuen. Komunikazioa jarri zenean kapitainak mikrofonoa luzatu zion.

- Ebbe!

- Bai.

- Dagny naiz.

- Esan.

- Gorpua ontzira igo dugu eta horrantz goaz.

- Kostatzen zaizue!

- Aurrerapen gisa zerbait esango dizut.

- Bota, ba!

- Aurpegia urratuta dauka. Ematen du azazkalez egina dela.

- Bon.

- Beste gauza bat.

- Zer?

- Itxuraz, paparrean hiru tiro eman dizkiote.

- Eraman kaira. Alfhild forentsea han izango duzu.

- Dagoeneko horrantz goaz. Zu ez zaude hor?

- Ez. Dagny, beste gauza bat.

- Zer?

- Kaira heltzen zaretenean, hartu hiru-lau eta zoaz Jannicke atxilotzera.

- Zu non zaude ba?

- Zuk egin agindu dizudana.

- Ados, berorren aginduetara.

Gulbrandsen detektibearen erantzunean nolabaiteko suminkortasuna susmatu zitekeen. Bi kasuek, baina batez ere azkenengoak, kontu handiz ibiltzea eskatzen zuten. Presiopean zegoela nabaritzen zitzaion, eta, ondorioz, estresaren zantzuak agertzen hasiak zitzaizkiola agerian uzten zuen. Horri guztiari lorik egin gabe zebilela gehituz gero, erraz uler zitekeen Haakonsson inspektoreari emandako erantzuna.

Kaian, porlanaren gainean, gorpua ahoz gora ipini zuten. Aurpegiko ezker masailean zituen azazkal urratu nabarmenei begiratu, Alfild mediku forentseak kremailera behearaino eramanda kapusaia zabaldu zion. Gero kokots alderaino elastikoa igo zionean, afrikarraren gorpuaren paparrean hiru bala zulo nabarmen agertu ziren.

- Nora Williamsi eraso ziona dela ematen du, ezta?

- Hala ematen du. Zuok aurreikusi bezala datoz zantzuak, ezta? - Alfild mediku forentseak kasuak nondik nora egiten zuen jakiteko interesaturik zegoela erakusten zuen.

- Badirudi.

- Besterik agertuko ote da?

- Ebberen ustez hiruko talde ibiltaria da. Hala ere, hemengo norbaiten laguntza dutela ere agerikoa dela ematen du.

- Beltzak?

- Ziurrenik.

- Ausartuko ote da hemengoan kontra egiten?

- Ez dut uste. Baliteke oraindik euren beharra izatea. Horregatik, ez dugu uste ukituko dituenik. Nondik alde egingo du? Aireportua arriskutsua irudituko zaio? Hegazkinera igotzeko ate bat bakarrik du eta zainduta daukagu. Ez dugu uste aukera hori erabiliko duenik. Errepidea?, Itsasontzia? Zein aukeratuko zenuke, Alfild?

- Nik zer dakit ba? Bat esan beharko banu itsasontzia aukeratuko nuke. Era asko dago itsasontzi batera igotzeko: egunez, gauez, goizaldean, handik, hemendik, beste alde hartatik... finean edozein lekutatik, eta gainera ezkutatzeko aukera asko ematen ditu. Errepidea luze egiten da, eta gero ere, aurrerago diot, aireportua edo eta itsasontzia beharko luke.

- Interpolekoek badaukate kasu honen berri. Horregatik, nik ere horren aldeko apustua egingo nuke. Bai, itsasontziz alde egin nahi izango du. Segur aski dena prest izango du. Orain, eguna eta ordua noiz helduko egongo da. Orduetako kontua izan daiteke. Enbarazu egin diezaiokeen guztia kenduko du gaineratik. Ebberri esan behar diot. Ez dudana ulertzen zera da: zergatik ideia finko hori? Etxe horiarena esan nahi dut. Badakite erreta daukatela. Harrapaezina dela uste izango du?

- Beharbada, baina nik zer dakit ba. Ni forentsea bakarrik naiz.

- Euren lurraldean uki ezinak dira, baina hemen? Hemen handik oso urruti daude. Dena den, ideia bat baino ez da. Bere buruarekiko ziurtasun osoa izatea ez da apur bat arraroa? Bai, horrela izaten da. Denbora asko nahi den guztia egiten ematen denean, azkenean horrek ukiezina zarela pentsatzera zaramatza, eta orduan agertzen dira arazoak.

- Hori horrela izaten da - Alfhild mediku forentseak gorpuari begira jarraitzen zuela baieztatu zion.

Haakonsson inspektoreak etxe horira ematen zuen bidetik aurrera egin zuen fiordo alderantz. Basurdeak ehizatzen diren bezala zihoan; berari zegokion lekua hartzera. Hori zen agindua. Eurek arriskurik hartu gabe, beste hura baldin bazegoen, gordeta egon zitekeen ezkutalekutik ateratzea. Oinez errepidea amaitzen zen tokira heltzeko, hirurogei metro inguru egin zituen.

Aiztoa nola, haizea hala zetorren azala moztera, telefonoaren tinbrea entzuteko galaraztera bezala.

- Bai - inspektoreak bazekien nor zen. Bere gainekoa zen; kapitaina.

- Haakonsson?

- Bai.

- Yngad naiz.

- Zer berri?

- Hori nik galdetu beharko nizuke.

- Bai, horrela da.

- Nire bulegora etorri behar duzu lehenbailehen. Agindu bat da.

- Orain ezinezkoa zait - inspektoreak lehor erantzun zion- . Yngad, sarekada baten erdian harrapatu nauzu. Søndre Nordstrand auzoan gaude.

- Sarekada ederra Agmundr epaileari egin diozuna!

- Zertaz ari zara, Yngad?

- Ez hadi inozoarena egiten hasi, Ebbe!

- Ziur diotsut!

- Ergeltzat nauzu, ala?

- Ezetz ba!

- Adarrik ez jo, gero!

- Zeri buruz ari zara?

- Komunikabide guztietan ari dira esaten Agmundren alaba dela Bihon Dahl irakaslea hil duena.

- Nondik atera da berri hori?

- Hori da nik galdetzen dizudana! - Yngad kapitainak, bortitz eta zeharo haserre.

- Gure taldetik ez dut uste inork horrelakorik egin duenik.

- Zu izan zara prentsari ezkutuan eman diona!

- Ezetz ba –Haakonssonek, nolabait ezinezkoa zenarekin kapitaina konbentzitu nahian- . Eta Sikkerhetstjenestekoak izan badira, zer? –inspektoreak, ikuspuntua ezinbestean beste alde batera eramateko antsiarekin, era horretara kapitaina nahasiko zuelakoan.

- Beno, ikusiko dugu kontu hau guztia zelan amaitzen den. Hamaiketan prentsurrekoa. Ordu erdi lehenago zure bulegoan biok. Xehetasun guztiak behar ditut. Zure lana bakarrik ez, nirea ere kinka larrian dago. Presio itzela dago alde guztietan. Hobeto koordinatu behar dugu elkarrekin, Ebbe!

- Bai, arrazoi osoa daukazu.

- Noski, gizona!

- Prentsurrekoa non?

- Zure bulegoa dagoen egoitzan.

- Han izango gara taldeko guztiok.

- Hori espero dut.

- Gero arte.

- Hamar eta erdietan bulegoan.

- Adio.

- Agur.

Haakonssonek hazka eginez buruan, "aurreikusitakoa badabil bueltaka", pentsatu zuen, kontu hura guztia alde batera uzteko. Une hartan ez zegoen inongo tuntunen kontuetarako, eta are gutxiago wasp batenetarako.

Fiordotik harago enbata haserre eta amorrus beterik txistuka zetorren inspektorearen aurpegira.

Bidearen amaierak plaza txiki biribilaren antzera egiten zuen automobilak bertan buelta emateko. "Gazteek larrua jotzeko leku ederra", - burura etorri zitzaion, une oro batetik bestera begiak eramaten zituela. Inguru hartako lurra otadiak irabazia zuen, eta zail egiten zen urratu gabe urrats bat egitea. Ez zuen xendrarik ikusten. Nolanahi ere, otadiaren barrenak, han eta harago, fiordoaren edertasunaz gozatzeko esertzera gonbidatzen zuten belar uneak agertzen zituen.

Inspektoreak ote landareak saihestuz egin zuen aurrera. Labarrera heldu zen. Garbi ikusiko zuen. Gizon bat. Bakarrik. Itsasoari so jesarrita zegoen. Malmoyssund aldeko uharte txikietan zuen begirada jarrita, nondik laino zarratua goiko sabai beltzari laguntza ematera zetorren zeruan zirrikituak galaraziz. Behean, egurrezko txalupa batek negarrez egiten zuen zabuka, barruan gordetzen zuen gizonaren baitan etsipenik agertzen ez zuela. Marinel izukaitzak hangoak eta edonongoak.

Goian, belartzan eserita, Malmoyssund aldeko uharte txikietan begirada jarrita zuen gizonak arrantzaleek janzten duten kapusaia zuen soinean, txanoak burua estaltzen ziola. Haakonsson hurbildu zitzaion zerbait galdetzera. Ez zen burua hautsi beharrik izan galdera zein izan zitekeen jakiteko. – Aizu! - esateko aukera izan zuen soilik. Ezezagunak saihetsaldera okertu zuen gorputza. Supituan, harginak harri-blokean burdinaga nola, txistu batek airea hala apurtu zuen. Aireak ekarritako hots metalikoa bat-batekoa izan zen. Balek ateratzen duten frekuentziarekin batera etorri zen, eta jarraian zarata idorra. Inguruko sasitzatik txantxangorri talde bat ikaraturik airera hegan, noraezean. Haakonssoni bizi izandako amets bat zela iruditu zitzaion. Bernan zorriak antzeman zituen. Ez zuen arma hartzeko betarik izan. Lurrera erori zitzaion. Bernazakiaren kontratik eskuineko hankako bikian sartu zitzaion bala arrotza. Hasieran zorriak zirenak min izugarri bilakatu zitzaizkion. Gizon ezezaguna arrapaladan, oinak

zitzu bizian altxatuz, oteak saihesteko jauziak eginez alde egiten ikusi zuen. Taldekoak zeuden alderantz zihola konturaturik, irrati-telefonoa hartu zuen erne jar zitezen ohartarazteko. Ondoren, kirol-jertseko poltsikotik, lepoko zaurirako medikuak emandako potoa ahora hurbildu zuen kolpean lau pilula barrura sartzeko. Zutitzen ahalegindu zen. Ezezagunaren atzetik joan nahi zuen. Irrati-telefonoa esaldiak bata bestearen atzetik geratu gabe jaurtitzen hasi zen. Komisarioa otaditik ozta-ozta atera zen. Zaila egiten zitzaion bernen gainean zutik egotea. Errepidera heltzeko bi ordu behar izan zituela irudituko zitzaion. Handik etxe horirantz zuzendu zen. Apenas berrogeita hamar metro. Burdinazko xafla herdoilduz egindako estalpera heldu orduko etxe-osterako bidea hartuko zuen. Burmuinaren frekuentzia jaisten hasiko zitzaion, pentsamendua piztuta izatea kontu nekagarri egiten zitzaiola. Herrenka jarraitu zuen aurrera. Irratiak berdin jarraitzen zuen; esaldiak bota eta bota. Ez zen etxe-ostean geratu. Doi-doi egin zuen belarra zapalduta zegoen alderantz. Belarra eta abarrak, abar hezeak nahasian. Oinatzak lurrean. Minak ez zion pentsamendu bizkorrik izaten uzten. Ingurua oroitu bezala, baina gogoratzea zaila egiten zitzaion handik azkenengoz noiz ibilia izango zen. Xendrak ustez goibel-bidea erakusten zion. Harakoa gonbita zela iritzi zion. Gonbita agerikoa zen, itsasoan zilar-bideak erakusten duen bezalakoa. Labarrera heldu zenean, uretara heltzen zen oinbide estua lausoa egin zitzaion. Pertsona bat bakarrik hartzen zuen bidezidorrak hozkirria biltzen zuen bere baitan. Hiltzera kondenatuak izaten diren animalia zaurituak bezala ziholan bakardadearen bila. Handik ez hain urrunetik, airean bi hots idor penagarri. Hotsak berehala ezagutu zituen. Biek pistola berberak botatakoak ziruditen. Mendebaldetik heldu zitzaizkion. Bidezidorrak oraintsu ibiliaren urratsak gordetzen zituen. Garoak salatzen zuen. Haakonssonek atzera begiratu zuen. Odol tantak. Bereak. Beherago zulo bat zekusan, ez oso handia, marea gorak guztiz beteko zuena. Ez zen itsas gora. Behera zen. “Ezkutaleku interesgarria”, pentsatu zuen. Oroimena laino artetik heltzen zitzaion bitartean, garunak soilik bi hitz elkartzeko ahalmena eskaintzen zion. Segada egiteko aproposa. Zalantzas irudikatu zuen segada. Ahalegindu zen. Ezin zuen. Beherago, uretan karelez kanpoko motordun txalupa. Berria ematen zuen. “Hona dator”, pentsatu zuen. Eskuineko hankako bikitik behera, odola hilobalaren antzera, alde hartako praka eta galtzerdia busti-busti ipintzeraino. Euria bortitz. Urrats bakoitzean gelditu behar. Nekea. Burutik aurpegian zehar euriaren ura barra-barra. Kobazulo txikira helduko zen. Barrura sartuko zen. Leku ilunera beste hots lehor bat doi-doi heltzen zela antzemango zuen. Euriz lagundutako haizeak ez zuen ondo entzuten uzten. “Basurdea bezala dator babes bila”, argitasun pitinarekin irudikatu zuen basurdea arineketan. Esertzeko gogo; lurrera gorputza botatzekoa. Zutik geratu zen. Pistola astun sumatzen zuen, pisuaren pisuz eskuari lurrerantz egiten ziola pentsatuz. Pistolari begiratu zion. Arauzko pistola. Glock bederatzikoa. Safe Actiona begiratu zion. Kenduta zuen. Hirurak zituen kenduta. Tiro egiteko prest zeukan; katua sakatzea baino ez. Itzali zuen irrati-telefonoa. Itzali zuen telefonoa. Bazterrera egin zuen paretaren kontra bizkarra zapaltzeko. Iluntasunaren babesean ez zuen hezetasuna sentitu. Kanpotik,

huri errezelaren beste aldetik, oin hots azkarra. Saltoka zetorren. Sartu zen barrura. Arrotza. Arrotza plastikoa beltzaren bila. Segundo laurden bat. Haakonssonek arma destatuko zuen:

- Tu fais le moindre mouvement, et je te descends du coup - ez zekien hain esaldi luzea botatzeko indarra nondik etorri zitzaion. Harrituta geratu zen.

- Lève les mains. Je sais que tu attends une opportunité, mais ça ne va pas arriver, je t'assure!

Agindu zion.

Arrotzak tutik esan gabe altxatuko zituen eskuak, aukera txiki bat noiz helduko.

- Ne bouge pas, ou je te tue sur place!

Aginduari men eginez, estatua baten erara geratuta zegoen. Haakonsson atzetik hurbildu zitzaion, eta pistolaren kanoia kokotean barruraino sartu nahian, ahal izan zuen beste sakatu zion. Gizonak oraindik txanoa zuen burua estaliz.

-Tu sais bien que j'ai hate de te tirer dessus, n'est- ce pas? - behin eta berriz errepikatu zion.

Eskuburdinak jarri zizkion.

- Et maintenant, fous le camp devant moi. Le moindre mouvement, et tu es homme mort, t'as bien compris? L'opportunité que tu attends, ne va jamais arriver, c'est clair?

Arrotzak ez zion ezer erantzungo. Hotza eta euria letaginak erakutsiz eskutik zetozen haragia jatera. Haakonssonek enbatari oldar hortzak erakutsiz burua bueltatu zion. Mendekoak deitzeko irrati-telefonoa piztu bazuen ere, ez zuen horren beharrik izan. Bata bestearen atzetik laurak zetozen itxura batean ondo. Txanoarekin burua estaltzen zuen arrotzak laprast egin zuen.

- Ea, lotu hau kordel batekin eta joan dadila gure aurretik, eta kontuz, aukera bat dago itxaroten eta! - Haakonssonek agindua eman zien. Taldekoek men egin zioten. Batek borrharekin arrotza buruan jo zuen.

Gizonak ahotik aiene mingarria atera ahala eskuak igo nahi zituen hazka egiteko, baina atzealdean zituen eskuburdinekin lotuta.

- Hi, neu ere horixe bera egiteko gogoia jaten nagok, baina gu ez gaituk horrelakoak! - batek.

Beste batek:

- Hi, kendu egiok txanoa.

- Oraintxe.

Arrotzarengandik hurbilen zegoenak txanoa kendu zion burutik. Pertsona zailduaren aurpegia agertu zen. Argala, indartsua, inteligentzia ahaltsua zuela ematen zuen. Begietan distira berezia zuen, zirt edo zart egiteko gai izaten diren horiek duten bezalakoa.

Lauretatik bat Haakonssonen berna odoldurik zegoela ohartu zen.

- Inspektore, jabetuta zaude berna odoletan duzula?

- Bai! Ez naiz jabetuta egongo ba! Jabetuta, konturatuta, ohartuta, kargututa, erreparatuta, nabarituta, kontuan eroria eta kontzientzia izan ere bai. Sinonimo guztiak burutik hamazazpi mila aldiz igaro zaizkit, eta denak astiro-astiro gainera.

- Egon apur baten.

- Zer behar duk ba?

- Zapi hau jarriko dizut hesgailu.

- A, beno, horretarako baduk bai!

- Odolari eutsiko dio.

- Hobe horrela. Bai, baina, kontuz, ostia, bala barruan zeukeat, ostia!

- Barkatu!

- Barkatuta, bea, kontuz!

- Honela utziko dizut, badaezpada ere.

- Ondo.

Haakonssonen telefonoa dar-dar jarri zen. Hartu zuen. Dagny Gulbrandsen detektibea zen.

- Dagny, esan.

- Non zaudete?

- Etxe hori ondoko koba zulotik irteten. Uste dut talde burua harrapatu dugula. Zu non zaude?

- Jannicke atxilotzera joan gara, baina ez zegoen etxean. Agmundr ere ez zegoen, eta Agatherekin hitz egin dut. Ez daki alaba non egon daitekeen. Agmundrek bilera omen duela dio.

- Praktiketari dagoena ez da ateetan egon?

- Waldemar?

- Waldemar ez! Nola izango da Waldemar! Waldemar zurekin joan da!

- A, bai, ze tuntuna! Uretara erori zaigu gainera!

- Atzo goizean bidali digutena, nola du izena?

- Bjorn.

- Bai, Bjorn.

- Ez. Han ez dugu inor ikusi.

- Hara agindu dut, Jannickeren mugimenduak jarrai zitzan. Etxetik aterako balitz jarraitzeko agindu diot. Deitu eta galdetu non dagoen, Jannicke non dagoen berak jakin behar du eta. Bon. Jarri taldea martxan. Autobus geltokia, tren geltokia, aireportua, errepideak... jarri jendea dena zaintzen, eta dagoeneko bertan daudenei bidali Jannickeren erretratua. Hori egiten duzunean sartu nire bulegora eta zaindu Jannickeren txostena. Ez utzi inori, ez eta kapitainari ere. Galdetzen badizu esan ez dakizula. Nik daukadala esan.

- Zenbat behar duzu hona etortzeko?

- Ez dakit ba, lehenago ospitalera joan beharko nuke.

- Zaurituta zaude, ala?

- Bala bikian sartuta.

- Berriro?

- Bai, berriro, onegiak bihurtzen hasi ote garen nago pentsatzen.

- Larria?

- Bala bat soilik.

- Ebakuntza lehenbailehen.

- Ez.

- Zelan ezetz?

- Lehenengo kafea eta zerbait gozoa, akaso Geitost zati bat. Gero hesgailua, eta prentsurrekoa amaitzen denean ospitalera.

- Orduan hona zatoz?

- Aker tabernan kafea.

- Ados.

- Oraintxe noa.

- Dagny, beste gauza bat.

- Zer?

- Hamaiketan prentsurrekoa. Egon behar duzu.

- Kapitainak deitu dizu, ala?

- Bai.

- Ta?

- Kontuak gero.

- Prentsurrekoa non?

- Gure egoitzan.

- Ondo.

- Oraintxe egongo gara.

- Bai.

Gulbrandsen detektibeak, jarraian, bezperan taldera praktikak egitera etorri berria deituko zuen.

- Bjorn?

- Bai.

- Dagny naiz.

- A, Dagny, ez nuen zure telefonoa. Barkatu.

- Aizu, Bjorn, inspektoreak esan dit Jannickeren mugimenduak jarraitzeko agindua eman dizula.

- Bai, horrela da.
- Jannickeren etxera joan gara, eta ez zaitugu han ikusi.
- Ez, ez nago han.
- Zergatik?
- Jannicke ez dagoelako etxean.
- Non dago Jannicke? Atxilotu behar dugu eta.
- Autobus geltokira etorri da.
- Bistan daukazu?
- Bai.
- Bera konturatu da zaintzen zaudela?
- Ez dut uste.
- Atxilotu ezazu.
- Ezin dut.
- Zergatik?
- Praktiketean nagoelako.
- A, egia da. Ez galdu bistatik, ados?
- Bai.
- Autobusen batera igotzen bada agindu gidariari ez mugitzeko. Oraintxe helduko gara. Ados?
- Konforme. Dagny, Jannicke mugitzen ari da!
- Jarraitu ezazu, baina ez dadila konturatu zaintzen zabiltzala.
- Ados.
- Ez moztu deia.
- Ados. Aaa!

- Bjorn! Bjorn! Bjorn, entzuten didazu? Zer gertatzen zaizu? Hor zaude?

Gulbrandsen detektibeak irrati-telefonoa erabili zuen Jannicke atxilotzera zihoan taldea ohartarazteko.

- Varg, entzuten didazu?

- Bai, bota.

- Bjorni zerbait gertatu zaio.

- Zergatik diozu?

- Norbaitek kolpatu du.

- Zelan dakizu?

- Zelan dakidan? Minaren doinu onomatopeikoa atera duelako ahotik, demontre!

- Heltzear gaude.

- Heltzerakoan eman denaren berri!

- Ados.

Detektibeak autobus geltokira anbulantzia bat bidal zezaten agindua emateko larrialdietara deituko zuen. Jarraian berriro deituko zuen nagusia, baina telefonoz egingo zuen. Haakonsson inspektorearekin hitz egiteko ez zuen irrati-telefonoa erabiltzen, ageriko kontuak ez baziren behintzat.

- Bai?

- Ebbe.

- Esan, Dagny.

- Bjorn autobus geltokian zegoen Jannickeri jarraitzen, eta norbaitek atzetik buruan kolpatu du.

- Jannickek norbaiten laguntza du. Bulegora heltzen gaude. Erdu Aker tabernara eta ekarri Jannickeren txostena. Ezkutuan ekarri, arroparen azpian-edo.

- Oraintxe noa.

Haakonsson bulegoko ateetara heldu zenean berarekin joandako mendekoei aginduak ematen hasi zen.

- Zuok biok eraman alproja hau ziegara eta ez galdu bistatik, eta, batez ere, ez kendu eskuburdinak. Dituen bezala eduki ditzala, aditu? Agindua da, aditu?

- Bai.

- Beste guztiok Dagnyarekin joango zarete. Bere aginduetara zaudete.

Gulbrandsen detektibea une hartantxe heldu zen.

- Ebbe, zutik egoteko moduan zaude?

- Oraindik bai.

- Gogorra zara gero!

- Ez hainbeste. Dagny erdu taberna barrura. Txostena hor emango didazu, ez dut nola ematen didazun inork ikustea nahi eta.

- Bai.

- Zoaz horiekin guzkiekin Jannickeren atzetik. Bjornen berririk?

- Oraindik ez, Ebbe.

- Bon, zoazte.

- Izan irrati-telefonoa piztuta.

- Horrela daukat.

- Lehentxoago hitz egin dugunean eman dit itzalita zenuela.

- Ez. Dena jarraitu dut.

- Ez duzu tutik esan!

- Isilik geratu naizelako.

Haakonssonek Aker tabernan kafea eskatu zuen.

- Egunon, Haakonsson –Aksel zerbitzaria hurbildu zitzaion.

- Zelan, Aksel?

- Ematen du zu baino hobeto nagoela. Zer ipiniko dizut?

- Kafea, ebakia, eta hor ikusten dudan kaffebrod zati handi bat.

- Oraintxe bertan, Ebbe. Besterik behar duzu?

- Horrekin nahikoa, Aksel –zerbitzaria eskaria prestatzera zihoala berriro deitu zuen- . Aksel ekarri baso bete ur ere.

- Oraintxe bertan!

Irrati-telefonotik esaldiak bata bestearen atzetik heltzen hasi zirenean, Haakonssonek jaitsi zuen bolumena, oso ozen, tabernako guztiek entzuteko moduan baitzuen. Varg sarjentuak Dagnyri Bjornen berri ematen zion.

- Baina, Varg, zelan dago Bjorn?

- Ondo. Hezur okzipitalean hazka egiten dago. Odol apur bat du, baina ez dut uste larria denik. Erizainarekin dago. Konortea galdu du baina ondo dago.

- Jannickek norantz egin duen?

- Jannicke mugitzen ikusi duenean norbaitek atzetik buruan eman diola dio, eta konortea galdu duela. Hortik aurrera ez du ezer gogoratzen. Segundo batzuk izan direla dio. Nahikoa norantz egin duen ez jakiteko.

- Varg, heldu gara. Oraintxe noa zu zauden lekura. Hor zaude. Ikusten zaitut. Has zaitezte jendea galdekatzen. Norbaitek ikusiko zuen, ba?

- Ados.

Haakonssonek erlojuari begiratu zionean hamarrak izango ziren. Ordu erdiren buruan kapitainarekin bildu beharko zuen. Bulegora sartu zenean erizainari eskatu zion zauria garbitzeko, eta ospitalera joan arte hesgailua jartzeko. Gero, bere burua garbitu nahiko zuen eta arropak aldatu, blai eginda baitzegoen. Azkar joan zitzaion denbora. Konturatu orduko hamar eta erdiak ziren. Bere bulegoko atea zabaldu zuenean kapitaina barruan zegoen, paretako organigramari begira. Egun ona eskainiz agurtu zuten elkar.

- Egun on, kapitaina.

- Baita zuri ere, Ebbe. Entzun dut berriro zauritu zaituztela?

- Bai, horrela da.

- Bala oraindik bikian?

- Bai.

- Ospitalera zuzenean!

- Ez. Badut ordu erdi itxaroteko indarrik. Gero joango naiz.

- Zeuk ikusiko duzu.

- Zer kontu da hori, Agmundren alabarena?

- Agmundren alaba eta Bihon Dahl irakaslea maitaleak izan ziren, eta erailketaren eragingarria jeloskortasuna dela uste dugu; badakizu, amodio beroetan sortu ohi den kontua; neurea zara, neurea bakarrik eta hortik datorrena, jabetzaren kontuak ekartzen duena. Badakizu, betikoa, neurea zarenez edozer gauza egin diezazuket! Horregatik, nire ondotik alde egin nahi baduzu, hil eta gero izango da. Genero- indarkeriaren barruan sartu beharko litzateke.

- Emakumea emakumea hiltzen, lehen kasua munduan?

- Ez dakit ba!

- Eta zergatik ez diozu Bihon irakaslearen etxean lapurreta egin zuen beltzari errua bota? Ez duzu Agmundr epailea babestu nahi izan, ala?

- Nik ez dut horrelakorik egiten. Ez naiz ni zin egindakoa hautsiko duena izango. Gogoratzen duzu kargua hartu genueneko?

- Bai, gogoratzen dut, eta nik ere ez dut horrelakorik egiten, baina honelako kontu baten aurrean...

- Ez dut salbuespenik egiten.

- Baina ez duzu ikusten Agmundr zein garrantzitsua den?

- Bai, badakit Agmundr zein indartsua den. Hala ere, nik ez dudala horrelakorik egingo diotsut.

- Baina gezur txiki bat botatzea baino ez zen eta!

- Bai, baina ez.

- Helduko da eguna, zuk ere gauza handiagoaren alde egiteko txikiagoaren aurrean beste aldera begiratuko duzuna.

- Baliteke, baina egun horri buruzko zalantzak ditut.

- Agmundrek txikituko gaitu! Ate guztiak itxiko dizkigute, eta langabe amaituko dugu. Ez duzu ikusten, ala?

- Ez dut uste ausartuko denik!

- Ausartuko den ez, ausartuko diren, pluralean da kontua! Estructura osoa dago atzean. Ateak, bentanak, leihoak, denak itxiko dizkigute, eta, ez hori bakarrik, lagunak ere galduko ditugu.

- Ez dira ausartuko.

- Ez direla ausartuko? Ez dituzu ezagutzen, ala? Zer kaka mokordo!

- Eta zu ere ez zara ausartuko, Yndag!

- Txikituko gaituzte! Zu, ni, Dagny, eta aurrean harrapatzen duten guztia! Alderdian epailearen kontra egon daitezkeen familiartekoekin egon beharko dut. Honetatik guztitik eurek aterako dira garaile eta.

- Ez da ideia txarra.

- Alabak alde egin duela, ezta?

- Autobus geltokian norbaiten laguntza izan du eta, atzo praktiketara bidali diguten mutila, Bjorn, konorterik gabe utzi dute. Talde bi dabilta Jannickeren atzetik.

- Dagnyren aginduetara?

- Bai.

- Zer daukagu Bihon hil izanaz Jannicke akusatzeko?

- Agmundren etxerako bideko zakarrontzi batean, plastikozko poltsan, kirol-jertse odolduan bilduta aizto odoldua zegoen. Odola Bihon Dahl irakaslearena da, eta aiztoan Jannickeren hatz-markak daude. Hatz-markak nabarmenak dira. Agerikoak dira. Inondik ere ezin da libratu.

- Kirol-jertsea norena da?

- Jannickerena.

- Nola dakigu hori?

- Jannickeren DNAz beterik dagoelako.

- Nola jakin da Jannickeren DNA dela?

- Hiru-lau galdera egitera joan ginen bere etxera. Bisita horretan Agmundr eta Agathe ere bazeuden. Jannickek sorbaldan ile bat zuen, eta kendu eta lurrera botatzeko aitzakiarekin poltsikoan gorde nuen. Hortik dakigu Jannickeren DNA dela.

- Hori ezin da frogatzat erabili.

- Egia da, baina DNA jakiteko baliagarria izan zaigu. Bide legalari jarraituta hartuko diogu DNA.

- Txostenean Bihon irakaslearen hiltzailea ezkertia dela diozu; zelan dakigu Jannicke ezkertia dela?

- Bisita horretan trikimailu zahar bat erabili nuen.

- Zein?

- Pilotarena.

- A, bai.

- Besterik?

- Bai. Gaurko prentsaurrekoan Jannickeren kontua bakarrik azalduko dugu. Mary Nicizanyerena beste baterako utzi beharko da. Agmundrek kezkatzen nau. Baina honekin guztiarekin ez dauka irtenbiderik. Polizia baten kontra egin dute, eta gainera bere alabak alde egiteak ez dut uste lagunduko dionik. Bere karrera politikoak lurra jo du. Alderdi kontserbadorekoek bertan behera utziko dute, ez dute nahi izango kontu honetan nahastatzea. Dena den, ikusi beharko da gurekin zer egin nahi izango duten, zeren kontua ez baita Agmundr alde batera botatzea, Agmundren taldearen kontrako mugimendu bezala ulertuko dute; hau da, guk euren aurrean ez dugula men egin; horrela ulertuko dute, eta, hortik, egon ziur zerbait astuna etorriko zaigula. Dena den, zentzuz jokatu duzu, eta ikerketa horrela eramateak zure alde egingo du.

- Badakizu gure jokamoldea zein den.

- Mary Nicizanyeren kasua amaituta dago?

- Atxilotu berri dugun afrikarra talde burua dela uste dugu. Uste dugu, halaber, talde hori osatzen zutenak hiru zirela. Atxilotu dugunak beste biak hil dituelakoan gaude. Laster hasiko gara galdeketa egiten, baina horren aurretik ospitalera joan beharko dut.

- Ondo. Orain goazen prentsaurrekora. Laster amaituko dugu, ospitalera lehenbailehen joan zaitezten.

- Bai, horrela egitea nahi dut.

Egunean ehunka aldiz gertatzen zen bezala beste behin, Irrati-telefonoa deika hasi zen.

- Haakonsson, hor zaude?

- Bai.

- Dagny naiz.

- Esan, Dagny.

- Semaforo batean harrapatu dugu.

- Jannicke bera bakarrik?

- Ez. Automobilean gidari bere adineko mutila.

- Ekarri bulegora. Kapitainarekin nago hemen.

- Oraintxe goaz.

Haakonssonek bala kokatuta zuen aldean min itzela zuen. Apenas ordu bete lehenago hartutako lau pilulek ez zioten jada mina kentzen. Beste bi sartu zituen ahora, eta mahaiaren atzealdean zuen ur botilatik zurrutada bat edan zuen irensteko. Kanpoan denboralea oldartu zen une batez.

hamar

- Honi ez dago ezer ateratzeko erarik. Kolpeka handituta ere, ez diogu ezer aterako.

- Utzi nire kontu, honekin hitz egingo du eta.

- Zer da ba hori?

- Zirkuluetan burundanga bezala ezagutzen bada ere, izatez eskapolamina da.

- Eta zer egiten du horrek? - Haakonsson komisarioak Sikkerhetstjenesteko lagunari galdetu zion.

- Oraintxe ikusiko duzu. Substantzia honek beste gauza on bat ere badauka; ikusiko duzue, guk hemendik alde egin orduko ez dela gertatu denaz ohartuko. Gainera, ez da inolako analisi farmakologikotan agertuko. Odolean, azazkaletan zein ilean ez du arrastorik uzten. Zentzumenak hutseratu egiten ditu. Hitz eginarazteko erabiltzen diren beste era batzuk badaude, ostiaka handitzea,

egiaren injekzioak, bainuontzia, poltsa buruan, eta beste asko, baina horietarako prestatuta egon daiteke. Talde berezietakoak horrelakoei eusteko prestatuta egoten dira. Eskapolaminarekin ez dago horren arriskurik. Oso ona da. Berehala hitz egingo du, eta gainera ez du inolako markarik uzten. Ikusiko duzue.

- Hilik agertu zen lehen beltzari analisisietan aurkitu zioten, ba!

- Bai, baina eskapolamina eman eta segundo gutxira hil zelako. Horregatik agertu zitzaion odolean. Bizirik jarraituz gero, arrastoak berehala desagertzen dira.

Sikkerhetstjenesteko lau pertsona zeuden galdeketaren ardura hartuta, Haakonssonekin bideokonferentzia izandakoa, bere laguna, buru zela. Agindua goitik zetorren, eta inspektoreak ikusle bezala egoteko soilik zuen baimena.

Sikkerhetstjenesteko gazteena zenak hurbilduko zion eskapolaminaz bustitako zapia sudur ondora. Hiru segundo pasa ondoren hasi zen galdeketa.

- Zein da zure izena?

- Hakizimana.

- Abizena?

- Anubatn.

- Zenbat urte dituzu?

- Hogeita bost.

- Nongoa zara?

- Burundikoa.

- Zein arrazatakoa?

- Hutua.

- Non jaio zinen?

- Buyumburan.

- Aitarene izena?

- Hakiziwana.

- Amaren izena?
- Eynawizi.
- Abizena?
- Anhziba.
- Ama eta aita bizi zaizkizu?
- Ez.
- Nola hil ziren?
- Zoritzarreko heriotza izan zuten.
- Nola hil zen ama?
- Aitak hil zuen.
- Nola hil zen aita?
- Neuk hil nuen.
- Zenbat urte zenituen?
- Hamabost.
- Zertan lan egiten duzu?
- Segurtasun-indarretakoa naiz.
- Zein da zure aginte maila?
- Lotinanta.
- Hona etortzeko zein izan da zuon agindua?
- Terrorista bat hiltzera bidali gaituzte.
- Nor?
- Mary Nicizanye.
- Zergatik diozu Mary Nicizanye terrorista dela?

- Gure gobernuaren kontrako herri antolaketan lan egiten duelako.
- Baina Maryk norvegiar nazionalitatea dauka.
- European bizi diren tutsiak antolatzen ibili izan da.
- Mary Nicizanye hiltzeko agindua nork eman dizue?
- Gure gobernuak.
- Nola jakin duzue Mary Nicizanye tutsiak antolatzen ibili izan dela?
- Ez dakit. Agindua goitik etorri zaigu.
- Zenbat etorri zarete ekintza burutzera?
- Hiru.
- Non hil duzue Mary Nicizanye?
- Søndre Nordstrandeko etxe batean.
- Etxe horian?
- Bai.
- Eta gorpua zergatik eraman zenuten hiriaren beste aldean dagoen lubakira?
- Lau haizetara zabaltzeko lubakiak esan nahi duena. Horixe gertatuko zaie gure kontra dabiltzan guztiei.
- Zergatik hil duzue estokearekin?
- Animaliak horrela hiltzen ditugulako.
- Norvegiara nondik sartu zineten?
- Portutik.
- Nola heldu zineten portura?
- Itsasontziz.
- Zein itsasontzitan?
- Kyram.

- Bandera?
- Panamakoa.
- Non sartu zineten itsasontzira?
- Kanaria Handian.
- Zein egunetan heldu zineten Oslora?
- Aurreko asteko asteartean.
- Noren laguntza izan duzue hemen?
- Lagun batena.
- Zein da bere izena?
- Icyn.
- Abizena?
- Ywzy.
- Non bizi da?
- Søndre Nordstrand auzoan.
- Søndre Nordstrand handia da. Kalea eta zenbakia?
- Ez dakit.
- Nola jarri zineten berarekin harremanetan?
- Telefonoz.
- Zein da bere zenbakia?
- Buruz ez dakit.
- Non daukazu idatzita?
- Telefonoan.
- Non daukazu telefonoa?

- Apurtu egin dut.

- Emadazu sakelako telefonoaren zenbakia!

Zezeldu gabe eman zion telefonoaren zenbakia.

- Elementu horrek zertan lan egiten du?

- Ez dakit.

- Garaiera?

- Nirea.

- Ilea?

- Nirea bezalakoa.

- Begiak?

- Nireak bezalakoak.

- Sudurra?

- Nirea bezalakoa.

- Argala edo lodia?

- Ni bezalakoa.

- Zure bikia da, ala?

- Ez.

- Zure antza du orduan?

- Bai.

- Norvegiatik nola irtengo zara?

- Etorri ginen bezala.

- Itsasontzi berean?

- Bai.

- Itsasontzian harremana norekin duzue?
- Kapitanarekin.
- Kapitaina eta nor gehiago?
- Berarekin soilik.
- Itsasontziko zein aldetan etorri zarete?
- Gela bat genuen geuretzako bakarrik.
- Non daude beste biak?
- Hil egin ditut.
- Zergatik?
- Aginduak.
- Nork agindu dizu zure beste bi kideak hiltzeko?
- Goikoak.
- Zelan dauka izena goikoak?
- Ydnurik.
- Abizena?
- Utnab.
- Zein da bere aginte maila?
- Lotinant koronela.
- Noiztik ezagutzen duzu?
- Militar-eskolatik.
- Zenbat urterekin sartu zinen militar-eskolan?
- Hamaseirekin.
- Militar-eskolan zein zen Ydnurik Utnaben lana?

- Espioitza irakaslea zen.
- Orain ere ardura horretan dabil?
- Ez.
- Zertan dabil orain?
- Esan dizut.
- Zer esan didazu?
- Mary hiltzeko agindua eman digula.
- Zein egoitzatan lan egiten du?
- Gobernu egoitzan.
- Nork gehiago egiten du lan han?
- Ez dakit.
- Zergatik ez dakizu?
- Gu ez gara hara sartzen.
- Zenbat urtetan egon zinen militar-eskolan?
- Bi urte.
- Zein izan zen zure lehen lana?
- Herrietara joan eta tutsiak hiltzea.
- Zenbat denbora eman zenuen horretan?

Haakonssonek Sikkerhetstjenesteko buruari irteteko esan zion. Bien bitartean, afrikarrari pentsatzeko betarik eman gabe, galdeketa egiten zegoenak automata bezala jarraitzen zuen itaunak bata bestearen atzetik botatzen.

- Leif, nik nahikoa dut. Aitortu du berak hil dituela beste bi kideak. Aitortu du baita nola heldu diren, eta nola alde egin nahi zuen ere. Aitortu du eurek izan direla Mary Nicizanye hil dutenak. Eta aitortu du, halaber, laguntza eman dion hemengoak nolako itxura duen. Oraintxe aginduko diot marrazkigileari lanean hasteko. Gainera, bere telefono zenbakia eman du. Hodeian dituenak akaso ezin izango ditugu

lortu, baina deirik egin izan badu jakingo dugu nori egin dizkion. Nik hemengoa amaitu dut, hemendik aurrera, dena zeuontzat. Txostena prestatuko dugu, eta jarraian fiskalari emango diogu. Laster da etortzeko eta jarraian zuongana aginduko dut.

- Oso ondo, Ebbe. Guk atera diezaiokegun guztia ateratzeko geurean jarraitu beharko dugu.

- Hori zuon kontua da.

- Ez dakit hemen noiz arte egongo garen. Baliteke gaur bertan geure egoitzara eramatea.

- Zuok ikusi –Haakonssonek.

- Mila esker.

- Horrela egin beharko.

- Ondo.

- Bai. Zerbait gehiago beharko bazenu badakizu nirekin harremanetan nola ipini zaitezkeen. Bulegoan ez banago badakizu nire telefono zenbakia zein den, ezta?

- Bai.

- Adio.

- Agur. Aizu, Ebbe, beste gauza bat: baliteke laster elkar ikustea.

- Zer ba?

- Susmoa dut falta den hori harrapatzeko aginduak etorriko zaizkigula.

- Bien bitartean beti bezala.

- Ados.

- Bon.

- Bai.

Haakonsson inspektorea sototik bere bulegora heldu zenean, berea zen besaulkian Gulbrandsen detektibea zegoen eserita. Bere horretan utzi zuen, eta mahaiaren aurrean zeudenetako batean eseri zen. Gulbrandsenek altxatzeko mugimendua egin zuenean, Haakonssonek ezetz esan zion, zegoen lekuan jarrai zezala.

- Kaixo, Ebbe!

- Zer berri?

- Zientifikokoek zerbait bidali digute.

- Zer da?

- Hilik agertutako azken afrikarraren adn-a eta Nora Williamsek azazkaletan izandako azal hondarrena berdina dela.

- Burundiko talde ibiltariaren hemengo laguntzailearen berririk?

- Bai. Badakigu nor den eta non dabilen. Gizarte segurantzaz ez da agertzen inongo lanetan dabilenik. Une honetan portuan dabil bueltaka, eta begira gaude ea norekin ipintzen den harremanetan. Nor den jakin dugunetik gabiltza bere atzetik, eta aurkitu dugunean autoz heldu da portura. Autoa ez dago bere izenean, emakume baten izenean du.

- Emaztearen daturik?

- Auzo aberatseko etxe batean lan egiten du.

- Noren etxean?

- Horretan gabiltza.

- Emaztearen izen-abizenik?

- Horretan gabiltza; dena den, laster jakingo dugu. Izan ere gizonaren izena eta abizena badakizkigu, eta egiazkoak dira, hemengo nazionalitatea dauka eta. Bestalde, egiaztatzen ari gara ea autoaren andrazko jabea eta beste hori pertsona bera diren.

- Bon.

Haakonssonen taldea betiko martxan zebilen. Orduak bakarrik beharko zituzten Burunditik etorritako hirukote ibiltariaren Osloko laguntzaileari jazarpen estua ipintzeko. Nondik norako mugimenduak zehatz-mehatz jarraituz zihoazen minutuak. Zaintza zorrotzean, segurtasun neurri guztiak hartuta, talde osoa zebilen.

Afrikarra gaueko hamar eta erdietan helduko zelako alarma jo zen. Goizaldeko bostak arte ezin zuten ezer egin; hala eta guztiz ere, hamarreko taldea bertaratu zen, dena kontrolpean izatea nahi baitzuten, alegia, horixe izan zen hain garaiz bertaratzearen arrazoia, talde ibiltariaren laguntzaileari zegoen

lekutik irteten ez uztea. Haakonsson inspektorea, Dagny Gulbrandsen detektibea eta Yndag kapitaina ere besteekin batera heldu ziren. Yndag kapitainaren aginduei jarraituta, etxearen ingurua hartzera binaka sakabanatu ziren. Beste hiru berdintsuri itsatsita zegoen etxea bost solairuko eraikina zen. Orotara eta angeluzuzena egitera, lau zenbaki ziren elkarri lotuta zeudenak, gainerako ingurukoetatik bakanduta. Itxura batean zaintzea erreza izango zela ematen bazuen ere, ezinezko zitzaien ziurtasun osoa izatea, ezen halako pertsona batek edozein gauza egiteko prestakuntza izan baitzezakeen. Erne egotea eta itxarotea horixe zen egin beharrekoa. Haakonsson automobilak utzi lekuan zegoen zutik, makuluak lagun zituela. Bakarrik zegoen, lepoa, erosoago egotearren, Tesla zaharraren kontra jarrita. Automobilaren aldean, luzetara, porlanezko blokez eginiko hormak, fiordotik etor zitezkeen enbatak saihesteko izaten zenak inguruari babesa ematen zion, nahiz eta hormak inguruari errefuxiatuen esparru itxura ere ematen zion.

Bat-batean, Haakonsson inspektorea adi geratu zen. Hesiaren bestaldetik zarata bat entzun zuen. Zarata leuna izan zen, norbaitek zapatarekin abarra hautsi izanaren antzerakoa. Hesiak beste aldean zegoena ikustea eragozten zion. Makulu bata autoaren kontra utzi ondoren, instintiboki egin zuen hesia amaitzen zen alderantz. Bidean arma esku batekin hartu zuen eta bestearekin kargatu. Bere onetik ateratzeko gutxi falta bazitzaion ere, ahalegindu zen atzamarrak lasaitzen. Ezin zuen. Pisu astunari eusten dion kablea baino tenkatuago zituela irudikatzen zuen. Hesia amaitzen zen lekura heltzear zegoen. Beste abar txiki bat hautsi zen norbaiten oinetan. Aurpegi bat soslai. Glock-az destatu zuen. Soslai agertua barreka hasi zen.

- Baina, Ebbe, hori itxura hori!

- Baina zer kaka mokordo, hilik amaitzea nahi duk, ala?

- Lasai, Ebbe!

- Zer lasai eta zer ostia!

- Ez hindudan artegatu nahi, baina guztiz kontrakoa gertatu dek!

- Hik ez dakik sarekada baten erdian eta gauez ezin dukeala horrelakorik egin?

- Hik ezagutzen dituk gure mendietako azeriak?

- Zer dakark, ostera?

- Azeriek ez ditek zaratarik egiten. Egitekotan ere, harrapakina non zegon jakiteko izaten duk.

- Usaimena nahiko ez, ala?

- Haizea aurrez izatean atzekoa usaintzeko ez.

- Zer egiten duk hemendik?

- Badakik, esan nian, aginduak betetzen! Beste gauza bat; abar hautsiaren zarata nahita egin diagu. Ez duk kasualitatea izan.

- Ni artegatzearren?

- Bai, horrexetarako!

Sikkerhetstjenesteko beste bi elementu zetozen atzetik. Haakonsson lasaitu zen. Aspaldiko ezaguna zuen Leif aurreratu zitzaion ondoan ipintzeraino.

- Zer moduz Ebbe? - esan zion besoan eskuarekin fereka egiten ziola. Elkarrenganako estimu handiaren seinalea zen.

- Hemen nagok makuluen laguntzarekin!

- Ezin baja hartu?

- Gurea odolean sartuta zagok!

- Neuri ere gauza berdina gertatzen zaidak!

- Askori!

- Berriro elkartu gaituk!

- Martxa honetan izatezko bikotea!

- Hala ematen dik!

- Ez ezak ezer esan, bazekiat! - Haakonssonek.

Tesla zaharra zegoen lekura bueltatu zirenean Yndag kapitaina hurbildu zitzaien. Leifi begira hizketan hasi zitzaion.

- Zer egiten duzue zuok hemen? Hau gure operazioa da!

- Ez dut uste, Yndag kapitaina.

- Zelan ezetz?

- Operazio hau Sikkerhetstjenestekook gidatuko dugu.

- Noren aginduarekin zatozte?

- Barne Arazoetako Ministerioaren agindua da.

- Bai, kakalardoaren adarrak! - Yndag kapitainak erabat mindurik bota zion- . Orain arte zergatik ez dit inork ezer esan?

- Ez dakit, hori ez da nire kontua. Sobera ere badakizu gu biok gradu berekoak garela.

- Jar nazazu zure arduradunarekin, agindu hau baieztatu nahi dut eta.

- Ondo. Oraintxe ipiniko zaitut.

Agindua goitik zetorren eta agindua zen.

Leif ez zen atsekabetu. Ez zeukan horretarako arrazoirik. Jakinaren gainean zegoen Haakonssonen nagusia, Yndag kapitaina, nolakoa zen. Yndag kapitaina umore onean egonda ere, instant batean jar zitekeen haserre; historiko jartzearaino hel zitekeen. Horretarako, nahikoa izaten zuen norbaitek huskeriaren batekin kontra egitea berehalakoan sutsu jartzeko. Hala ere, ez zituen haserrealdi luzeak izaten. Histeriara heltzen zen bezain erraz egiten zuen bere onera, eta barre algarak botatzeko gaitasuna agertzen zuen. Psikiatria kontuak.

Kapitainak, ekarri zuen autoa bortitz gidatuz, ingurutik haserre bizian alde egin zuen. Haakonsson eta Leif elkarri begira eta mozolo aurpegia jarrita bakarrik geratu ziren.

Leifek poltsikotik Marlboro paketea atera zuen, eta zigarro bat ahora eraman ondoren, piztu.

- Hi, zertan ari haiz! Ezin duk zigarrorik piztu! Segadaren erdian gaudek, hi!

- Arratoia habian zagok, eta irteteko etzeukak irtenbide bat baino.

- Hala ere, ezin duk inguruan alarrik jo.

- Hemendik ez dituk etxeak ikusten.

- Berdin duk.

- Hi, ederra egin diok epaileari!

- Nik? bere alaba izan duk.

- Ezin begiratu beste aldera.

- Nik ez diat horrelakorik egiten.

- Nik neuk ere ez, baina askok bai.
- Zin egin genian horrelakorik ez egiteko.
- Hala duk bai. –Leifek zigarroari zupada ematen ziola.
- Erratza erabili beharko diagu.
- Nor ausartuko duk?
- Denon artean egin beharko diagu.
- Hi, beste gauza bat.
- Zer?
- Beltzak beste kontu bat ere aitortu dik.
- Zein?
- Bihon Dahl irakaslearen ordenagailua, eurek lapurtutakoa.
- Non zagok?
- Itsasoan.
- Bon.

Eraso-indarretako taldea furgioan bertaratu zen. Leif hurbildu zitzaien, eta Haakonssoni agur egin ostean, afrikarra zegoen etxerantz zuzenduko ziren.

Goizaldeko bostak eta oraindik ilun. Hots metalikoa, idorra. Halako zarata Glock batek soilik atera zezakeen. Haakonsson zegoen ingurura beste bi hots lehor heldu ziren. Hotsa bestelakoa bazen ere, ezagun egin zitzaion. Halako hotsak ekar zezakeen ondorioa haragian pairatu zuen bi aldiz; 77B pistolarena bakarrik izan zitekeen.

Segada etxetik Haakonssonen ingurura bere taldekoak heltzen hasi ziren. Lehenengo taldean Gulbrandsen detektibea heldu zen.

- Hilik?
- Ez.
- Inor zauriturik?

- Ez.
- Icyn Ywzy?
- Zaurituta baina bizirik.
- Bon.
- Ebbe, kapitaina ez dut ikusi, non den?
- Alde egin du.
- Zelan alde egin duela?
- Sikkerhetstjenestekoen agintearekin haserre. Badakizu eguzkia ikustea gustatzen zaiola.
- A! Hori da.
- Horixe bakarrik.
- Ospea eta aintza berarentzat soilik, eta horrela ez bada, haserre.
- Betikoa.
- Bai, betikoa.
- Gerizpea egin diezadakeen guztia paretik kendu behar.
- Bai, urrutitik hobeto ikusteko izaten da hori, ezta?
- Horrexetarako, hain zuzen ere!
- Merituetatik ezin denean, jendeak ondo ikusteko argazkian aurrean agertu behar.
- Horrek daukan meritu bakarra bere amak hortxe ipiniarena da.
- Besterik ez du ekarri, ez dauka eta.
- Karrera egiten.
- Bai, lana argazki bihurtu.
- Banaka batzuek horrexetarako erabiltzen dute.
- Tamalez!

- Erratza?
- Enurarik gabe.
- Handia?
- Antzina kortak garbitzeko erabiltzen zen txilarrezkoa.
- Hobe horrela!
- Zalantzarik?
- Ez!

Arratsaldeko seiak eta bost zirenenean, iluntzeari ezohiko susmoa hartzen zitzaion Oslo-Lufthavn aireportuan. Hegazkineko hirugarren ilaratik begi-bistan, erlantz gorrixka lagun zuen eguzkia azken hasperenean zihoan sartalderantz, istant batean itsaso zabalaren besoetara jausteko. Goian, zurixkekin nahasian, urdin-ilun, laranja, gris eta arrosa koloreko errezel difuso zapalak ipinita. Barrukoaren baitan sentimendu kontrajarriek indarrez elkar jotzen ziharduten; portu aldean zeuden zazpi balkoien gomuta haritz zaharraren desiraren kontra jaurtitzen zen bortizki errukirik gabe. Mwezi anderea eta Yamwezi Nicizanye mutikoa irribarrez. Nora Williamsek begiak batuko zituen motor burrunbatsuen goranzko indarrean.

Arratsaldeko seiak eta bostean, iluntzeari ezohiko susmoa hartzen zitzaion Oslo baketsuan. Langelako mahaiaren ondora heldu zenean, Ebbe Haakonssonek makuluak jesarlekuaren aldamenen utzi zituen. Eseri zen. Ebakuntza egin ziotenetik ordu batzuk eskas igaroak ziren, eta medikuak emandako pilulen laguntzarekin nekez egiten zuen aurrera. Oroz gain, aurpegian nabaritzen zitzaion oporrak behar zituela. Sauna desiratzen zuen, eta igeri egitea. Horixe bakarrik. Ez zuen laket gogoratzea zaila egingo zitzaion ez zekien zein lekutara egun batzuetarako joatea. Haltzak erreka bazterrak ditu laket abestia gogora ekarri zuen. Mutiko batzuek abesten zutena zen; bere semea tartean. Lehen ahaleginetan ziharduten talde berriak gogoko zituen. Sineste kartsuz beteriko gazteak hain ziren indartsuak, borondate trinkodunak, ofizioa ikasten etorkizunez blai jantziak. Ustekabean, beste abesti bat etorri zitzaion hegan. Harrapatu zuen. Tabernari andrearekin izandako solasekoa zen. Berarekin egoteko desira sartu zitzaion; kafe bat eta berriketarako, jakina. Besteak, naufrago bakartiak bezala, sasoi hobea itxaron beharko zuen. Ez zuen uste adin kontua izan zitekeenik. Zer ziren hamar urte bizitzaren handitasunean. Tristeziak bere borondatearen kontra alkandora jarriko ziolakoan, bertakoen begiradei

ez ikusiarena eginez kanpora atera zen. Eskailburuan aurre aldeko karrika aire artega eta astunez behatu zuen. Bi kasuei, bi bala madarikatuei, ebakuntzari eta mina kentzeko pilulei bota zien errua. Telefonoa piztu zuen. Hainbat dei erantzun gabe. Bere urtebetetzea zela otu zitzaion. Horregatik izango ziren hainbeste eske. Gerorako utzi zituen. Afaltzeko izokina gatzetan eta ardo zuriaren apetarekin zopatuko zen. Supituan portura joateko gogoa piztu zitzaion; kresala usaindu, arnasa sakon hartu, arrantzaleen artean galdu, eta gautxoriak entzun... Behingoz harantz zuzendu zen.